

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Urnieta*



Aurkibidea

# Udalerria: Urnieta

## Sarrera



Donostiako Eskualdean dago Urnieta herria, Donostia, Hernani, Usurbil, Orio, Lasarte-Oria eta Astigarragarekin batera. Toki menditsua da, eta lau auzotan banatzen da: Oztaran, Ergoien, Goiburu eta Lategi. 1986. urtea arte, Lasarte-Oria herria sortu zen arte, askoz zabalera handiagoa zuen: Oria Urnieta eta Andoain herriena zen. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da. Argazkia: Urnietako Udala.

- **Biztanleak:** 6.166
- **Euskaldunak:** %51,0

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **38**
- Zintak: **38**
- Pasarteak: **883**
- Transkribatutakoak: **156**
- Audioak: **22**
- Bideoak: **860**

## Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Dialektologia-EHU
- Erditzea erdigunera: begirunea eta indarkeria gorpuzten dituzten bizipenak
- Euskal Herriko Ahotsak

## Hizlariak

### **Mertxe Almortza Goñi (1919-2017)**



Eibarren jaio eta berehala Urnietara ekarri bazuten ere, urnietar baino gehiago sentitu izan du bere burua eibartar. Bizitza gogorra izan zuen Urnietan. Alaba bakarra. Gerrako kontuez ederki gogoratzen da, familian bertan bizitu baitzuen jazarpena. Senarra eta aitagarreba harakinak zituen, eta aita ere bai. Bost urte zituenerako, etxeo txerriak hartuta Hernanira egiten zituen joan-etorriak gogoan ditu. Hamaika urte zituenean, bere izebak erabakita Madrilera bidali zuten bakar-bakarrik, hango beste izeba batek zerbait erakutsiko ote zion pentsatuta. Baina ez zen nahi ordurako etorri. Gutxi iraun zuen han eta hona etorri eta urte batzuetara gerrak une zailak pasarazi zizkion. Senarra kartzelaratua, aitagarreba eta koinatua fusilatua, jarraituak... Hamabost urterekin Andoaingo Muñagorrirenean pasatu zuen hilabete etxetik kanpora. Urnietan bizi izan da beti.

### **Miel Almortza Leizeaga (1926-2014)**



Aita Almortza baserrikoa zuen eta ama Santiyoene baserrikoa. Bera, berriz, Lategi auzoko Beasaburu deitzen dioten baserrian jaio zen. Baserriko lanetan txikitatik ikasi zuen eta Beasaburun izaten zituzten lanez gain, Almortza baserria ere beraiek hartua zuten helburu bererako. Sei urterekin eskolan ibili zen eta Urnietan ohikoa zen bezala, hiru "komunio" egin zituen. Ezkongabea da eta Urnietan, kalean bizi izan da azken urteetan.

### **Jose Altuna Intxausti (1926-2013)**

Urnietako Galarraga baserrikoa. Sagardogilea.

### **Arantxa (1965)**

Urnietan jaio zen, baina Tolosan bizi da. Autoeskolako irakaslea da urte askoan.

### **Agurtzane Arizmendi Txapartegi (1933)**



Urnietan jaio zen eta gurasoak ere bertakoak zituen biak. Lauzpabost urterekin hasita moja frantsesekin ikasi zuen. Eskolatik atera zenean, josten ikasten hasi zen izebekin. Izebak herriko jostun ezagunenetakoak zituen eta "alfa" makina bat propio erosi omen zuten beretzat. Bordatzeko ikastaro bat opari eman zioten makina erosteagatik eta gustura ibili zen Donostian lan horretan trebatzen. Jantziak errematatzea eta bordatzea zen bere gustuko lana eta hogeita bi urterekin Donostian aritu zen horretan lanean. Enkarguz eskatutako ezkontzako doteak ere egiten zituen berak. Hogeita hamaika urterekin ezkondu zen Andoainera eta geroztik bertan bizi izan da.

### **Miel Arrieta Bideburu (1931-2020)**



Urnietako Goiburu auzoko Legarralde baserrian jaio zen. Zortzi senidetan gazteena zen eta gogoan du nola joaten zen bere aitarekin ardiak zaintzera Arano aldeko mendietara. Ostarbeko etxola zuen izena mendian zuten artzain-borda hark eta aitona eta aita bezala bera ere artzaina izan zen harik eta artzaintzarako baliatzen zituzten mendi haietan pinu-landarea sartu zuten arte. Artzaintzaz gain, basolanean ere ibili zen, Andoaingo telleri-fabrikari eta azkenik Donostian lorategi zaintzen ere bai.

### **Axun Atxaga Fernandez (1939)**



Urnietako Etzabaltzar baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen 28 bat urte bete zituen arte. Zazpi senide ziren eta bera gazteena zen. Ilobak zaintzea tokatu zitzaion urte askoan eta gero Hotel batean eta Aieteko etxe aberats batean lan egin zuen, azken honetan sukaldari lanetan. Sendabelarrekin fede handia izan du, ahizparekin batera landutako eta probatutako afizioa hauxe. Urnietan Zelai alden bizi izan da azken urteetan.

### **Maria Josefa Atxaga Fernandez (1926-2012)**

Urnietako Azkarate baserrian jaio zen eta hamar hilabete zituenean Etzabal baserrira aldatu ziren gurasoak familiarekin. Bertan bizi izan Agerre baserrira ezkondu zen arte. Hernanin ere bizitu ziren hamahiru hilabetez, beste familia batekin batera sukaldea elkarbanatuz. Handik berehala itzuli ziren, ordea, Urnietara eta Zelai alden jarri ziren bizitzen. Kalearekin hartu-eman handia izanagatik, baserriarekin lotura handiagoa izan zuten beti. Bere kontura, sendabelarrak erabiltzen ere ikasi zuen eta hainbat gaixotasunen erremedio eske joan izan zaizkio inguruko asko.



### **Praxku Belauntzaran San Sebastian (1929-2017)**

Urnietako Eizmendi baserrian jaio zen, hamar senidetan zaharrena. Aita urnietarra zuen eta ama, berriz, Abaltzisketakoa. Bola-jokoan ibiltzea izugarri gustatu izan zaio eta ehiztari amorratua izan da. Praxkuk ederki ezagutzen ditu Urnietako mendiak, baita herriko lur azpiko ur-instalazio guztiak ere. Izan ere, lan askotan jarduna bada ere (morroi, besteak beste), baserrirako gogorik ez omen zuen inoiz izan eta igeltsero sena hain barneratua izanik, Urnietako Udalarentzat lan egiteko eskatu zioten gaztea zela. Hasieran zenbait mantentze-lan txiki egiten hasi bazen ere, gero herriko uren kargua eman zioten eta, azkenik, ehorzle (enterradore) lana ere bai. Oraindik ere Udaletxetik laguntza noiznahi eskatzen omen diote eta berak, ahal duen neurrian, gustura laguntzen omen du. 2009an Urnietako Udalak eta Iñistor elkarteak "Urnietar prestu" izendatu zuten.



### **Ibon Egaña Etxeberria (1981)**

### **Angela Garmendia Arrieta (1927-2022)**

Jaioz geroztik 22 urte bete zituen arte, Urnietako Poxentarri baserrian bizi izan da. Hiru anaia eta sei ahizpa zituen (guztira 10 senide ziren). Poxentarri baserri txikia zela gogoratzen du Angelak. Xoxokako eskolan ibili zen sei urtetik 12ra arte eta ongi gogoratzen du 16 urterekin bileratara nola joaten ziren. [Xanti Lasarte](#)rekin ezkondu eta 10 seme-alaba izan dituzte.



### **Juanita Garmendia Arrieta (1922-2012)**



Urnietako Posentarri baserrian jaioa, Goiburu auzoan. Urnietakoak zituen gurasoak. 10 senidetan zortzigarrena zen, eta neskame ibili zen ume-umetatik: 12 urterekin Hernanira bidali zuten. 14rekin, Donostiara umezain; gerra hasi zenean, baserrira itzuli zen, eta 18rekin berriro joan zen Donostiara, beste etxe batera zerbitzatzera. Donostian bizi da ordutik. Uranga tabernan lanean ibili zen, ezkondu aurretik. Gero, fruta eta oilasko postua izan zuen 15 urtean, Bretxako azokan. Londres hotelean ere jardun zuen lanean, plantxatzen eta josten.

### **Bixi Garmendia San Sebastian (1916-2015)**



Urnietan jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Aita herriko aguazila zuen eta ama, berriz, "telefonista". Ama bereziki langilea zela du gogoan; askotan, amak lanean laguntza behar izaten zuenean, hainbat baserri eta etxetara mezuak helarazteko lana jartzen zion Bixiri. Amak Urnietan pentsu-biltegi bat ere zuzentzen zuen. Oso txikia zelarik, herriko beste etxe batera eraman zuten Bixi bertako familia dirudunak haz zezan. Mikaela-enean ez zuen ezeren faltarik izan, baina hogeitau urte zituela handik ateratzea erabaki zuen. Ezkondu eta bost alaba izan zituen. Gerraurrean, Batzokiaren inguruan biltzen ziren beste lagun batzuekin batera antzerkian aritu zen, baina gerra hasi zenean, han bukatu ziren obrak.

### **Antonio Garmendia Sestao (1915-2009)**

Zestogilea izan da. Gaztainarekin hotzean egiten zituen zestoak. Bere ofizioa erakusten ere ibili izan da.

### **Nati Garmendia Ubillos (1929)**



Urnietan jaio zen, Idiazabal kaleko "Txapel" tabernan. Natiren amak egiten zuen bertan lan eta Nati berak ere asko lagundu izan zion hari. Jatekoa izaten zuten saltzeko eta bazkari eta afariak ere ematen zituzten. Sei seme-alabatan gazteena zen Nati eta ikasketetan gurasoek laguntza handia eman zioten. 17 urtera arte Batxilergoa ikasi zuen eta Valladolidera ere joan zen azken azterketak egitera. Hortik aurrera, ordea, ezin izan zuen jarraitu. Ezkondu aurretik zazpi urtez bulego batean lanean aritu zen, baina ezkondu eta gero etxekoandre-lanetan aritu zen. Janari-denda bat ere zabaldu zuten Urnietan bertan. Gerra hasi zenean, familia guztiak Aiara joan behar izan zuen segurtasun bila.

### **Jose Igerategi Santa Cruz (1927-2023)**



Urnietako kalean jaio zen eta txikia zela Idiazabal kalean Matxo taberna ireki zuten bere gurasoek. Aitaren izengoitia zen "Matxo", baina Joseren ustez aitak ez zuen batere gogoko edonork horrela deitzea. Zazpi urterekin eskolan hasi bai, baina tabernako lana zela-eta, ezin izan zuen asko joan. Ikasketarik ez izan arren, lanean ongi ikasia, Hernanin hasi zen zerrategi batean arotz. Lan hura, ordea, neketsua zen gorputzerako, eta ondoko tailer batera joan zen egur-tailan ikasteko gogoia zuela esanez. Han hartu zuten soldadu joan zen arte, eta itzuli zenean, lanik ez zutela esan zioten. Baina han ikasitakoak geroko lanetan ere bidea ireki zion; izan ere, beste tailer batzuetatik pasatu ondoren, aitak zerrategia ireki zuen eta Jose hasi zen han lanean. Gerora, zerrategi hura utzi egin behar izan zuen; oraindik martxan dagoen beste zerrategi bat ireki zuen orduan eta bertan eman ditu azken urteak.

### **Kontxita Igerategi Santa Cruz (1931-2014)**



Urnietako Matxo tabernan jaio zen eta Urnietan bertan bizi izan da ia beti. Bere aita zenari deitzen zioten "Matxo", baina ez edozeinek, aitari ez baitzitzaien ezizena asko gustatzen. Gurasoak etxetik aldatu ziren bera jaiotzerako eta taberna ireki zuten Idiazabal kalean. Ama andoaindarra zuen eta aita urnietarra. Sei senideren artean gazteenaren aurrekoa zen bera. Sei urtetik hamalaura arte Urnietako eskola publikoetan ibili zen. Hala ere, etxeko lanetan gogor aritu behar izaten zuen eta gustatu ere egiten zitzaion. Hogeita sei urterekin ezkondu eta Hernanin bi urtez bizi izan baziren ere, Urnietara joan ziren berehala han gelditzeko.

### **Isidro Igoaran Elustondo (1934-2022)**



Lategi auzoko Egurrola baserrian jaio zen, gaur egun Eula sagardotegia duten etxean. Sei senide ziren eta hurbiltasunagatik Hernaniko Arriatsuko eskolara egin zuten lehen urteetan. Berak 8-9 urte zituela, ordea, Andoaingo La Salle ikastetxean sartu zuten. Gogoan du urte inguru horretan sagar urte ikaragarria izan zela. Hamaika urterekin eskola utzi egin zuen, etxean lan asko izaki. Sagardoa betidanik egin dute eta orain ere lan asko egiten dute horretan. Urnietako zinegotzi ere izan zen lau urtez.

### **Patxi Iriondo Galarza (1933-2020)**



Ama Albizturkoa zuen eta aita Abaltzisketakoa. Bere gurasoak Urnietara etorri ziren eta Frantsesaren etxea hartu han bizi zen matrimonioaren lanbidea jarraitzeko. 36ko gerra hasi zenean, amarekin Albizturrera egin zuten eta bederatzi urte zituela itzuli ziren berriro Urnietara. Hamalau urte arte Zaldundegin hartu zuten apopilo, eta apaizak ere hartu zuen monagilo. Hamalau urterekin Andoainen egon zen arotz lana ikasten. Hamazortzi urterekin pasta fabrikari sartu zen, baina han astean irabazten zuena baino askoz gehiago irabazten zuen Aranoko Benta Berriko bileretan soinua jotzeagatik. Lan askotan ibili izan zen Patxi, eta azkenean emaztearekin drogeria moduko denda bat jarri zuten Hernanin, bertan 27 urte eginez.

### **Miel Izagirre Arrue (1929-2012)**



Hamaika senidetan bigarrena da bera. Inbutegi behekoan jaio zen eta bertan bizi izan da. Baserri honi "Lertxundei" eta "Eskolastika-enea" ere deitu izan zaio Mielen esanetan. Hernaniko Portu auzora joaten ziren etxetik, Urnietara joatea baino errazago zutelako. Erraztasunagatik ere Hernaniko Arriatsuko eskolan hasi zen Miel, baina zazpiren bat urte zituela gehiago ez joatea erabaki zuen: izan ere, eskolara poltsikoan sartuta eraman zituen txorikume batzuek gela barruan ihes egin zioten, irakaslea haserretu egin omen zitzaion. Hori izan zen eskolatik "ihes" egin eta ez itzultzeko arrazoia. Baserriko lanetan gogotik aritu izan da bere bizitza osoan.

### **Xanti Lasarte Zugasti (1925-2012)**



Urnietako Goiburu auzoko Aierdi baserrian jaio zen. Bi bizitzako etxea zen Aierdi: batean izeba-osabak bizi ziren eta bestean 4 seme-alabako familia gurasoekin. Aita bertakoa zuen eta ama Errekaldekoa. Xoxokako eskolan ibili zen auzoko eta inguruetako haurrekin batera 6 urte zituenetik 12ra arte. 24 urte egiteko zituela ezkondu zen [Angela Garmendia](#)rekin bere jaiotetxera. Geroztik, hainbat lan egin badu ere etxetik kanpo (txerri-hiltzen baserri askotan, hala nola), baserriko lanetan aritu behar izan du erabat. 10 seme-alaba izan ditu eta egun Urnietan bizi da.



### **Hilario Lekuona Mitxelena (1931-2017)**



Oiartzunen jaio zen eta 5 urte besterik ez zituela, ama alargun gelditu zen. Artikutza aldera joanda dagoen Arandaonsoro baserrian morroi egon zen 8 urte zituenetik 11 bete zituen arte, ardiak umatzeko denboraldian laguntzeagatik. Amak, alargundu eta handik urte batzuetara, beste gizon batekin ezkontzeko hitza eman zuen eta Urnietara joan ziren bizitzera. Kaletik oso hurbil zegoen baserri batean pasa zuen gainerako haurtzarora; Afrikan soldadu zegoela, ama hil zen. Soldaduskatik etorri zenean, gau-eskolan ibili zen eta handik aurkitu zuen "manesitas navarras" lantegian lana. Bertan erretiratu zen eta Urnietan bizi izan da gerora ere.

### **Bixente Lizaso Itxaso (1931-2016)**



Gurasoak Albizturdik etorri eta Urnietako Latxe baserrian jarri ziren bizitzen. Sei seme alabaren artean laugarrena zen Bixente. Hamahiru urte bete zituen arte Hernaniko Arriatsuko eskolan ibili zen. Hamabost urte zituela igeltsero hasi zen eta berrogeita hamar urte horretan eman zituen. Gerra garaian jaiotetxea bota zieten Santa Barbaratik botatako kanoikadekin eta etxea berreraiki behar izan zuen aitak. Hogeita hamahiru urte zituela ezkondu zen eta Urnietan bizi izan da geroztik.

### **Juan Bautista Miner Irastorza (1936)**



Urnietako Goiburu auzoko Bentan jaio zen; zortzi senidetan bigarrena zen bera. Xoxokako eskolan ibili zen 12 urte inguru bete zituen arte. Ardi kontuan edukitzen zuten askotan etxeko artaldearekin; Goiburuko inguruko etxeetan belarra ebakitzen ere aritzen zen beste lagun batzuekin batera, diru pixka bat irabaztearren. Peoi lanetan ibili zen Urnietako urak bideratzeko tubo zaharrak ateratzen eta berriak sartzten. 25 urte zituela, Begasan hasi zen lanean, altzari-lantegi batean. Urnietara bertara ezkondu zen urte horretan eta 32 urte pasatu ditu kamioiarekin garraio lanetan.

### **Tomas Miner Irastorza (1942)**



Urnietako Goiburu auzoan jaio zen, Bentan. Zortzi senide ziren eta bera laugarrena zen. Aita Benta tabernakoa zuten eta ama, berriz, Tolosako Izaskungoa. Altugain baserrian aziendak bazituzten ere, berak Benta tabernan pasatu izan du bizi osoa, bai gazte denbora eta baita bere emaztearekin eta seme-alabekin ere. Kantina edo janaridenda moduan hasi zen Benta taberna eta 2009ko Gabonetan itxi zuten 100 urteko ibilaldia eta gero.

### **Isidoro Mujika Treku (1922-2021)**



Urnietako Oztaran auzoko Oztataegi baserrian jaio zen 1922an. 6 urterekin eskolan hasi zen eta 3 komunio egin zituen. Dotrina euskaraz ematen zuten, euskaltzalea zen apaiz bati esker. 11 senide ziren baina bat txikitan hil zen. Guztira 9 anaia eta 2 arreba ziren. Oztataegin (Otsategin) maizter ziren; errenta ordaintzeko, urteroko eguberri egunerako txekor bat eta oilo batzuk propio gordeta izaten zituzten. Lan askotan ibilia da: morroi zenbait etxetan eta Ziordiako artzain bati laguntzen (harekin ikasi omen zuen gaztelera), gerraren ondorioz txikitutako baserri bat berreraikitzen peoi, bonba fabrian tornuan zebiltzanezi piezak eskura ematen, okindegi batean Donostian, esnebanatzen Donostian (hortik hasi zen Gurelesaren sorreran egon ziren gutxitako bat izango da bera), eta azkenik, beraiek ireki zuten denda batean, Urnietan bertan.

### **Ainhoa Olano Garmendia (1988)**

Enpresen administrazio eta zuzendaritzan lizentziatua da. 30 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean. Bi haur ditu eta biak etxean jaioak dira.

### **Juanatxo Olinaga Urdangarin (1931)**



Urnietako Barkiztegi baserrian jaio zen eta aitona eta amonarekin bizi izan zen 5 urte bete zituen arte. 3 senide ziren eta bera zen emakumezko bakarra. 5 urterekin Arantzubi txikira joan ziren bizitzera eta 11 urte zituenerako Iriondo-enea (Lourdes Iriondo zenaren etxera) joaten hasi zen ume-zaintzera. Iriondo-enearen lehenengo harria ikusi omen zuen berak. 15 urte zituela Olamia izeneko lantegian hasi zen lanean: han egurrezko taulak egiten omen zituzten. 1989 inguruan joan ziren egun bizi den Erreka-Beltza baserrira bizitzera.

### **Patxi Pagola Ibarrola (1933-2022)**



Urnietako Goiburu auzoko Barkaixtegi behekoan jaio zen eta berak hamaika urte besterik ez zituela aita hil zitzaien. Ordura arte eskolan ibili zen Hernaniko Arriatsun, baina aita hil eta gero etxean lan egin behar zen eta hartan jarri zen Patxi dudarik egin gabe. Izan ere, bi senide besterik ez ziren eta lanean ongi ikasi behar izan zuen Patxik txikitatik. Barkaixtegi behekoari "kojuania" ere deitu izan diote bere aita zenari men eginez, eta Patxiren osaba bat dela medio, osabari bezala "Patxi astua" deitu dionik ere izan da Urnietan eta inguruetan. Damurik ez du izan egindako lan guztiak eginda gero, eta Jainkoari eskerrak emanez hasi zuen grabaketa, bizitza honetan aurrean jarri zaizkion gurutze guztiak eramaten jakin izan duelako.

### **Maritxu Rekondo Iribar (1927-2020)**



Aiako Aristerrazu baserrian jaio zen, baina lau urte besterik ez zituela Urnietara etorri ziren bizitzera. Aristerrazun maizter ziren eta Urnietako Oianume baserrira etorri ziren hiru familia. Baserriko lanetan aritzeko tresneria izugarri aurreratua zuela gogoratzen du baserri hartatik, eta 19 lagun bizitu zirela bertan ere bai. Sei urterekin Urnietako eskola munizipalean hasi zen eta 14 urte zituen arte bertan ikasi zuen. 16 urterekin herriko Kaxeta etxean josten ikasten ibili zen eta garaiko janzkerak begi aurrean balitu bezala kontatzen ditu berezitasun guztiekin. 1947an ezkondu zen Urkainberri baserrira.

### **Fernando San Sebastian Esnaola (1933)**



Miravalles izeneko baserrian jaio zen, baina beti "Millos" deitu izan diote herrian etxeari. Bederatzi senide ziren, sei mutil eta gainerakoak neskak, eta bera erdikoetakoa zen. Sei urtetik hamabira bitartean Urnietan erdaraz ikasi behar izan zuen gainerako umeek bezala. Basoan aritu zen urtebetez-edo, baita obrak egin behar ziren tokietan zabaltokiak egiteko lurra kentzen ere: esate baterako, Urnietako seminarioko frontoiak egiteko lurra kentzen aritu zen. Andoaingo Laborden 3 urte egin bazituen ere, luzaroen aritu den lantegia Hernaniko Orona izan da. Hasierako urteak Ergobian egin zituen, eta gerora Hernanin bukatu zuen hogeita hamabi urte bertan ibili ostean. Galardi baserrian morroi sartu zen aurrena, gaztea zela, baina bertako alabarekin ezkondu zen eta bertan bizi izan da.

### **Kontxita Setien Ezeiza (1926-2014)**



Gurutzeta baserrian jaio zen. Zazpi senide baziren ere, bat txikia zela hil zitzairen eta sei hazi ziren etxean. Donostian esnea partitzen urte askoan ibili izan da, baina etxean lan asko izaten zuen horretaz gain. Izan ere, Gurutzetan sagardotegia izaten zuten eta sagardoa egiteaz eta saltzeaz gainera, jaten ere ematen zuten. Tolosako feriara joanda ekartzen zuen Kontxitak sagardotegian prestatzeko behar zen jakia, bere "xextera" buru gainean hartuta.

### **Anita Tolosa Goikoetxea (1941)**



Azkaraten (Araitz) jaio zen eta bertan bizitu ezkondu zen arte, 13 senideko familia batean. Gazteenetakoa zen bera eta ongi gogoan du nola egiten zuten ogia etxean. 22 urte ingururekin joan zen Urnietara bizitzera. Baserriko lanetan gogor aritu da bizitza osoan zehar.

### **Maria Ubillos Atxukarro (1925-2022)**



Urnietako Goiburu auzoko Pagolaerdi baserrian jaio zen eta beheragoko baserri batean bizi izan da azken urteetan. Aurretik bi anaia bazituen ere, bera zen alaba zaharrena, eta lan asko egin behar izan du etxean, atzetik beste bost senide baitzituen. Amona ere eurekin bizi zen eta osaba elbarri bat ere bai. Osabak abarkak eta alpargatak egiten zituen eta haiei ere erakutsi zien nola egiten ziren. Oinetakorik, beraz, inoiz ez zitzairen falta izan. Hamalau urtera arte Goiburuko eskolan ibili zen ahal zuen bezala, eta goizeko seiatarako elizara nola joaten ziren gogoan du oraindik. Ama zenak Donostian saltzen zuen esnea eta babarruna, eta beraiek behin baino gehiagotan bazkaltzen zuten izebak herrian zuen "Txapel" deitutako tabernan. Hogeita sei urterekin ezkondu eta azken urteetan bizi izan den baserrira joan zen bizitzera. Han, berezitasun modura, etxekotutako bele bat izan dute azken aldi luzean.

### **Ramon Urdangarin Esnal (1939-2011)**



Urnietako Goiburu auzoko Erdiko Enbutegin jaio zen. Zazpi senide ziren eta bera bosgarrena zen. Zazpi-zortzi urte zituenerako itaurrean hasita, eskolara hilean behin joaten omen zen. Baserritar askok bezala, etxean lana izanda eskolara egunero joatea ez zen erraza izaten. Soldadu egon zenean, ordea, alfabetatu gabe zeudenei eskola pixka bat hartzea agindu zieten, baina hasierako egunak eta gero, laster bidali zuten bere postura, nahikoa ba omen zekiela esanez. Basoan aritu zen lanean eta gazteena zenez, askotan berari tokatzen zitzaion suari kontu egitea eta bazkaria prestatzea. Igeldoko basoetan aritu zireneko istorio politak ditu kontatzeko. Goierriko artzain familia batean ere morroi egoten zen neguan Urnietara inguratzen zirenean. Apiril bukaeran, Goierriko bidea ia 300 buruko artaldearekin nola egiten zuten ederki gogoratzen zuen.

### **Praxku Urruzola Loinaz (1931-2020)**



Elutxeta baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama Errenteriakoa. Sei senidetan zaharrena zen bera. 1982ra arte maizter izan ziren Elutxetan eta etxean nahitaezko obra egin beharra tokatu zitzaielarik, etxea erosteko aukera eman zien nagusiak. Betidanik egin izan dute etxean sagardoa, hasieran eta urte askoan auzokoentzat, geroago, sagardotegia ireki zutenean, kupeletik botilatan saltzeko. Bera jaio zen urtean hormigoizko dolarea egin omen zuten eta hori inguruko beste baserrietan ez omen zegoela dio.

### **Joxe Mari Yurramendi Larburu (1922-2012)**



Urnietako Trankatx izeneko baserrian jaio zen. Bere garaian errota izan zen Trankatx eta makinariak ateratzen zuen soinua zela-eta jarri zioten herrian izen hori baserriari. Aita eta ama urnietarrak zituen eta bera ere bertan bizi izan da beti. Donostian bolada batez harrobi batean lan egin bazuen ere, baserritik eta errotatik atera izan du beti bizimodua aurrera. Emaztea ere urnietarra hartu zuen.

## Kontxita Zaldua Zabala (1924-2019)



Urnietako plazan bertan jaio zen. Ama urnietarra zuen eta aita Zubietakoa. 6 senideren artean 4.a zen bera, eta eskolan gustura ibilitakoa. Donostian ere ibili zen ikasten eta Urnietatik joan-etorrian ibili beharrean, bere izebak Bilbo plazan zuen pentsioan gelditu zen bolada batean. Jende garrantzitsu askori errekaduak egiten zizkiola du gogoan. 25 urte zituela, Urnietan bere izeba-osabek zuten tabernan hasi zen lanean, eta han ibili zen urte askoan. Gerora, altzari-denda baterako deitu zioten eta han 27 urtez aritu zen lanean.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Politika

#### 1.1. Urnietan fusilatutako mutilak

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: URN-001/009
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:16:56. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Urnietan izandako apaizei buruz hitz egiten du. Gerran herrian mutil batzuk fusilatu zituzten eta apaiz batek haietako bost konfesatu zituen.

#### Transkripzioa

-Eta apaiza zein zan orduan?

-Orduan Don Juan. Don Juan Aierbe. Bai, ona zan apaiza, oso ona zan. Erretoria. Gero beste Urnietan eondu zien beste hiru apaiza ´re, e? Don Jose, Don Eustakio... Don Eustakio hemen, kartzelan, afusilatzea eaman zittuenak konfesatu zittun bost. Bat bere ezauna, bere parientia, gure auzoko baserri batekoa. Ta badakizu zergatik zun harrek? PNV-ntzako botuak biltzen ibiltzen zalako. Detenittu zuen ta Ondarretako kartzelan eondu zan, ta ya azkeneako afusilatu in zittuen. Bai. Ta gero apaiz harrek konfesatu zittun bost, afusilatu baiño lehen.

-Eta Urnietako asko afusilatu zituzten?

-Urnietako bakarra. Goatzen naiz ni Urnietan, baiño Urnietan jende gaixtua ´re bazeon e? Requete bat bazan gaixtua. Ni Urnietako afusilatua ez naiz ni besteik goatzen.

#### 1.2. Gose garaia eta estatuaren babes falta

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Angela

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-004/004
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:04:22. **Bukatu**: 00:05:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Berak ez zuen goserik ezagutu, umeegia zelako gose garaian. Angelak 11 hilabete zituela, aitak istripua izan zuen lanean eta hanka moztu zioten. Garai hartan, ez zegoen diru-laguntzarik istripua izanez gero.

### Transkripzioa

- Garai hartan hoixe zan.
- Goseikan?
- Goseik, goseik guk, hiru gaztienak ez. Baiña gure ahizpa zaharrenak eta gaizki pasa zuen e? "Es que", han basarri txiki hartan, ez zeon ezer'e. Ta aitta nik hamaika hillebete nittula, karrillian lanian ai zan, eta hanka moztu zun, nik hamaika hillabete esaten zun amak. Hankamotxa zan nere aitta, ta harrek'e ba ahal zuna eitten zun, baiño garai hartan ez zan gaiñea zeaik, jornalik eta ez zan jartzen oain bezela, inutilidadeik eta. Ta hortxe.
- Zertan itten zula lana esan dezu zure aittak?
- Aittak? Hantxe geuro basarri, karrillian aittu zan, trenbidian, ta Andoaiñen geo bagoiyen batek harrapatu ziyon hanka, eta holaxe geldittu zan.

### 1.3. Gazterik hildako senideak

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-004/006
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:08:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Angelaren hiru ahizpa neskame, sukaldari eta ume-zaintzaile joan ziren garaian, tifusa harrapatu zuten. Haietako bat, 17 urte zituela, hil egin zen. Beste senide bat bost urterekin hil zitzaien difteriak jota. 22 urteko anaia gerran hil zitzaien.

### Transkripzioa

- Eta geo, bakizu, haik'e hasi zianian neskame, Hernaniko Adarraganian, pastelerin, ta Antxon ta hoik nere ahizpak hazik zian. Hiru ahizpa jun zian: bat jun zan kozinera; bestia, etxeko lanak; eta beste bat, hamazazpi urtekoa, jun zan haurrai kontu eittea. Ta bakizu ze pasa zan? Tifus harrapatu zuen garai hartan, tifus esaten zitzaion kaillenturak, hiru ahizpak. Eta bi ekarri zittuen Poxentarraia. Eta hirugarrena geldittu zan hamazazpi urtekoa han bertan. Ta Poxentarrin jarri zian, ta ez gendun iñorrek izan juteik Poxentarraia. Han lehenon erreka ondo batian uzten zuen jatenak, eta ez zakan iñorrek'e kontajiyuangatik. Ez zan iñor'e pasatzen. Ta haik berrogei egunian egon bihar zuen ohiyian. Eta hamazazpi urteko alaba

hil zan, Adarragianian sendatu zala, baiño geo rekaidakin hamazazpi urtekin hil. Hamazazpi urteko neska. Beira gure amak e? Ta beste bat bazun, bost urtekin garrotilluakin hilla.

- Garrotilluakin.

- Bai, harrek'e kaillentura holako hogeita lau ordukua izaten zan hura. Hola. Estutu ta hilla. Ta geo bakizu holaxe, holaxe, holaxe... Ta hogeita bi urteko semia gerran hil. Nik hamaika-hamabi urte nittula.

#### 1.4. Gerran, baserria frontetik gertu

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/007
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:11:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra garaian, soldaduen arteko borroka izan zen beraien baserrietik gertu. Beraienera etorritako soldadu askori eman zieten kafea. Borroka hartan hil zituzten mutil batzuen istorioa kontatzen du. Baserri batzuetan, oso gaizki pasa zuten soldaduen etorrerarekin.

#### Transkripzioa

- Eta nik ezautu dittut Poxentarren, hemen Xoxokatik goro mendi bat bada Pardake. Ta Pardaken zeuden eskubik, soldadu pilla ta beste pilla ezkerak esaten zitzaion Onyiko puntan. Eta hemendikan jun zian, Pardaketikan Onyia haik bialtzea ta jun zien gutxi. Ta gure baserrin, Poxentarren goiz hartan, esnia bazeon behiena ta esnia ta kafesnia ta esnia ta kafesnia eman ziyen soldadu hairi pilla. Ta bat sartu zun tolosarra eta boluntaiyo eoten omen zan ta zittun hamalau urte. Jexus Mari Alberdi Iraola zan. Nik begitan dakat mutil politta. Han utzi motxillak eta gauzak eta frentea, aurea. Ta ze in zun? Onyiko punta jun zan, [...] haundiya jarrita bestia, hua barrena sartu ta bertan hil zuen. Beste mutil haundi bat ekarri zuen hilda. Hango sukaldian luze-luze lurrian jarri zuen, mutil haundiya ematen zun eta beste anai bat omen zun harek eta hua holaxe jarri ta nearrez ta nearrez, Poxentarren ikusi giñun guk hoi. Ta gelditu zan odol asko han, ta gure amak erreka jun ta igande batian ta erreka odoletan. Hoi ikusi giñan ze pasa zan baiño haik fuerteo eon Onyikoak ta bestiak bat hil, bi hillak eta bestea [...] ta honea Tardakia. Ta haik han geldittu zien, gorrik esaten zitzaian eta hurrungo eunian, berriz, hortikan tropa haundiyoa jun eta Onyikok Santa Barbara bialdu zittuen. Santa Barbara. Hoi ezautu genun guk.

- Eta Poxentarrira juten zian haik, launtza eske edo janari eske edo?

- Han utzi motxilak, motxilak utzi, beren fusillakin, mendia bestiak bialtzea. Frentia, bata bestiai gogor itten, pentsa!

- Eta zuen etxian nolatan sartu zian, esan nahi det?

- Ba, haik libre zuen, dana libre zen oain asko bezela, ordun libre zen. Gauzak uztea ta kitto.

- Ez iñongo permisoik esan...

- Ez, ez, ez, ez. Hemen gaizki ibili zen jendi oso ordun, hemen horko basarrin'e nere ahizpa zeon ta ganadu dana bialdu, libratu ta oso-oso



txarki pasa zen. Hemen, Aierdin'e, hor'e soldaduk asko eon zian eta hemen, zea hontan, Xoxoka inguru hontan oso gaizki pasa genun.  
- Ta tiro-hotsak eta gauzak?  
- Tiro-hotsak ta bai, bai, etxetikan ateatzen baziñen pixkat bista, seitun hasten zian tiroka, handik ta hemendik. Oso gaizki ta geo azken batian.

### 1.5. Anaia gerran hil zen

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/008
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:11:02. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Anaia gerran hil zen Zaragozan. Gorpua etxera ekarri eta hileta egin zioten.

### Transkripzioa

- Ta geo azken batian, anaia Zaragozan hil zen frentian. Ta geo gorputzak ekartzen zittuen herrira ta hamazazpi eunea ekarri zuen Urnieta. Guei, hiru, nere hiru ahizpa jun zian Zaragoza ta bizik harrapatu zuen. Hitz ein zuen eta arreba jun zian gau hartantxe hil zan ospitalian. Ta hamazazpi eun Urnieta etorri ta entierroa itten zan eta preparatzen zian mutil koskorrak hamabi urtekoak, hamalaukoak soldadu jantziyak bezala bere kaxketiak, fusillakin entierrua itteko, aizu! Hau ibillia dao, hau aittona, ibilitta dao hala.

- Ze gogorra izango zen orduen...

- Oso gogorra.

- Senideantzako ta.

- Oso gogorra, gurasoentzat oso gogorra, trixtia.

- Gerrako kontuk ezta?

- Bai, gerrako kontuk baiño txarrak; abioiya "ran, ran, ran", bueno kañoi soiñuk-eta.

- Abioiyak eta hola akordatzen zea zu ikusirikan?

- Ba, akordatzen naiz abioiyak soiñu bat ibiltzen zuen, bildurgarriya, bildurgarriya! Holaxen ba, geo hoita bi urte arte Poxentarren ibili nintzan ni.

### 1.6. Gurasoek gerra garaian pasatakoak

- **Hizlaria(k):** Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-006/003
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:03:58. **Bukatu:** 00:05:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

- **Laburpena:** Amuela baserrira joan ziren gurasoak gerra garaian. Hala ere, alabaren txupetea falta zitzaenez, etxera itzuli behar izan zuten; orduan, baina, soldaduekin kontuz ibili behar izaten zuten. Gurasoei ez zitzaien gustatzen gerrako kontuez hitz egitea.

### Transkripzioa

- Juan Bautista: Geo esaten zuen Amuela basarri hoi zeon, gue aittak eta ibiltzen zuen ta han eon zien eun batzutan ta ematen zula kalmatu ote zan ta han ez zeon ezerre esaten zuenez.

- Tomas: Iñor ez zan bizi ta.

- Juan Bautista: Ya. Honek beste arreba bat du, nik'e bai. Zaharragua zun ta txupetia're galdu omen zun han. Umiak ta txupetia bihar ta atzenian holako komerikin behintzat abittu itten omen zien, honea.

- Tomas: Nik honen berrik'e [...].

- Juan Bautista: Abittu zienian, tropa omen zijuan Onyikoei berriz'e txikitzea, baiño bertan jun zian, baiño Onyin itxiya omen zeon, dana zerkatua zeak, beak behian, zuluana. Ta zerkatu hoi pasatzen hasten zienian, barrengiak tia ta bota itten omen zittuen. Kriston matantza in zuen hor, esaten zuen. Ta geo, bintzat etsi ta bestea atzea ta baiño Amuelatik abittu ta hua ikusi zunen, ostea buelta eman ta Amuela jun zien, aitta-ta. Ez zitzaien gustatzen gerrako kontuk esatia. Haik oso, beak pasako zittuen pasatakuak eta ez zuen aittu're ein nahi izaten. Baiño holako gauzak.

## 1.7. Ezkutalekutik atera izanaren prezioa

- **Hizlaria(k):** Garmendia San Sebastian, Bixi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-014/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:13:23. **Bukatu:** 00:15:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra garaian, kalte handiak egon ziren. Herriko mutil bat ezkutatuta zegoen; baserriko lanetarako bere beharra zuten, ordea, eta azkenean etortzeko konbentzitu zuten. Etorri bezain laster, fusilatzerara eramán zuten.

### Transkripzioa

- Gerra garaian izango zian beste ihes indako jende asko eta...?

- Kalte asko in zuen. Horrek beste baserrien onduan bazeon beste bat, kojua zan ta estudiantia izanduba gaiña. Baserrik giñan hemen ta hemengo frentekok, eta terrenuak alkarren onduan. Ta hoik zian, oain esan deten mutil hoi, ta beste bi arreba, baserriyai zaitzeko. Ta alkarrekin egunero ikusten zian, eta "Batista nun dezue?", Batista zan mutil hau. Ta "A! Utziyozu oain ondo don lekun ondo dao, bai, ta utzi. Honea etortzian edozeiñek daki zer pasako dan ta"; "Ez, emakumia, oain palta itten du oain harek hemen, lan itteko ganadukin-ta ta". Ta ezetz haik, ikera ematen ziyuen, hainbeste in zittuen. Ta hartan, ta hartan, ta hartan, etorri da girua baburrinak eta eitteko girua. Eta ahal zuen bezela, bi ahizpak eta hiru ahizpa zian ta ahal zuen bezela. Ganaduk'e ahal zittuen bezela, "Ekartzeko, ekartzeko Batista. Ni itten naiz jabe, ni itten naiz jabe". Ta "tanto, tanto"

esan, ta hainbesteko palta itten zun, ekarri due ba mutilla. Eta iritsi zanian, atsaldian "ya estaba muerto". Hoik denak egik dia e? Zuek ez dittuzue ikusi, ta zuen edadekuak ere ez, baiño esan'e ez baitittue eitten beti gauzak, baiña hoiek hola dia.

### 1.8. Fusilamenduak, mendeku pertsonalen ondorio

- **Hizlaria(k):** Garmendia San Sebastian, Bixi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-014/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:16:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Fusilamendu asko egon ziren gerra garaian, mendeku pertsonalak zirela-eta. Gerran, PNVkoen eta erreketen artean zegoen borroka. Gerrak kalte handia ekarri zuen.

#### Transkripzioa

- Fusilaketa asko ta izango zian e? Akordatzen...?  
- "Venganzas propias". Herri koskorrotan bengantza propiyak, alkarrekin txoakei batzuk eta bengantzak.  
- Ordun problema zein zan, politika bai, baiño pertsonan arteko...?  
- Politika. Hori zan rekete, ta gu giñan gure "del pnv". Ordun honbeste gaur bezelako kantidadeik ez zan. Hala ikasten gendun guk, hortan jokatzen gendun: bat o bestia. Oain gehiyo ere bai da, baiña ordun ez. Ordun hola zan gauza. Kalte asko in zun harek, kalte asko. Nei pena eman zian zeatikan hor bizi nintzan, ta bi gizonak hanbeste maite niñuenak, ta hainbeste maitte nittunak nik... "Ta zeatik?" eta "Bai, periodikuan'e aitzen giñunan ta" esan ziyon arrebai. Han eraman dittue. Hirurak, hirurak fusilatuak atsaldeako. Ikeragarrik pasa zian e? Ikeragarrik.

### 1.9. Emakumeen jarrera beheramenduen aurrean

- **Hizlaria(k):** Garmendia San Sebastian, Bixi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-014/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:20:55. **Bukatu:** 00:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra garaian, emakumeei ilea mozten zieten zigor gisa. Udaletxera joan, eta han mozten zieten ilea. Negar eta negar aritzen ziren emakumeak orduan; baina, gero, umorearekin hartzen zuten kontua. Emakume haiek euskarazko antzerkian ibiliak ziren, eta horregatik zigortu zituzten.

#### Transkripzioa

- Eta illia moztiana, bueno...

- Aiuntamentua deitzen zittuen. Bost... Sei haidi. Jun zian, aiuntamentua jun zian, ta raka-raka-raka, barberuai deitzen ziyuen, ordun barberua esaten geniyon, eta raka-raka-raka. Negar ta negar denak. Gero parrez e? Gero bakarrik [...] "hoi dek piura" ta "hoi piura" ta "hoi piura".

- Baiño tragua e? Hoik seiñalatuak izango zian ta.

- Bai, hoik zian ba geo antzerkiya iten gendunak, kuadrilla hoi giñan denak. Nei, nei ez zien, nekin ez zian sartu, baiño bestekin bai.

- Neska hoik danak antzerkiyan ibiltzen zian.

- Bai. Haiek? Bai. Nere anaiya're bai, ta nere ahizpa zaharrena, bueno, "aquélla era de los papeles más importantes" in zuna. Dena euskeraz e?

### 1.10. Zinegotziari pilotarekin emateagatik izandako ondorioak

- **Hizlaria(k):** Garmendia San Sebastian, Bixi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-014/019
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:23:51. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Politika eta Franco  
Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena:** PNVkoak kartzelara sartzen zituzten. Behin, pilotan zebiltzala, zinegotziren bat pasa zen handik, eta pilotarekin jo zuten (nahita, itxuraz); han zeuden guztiak atxilotu egin zituzten.

#### Transkripzioa

- Kartzela'de sartzen zittuen PNVkuak. Eta geo batian, jai bat, jaiya zan, ez dakit ze in zuen, txoakei bat: pelota frontoiya ordun kontzejupian izaten zan, oain aiuntamentua dagoneko... Ta pelotan zabiltzala, kontzejalen bat pasa in biher zula aiuntamentua. Ta pelotazaliak pelotakin jo, propiyo jo omen zun. Total, kartzela denak.

- Hara!

- Eta atsalde hartan futbola. Futbolako entradak eta denak hartuk, eta nola jun? Ta baten bat konkistatu due "Atsaldian jun biher diagu partidua, ta ze in biher deu?". Ta nolabaitte moldatu zuen, bai, ta atsaldian futbola ikustea jun zian.

- Nola atea ote zian?

- Ez dakit, ez dakit nola in zuen. [...] Ta pena hoi izaten zula alkatiak, utziya. Ez nekin utzi ziyoenik juten haidi. Txoakeiok "sin fundamento".

### 1.11. Gerran, emakumeek eta gizonek pasatako kalbarioa

- **Hizlaria(k):** Izagirre Arrue, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-016/048
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:19:35. **Bukatu:** 01:20:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Gerran, emakume abertzale batzuei ilea moztu zieten, beheramendu gisa. Aita gordeta egon zen, nazionalista izateagatik.

### Transkripzioa

- Hemen illia moztutako...

- Bai, bazian illia moztutakuak, bazian. Hemen, Moixotegi o esaten diyoe, Xantina izandu zeala esan dezun hortatik beheraxeo zan illia, bueno, horkua zan. Xoxokan eskola harek ematen zun lehendabizi. Ta hari're illia moztu ziyen. Ta gero hemen kalia'e bazian beste batzuk illia moztutakuak eta apusillatutakuak eta bazian. Hoik esan ez, baiña nik goatzen zaizkit. Baiño gaiñekuan, [...], zeaik ez zait hortaiñokua goatzen. Oain, hemengo aitta zana gordeta nola eondu zan, bai, hor. Nazionalistan aldekoa zan; ta ordun'e, oaintxe bezelaxe, ez zuen euskaldunik eta nazionalistik ikusi nahi izaten. Ta hor eondu zan gordeta, gabeako etortzen zan etxea; ta hurrengo egunian, zeozer jana hartzen zun, ta gaztaiña [...] zulo-zulo batian beheko erreka ondo hortan, hortxe eondu zan gordeta.

## 1.12. Gurutzea kendu eskolatik errepublika denboran

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:21:26. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Oso gogoan du Errepublika denboran gizon batzuk etorri zirela eskolara gurutzea kentzera. Maistra negarrez hasi zen eta eurek ez zekiten zergatik. Beste ezertan ez zen nabaritu errepublikaren eragina. "El temor de Dios es el principio de la sabidur&iacute;a" letreroa egoten zen eskolan.

### Transkripzioa

- Bai. Ta geo ni goatzen naiz.

- Dotriña ikastea.

- Hemen republika jarri zan ta nik zenbat urte izango nittun ba? zortzi urte eo holakon bat. Eta klaro elizan denetan eoten zan gurutzia, maistran pupitrian gaiñian gurutzia. Eta goatzen naiz, gizon batzuk sartu ziala ta gure maistra nearrez. Ta guk ez gendun ezer entenditzen, gizon haik zerta etorri zian, ze itten zuen ta ordun etorri zian gurutzia kentzea, hoi gogoan dakat. Ta gizon haik aurrian dazkat, ta maistra nearrez ta guk esaten giñun: "ze pasatzen da? Zer du?" ta "ez dakit". Ez genekin zerta etorri zian. Hoi zan Republikako denboan. Ta geo gurutzia kendu zuen, geo, bueno geo.

- Beste deusetan nabarittu zen, oraziyotan eta holako zeatan?

- Ez, ez, ez. Hemen elizan bat´e ez zan sartu. Gurutzia kendu bai, hoik in zittuen. Baiño hemen ez, hor kanpua-ta esaten omen zittuela, baiño hemen ez zuen besteik in. Eskolako gurutzia bakit kendu zittuela ta maistra nearrez ikusten gendula ta guk ez genekila zer zun. Ta gizonak ez genekila zeatik etorri zian ta zer zian ta.

- Ta banderak eta hola kendu al zian?

- Geo esaten zun, bueno hoik geokuak zian, "esto, el temor de Dios es el principio de la sabiduría". Hoi eoten zan letrerua eskolan.

### 1.13. Amak arropak garbitu soldaduei

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/014
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:22:52. **Bukatu**: 00:24:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra denboran, kanta asko ikasi zituzten; Cara al Sol, esaterako. Amak arropak garbitzen zizkien soldadu erreketeei. Aurretik, Frente Popularrekoak Urnietako komentuan egon ziren.

#### Transkripzioa

- Ta geo, klaro Jose Antonion zeak eta. Bueno nik gerra denboran kanta asko ikusi, ikasi nittun. Oain'e kantatzen dittut batzutan, "Cara al Sol" ta. "Las niñas de este pueblo, eulo, se han, no, se han quedado solos, solo". Ahaztu zaizkit.

- Erderaz izango zan?

- Erderaz dana kantatzen giñun ta soldaduk eta klaro, denak gure etxe ingurun'e eondu zian. Ordun, Hernani hartu bihar zuen, gure etxe ingurun eondu zian. Nik ordun hamar urte nittun eta denak kantatu itten zuen ta gure etxian askotan sartzen zian ta "bua". Eta hain kanta guztik ikasi giñin.

- Zerta sartzen zien zuen etxea?

- Gure etxian, pues gure amak erropak igual garbitzen zizkien soldaduri eta gure etxea goatzen nola gure amak eukitzen zittun erropak. Ta esaten zun: "Hoik'e aman semiak dia ba ta". Ni goatzen naiz nola erropak garbitzen zizken. Denei ez, batzui, asko eoten zian-ta. Gerra denboa hola zan.

- Ze bandotakoai garbittuko zizkaten? Zeiñen aldekoai garbittuko zizkaten erropak?

- Ordun, soldaduk zian reketiak. Bueno, bueno Francon aldekoak. Beste aldekuak, beste aldekuak eondu zian hemen "de Frente Popular"-o. Hoik, hemen komentu haundi bat zan hemen eta komentu hortan, bueno fraille denak alde in bihar izandu zuen, eta komentu hortan eondu zian Frente Popularrekuak o "los rojos" esaten ziyenak ordun.

### 1.14. Baserritarra hil, espioitza hartuta

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/015
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:24:30. **Bukatu**: 00:25:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

- **Laburpena:** Behin, Kontxita anaiarekin batera joan zen komentura kuxkuxean, eta ikusi zuen nola sakristiako arropak eta gauzak botatzen eta apurtzen ziharduten Frente Popularreko soldaduek. Espioia zelakoan hil zuten baserritarraren kasua.

### Transkripzioa

- Eta haik, ni goatzen naiz nere anai batekin, nik hamar urte ta eskutik nola eaman niñun. Ta komentu hartan nola ai zian danak harrika botatzen, Sankristiko jantzi guztik, platera guztik txikitzen. Ta denak ai zian, zeatikan ia Andoiñea bazen beste reke soldaduk. Baiño soldaduk zian denak, bakizu obligatutakuak. Nere anaia're hemezortzi urtekin jun zan eta dena txikitzen. Eta ni, nere anaia eskutikan biyok nola egondu giñan. "¡Esto fuera!" esaten zun, "¡Esto fuera! y ¡Esto fuera!". Eta geo, klaro hemendik alde in zuen. Ta geo, gizon bat hemen, basarriko gizon bat bazan Belauntzan, "esto" Urbanetakoa eta basarritarra. Eta basarritar hoi [...] txekorra saldu omen zun. Eta jun zan Lasartea kobratzea eta Frente Popularrekuak eo dalakuak bidian topatu ta ispiya zala iruittu ta hil in zuen. Ta hemen atarin eukitzen zan, horko komentun ta ume guztik bueltan hari beida. Ta gero enterratu zan baatza batian. Ta geo eaman zuen baatza hortatikan kanposantua, baiño baatzan enterratu zuen. Baiño hua nere ama ta izeba ta gu, gure billa. Umiak eaman itten zittuela ta gu ez giñala agiri ta noizbaitte billatu giñuen-ta.

### 1.15. Kanoikadak neska bat hil baserri batean

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/016
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak  
  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Oialume baserrira joan ziren ihesi Urnieta bonbardatuko zuten beldurrez. Baserri batean kanoikada sartu zen: etxeko alaba bat hil eta beste bat zauritu zuen.

### Transkripzioa

- Geo guk alde in bihar izandu gendun, zeatikan hoik geo Santa Barbara jun zian, "este" hemengo zea hoik Frente Popularreko hoik ta Urnieta bonbateatu in behar zuela. Eta goatzen naiz, izebakin ta denakin nola jun giñen erropak eta hartu ahal genun bezela ta hemen baserri batian eondu giñan, Oialumen-eo, pasa arte. Ta geo bonbardeatu zuen baserri batea, hor baserri bat 'sagardotegia' esaten diyoena. Hara sartu zan kaiñonazo bat eta han alaba bat hil zuen. Ta bestea geatu zan ya begia galduta ta ni goatzen naiz han basarrin gaudela, amak nola ama nola pasa zan bere alaba horrekin ta soldaduk nola eaman zuen kamilla batian. Hoi denak goatzen zaizkit.

### 1.16. Herriko jendea lapurretan gerra denboran

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/018
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Gerrari ihesi joanda baserrian bizi zirenean, sagastira joaten ziren umeak jolasean eta etxean arduratan egoen ziren. Gerra pasatu eta etxera itzuli zirenean, konturatu ziren gauza asko harrapatu zirela; harizko maindireak, esaterako. Herrikoak ziren lapurrak; handik laster, berarentzat gordeta zuten eraztuna elizan ikusi zuten beste baten eskuan.

#### Transkripzioa

- Bai ta geo gu umiak giñan eta klaro, ni goatzen naiz aizu, argiya're kasik oso argi ttiki-ttiki batekin ohian nola sartzen giñan basarri hartan. Zeatikan bestela, Santa Barbaratikan basarri hura zeon eta ez ikusteatik. Ta geo umiak izaten giñan gu [...], basarri horren aurrian saastiya zeon ta gu hara joaten giñan saarrak hartzea ta. Etxian sartuta ezin eon ta ezin kontenittu ibiltzen zian: "Etorri honea!" Ez zuen iñorrek ikusteik nahi handik. Ez dakit nola ez zuen basarriya, zeatu, bonbardeatu. Ta geo halango bolara pasa zanian, etorri giñan ya. Hoik Donosti aldea eo jun zian ta geo tropak Andoaindik honea sartu zian eta geo tropa hoik sartu zianian, ordun etorri giñan geure etxea. Eta goatzen naiz, gure izebak eta taberna ta zuen ordun ta desbalijatu zizkien bastante gauza harrapatu zizkien, baiño herriko jendiak e! Soldaduk ez, herriko jendiak. Bai.

- Gosia, gerra.

- Bai, gosia, bai, bai. Gosia baiño maindiriak eta harizko maindiriak-eta izaten zian ordun-ta. Ta geo eraztun bat goatzen zat. Nere izebak eta nere amak eraztun bat eosi zittuen ta nere izebak gordian zakan eraztun hoi, nik pixkat hazitzeako eta hua eaman in zien. Ta gure izeba horrek elizan baten bati ikusi hua, eraztun hua. Ta klaro, gure aittona zana hain zan fededuna ta hain zan gizona zan aittona: "ez kasoik in, utzi bere kontzientziak". Ta ordun holaxe zian.

### 1.17. Errazionamendua eta estraperloa

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/019
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Ditxosozko errazionamendua etorri zen gero. Ematen zituzten garbantzuak hogeita lau ordu eduki behar izaten ziren beratzen. Patata beharrean boniatoa ematen zuten. Patata estraperloan ekartzen zuten Nafarroatik. Olioia hogeita duro (100 pezeta) ordaintzen



zen, oso garesti. Gipuzkoako gobernadorea Bar&oslash;n de Benasque deitzen zen baina "Ladr&oslash;n de Benasque" esaten zioten, eta Semana Grande-ri "Semana de hambre".

### Transkripzioa

- Geo ditxosozko razionamendua etorri zan, "que si un cuarto de litro, que si doscientos gramos de azúcar". Geo izaten zian beste patata bezelako zea, bueno haik ez zeon jateik. Geo garbantzuk ematen zittuen eta gure ama zanak eukitzen zittun beratzen hoita lau ordun igual. Ta geo eguarti guztin egosten. Ta hala're harri koskorak bezelakoak zian. Nik ez dakit nundik ekartzen zittuen garbantzu haik. Ta patatak bezelakuak zian boniato. Baiño guk patata. Naparroa ta juten zan gure osoba ta aitta ta juten zian ta handikan patata-ta ekartzen zizkiuen estraperloan e! Harrapatu izan bazittuen.

- Estraperlo asko izango zen?

- Bueno, ixilikan juten zian Naparroa ta geo oliyua're bueno oliyua're oso gutxi ematen zuen ta hogeituro paatzen gendun ordun e, "hace setenta y tantos años", diru asko zan. Ni goatzen naiz, gure amak azkeneko ttantoaiño nola paderan botatzen aitzen zan. Oain gaiñea, oliyuakin ez giñun prejitzen gauzak ordun.

- Bestelako oliyuan ordezkoi-eta izango zen sebua ta holako.

- Bai, oliyua batzutan txarra ematen zuen razionamentun. Eta geo "gobernadores" bat zan, "Varón de Benasque" eta jarri ziyuen izena "ladrón de Benasque". Eta geo "Semana Grande"n Donostin esaten "Semana Grande no, Semana de hambre". Ta ordungo kontuk holakoxek zian.

### 1.18. "Bar Ongi Etorri" "Bar" soila bihurtu zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/042
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 01:02:16. **Bukatu**: 01:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  - Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Osaba-izebek taberna zuten, "Bar Ongi Etorri" izena, eta gerra igaro zenean Francozaleek "Ongi Etorri" ezabatu zuten euskarazkoa zelako. "Bar" geratu zen soilik. Euri ez zieten euskaraz egitea galarazten, ez zekiten erdararik eta.

### Transkripzioa

-Gerra denboan'e geo nee izebak eta osabak zuen taberna, jartzen zun "Bar Ongi Etorri". Eta, klaro, Francon denboan "Ongi Etorri" borratzen ai zien ta "Bar" utzi zuen. Ta bi gizon, eta nik izebai galdetzen emen nion: "Ze ai dia gizon hoik?", eta "Zikiña zeon eta pintatzen" izebak esaten ziten. Eta "Ongi Etorri" kendu ein ziyuen euskerazkoa zelako. Osea ke "Bar" solo.

-Eta ametittu egin bihar?

-A, biharko.

-Zer esango zenien.

-Ez zeon han ezer esateik. Ta euskeraz hitz eitia, bueno, gui ez ziuten galarazten euskeraz hitz eiten baiño [...] askotan aittu nin nola galarazten zuen euskeraz hitz eittia ta.

-Eskola maistra kastillanak jartzia nahiko galaraztia da.

-Bueno. Gui ez ziun euskeraz hitzeitten galeazten, nola hitz egin bihar gendun?, ez ginikin erderaz eta.

### 1.19. Jeneral baten hiletak Oiartzunen

- **Hizlaria(k):** Lekuona Mitxelena, Hilario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-028/024
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:42:41. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Francoren aldeko jeneral bati Oiartzunen egin zitzaion hileta-desfilea oso gogoan du. Hilerrian hilobiratu zuten. Urnietako Onddi mendian eta Santa Barbaran "gorriak" omen zeuden, eta Xoxokako plazan zeuden francozaleen mandoak hil omen zituzten.

#### Transkripzioa

-Oiartzunen gooratzen naiz ni nola jeneralen bat edo ez dakit zer zala hilla. Jesus!, ze despilliak ein zizkien eta. Han da nunbait'e Oiartzungo kanposantu hartan sartua. Ja-ja, honezkero earki beratua eongo da gizajua. Gu mutil koskorrak giñala zan eta, nik ordun zer eukiko nittun? Zazpi bar urte. Holakon bat.

-Ze aldetakua zan akordatzen zea, ze bandotako jenerala?

-Ez, ez naiz goatzen baiño espaiñola zala bai. Espaiñiko bandera, oaingo txorixo zea klasia zun eta. Bestiak diferentia ibiltzen zuen. "Gorrik" deitzen ziyen hemen batzuei. Hemen gorri hoitakuak Santa Barbaran egondu omen zien batzuk eta bestiak Onddin'e bai, ta Xoxokako plazan sekulako mando pila bota omen zuen bestieiri. Gorritakuak bestieiri bota omen zizkien. Sekulako pila, e, esaten due; ni ez nitzen ordun hemen. Gu, klaro, Oiartzunen zala hasi zan gerra eta. Hemen denboa gutxi in zun gerrak, e. Hemendik alde in zuen norabaittea. Hor Gernika alde eta hoitan deskargak-eta in zittuen eta hor zeatu zien.

### 1.20. Garaiaren arabera, izen bat edo beste

- **Hizlaria(k):** Arizmendi Txapartegi, Agurtzane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-032/024
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:31:32. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

- **Laburpena:** Agurtzane du izena, eta ahizpak Josebe. Gerra etorri zenean, izena aldarazi egin zieten; baina, gerora, berriro euskaratu ahal izan zuten.

### Transkripzioa

- Zure izenan inguruan'e galdetuko nizuke, garai hartan... Garai hartan errexa zan izen hoi jartzen?

- Ez dakat ideaik'e, ideaik'e ez dakat, baiño gu biyoidi...

- Gerra aurre hortan jaio ziñan zu?

- Bai, hiru urte. Ta nere ahizpa're gerratian jaiyua zan, ta harek'e Joxebe izena zun. Hari're ez dakit nolaz jarriko ziyen euskeraz. Gero gerra etorri zanian kanbiatu, kanbiatzeko esan zuen, herriko etxea jun ta kanbiatu in biher izandu zun aittak; eta gero ostea etorri zan legia, ta ostea juzgadua jun giñan ta kanbiatu gendun.

- Ta zuri ere aldatu zizuen izena?

- Bai.

- Nola jarri zizuen?

- Bai, Rosario, Maria Rosario, nei jarri ziten.

- Ta noiz atera zan lege hoi? Gerra ondoren...

- Bai, Francok irabazi zunian gerra, gerra ondorenia. Baiñon ez zuen kasoik in e? Nei monjatan ta denian, denian, Agurne esaten ziden, monjetan ta zeatu zanian, etorri zan legia. Baiño "pa' las cosas oficiales", jun in biher izandu zan kanbiatzea.

## 1.21. Isuna garia ehotzeagatik

- **Hizlaria(k):** Yurramendi Larburu, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-033/004
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Trankatx ere itxi zuten gerra ostean. Beasain aldean, berriz, libre ziren errotrak. Eurak trenez joaten ziren hara. Baina gaez tranpetan jarduten zuten ehotzen. Behin guardia zibilak harrapatu eta isuna ordaindu zuten.

### Transkripzioa

-Gerra aurrian ta, gerra garaian ta, gerra ondorena ere ez zen ba...

-Bai, bai, gerra ondorenia'e gero denboa askuan.

-Hemengo errota batzuk itxi egin zituela aittua dakat nik. Trankatx itxi al zuten?

-Itxi zuen, bai.

-Ze pasa zan ordun?

-Ze pasa... Ez dakit nik. Ta Beasaiñen ta hoitan han libre zan errota. Ta gu jun izandu gea, etxian errota ta, ta hartu artua ta zea, Beasaiñea; iriñan billa, trenian.

-Zuek ere bai?

-Bai, joan izandu gea gu're, bai.

-Ez al zegoen martxan jartzeik hemengo makinaria?

-Bai, gero gabian aitzen giñen bai, tranpetan aitzen giñen.  
-Baiño bijilantzia ere izango zan hemen inguruan.  
-Bai. Gariya ez zan igotzia libre; garia igotzen gendun guk.  
-A bai, e?  
-Bai. Ta batian harrapatu ta multa bat pagatu gendun. Guarzibillak etorri ta harrapatu ta multa pagatu gendun.

## 2. Baserria

### 2.1. Oilaskoak handik eta hemendik lortzen

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: URN-001/025
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:36:23. **Bukatu**: 00:38:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Oilaskoak handik eta hemendik erosten zituzten posturako. Oilaskoak saski handietan sartzen zituzten hankak lotuta zituztela, horrela ondo garraiatzen zituzten. Gehienbat Eguberrietan saltzen zituzten oilaskoak. Gaur egungo oilaskoak oso handiak iruditzen zaizkio.

### Transkripzioa

-Eta batzutan bazeuden etortzen ziranak oilaskuekin baserrietatik hona saltzera...

-Donostira bai.

-Eta zuk haiei ez zenien erosten?

-Bai, bai, batzutan bai, bai.

-Errenterira're, pentsa zazu gu Errentira're bi koiñatak junak gaude oilaskuak erostea. Igandetan itten zan feriya Errentein, eta guk igandetan itxiya nola izaten gendun ba igandetan oillaskuak erostea juten giñan. Asi ke...

-Eta han oilaskuak bati bi beste bati beste bi eta hola...

-Bai, bai, bilduta.

-Ez zuten asko izango.

-Hoi da, batzuk pare bat igual, bestiak bi igual, bestiak hiru igual. Bai, bizitza goorra tokatu zaigu.

-Eta gero oilaskuak bizirik nola eramaten dira hamar oilasko?

-Zesto haunditan. Hanketan lotu ta zestuetan. Ondo ibiltzen dia.

-Eta zenbat oilasko saltzen zenituzten?

-Eguarritan asko. Gaiñeakuan asko-asko ez gendun saltzen. Klaro, fruteiya ta polleria zan eta. Baiño eguarritan asko. Asko saltzen gendun eguarritan. Jesus!, baiño ez oin bezelako oillasko haundi hoik. Nik hoik ezin ditut jan. Bueno, ez det ezer asko jaten baiño hoik gutxiyo. Zeatik guk saltzen gendun oillaskua "de kilo, docientos, trecientos"; hoi izaten da oillaskua goxua. Ta nik beste oilasko haundi hauek ezin dittut jan. Nee ahizpak'e bialtzen ditu oillaskuak baiño haundiyak, oillarrak ematen due. Ez, ez, nik ezin dittut jan holako haundiyak

## 2.2. Ardiekin lanean bertsoak kantatzen

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** URN-001/034
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:55:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Baserriko lanetan ibilitakoa da: ardiak jezten, ardiak zaintzen... Ardiekin bertsoak kantatzen ibiltzen zen beti. Hotza ondo eramaten zuen, baina kalte handia egiten zion. Ardiekin egoteko, zer janari eramaten zuen aipatzen du.

### Transkripzioa

-Eta baserriko lanetan eta ibiltzen zinen?

-A bai, nik baserriko lanetan ´e badakit. Ardiyak ´e jeitzen badakit, e? Nik ardiyak zeatu, bildu ta esnia kendu ta gazta itten zuen attak eta amak.

-A bai?

-Bai.

-Etxerako ala saltzeko?

-Etxeako. Ez, ez, saltzeko ez, etxeako. Bai. Ardik ´e gutxi, ez giñun asko ta. Ardi asko bihar da gazta saltzeko itteko.

-Eta ardi-zain ibiltzen ziñan?

-Bai, uiii ardi-zain? Nik aiña berso kantatzen ardikin...! Baiña ni beti kantari! Nik eztakit zenbat berso ikasten nittun, ta danak banakizkin! Oain danak ahaztu zaizkit, e? Baiña zenbat kantatzen nun nik ardikin! Ta neguan, neguan itten nuen zeatikan, gure etxen, klaro, mendiya zan, ta elurra, ta ardi gaixuak behero elurrik ez ta harea eman behar zian, jatea. Ta ni nere ardik hartu ta juten nitzan ardik, ardik jatea. Eta gero bueltan, egurra eoten zan han oso ona, sue itteko, otia, ote egurra. Ta sorta ein, zeakin, egurrakin, hue burun hartu, ta nere ardikin juten nitzan etxea, illuntzian, pentsa zazu! Ni ez, ez... Gaiñea, hotzakin? Hotzakin oso gogorra nintzan, gaiñea, e?

-Bai?

-Bai, nik atta nun gogorra hotzakin, ta ni ´re bai. Oain solamente hotzak itten dit /itteit/ kalte bat... Grazyak kalefakziyuak-eta onak dazkaula, bestela...

-Eta han jateko ta zerbait eramango zendun ez?

- "Un bocadillo", sardin zaharrakin iña o.

-Sardin zaharrak?

-Sardin zaharrak, hoixe. Sardin zaharrak ez osuak e? Askotan hiru puska einda bat. Bakoitzantzako puska bat. Txokolatia gendunian, ontza kuadratu hoik, lau puxka launtzako. Ze uste dezu /ustezu/, gaizki hazita...

## 2.3. Usurbilgo larra-behien zorigaitza

- **Hizlaria(k):** Lasarte Zugasti, Xanti
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-002/032

- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:49:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Usurbildik larra-behiak ekartzen zituzten uda pasatzera. Gerra bukatu eta berehala, behiak beraien kontura Urnietara abiatu, eta trenak mordera harrapatu zituen.

### Transkripzioa

- Baiño Usurbiltikan etortzen zian mendi honta larra-behiak. Usurbildik honea udara pasatzea ekartzen zittuen. Eta gerra pasa, ta bukatu ta seittun izango zan, bate gizonik be behi hutsak abittu Usurbiltik, ta Urnietako karrillea etorrira, karrillea sartu dia, ta trenak hor harrapatu zittun mordua, hamar-hamabi eo, hor. Hoi gerra bukatu zan garai hartako kontua.

- A ze galera!

- Hua're... Bai. Haik beren garaiya udaberriya somatu zuenian, iñor be martxa aurrea, ta gaizki atea zitzaiyen. Hoi nik oain hamabi urte banitun nik, ordun, hamar-hamabi o, hor.

## 2.4. Mamia eraman eta txistorra ekarri

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Amak mamia egiten zuen, eta Hernanira eramaten zituen buru gainean. Etxera itzultzean, txistorra ekartzen zuen.

### Transkripzioa

- Eta baita're gue amak itten zun ardin esnia eosten zun eta mami mordoxka bat itten zun, lurrezko txarruetan. Bazun litrokua, bestek litro erdikok'e bai, bi litrokok'e bai ta eamaten zittun Hernanira. Xistera zabal bat bazan, hua burun hartu, txarruetan jarri mamik eta burun hartu eta Hernaniaño pentsa Poxentarretik ordu betian ez zan aillatzen. Ordu beten aillatuko zan Porturaino ta geo kalea.

- Poxentarri nun da?

- Poxentarren, Besabi badakizu. Besabi, ezta're?

- Besabi?

- Jatetxe hoi?

- Bai, Urnietako Xoxoka.

- Hoi da, Xoxokatikan gorogo dao hoi. Montefrio're bado, agroturismo dao baiño bai, bai. Gero eakutsiko dizut, Poxentarri bista-bistan dao baiño urruti dao, Urnieta ordubete ta Hernania ordu ta laurden ta gue ama hoik burun hartu ta jakitten zun zeñientzako zian ta partitzen zittun esne mamik eta gu gaztiak eta bakizu amak ze ekarriko zun zain. Ni ondo goatzen naiz gue amak ekartzen zula txistorra ta hua prejitu ta ogiyan tarten ze goxua zan.

## 2.5. Poxentarri baserriaren egitura

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/010
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Bere jaiotetxea, Poxentarri, nolakoa zen azaltzen du: egitura, komunaren funtzionamendua, sukaldeko tresnak eta altzariak...

### Transkripzioa

- Angela, zure etxia nolakua zen, Poxentarri?

- Poxentarri? Etxe pollita zan, etxe polit; mendin ez [...] etxe politta. Ba sartu ta ganbara zabal bat earra sala bezela eta hiru kuarto, lau eta geo sukaldetxo bat. Zan oso politta. Behian ikuillua ta goien sukaldia ta kuartuak ta sala.

- Ta komonik?

- Bai, komona bueno, orduko oholakin-ta indakoa, bakizu. Eta zero bat tapakin, behera, ikuillua-o. Geo ikuillutikan kanpoa bazan desagua, bai.

- Ordun, han, komunian itten zena ze juten zen?

- Ikuillua, bai, gorotzak eta geo, geo salida kanpoa jarri zitzaion ta holaxe.

- Eta sukaldia, nolakoa akordatzen zea?

- Sukalde txiki bat zen, sukalde txiki bat. Ba zan, bueno, su bajua, geo gendun, labetxo koxkor bat, labetxua hola pixkat altun. Han'e ikatzakin itten gendun eta behian sua ta geo tximiniya goitik behera laratza esaten zitzaion, beltz zintzilika. Eta geo, han zeatzen geñun eltziak eta kazuelak-eta hantxe. Ta su aurrian, beste burni batzuk oso polittak ta han brasa earra ta hemen eltzia jarri, zikin-zikin itten zian baiño benga, hondarra errekuakin garbitzen giñun, ordun ez zan alanbreik eta holako gauzik. Hondarra ekarri ta jaboia ta hondarra harrekin garbittu. Hua oso garbiya zan ta hala itten giñun guk.

- Eta mahaia haundiya izango zan ba?
- Mahaia ez zan haundiya, ez zan haundiya baiño moldatzen giñen, nolabait´e moldatzen giñen.

## 2.6. Umeei eta etxeko lanei eskainitako bizimodua

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/019
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:31:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Egun normal bat nolakoa izaten zen azaltzen du. Umeei eta etxeko lanei eskaini izan die bere bizia.

### Transkripzioa

- Kontatuiazu gutxi gorabehera zure eun bat, badakit urtaro diferentetan pues lana diferente itten dala baserriyan.
- Bai.
- Goizian jeiki ta ze?
- Hasi su hortan ta ordun ez zan butanoik e! Eta sua in ta iltzia jarri eta hasi ta etxia moldatu ta umiak moldatu eta geo gizonan atzetik, ganaduta o atxurrea o danata. Gizonan atzetik, mendia joan behar bazan garuan billa're baita're. Nik egiya esan, etorri ta maiatzin ezkondu ta apirillian azkenik jaio zan gue alaba zaharrena, ni ez nitzan iñoa ateatzen, etxeko zea izandu naiz oso, umiak eta etxeko lanak. Nik besteik ez det izandu egiya esan.
- Nahikua bada!
- Bai, asko.
- Nahiko lan.
- Pentsatu hiru zaharrenak hamabost hillabeten diferentzin izan zien, hiru. Bestiak hamasei hillabete, beste batek hamazazpi eta hortxe danak. Pentsatzu hogei urtian hamar. Ni hortxe pasata, hementxe Aierdin buelta nere bizimodua ta azken batian poza izaten dezu hoi, txintxo-txintxo.

## 2.7. Gurelesa alde batera utzi, eta kalera esnea saltzera

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/020
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:31:09. **Bukatu:** 00:34:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Gurelesari ematen zioten esnea, baina ez zen batere errentagarria; eta, orduan, Hernanira hasi zen eramaten esnea. Hasiera nolakoa izan zen kontatzen du. Behor gainean eramaten zuen esnea baseritik kalera. Gerora, galarazi egin zuten esnea etxeetan partitzea.



### Transkripzioa

- Baiño zu etxetikan kanpoa're lana iña zea, merkatura jun-etorri ta?
- Bai, Hernania. "Es que" Gurelesai ematen geniyon esnia eta oso gutxi patu zun. Ta nik esaten nun: "baiño hau ez da posible, ez gea iñondik iñoa aterako". Eta maiatzian izandu zan, hemen bi zien alaba hok jaio zan maiatzan hogeiyen eta ni hasi nitzan San Juanetan Hernanin esniakin. Ta Hernanin, ordun, etxe berri asko in zan ta aurrena hasi nitzan plazan ta han'e beidatu txarra itten zuen e ta bazan emakume bat, Argindeikua zan, aman bat harrek esan zian: "Zu jarri nere onduan, lasai" eta "hemen danak bizi bihar deu-ta". Esnia. Geo, beste batek esan zian: "Nik eamango dizut "calle" Elkanoa, etxe berrik in dia ta jende asko ai da sartzen erdaldunak, igual da". Han, hantxe hasi nitzan etxez etxe esnia ta in nun parrokiya nahi nun haiñe. San Juanetan hasi nitzan ta San Juanetan pasteleritan ta eamaten nittun esne guztik airian baiño geo San Juanak pasa zianian, artzaiek in [...] eta gaixki eoten nitzan. Baiño in nittun nahikuak. Bi bihor hartu Aierdin eta bihorraikin Hernania, esnia partittu, enkarguk in, geo esniak ematean amon harrek esan zian "zuk baldin bazu patata ta baldin bazu azak eta baldin badittuzu arraultzak ekarri ta esnian anparuan asko launtzen dut". Halaxe ibili nitzan. Ta geo honek atea zun karneta eta hoi hasi zan ta geo alabak, esnia partittu ta lanea.
- Baiño zu behintzat kotxiak eta hoi baiño zaldiyakin?
- A, bihorraikin. Bai, bai. Buelta asko oiñez e hemendikan Hernania.
- Nola kargatzen zenun zeneukan guztia bihorran gaiñian?
- Bueno xestuk izaten zittun bihorrak eta etxetik ateatzeko etxekok launduta-eta, bai, bai, errez, errez. Gorra izandu naiz ni egitan, osasunaz ta bueno, bueno.
- Nola hasten da, non gogua zangua han?
- Hoi da, bai, bai. Eta geo in bihar zendun gaiñia, bestela ez zeon mantendu're itteik. Zea lotsagarrikeri bat patu zuen esnia ta hara hasi nitzan bai ta holaxe pixkana-pixkana geo galazi zuen esnia partitzia.
- Hoi're bai?
- Galazi in zuen etxeetan partitzia esnia, bai. Ta ordun, utzi in bihar izandu gendun eta ordun...
- Zeatikan galazi zuen ba?
- Hoi Gurelesak-eta hoixek. Esne frexkua saltzia galazi in zuen ta utzi in gendun ta ordun, orduako hasi zen hau'de ya Donostia juten zan lanea ta esnia utzi ta bakoitzak bere tokin lanian.
- Hernaniko plazako merkatu hortan urte batzuk in zenitun edo?
- Bueno ingo nittun nik lau urte, hiru-lau urte bai, ez dakat goguan ondo baiño.

## 2.8. Denak ahariaren atzetik

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/009
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:18:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Behin, Idiazabalgo artzain baten ahari bat ekarri zuten etxera. Udazkenean, San Migel inguruan, ahari denbora etortzen

zenean, ordea, artzain horrek berekin eramaten zuen. Ahariari kontu egin behar izaten zitzaion. Ahari onaren ezaugarriak aipatzen dituzte: gorputz ona, kolore gorri-horia... Beraien ahariak kolore iluna zuen, baina ahari ederra zen. Denak saiatzen ziren ahari hari etekina ateratzen, arkumeak izan zitzaten.

### **Transkripzioa**

- Guk behin ekarri gendun, Idiazabalgo artzai bat eoten zan hemen, Urnietan negutzen, "o sea", negua pasatzen ta handik ekarri gendun ahari bat ta zan ahari bikaiña, hemengo aharik baiño mardutxuo, haundigoa ta ahariren bat etortzen zanian kendu itten ziguen. Hartu ta bere arditara eaman. Haren umiak izateko.
- Han bolada batian ibili.
- Bai, udazkenian izaten da hemen gutxi gorabehera. Bestela ez zan izaten arkumeik. Ta udazkenian izaten da San Migel inguru hortan, ahari denbora-o esaten giñuna ta ordun egunien bitan askotan jun nitzan ni. Goizian jun ta etzanda daon tokin harrapatzen zenun ahariya. Uzten bazendun geoxoako, baten batek eaman ta arrastoik be geatzen giñan. Illuntzian'e bai jun ta aseuratu, aber ardikin geratzen dan ta hortako kontu itten giñun ahari.
- Ta ahariak kontu in behar ordun, ze ibiltzen zen auzuan bere kaxa ibiltzen zen?
- Bere kasa juten bazan, ordun bai izaten zan. Hartu ta eaman igual itten zittuen mendi batetik bestea ta kontu in behar izaten zan, bestela.
- Ahari ona zer da? Nolakoa da? Artzai bakoitzak bere zea du, ez? Mutur beltza gustatuko zait ta bestiai adarduna ta bestiai ez ta? Zuentzat zer da ahari politta?
- Gorputz onekua aurrena behintzat ta baakizu koloria batzuntzako inportantea izaten zan. Jeneralian, gorri-hori kolore hoi maitte izaten zan, baiño gure horrek illuna zun, gris illuna. Baiño zan, lehen esan dedana, larrigoa ta ahari earra zan. Jendiak ez zun errespetatzen. Ahal baldin bazan haren umiak bihar, danak.
- Baiño eskatu eo ingo zizuen, ezta?
- Bai zea!
- Ez? Eaman? Hartu ta eaman?
- Eskatu ezkeo ez zeon emateik. Ardik arkea pasatzen zian ta arkumeik be geatzen ziñen geo, ahariya ez zeon iñoi emateik tenporada hortan. Horreatikan kontu in bihar izaten zan, ardik ahari gabe ez eoteagatik.
- A ze errespetu gutxi, ezta?
- Bu!
- Ahari politta izateagatikan jo ta bestiai kendu ta.
- Bai, bai.

## **2.9. Zumitzezko gazta ontziak egiteko pausoak**

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/013
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 00:20:51. **Bukatu**: 00:24:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza

- **Laburpena:** Gazta egiten zuten garai batean. Artzain bati eramaten zioten esnea, eta hari eskatzen zioten gazta egiteko. Eskuz egiten zituen. Gazta ontziak zumitzezkoak izan ziren eta horiek nola egiten ziren azaltzen dute.

### Transkripzioa

- Tomas: Gazta atzeneko urtetan, gazta itten zan etxian zeozer, baiño geo mendia eamaten gendun ardik eta han zeon Joxe Iñaxio artzaiya, mutil soltero bat.. Zaharra zan. Ehun ta, ehun ta bat urte zittun hor, bizi izan balitz. Gure aittan kinttua zan. Ta hua han eoten zan txabolan, Adarra mendiyen [hauztin]
- Juan Bautista: Adarrako Zabala esaten zitzaion.
- Tomas: Adarrako Zabala. Eta ordun, hari eaman ardik ta gazta itten zun erdira, biyontzako erdi bana. Geo astian behin astuakin jutun giñan, harentzako jana zeozer hartu ta geo gaztak ekarri. Asko ez zan izaten, pixkat. Baiño zianak...
- Nolakoa hau da?
- Tomas: Gazta koskor batzuk.
- Juan Bautista: Jakiña! Esnia gutxi izaten zan-ta gazta...
- Tomas: Egunian bi eo ez dakit ze itten zittun. Astuakin behintzat, ekartzen giñun ta.
- Lehengoko tresnerik'e prentsak eta holako kontuik izaten zan.
- Tomas: Ez zeon prentsik. Prentsik ez zeon. Eskuz, eskuz. Prentsa oaindik berriya da bastante. Berriya. Berrogeita hamar urte-eo.
- Ya. Ta ze tresna izaten da, ba al dakizue zuek gazta iteko malatsak-eta holako zeozer, ba al dakizu zer izaten dian?
- Tomas: Gazta iteko zea, ez du ezerre.
- Juan Bautista: Malatsa ta zumitza. Zumitza ta kitto.
- Tomas: Zumitzak egurrezkuak zien, ordun. Joxe Iñaxio beak itten zittun gaiña.
- Beak itten zitun?
- Tomas: Bai.
- Juan Bautista: Zumitza, zumitza esaten zan. Zumitzakin indakua izaten zan. Tartien txulo, ez dakit nola esplikatu, hola kruzian izaten zian, zumitzoik. Ta jun ta hemen, kantoi bakoitzian txulo txiki batzuk izaten zittun zumitzak. Nonbaitetik jun behar zun.
- Tomas: Gaztan likidua.
- Juan Bautista: Ba akabo! Haik han bukatzen zan.
- Nik ez det ikusi zumitzaeko zeaikan. Oain molde horrei gazta sartzeko, molde horrei zumitza deitzen zaio oaindik, baiño oain dia plastikoa.
- Tomas: Hortik dator, bai baiño.
- Zumitzaekoik ez det ikusi.
- Juan Bautista: Zumitza hua zan. Hok plastikozkok.
- Tomas: Zuk ikusiko ziñun, uztaiak. Ba hoixe. uztaia bezelaxe itten zien gaztaiñan...
- Juan Bautista: Gaztaiñan materialakin.
- Ordun bik jarri kruzian edo?
- Juan Bautista: Bi eo lau-eo.
- Tomas: Ez. Gehio izaten zittun.
- Juan Bautista: Buelta hartu, tapatu arte, kubritu arte.
- Tomas: Txikiya zea, zumitz txikiyaguakin itten zuen, errexao.
- Juan Bautista: Bai, nik eskuba jarri dit, baiño igual bi bihetz, bi bihetz zabalekua eo bat eo.
- Harekin kruzatuz?
- Tomas: Bai. Zextoan, zextoan borobill hoi. Igual-iguala.

- Ta gero hua gora zeatu beharko zen?  
 - Juan Bautista: Hua itten zuen beotu ta ez dakit ba. Egosita-eo.  
 - Tomas: Ez, zumitza urian eoten dek. Zea gaztaiña urian eoten da, putzun. Gero hari hua atea ta.  
 - Juan Bautista: Bai, baiño okertu.  
 - Tomas: Ez, ez. Hoi besteik be itten diyek. Ez duela besteik itten. Zestua itten ez al dittuk ikusi?  
 - Juan Bautista: Bai, baiño eskuadran itten zitten. Eskuadra itten zuela, zean ipurdin oso doblatuta.  
 - Tomas: Hoixe. Baiño oaingo zextuak ez al dituk ikusten? Hoi hola. Hoi egoten dia urian-eta eoten dia biguñak oso. Gaztaiña bihar izaten du gaztia.  
 - Juan Bautista: Materialak beti putzun eon behar izaten du. Igual urtebetian eo bin eukitzen due.  
 - Tomas: Klaro, hoi negun botatzen dia ta geo urte guztin eoten da putzun.

## 2.10. Gazuraren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/015
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:28:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Gaztak egiten zizkien artzainak gazurarekin zer egiten zuen aipatzen dute. Lehen, gaztari gazura botatzeko jakin beharrekoak.

### Transkripzioa

- Tomas: Gazurakin Joxe Iñaxiok itten zun gauz bat, seuru ez dakit nola itten zun, baiño hik ez huan behin ´e edan?  
 - Juan Bautista: Ze itten zun?  
 - Tomas: Gatzura itten zun egosi. Egosteko momentu hartan gazura dakan zea guztiya gaiñea ateatzen zitzaion, esniai gaiña bezela. Hua kendu eta ibiltzen zun ontzi batetik bestea botaz ta ordun eozein gauza ona izaten zan, baiño hua netzako oso ona zan.  
 - Juan Bautista: Joe, ze traguak itten genittun.  
 - Tomas: Pixkat izaten zun, esne gutxi-ta, baiño hua ikearri goxua zeon. Nik itten ikusi izandu nun,  
 - Jun Bautista: Nik neikua, askotan edan nun.  
 - Tomas: Behin baiño gehiyotan ikusi...  
 - Juan Bautista: Pixa itteko ez dao holako materialik. Zerbeza earra izango da, baiño gatzura da, bueno!  
 - Tomas: Baiño gatzura, gatzura, gatzura ez da izaten. Harek itten zuna matoia zeatu, loritu. Zeaatu itten zan, gaiñea biltzen zan eosteko momentu uste det. Ordun, hua gaiñegua kendu.  
 - Juan Bautista: Kendu ta geo...  
 - Tomas: Gaiñegua untzi batetik bestea.  
 - Juan Bautista: Eman ta eman. Bolara batian, batetik bestea.  
 - Aparra atera edo?  
 - Tomas: Ez. Apittu bezela.  
 - Juan Bautista: Ez, esnia, esne galdua bezela geatzen zan. Ta oso janari

ona zan hua. Erabiya, ez dakit nola esan.

- Tomas: Harek seuru asko alimentua're izango zun.
- Juan Bautista: Geo gaztai bukaeran'e handik botatzen ziyoen e.
- Tomas: Bai, gazta azalak zeatzeko beti.
- Juan Bautista: Beotu ondo ta harek tela bezela itten ziyon gaztai gaiñian.
- Tomas: Leun-leuna gelditzen zan gazta.
- Juan Bautista: Xuabe-xuabe-xuabia. Oain'e botako dio igual, ez dakit.
- Tomas: Oain ez.
- Juan Bautista: Hor gordiña bota behar zaio. Bat'e ez.
- Tomas: Bat'e ez.
- Juan Bautista: Bat'e ez seuru asko.
- Tomas: O beste, beste teknika batekin itten due lana oain.
- Enpresatan-ta dena.
- Juan Bautista: Ordun gazta itten zan estutu ahal dan guztiya ta azkenian, gatzura botatzeko, arramaskatu dena.
- Tomas: Azala itten zitzaion.
- Juan Bautista: Azala zea hoi ta ordun bota ta berriz'e estutu ta berriz'e azkazalakin-o, azkazalakin. Buelta eman ta dana arramaskatu ta berriz'e bota ta estutu. Ta holaxe lixo-lixo geatzen zan gaztan gaiña ta jira.
- Tomas: Hua azala itteko zala esaten zuen, ez dakit.

## 2.11. Gatzagia lortzeko pausoak

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:29:46. **Bukatu**: 00:32:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Gatzagia arkumearen urdaitetik nola lortzen zuten aipatzen dute. Gatzagi gutxi behar izaten da gazta ona egiteko.

### Transkripzioa

- Bueno, geo esnia berotu ta zeozer bota beharko zaio? Zeozer.
- Tomas: Gatzagiya botatzen zitzaion.
- Ta gatzagiya zer zen naturala o?
- Tomas: Ordun bai.
- Juan Bautista: Ordun bai.
- Ta nola konsegitzen zen gatzagi hoi?
- Juan Bautista: Hoi etxian izaten zan.
- Tomas: Arkumiai, arkumian estamugua da hoi. Ez al dezu ikusi behin hola?
- Ez. Hemen nonbaite ez. Legamia ta hoik bai, baiño.
- Tomas: Hoi kendu arkumia hiltzian, estamugua kendu bi puntetan zea...
- Juan Bautista: [...] bezela izaten da, bi puntetan hestia.
- Tomas: Zea sarrera esniana ta atera tripa.
- Juan Bautista: Atera.
- Tomas: Ta haik biyak lotu, txintxilik jarri ta sekatzun zun, kontserbatzeko.
- Juan Bautista: Hua kontserbatu itten zan txintxilik jarrita.
- Tomas: Seko-seko itten zan. bueno seko-seko, aber barrenen zea eukitzen zun.

- Juan Bautista: Geo puxka txiki bat kendu.
- Tomas: Oso ttikia're nahikua izaten du, hestia belaxe galtzen du.
- Juan Bautista: Gutxi izaten gendun guk eta gutxi nahikua izaten zan.
- Tomas: Baiño gehiegi're txarra dala uste det.
- Hoi tamaiña politta da e, gutxi izaten zun ta gutxi nahikua zan.
- Tomas: Ez baiño gutxi nahikua du e, asko botatzen badiozu usai fuertia uzten diyo.
- Juan Bautista: Gero kutxare batian-eo urakin; aztaka, aztaka, aztaka itten zendun, ahal dan fiñena in, zea likidotu dena ahal baldin bada, bota ta zeakin nahastu.
- Harekin berotu eo berotzen zanian bota?
- Tomas: Ez, ez. Beruai bota.
- Beruai bota.
- Juan Bautista: Beruai bota.
- Tomas: Hua bota. Hoi zuk esaten dezun malatsa.
- Juan Bautista: Malatsakin nahastu.
- Tomas: Nahastu.
- Juan Bautista: Hamar bat minutua-o ya hartuta, hartzen aitzen zan.
- Ya gatzagi horrek ze efektu itten dio?
- Tomas: Mamiya itten du horrek, mamittu.
- Juan Bautista: Mamittu.
- Tomas: Baiño gatzagiak'e badu bere inportantziya. Gehiegi botatzen baiozu, gatzagiya izaten da oso fuertia, usai oso fuertia.
- Juan Bautista: Tejua, tejua nahastu...
- Tomas: Tejua nahastu. Ordun, oso pixkat nahikua do. Honek esan duna oso gutxi izaten zan, baiño aparte gutxi nahikua.
- Gutxi nahikua.
- Juan Bautista: Oso gutxi. Puxka ttiki-ttiki bat gatzagi ona baldin bazan oso gutxikin.
- Tomas: Oso gutxikin.

## 2.12. Ilearekin zer egin jakin ezinik

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/019
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:32:06. **Bukatu**: 00:33:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Arkumearen urdailak ilea bazuen, ez zuen gatzagia egiteko balio izaten. Ilea ez da desegiten, eta arazoak izaten dituzte harekin zer egin erabakitzeke.

### Transkripzioa

- Juan Bautista: Geo gatzagiyak bihar izaten zun belarrik-eta jan gabia.
- Belarrik jan gabia. Ordun.
- Juan Bautista: Arkumia.
- Tomas: Esnia.
- Juan Bautista: Esniakin [...]. Izaten zun asko illia, estomagu hortan.
- Tomas: Bai.
- A bai?

- Juan Bautista: Amai jaten ziyon, jaten diyo arkumiak jeneralian ta han eoten zan dijerittu eziñik hua. Ta azkenian sekatzan zanian, irikitzen zendun ta illez betia izaten zan.

- Tomas: Estomagua pelota bezela geratzen zan. Zea illia, hua ez zun...

- Ze gauza, hua ez da iñun'e desegiten

- Tomas: Illia, illia da gauz bat ez suak erretzen du, ez bota ta usteldu itten da.

- Gauza zikiña.

- Tomas: Zikiña, zikiña.

- Juan Bautista: Bai, plastikua bezela.

- Toma: Atzenian zikiña.

- Bai.

- Tomas: Ta oain ezerk ez du baliyo ta jende askok aurtan ta bildu in dittue baiño izandu zian urte bat eo bi bildu´re ez zittuenak. Ta itten zan errekan-eo bota, baiño handik bost urtea're hua han eoten da.

- Bai ba. Noa botatzen dezu hoi, noa bota?

- Tomas: Horri zeozer.

- Juan Bautista: Galarazi in zuen geo botatzia're.

- Tomas: Noski! [...] Hola botatzia galaziya, ez dakit, basureta eo ez dakit noa noaiño jungo [litzaken].

- Juan Bautista: Otzaurten askotan pasatzen zan, ibiltzen giñuan mendin-ota. Badoa artzai bat txabolan atarin hemengo ohia jotzeko moduko pillia.

- Tomas: Bai baiño hemendik bost urtera...

- Juan Bautista: Harek ez du ezertako baliyo ta ez du sekula ez da ustelduko.

- Tomas: Eta eunen batian haiziak-eo hartuta.

- Juan Bautista: Harek bezela beste askok eukiko du hoi. Pillan jarrita danak.

### 2.13. Errotazar errotako harria

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/025
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:42:32. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errotazar errotako harria non dagoen azaltzen dute.

#### Transkripzioa

- Tomas: Geo Errotaxar hortako errotarriya, errotak zun harriya, gue basarria hor beheko hoi huan [...] bidian, Learreta ta [...]. Atian gaiñeko harriya batetik besteaiñokua ta hangua zala aittak esaten zun.

- A bai? Errotarriya?

- Tomas: Errotarri haittakua omen da. Ez da borobilla ta e, kuadrokoa da baiño.

- Juan Bautista: Kuadroa ez.

- Tomas: Beno, rektangularra da baiño.

- Juan Bautista: Mahaia bezela.

- Tomas: Baiño izango dittu bi metro ta erdi luze ta hau.

- Juan Bautista: Hau baiño zabalo.

- Tomas: Ta loriya. Hua nola ekarri ote zuen ta nola altxa ote zuen?  
 - Juan Bautista: Hombre, elizetako harrik´e.  
 - Tomas: Bai, bai; igual, igual.  
 - Juan Bautista: Ordun'e esaten zuen oholez bete altura ta lurrian ematen zittuela arrastaka ta pareta altxatzian berriz'e bete. Beti hola juten ziala gora.  
 - Tomas: Elizak-eta garai haittan ze aginttea eukiko zun, ze indarra. Baiño hoi basarri hortan harri hoi [...] ta ez dakit hua milla ta bostehun kilo-eo izango da harri hoi.  
 - Hainbesteñekua baldin bada.  
 - Tomas: Bai, bai.  
 - Juan Bautista: Eten ttiki bat´e bai ixkiñan.  
 - Tomas: Bai, baiño zartatu ttiki bat, bere [...] mantentzen da baiño harri hua oso gogor zio. Oain gaiñea, garbi-garbin jarri diek ta hola [...].  
 - Juan Bautista: Usteldu ez dek ingo.

## 2.14. Soroko lanak eta tresnak

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/032
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:52:19. **Bukatu**: 00:54:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak  
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Soroko lanak eta tresnak azaltzen dituzte.

### Transkripzioa

- Zer pasatzen zen aurrena soroakin?  
 - Tomas: Goldia, goldatu. Bueno, aurrena-aurrena jeneralian kirrimarrua zan.  
 - Hoi zer zen?  
 - Tomas: Muellezko hortza batzuk zittun, muellea itten zuen hortz atzian.  
 - Juan Bautista: Hola kurban.  
 - Tomas: Lurra atzeatu itten zun, muittu azala.  
 - Juan Bautista: Txapa, pletina lori bat balitz bezela, kurbatuba ta harek "ta, ta, ta" tiraka beti heltzen juten zan hua. Irikin hua pasatzen zan, harekin pasatzen zan.  
 - Tomas: Lehenengo, lanik haundina itten zula uste det gaiñeko belar zikiña ta muittu itten zun ta galtzeko, galtzeko.  
 - Tomas: Azala, azala hautsi.  
 - Juan Bautista: Hua lehortzen.  
 - Haren atzetik? Haren ondotik?  
 - Tomas: Goldia.  
 - Juan Bautista: Simortu. Ahal dan guztiya ta geo goldetu.  
 - Tomas: Buelta eman lurrai.  
 - Ya. Ta goldetu ta geo, berriz, ximortu bai?  
 - Ez.  
 - Ez zan beharrik?  
 - Juan Bautista: Jeneralian ez.  
 - Tomas: Ximorra're ez zan izaten.



- Juan Bautista: Eta gero harria beste hortza zorrotza hoikiko.
- Tomas: Rastra, rastra bestia.
- Juan Bautista: Rastra ´re bai.
- Tomas: Buelbaka ibiltzen zian hortza batzuk.
- Juan Bautista: Hortzaz betetako rolo batzuk. Bai dana zulatu itten zuen, goldeakin jirautako zoilla-o, zoilla esaten zaio horri.
- Goldiak itten zun lan hoi, laiakin ta zoillakin ezautu al zenun?
- Tomas: Ez. Nik ikusi dittut hola baratzatik ta laiakin ai diala, baiño beste lehengo zea hua ez, guk beti goldia.
- Ta goldia ze izaten zen? Eurrezkoa, burnizkoa?
- Burnizkoa, burnizkoa.
- Dena?
- Dena burniya bai.

## 2.15. Batzuk hostoak kimatzen, eta besteak gaztainak erretzen

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/005
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:04:53. **Bukatu**: 00:06:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Gauean, aitak hostoa ekartzen zuen etxera; eta, orduan, hostoak kimatzen aritzen ziren gehienak; senide gazteenak gaztainak erretzen aritzen ziren. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Gaztainak biltzera joaten ziren lehen; ondo kontserbatzen ziren gaztainak, nola gordetzen zituzten aipatzen du.

### Transkripzioa

- Ta geo gabetan, hoi zea asko dakat goguan, gabian gue aitta zana beti hostoa eo itten zun. Lizar hostoa o haritz hostoa o. Beti astuakin jun ta hostoak ekartzen zun etxea. Ta gabeen hostoak kimatzen. Hostoak kimatzen eoten giñan, batzuk eoten zian ta gu umiak artean eta gu gaztaiñak erretzen. Bajuko sua izaten zan, su bajua eta su bajua ta gaztaiñak hasten zian "pum" eta gu lo. Suan ondoan jarrita lo hartzen ta gaztaiñak hasten zian "pum" eta aittak-o: "Ea gaztain hoik!". Haik handik sumatzen zuen ta gu lo. Ni lo. Eta "ra", ordun buelta eman eta berriz'e ta berriz'e gaztaiñak "pum" ta "pum" ta: "Ea gaztain hoik!" eta. Bai, hola askotan, hola askotan. Ta geo gaztain biltzen ta gaztaiñak ordun. Oain ez dia kontserbatzen. Ordun kontserbatzen zian ba!
- Ta nola?
- Negu guztin, negu guztin gaztaiña izaten giñun guk gutzako. Guk eunero ez giñun jaten, baiño jaten giñuneako eta txerrintzako. Eta itten giñun ba basoa jun ta gaztaiñak bildu eta itten giñun etxea eaman, gurdin eamaten zan, gurdi kajan eaman eta itten giñun pillak etxean onduan, lurrean, kanpoan. Pillak in eta iñastorra, garoa esaten zan han. Garoakin tapatu, geo beste lurrakin eo berriz'e estali eta han earki eoten zan gaztaiña, bere morkotxakin.
- Oain holako lanik ez da?
- Oain holako lanik ez da hartzen. Baiño ordun bai urte guztin. Urte guztin

ez, baiño negu guztin gaztaiña eukitzen giñun.

- Nahikua?

- Bai, bai, bai, bai.

## 2.16. Altzora ardiekin joan, eta soinekoa puskatu

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/011
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:11:16. **Bukatu**: 00:14:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,  
kontakizunak
- **Laburpena**: Ardi asko izaten zituzten, eta Altzora joaten ziren haiekin. Han, baserri bat hartzen zuten errentan, eta zer lan egiten zituzten azaltzen du. Behin, lanean zebiltzala, soinekoa puskatu zitzaion Anitari, eta orduan pasatakoak kontatzen ditu.

### Transkripzioa

- Ta geo beste bat izaten zan, ardik izaten giñun guk.

- Ardik?

- Bai. Ardi asko izaten zan. Berrehun ta gehio izaten giñun ardik. Eta juten giñen Altzoa ardiekin, Gipuzkoara negun ta udaran mendia. Ta Altzon izaten giñun baserri bat hartua, errentan, ta han itten giñun, negun eoten giñan ardiekin ta hola. Ardik ta behien bat igual ta bihorra ta holako gauzak. Udaran itten giñun belarra eta gu gaztiak, gu hamalau-hamabost urte ta holaxe. Ta Azkaratetik maiña bat aldiz oiñez Altzoa. Bi orduko bidean, bi orduko bidean ta harea jun ta belarretan han aittu. Geo Atalloarrean beste batzutan. Atalloa jeitsi oiñez ta Atalloarrea jun, Txaraman jeitsi ta Txaramatik oiñez hara ordu erdin bat o hogeit minutu o hogeita bost holakon bat. Ta eun batian ze in nun nik? Neska koskorra nitzan ta autobusetik Atalloarretik jeixtekuan soiñekua engantxatu zitzaten ta soiñekua puskatu atzian. Soiñekua puskatu zitzaten ta nik bi anaia nazkan han Altzon. Bat menditik etorri zan belarra itteko eta nik ez esan ta anaiak atsaldean Atalloarrea bialdu zien, bialdu ziten etxea etortzeko eta ni ez jun nahi soiñeko harrekin, soiñeko puskatuta. Ze gaizki pasau nun nik ordun! Eta han abittu handik eta oiñez etorri nitzan etxea ta illunduko zun bildurrakin bide guztin korrika. Ta haik Atalloarrea jun nitzala uste zuen ta ni oiñez etxea. Pentsa zazu, mendiz handik mendiz bi orduko bidean eta argi-argi aillatu nitzan etxea. Auskalo zenbat denboan etorri nitzan.

- Ai ama! Korrika batian.

- Korrika batian ta ez zekiyen nere anaiek zeatik etorri nitzan. Amak bai, amai esan beharko niyon, klaro, soiñekua hausi nula, amak bai. Ta hue behiek jeiztea zijoan ni etorri nitzanian. Ordun etorriye mendia, larrean ibiltzen zian mendin eta behiek jeizten hola ta nola ta ta hola ta hola oiñez etorri nitzala, soiñekoa hautsi nula-eta. Ta anaiek ez zekien ezerre. Holako gauza asko.

- Ta anaiek, anaiei zeatikan ez zeniyeten esan soiñekoa hautsi zenula?

- Pues, ez niyen esan behintzat. Ez dakit zeatik ez niyen esan, baiño ez niyela esan nahi. Ez nitzan atrebituko esatea eta haik esango ziten juteko

harrengatik, eo ez dakit zeatik eta oiñez etorri nitzan korrika bildurrakin illundu ingo zitzatela.

## 2.17. Artilearen erabilerak

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/026
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:34:00. **Bukatu**: 00:35:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Artilea garbitzen aritzen ziren. Ezkongaei koltxoiak oparitzen zitzaizkenez, artilea behar izaten zuten koltxoiak betetzeko. Artilea zuri-zuri egon arte garbitzen zuten. Artilearekin haria egiten zuen anaiak, haiekin galtzerdiak egiteko, besteak beste. Asko josi izan du Anitak.

### Transkripzioa

- Ta geo beste gauz bat illea garbitzen. Illea, ardin illea, ardik nola izaten baizian ta neska asko nola baizian, neskak ezkontzen zian bakoitzian, koltxoiak ematen zitzaizkien ta etxean itten zian koltxoiak. Ta ordun, ardin illea, etxeko ardin illea garbitu eta haikin koltxoiak itten zian.

- Nola garbitzen zen?

- Hola, lixiba jarrita. Konporta izaten zan, konporta izenekoa.

- Zer zen konporta?

- Konporta holako zea haundi bat, parriño haundi bat, holako haundi bat eta han sartzen zian ta gaiñean hautsakin ta ura botaz botaz botaz halaxe garbitzen zian illeak. Txuri-txuri-txuri-txuri-txuri iten zian. Bai. Nik hemen proba in izandu det, labadora sartu zakun, baiño ezta pentsatu're. Dena koapillatuta gelditzen da. Han berriz txuri-txuri-txuri ta denak lasai-lasaie illea ateatzen zan oso ondo. Ta hemen nik ez det illeik hala garbitzen. Geo galtzerdik itten han aitzen giñen.

- Hariya zuek itten zenuen?

- Anai zenak. Bai. Anaia hogeita hamahiru urtekin hil zitzaun mendin eta harrek itten zun hariye, urte guztiko galtzerdik itteko hariye ta ardi kontuk juten nitzanian galtzerdik itten, galtzerdik itten. Ta geo etxe batea jun nitzan puntu iten ikastea're bai eta han jerseak itten ikasten ta hoi denak itten ba han ikasi. Galtzerdik'e bai, galtzerdie in nun nik Jesus! Ta oain'e bai, oain'e. Oain kendu dittue galtzerdi hoik.

- Hoixe esan behar nizun! Lehen gizonak.

- Bai. Txalekoa, txalekoa jantzi honai're bai. Esku zea bai, eskulana holakoa asko. Puntua, puntua ikaragarri gustatzen zitzaten gaiñea.

## 2.18. Ogia egiteko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/031
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:41:35. **Bukatu**: 00:44:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Garia  
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** Garia nola lantzen zuten azaltzen du. Bildu, errotara eramane, eta irinarekin ogia egin. Ogiaren masa zapaltzeko, umeeke hankak garbitu, eta masaren gainean ibiltzen ziren. Amak erakusten ziren nola zapaldu orpoarekin. Ogia egiteko prozesua azaltzen du.

### Transkripzioa

- Ba garie iten zan bildu. Geo umedoa baldin bazeon, etxea sartzen zan, baiño geo hurruna eguzkiye bero-bero-beroa behar da garie jotzeko. Ta kanpoa ateatzen zian garik, lotu itten giñun, fardo txikik, lasto lastola esaten zion, lastola, lastaia eo zea lastoa, eta euzkitan berotu ta hua jo harriyai jo ta gariya ateatzen zan. Eta gari hua geo makinan pasatzen zan, makina bat hola bueltak emanda zeatzeko bazan. Garbittu han ta gari hoi kutxetan gordetzen zan. Kutxetan gorde eta geo errota eaman. Ta errotan iriña itten zan. Geo etorri ta baillakin, baillakin zahia kendu eta geo gelditzen zan harkin ogiya in. Ta orrantza esaten zan ordun, "levadura" erderaz baiño guk orrantza esaten geniyon.

- Orrantza?

- Bai. Eta harrekin ogiya in eta nik itten nun, itten nun ama ez zeonian nik itten nun. Bestela, berriz, ba zeak amak indarra jun nunbait azkeneako ta guri hankak garbittuazi eta guri hankakin zea, ogiya itten, masa itten hankakin.

- Zer behar du indar haundiya ore horrek?

- Bai, eskukin indarra behar da eta harrek ordun ez zun, indarra juna izango zun eo ez dakit zeatik eta gu zea, umiak ta umiak hankak garbittuazi aurrena han palankanian ta palankanatik hara gora zea, orromahaie esaten zitzaion ordun. Orromahaia ogiya itteko zea, orromahaia eta hara iyo eta hankakin zea erpuakin eakusten ziun beak nola in behar zan, erpuakin itteko, erpuakin, erpuakin ta harrek buelta ematen ziyon ta guk erpuakin, erpuakin ta hue itten zunian, gu jeitsi eta zea maindire garbi batekin hue biltzen zan ta hala uzten zan. Ta negue baldin bazan, azpin beroa jartzen ziyon, brasa eo, bai, ogiya harrotzeko. Eta hue hala eoten zan. Ta geo labia sututzen zan. Labian eoten zian lehengo ogiya ateatzen zanian, labea bero-beroa eoten zan ta harea sartzen zian egurrak, pago-egurra bero-beroa eoten zan ta geo haikin sua errex itten zan eta sue piztu, labea bero-beroa in eta geo hue beotzen zanian, atea hautsak eta denak eta ogi formatu eta labea sartu eta erretzen zanen, atea berriz. Ta ordun atea berrin, ordun ogiya asko jaten zan berrin. Geo handik zortzi eunea gutxiyo, goortu itten zan ta.

- Zortzi egun haiña aguantatzen zun?

- Bai, zazpi-zortzi eun, hortxe ibiltzen zan. Ogi in aldi batek. Ta ogiya nik earki itten nun, ogiya, bai, bai.

### 2.19. Bizi guztian lana jo ta ke

- **Hizlaria(k):** Pagola Ibarrola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-008/016
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:24:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Patxi urtebete egon zen basozain. Garai hartan etxeko martxa eta basoko lana berak eramaten zituen. Lan asko egin izan du Patxik.

### Transkripzioa

- Gaiñekon, hemen etxeko lanaz aparte, beste zerbaitetan aitzen ziñan?
- Ni...
- Fabrikan batian eo ibili zea nunbaiten?
- Urtebete pasa nun diputaziyoko zean, Arizmendiko zean, guarda, forestaleko oain'e hor dao /do/ diputaziyoko zea hoi hor dao /do/ oain'e Arizmendiko zea, landa haiek eta itten dia /iteia/ hoi, iriki zuenian, erosi zuen, [...], geo neregana etorri zian billa horrea, ta jun nitzan ni horrea, ta urtebete pasa nun.
- Ya.
- Ezkonduz geoztik, "el año sesenta y siete" pasa nun urtebete ta, ibiltzen han'e goatzen... Jesus...goizen lanak in behiyak hondotan ein, zortzitako oiñez hara jutun giñan, Arizmendira, ta hamendik hara juteko azkar junda ordu erdi bateko bidia do e? Gaur ez nitzake /enitzake/ jungo ordubetian'e seguru asko. Azkar junda, hamabik arte lanian Aian, korrika etxea etorri, behiyak gobernatu. Andria gaixo nakan ordun oyian, "reuma ciática" k jota oyetik jaikitze ez zala /etzala/, bere einbiharra're dana oyian iten zula. Ta harei laundu, etxeko lanak in, geo belar-zulua betetzeko garaiya're etortzeako bazkaldu, korrika segakin jota belar puxkan bat moztu ta korrika ordu bitako berriz hara lanea, korrika.
- Jesus.
- Bai, xinixtu ez dao /eztao/ itteik. Ez dao xinixtu itteik bizimodu hoi. Handik etorri, seitan atea, etorri, geo, zulua, belarra igual sartu janariyak in ta ordun bixkik'e bazian, bixkialdi ordun etorriya, behiyak jetzi beharra're izaten nun. In beharreko gauzak die ta.
- Laguntzaik izaten al zenun, norbaitte?
- Jainkuana, laguntza.
- Ez da gutxi.
- Ez, dana. Nik lana, xinixtu ez dao iteik nik ze lan in, ikeragarri. Ttiki-ttikitatik geatu nitzan aitteik be, aitteik be, aitta [...] baiña sekula ezautu.

## 2.20. Saroiak

- **Hizlaria(k):** Rekondo Iribar, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-009/037
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:06:48. **Bukatu:** 01:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
 Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

- **Laburpena:** "Sarobeak" (saroiak) itxitura biribil batzuk direla dio, zuhaitz mintegi gisa erabiltzen zirenak. Beraiek ere bazuten saroiak; zilegiaren aldamenean zegoen.

### Transkripzioa

-Ta sarobiak zer dira?  
 -Sarobiak dia itxitura bat bezela, ezta, eta han itten da landaria, arbolak.  
 -Itxitura hori zerezkua da?  
 -Itxitura normala.  
 -Alanbre sariakin edo?  
 -Ez, ez. Alanbre sareik ez zan jartzen garai batian.  
 -Zerekin?  
 -Bea, hola terreno bat bezela izaten zan, ezta, eta han itten zan landaria hazia bota, ta jaiotzen zanian mendin aldatzeko arbolak izaten zien. Mendiako arbolak.  
 -Hoik zeñiek gobernatzen zittun?  
 -Hoi terreno jabiak.  
 -Ordun baserri bakoitzak euki zezakeen...  
 -Bai, euki zezakeen lasai. Oianumek bazun sarobia hor.  
 -Nun zun?  
 -Ba zillegien kontra.  
 -Eta zer izaten da, radio haundikua? Metro asko?  
 -Segun zein nolakua jartzen dun. Hoi baserritarren erabakin juten da.  
 -Zuena?  
 -Bai, dezentia zan. Ni sekula behiñ izandu nitzan baiño dextentia zan.  
 -Gauza kuriosua da.  
 -Oain'e itten dia sarobiak tokin-tokin. Ikuste dit behin edo behin: "Hara!, beira ze sarobia don!; beira ze landaria don!" Nei atentziyua, nei Oñati aldian eta ikusi izandu dittut.

## 2.21. Sagardoa egiteko modu xebreak

- **Hizlaria(k):** Urruzola Loinaz, Praxku
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-010/010
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena:** "Sagardoa" (edo, hobeto esanda, pitarra) egiteko modu xebre bat kontatzen du.

### Transkripzioa

- Galdera in diazu sagardua nola itten zan. Ba, honekin geatu nintzan ni harrittuta: sagarra mehe-mehe ebaki, sekatu, zakutan sartu ta ganbaran zintzilikan jarri. Ta sagardua in bihar zan garaiyian, ura bota ta harekin in. Zean, Artikutzan entzun nun, Artikutzan San Agustin egunez junda. Oain, nik ez nun hoi entzun, ez nun entzun.  
 - Hoi seriyo esan ote zuen?  
 - Sagardua ta pitarra bi gauza dia, ta harekin sagardoik ez zan ateako: pitarra beharko zun izan, edo ura edo... Holako zeozer.

## 2.22. Ordua artizarrari galdetzen

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bideburu, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-012/003
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Aita beti mendian ibilia zen, eta artizarrari begiratuta orientatzen zen zer ordu zen jakiteko.

### Transkripzioa

-Ta orduik ez, baiño gue atta zana hortan gizon zea zan, beti mendin hortxe ibilliya ta, goizaldea hua esnatzen zan eta ateako zan kanpora ta begiratuko zun eta ba: "eguna laxter diau, jaiki biharko, esaten zian, artizarra etorri dek, parian diau". Artizarra, izar haundi bat. Hoi beste izarrak baiño haundiyua ikusten zan gue begiratun eta harrekin hartua zakaten zea, been jaikitzeo... Etxolaberri aldetik edo Arano aldetikan edo bazetorren txabolan pareta edo. Behintzat horrea agertzen hua eta. Hua hor zanian ya euna, euna.

-Hara!, ze politta!

-Artizarra etxolaren pareta...

-Pareta etorri zan garaiyea euna ordu erdi bat barru edo ya zabaltzen hasiya edo gehixeo.

## 2.23. Aranoko ekonomia, ikatza eta mandazaiak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bideburu, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-012/010
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:18:11. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Arano artzain-jendeak sortutako herria omen da. Artzaintza eta basoko lana izango ziren garai bateko Aranoko ekonomiaren oinarria. Ikatza egitea gauza polita zen, mandazainak jaisten zuen ikatza; mandazaina etortzen zenean, nolako soinua egiten zuen gogoan du.

### Transkripzioa

-Esaten da Arano artzai jendiak sortutako herria omen dala.

-Bai, hala izango da; bai, nei hala iruditzen zat. Zeatikan hor artzaiya, gaiñentzian han zer izango zan ba? Fabrikik-eta ezer ez zan eta garai haitan eta. Hoixe. Hoi dudik ez ein, Arano artzaiya ta basua. Artzaintza ta basoko lana. Iketz itten edo. Ordun iketza ere asko itten zan. Hoi're gauza politta zan oso, zea, iketz-ittia ta. Goizian mandazaiya, hor Bentaberriko

ondu hortan pagua hor do, han pasako ziñen Aranotik etorri bazea ta. Handikan manduakin Antxistara igual; eguna zabaltzeako etortzen zan mandazaiya. Kanpanillak eta jarrita eukitzen zittuen, koskabilluak esaten zaio, holako borobil batzuk burni ttiki bat barrun duela ta, manduan pausuakin ttir-ttirrit, ttir-ttirrit, soiñua earki ateatzen zun eta kanpanilla're bai eta oso soiñu politta. "Joe, mandazaiya hemen dek". Gu're gue attakin, goiz jun bihar izaten zan mendiya ta. Hara goazela eguna artian zabaltzeko, gue etxetikan Antxistara bi orduko bidia zeon. Bi orduko bidia, ta etxetik ateatzen bagiñan lautan ba seitako hara, eguna zabaltzeako. Udaran euna seiak aldian zabaltzen du ta. Mandazaiya ordun hor izaten zan. Han etortzen zan bee manduakin; manduan gaiñian jarri ta goiz asko. Baiño oso gauza politta.

-Mandazaiyak zertan ibiltzen zian?

-Mandazaiyak iketza jexten zuen, txondarrak itten zittuen hor, ta txondar asko. Ikazkiñak hor gaiñea ezautu dittut arranoarrak'e. Txurdangitarrak eta, Txurdangi aittona ta semiak eta. Abolakuak'e bai, Abola errota baiño behero do, eta Abolakuak'e bai. Benardo zun izena aittonak eta. Hua're semiakin. Ta ni mutil-koxkorra aittai segika ta anaiai segika. Zortzi bat urte ezkeron noiznahi Antxistan barrena juten nitzen. Ta hoik iketz itten aitzen zian eta iketza horrea behera jexten zuen. Manduakin jexten zuen. Ta geo oiarzuarrak'e aittu zian, haik gaiñea oiarzuarrak urtiak pasa zittuen, bi-hiru urte igual. Oiarzuarrak eta lesakarrak zien. Haik onak, jatorrak zien oso.

## 2.24. Ardien faseak

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Bideburu, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-012/022
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:38:44. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Ardiak hazten doazen heinean, hainbat garai pasatzen dituzte: bildotsak, arkazteak, arkumeak, artantzua...

### Transkripzioa

-"Bildotxa" da oain udaberrin jaiotakua, lehengo udaberrin jaiotakuak oain haik bildotxak dia, bildotxak ia arkazte ingo dia belaxe. Kanpazio bateako, ordun martxuan jaiotzen zien arkumiak, eta hurrungo martxo arte bildotxak zian haik. Baiño hurrungo martxuan hasten zian berrik jaiotzen ta haik arkumiak edo bildotxak, eta aurreako ordun uzten zian, ta haik arkaztiak.

-Urtebete einda...

-Urtebete einda handik aurrea arkaztiak. Ta gero hiru urtekuak. Laukuak eta geo ba hortikan aurreako zeak. Baiño hoi hola izaten da. Bai, bai, bildotxak. Oain urte guzin jaiotzen aitzen diala uste det eta. Behintzat eguberritako baiño lehenore arkumiak eta kenduk eta izaten dittue.

-Artantzua adibidez noiz izaten da?

-Artantzua're hoi da, guk arkaztia esaten diou, baiño artantzua're horri esaten zaio leku batzutan, Aranon hala esango die gaiñea seguru asko. Arkaztia ta.



## 2.25. Saroiak eta larreak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Bideburu, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-012/032
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:55:58. **Bukatu:** 00:59:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Lehen inguruko mendietan animalia ugari zeuden, baina pinuak daudenetik ez. Saroi asko zeuden lehen. Lursailak nola mugatzen ziren azaltzen du. Saroiak eta larreen arteko aldeaz hitz egiten du.

### Transkripzioa

-Ta hor ardiya ta betizua ta danetik; bihorra-ta hazienda ikeragarri izaten zan. Dana josiya mendi guziya garai hartan. Oain piñua do ta hazienda're gutxi ta.

-Lehen iratzetara, iñestorra edo nola esaten diozue...

-Bai, joe

-Zilegia ere bazen.

-Ez zan ezerre gelditzen hor. Ezta ezer 'e. Hor sarobiak zauden, sarobiak. Gue etxia're sarobia da. Terrenu horren erdin zeon. Erdin ez, dena barrenen. Gue etxia sarobia, Legarralde sarobia da. Esango dizut gaiña, sarobiak asko zauden hor: Mendaiyo sarobia, Oilalumekua, hor taberna daon hortakua; Olaberri sarobia, Olazarkua ta Ardegikua; Korostarben inbiriyan sarabia hua ere; ta Amuela, oain Beraziartua edo hoina, hor serrerik eta dauzkenhoina, hua're sarobia; Antxusta sarobia; Esolamaki sarobia; Zuluta sarobia ta Legarralde sarobia. Hoik zian hor barren hortan zeenak, baiño hoik terreno partikularrak zien danak. Zero bat da; ze esango dizut, hirurogei milla metro edo hola bakoitza hola izango zien, baiño zero borobillak die, gurea hala de behintzat eta bestiak hala izango dia; borobillian, erdi-erdin "altamugarriya" gure etxian han do, altamugarriya bada. Mugarria harri haundi bat da, altamugarriya esaten geniyon behintzat guk hari. Ta hua erdi-erdin gora ta behera neurtu, horrea, bakizu, gurutzian neurtu ta denetaa igual bihar emen du. Neurriya hua zan.

-Ta errondako hoi zeozekin mugatuta zeon?

-Bai, bai, mugatuta hor hoikin, Zilegi mendi horrekin. Zilegiya.

-Hesia edo pareta edo...

-Ez. Pareta bai, leku batzuetan bai baiño. Ez, ez zun, guriak ez zun zeikan. Guk itxi gendun geo. Lehen dena libre zan baiño zeak, hoik piñua sartu zuenian ardi batzuk utzi genittun atangatik, esan dizut, eta ordun itxi in gendun. Guk terrenua bagendakan larria're pixkat eta hua ta, itxi in gendun geon partia. Baiño lehen libre. Lehen libre. Zuluta're sarobia, hua're itxiya, jakiña, sarobia itxi iten da. Buelta guzian haziendak zazkan harrek'e eta, baiño gue etxe alde hortan negun edo izaten zan baiño. Belaziak eta itxi, jakiña, belaziak eta sorua ta hoik, baiño gaiñentzian ixtura zeik ez, partikularrak ez.

-Ta ze diferentzi zeukan zillegiaren barrenian sarobiak? Zer zan, terreno diferentziak edo?

-Igal-iguala. Jakiña, gu han bizi giñan eta hua landua ta artsorua eta belaziak eta hola. Bestia larria ingurukua. Garua. Garua edo iratzia edo

kristua ta; iñastorra ta. Gaiñentzian hoixe, Zulutan'e bi fameli bizi zian eta, han'e hoixe do, han'e buelta guzin itxiya. Esolamaki, haik bordak eta zittuen tokiya Antxusta aldea ta. Hua ez, hua libre, han ez zeon belazeik eta ezer ez zaken, garua besteik ez zaken han. Borda, eta gaiñentzian ezer ez eta. Altxusta're baserriya. Baserriya izango bazendun hua zeatu biharra zeon, itxi biharra zezer, baiño ixtura partikularrik ez. Guk ez genun. Ixtura partikularrik ez zan gue etxian. Geo azkenian bai, azkenian itxi gendun etxeke ardik eukitzeagatik. Ta hola.

-

## 2.26. Etxeak su ez hartzeko modua

- **Hizlaria(k):** Almortza Leizeaga, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-015/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:20:33. **Bukatu:** 00:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Sua pizten zutenean, etxeak su hartuko zuen beldur izaten ziren, haize handiak izaten baitziren; horregatik, sua babesteko moduak zeuzkaten.

### Transkripzioa

-Geo gue etxian haiziak-eta ikeragarri izan izandu ohi da, eta suba pizteko bildurrak, etxiak su hartzeko bildurra izaten zan haundiya ordun. Eta gue etxian bazan hortik aurreako holako tamaiñatxo bat. Nik Urnitan basarritan sartu ta atea eiñ izan det baten baiño gehiagotan, ta iñun ez nun ikusten, eta ekonomika bezela bi zulokin. Ta azpitik hautsa ta ateatzen zala, behera juten zan hautsa, ta behetik hautsa ateatzen zala, ekonomika bezela bi zea zittun, bi parrilla bezela ta han haizia zanian.

-Hura babesxeago ala?

-Bai, harek barrukua baizun dana. Ta tximiniak berriz dana bon-bon-bon dana behetik gora. Gora tiratzen du tximiniak. Kia ere harek eramaten du ta.

-Eta beste ekonomika gisako horrek hango suan kia nora ateatzen zan?

-Kanpoa, bai. Kanpoa jarrita zun tuberi bat kia hua zeatzeko.

-Hua seguruxeagua zan ordun?

-Bai, haize-denboako. Oain harek zerak ez zittun haundik eta egur txikiya bihar izaten zun, eta gauza itteko denboa asko bihar. Baiña hua ere itten gendun hegoazia zanian. Pixkat sufritu, baiño... Alde askotara sufrittu giñun eta harekin'e sufrittu in bihar.

## 2.27. Artoa eta babarruna

- **Hizlaria(k):** Urdangarin Esnal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-020/015
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:25:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Goldatzerakoan botatzen zaio lurrari simaurra. Arto-jorraketa lanak nola egiten diren azaltzen du: besabea (bostortza) erantsi astoari edo behiari, ilara bitartetik pasatu, eta gero, aitzurrez, bete eta azken ukituak eman. San Migel aldera biltzen da arto eta babarrun uzta.

### Transkripzioa

- Hortaz aparte lagundu beharko zitzaion ba ximaurrakin eo?
- Ximaurra, goldetzea geo, ta geo goldetu.
- Eta gero, zer, jorratzeko eta, hoi nola izaten dia, zertako izaten da jorratzia?
- Hoi, zeatzeko, belarra atera, tartian jaiyotzen da ta, hua lehenbizi besabia pasa, besabie egurrezkua izaten da bestia, bost hortza ez dakit zenbat dittun. Ta behiya eo idiya /iriya/ eo uztarri-motzian /uztar-motzian/ lotu hari erantsi ta bat aurretik eta bestia atzetik. Harekin lurra ein ta geo atxurrai zeatu. Bai, bai.
- Lan asko, eta gero noiz jaso uzta hoi?
- Hoi, San Migel aldea eo. Babarruna're bai, San Migel aldea eo, babarrun mordua biltzen gendun.

## 2.28. Garia erein eta ebaki

- **Hizlaria(k):** Urdangarin Esnal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-020/016
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Garia nola ereiten den. Gariak ez du jorratu beharrik. Bi gari klase ereiten zituzten, goiz-garia eta berandu-garia. Igitaiz ebakitzen zen garia. Sagardo barrika ekartzen zen egun horretarako eta auzolanean eta umore onean jarduten zuten. Gero sortak egin eta metatu.

### Transkripzioa

- Gero, itten zenuen, beste, artua ta babarrunaz aparte, gariya esan dezu.
- Gariya.
- Nola, ze behar du gariyak, ondo...
- Hua, harek ez du jorratu beharrik, bota, lurra eman maietzian [...] ta, geo gaiñetik pasa zerbaitte hua tapatzeko, hazi hua, hua bea jaiyotzen da, bea etortzen da behetik gora hua, gari hua.
- Sail haundiyak izaten zian, gariyanak hemen?
- Bai, bastante, baserri ttikiya zan hau ta, ttikiya ta, batzuk goiz-gariya itten gendun, beste batzuk beandu-gariya. Bi klase izaten zian ordun'e.
- Ta zuek itten zenuena nola esan dezu? Ze klasetako gariya iten zenuela?
- Bitakua, bat goiz-gariya, goizo etortzen zan, bestia beandugo. Bai.

- Ze diferentzi izaten du, ze garaitan ereitten dan edo?  
 - Ze hazi klase dan izango da hoi. Geo etortzen zian, heltzen zan garaiyan, itayakin mozten zan ordun. Oain makinak-eta dare ta, hor soroa ta hangua ta, hemengua ta... barrika sagardo bat edaten zuen, ta gariya gutxi moztu.

- Gariya mozteko, ordun auzolanian'e aitzen ziñaten? Edo etxeukuak?  
 - Ez, ni ez nintzan... etxian'e pixka, orduako uzten hasi zian ta. Baiño jendiai, osoba zala, bestia ez dakit zer zala, bestia auzua zala, jendia biltzen zian dozena erdi bat gizon, egun hortan.  
 - Etxe gehiyotan eitten al zen gariya?  
 - Bai, bai, etxero.  
 - Denatan e?  
 - Bai. Ta gero gari horrekin, bueno, uste det eguraldi ona beharko zula edo?  
 - Bai, bai, geo, pilletan uzten zan hua, erabillitakua, besaska, besaska... Ta gero itten zittuen sorta hua hiru-lau zea hartu, gari-sorta zea hoi, harei in bueltan, zeatu, lotu.

## 2.29. Gari-jotzen

- **Hizlaria(k)**: Urdangarin Esnal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-020/017
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:27:30. **Bukatu**: 00:28:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirre, Eli
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gari-sorta hartu eta harri gainean jotzen zuten eskuz. Sistema hori ezagutu du bere gazte denboran. Gero etorri ziren gari-jotzeko makinak.

### Transkripzioa

- Ta geo itten zan, metak batzutan kanpuan ta egualdi zean, ona zanian, zabaldu ta ganbaran bazan geo're ez dakit izaten zan hemen, losa haundi bat, erropa garbitzen ibiltzen dan zea hoitako bat, harria, ta hua jarri han, bi bloken gaiñian eo ta han, "iepa!" ta "iepa!" ta zeatu, jalkitzeko. Ta gu han mutil koskorrak eamaten hola ta bestia jotzen ta. Geo makina hasi zan, bai, hor goiko basarri hortako [Pagukua]. Ta harek, berriz, beak itten zun, beak jo ta, ekarri in bihar ondoa, sartu ta, ra-ra-ra-ra ta zeatzen zun harek, txikitu.

## 2.30. Izozteak hondatutako basoak botatzen

- **Hizlaria(k)**: Urdangarin Esnal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-020/031
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:45:35. **Bukatu**: 00:47:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

- **Laburpena:** Bi urtez egin zuen lan Igeldo aldean basoan. Izozte handi bat izan zen berak 18 urte inguru zituela: hondatutako zuhaitzak botatzen jardun zuten lehendabiziko urtean, eta landatzen bigarreanean.

### Transkripzioa

-Han (Igeldon) urtetan aittu giñan. Jelate haundi hua hasi zan hua zenbat urte zian. Nik hemezortzin bat urte edo hemeretzi hola nittun. Ta danak iyartu zittun, piñuk, sienpreberdiak, hango jardiñak eta danak. Ordun denpoa puxkat in gendun, ez gendun bukatu. Ostera hurrengo negun landaria aldatzeko garaiyan berriz jun giñan. Bitan behiñipein, hirutan ez bazan'e.

-Jelate harek baso asko eta txikitu...

-Bai! Txikitu. Erre.

-Ta gero aroztegik martxan jarri behar...

-Bai ba.

-Hori zer izaten da, behin jelatu ezkeo eta erre ezkeo horrek egur horrek balio du?

-Egurak bai.

-Sutarako?

-Surtako bai. Han gaztia're zeon, baiño [aprotxatu hori ez], ekarri're asko itten zun txofer horrek; materiala're asko zeon han.

-Ordun aprobetxatu zitekeen?

-Bai, bai, serrarako. Aprobetxatzeko moduko eur asko bota gendun.

-Baiña bota egin behar segittun gaztia ta zaharra ta dena.

-Bai, zarra ta dana bota bihar. Bestela hemen gaztia eta zarra hor botatzen badezu, haren gaiña dator eta. Dana txikituta geatzen da. Ez lan haundik, e. Jela harek danak ihartu zittun.

### 2.31. Albaitaria presa handirik gabe

- **Hizlaria(k):** Ubillos Atxukarro, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-021/026
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:41:58. **Bukatu:** 00:44:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena:** Hernaniko albaitaria bizikletan ibiltzen zen. Presa handirik gabe etortzen zen deitutakoan. Haren bisita nolakoa izan ohi zen kontatzen du. Gero motorra jarri zion bizikletari. Apaizei bezalaxe albaitariei kortesia handiko trataera ematen zitzaien.

### Transkripzioa

- Betenaiyua bizikletan ibiltzen zan, Hernaniko betenaiyua, Don Pako. Eta behiyak zebaitte baldin bazun, deittu ta noizko etortzen zan hua, noizko? Eta "Hemen naiz ba", Jose zun izena gure aittak, "Jose, hemen naiz ba" , ta "Ailleitu al zea?" ta "Bai, silla bat ekarri nazu, zea, bero dao gaur ta, hementxe pixkat preskuran eonda hasiko naiz lanian". Hara, ze estuasun ekarri zun, behiya gaizki-ta. Hari silla atea hara, Jesus, Maria ta Jose.

Burutikan hola jazten zun, zea txuri bat, paiñelo zuri-zuriya izaten zun ta geo txapela haren gaiñian. Etortze zan, hola bizikletan. Hua aspertzen zanian behiya ume-iñan igual zeien ta zea, "Pantxika, Pantxika, koarto txukun bat jarridazu " zea, jantzi ta eantzi itteko behiya, zeatzeko, ume-itteko, zea ta. Jesus, Maria ta Jose, gure Jainkua. Noizko, nik ez dakit, hura jantzi ta behera etortzen zaneako, goiyen zien koartuak, Jesus, Maria ta Jose.

- Behiya ya umatua.

- Hoik xinixtekuk al dia kontu hoik? E, bai. Ta geo jarri ziyon, motorra, bizikletai.

- Bizikletai, motorra?

- Bai, motorra jarri ziyon. Ta "A, Jose, hogei urte utzi dizkit" esan ziyon, ta "ze in dezu ba" esan ziyon ta, "Bizikletai, motorra jarri ziot, ta oain, seittun etortzen nak.

- Baiña, hala're, ailletu ta haize pixkat eo prexkura...

- Aurrena bea, beak prexkatu in behar zun, aurrena bai, ta geo noizbatten lanian hasi. Hari tokiya're txukuna, txirrikitoik'e ez zuna, hari beira zea eongo hunan, zea, jantzi ta eantzi itteko, bueno, San Antoniyo.

- Zuek nerbioso ya, behia umetzen ai zala-ta.

- A ordun gaiñea, betenaiyua eta apaizak, apaizena jakiñe zan, zeatu in ber izaten zian, "Ave Maria purísima" edo saludatu in ber izaten zian, beti haik bidian topo itteko bildurrak eoten giñan, zea, bai, bai.

- Bildurrak zergatik ba, ze, ze saludo...

- Hoi, ba, saludua, bai ba, saludua in bihar.

- Ta beterinariyuai're bai?

- Betenayuai're bai. Oain majiña bider esaten diyot, Urnietako Juanito, betenaiyo horri. Ez, hoi ez zan [...], hoi geoztikakua. Hoi, ordun geoztik hasi zian, hor kotxiak eta hasi zianian, ordun ya zea, baiño, Jesus, Maria ta... hoi Hernanitikan, bizikletan, Pagolaerdiraiño juteako behiyak umia hamalau ume're ingo zittun, Jesus. Hua geo, zea, preskuran eon pixkat, hua eantzi ta jantzi, bueno, bueno, bueno, Jaungoiko maittia, Jesus, Maria ta Jose.

## 2.32. Ardo mindua behi erditu berrientzat

- **Hizlaria(k):** Ubillos Atxukarro, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-021/028
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:46:05. **Bukatu:** 00:48:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Txahala egindako behiari erreparatu egin behar zaio. Ardoa ematen zitzaien behiei, askotan tabernetan sobratzen zena minduta egoteagatik. Txekorrari gatza botatzen zitzaion amak miazka zezan.

### Transkripzioa

- Baiño hoi ez da izango, behiai're kasu in berko zaio.

- A, bai. Geo bai, geo behiyai karena ondo itten dun ta erreparatu ta dana, hoixe, hoixe. Kaso in hoixe, kaso in.

- Ta karena ondo botatzeko eta ondo itteko ze, zebaitte...

- Ba hantxe, hantxe botatzen zun, beak botatzen zun, bat'e ez baldin

bazun itten, ordun betenaiyuai kaso ein bihar, "beno karenik ez du ba in behi horrek" ta, ordun harek ematen zittun medikamentuk, etxetiken eta haik eman, etxea etorrita.

- Hayek osatzeko, ez dakit ondo ai naizen e? Baiño ardua edo ematen ziyen?

- Geo ardua ematen ziyen, ardua, egun pare bat, hiru batian eo, ba, zea, ardua izaten, ardua, azukria're bai, azukria nahastu ta ematen ziyen.

- Ta hori, zertako izaten zen?

- Hoi, nik indartzeko uste det nik izango zala, indartzeko, geo, pentsuba're apartekua ekartzen ziyen. Eta, ba hobeto zeatzeatikan eo, indartzetaik eo, nik ez dakit ba, hala izango zan, ardua ez dakit ze. Ardua txarra dala esaten due ta, ez dakit, ez dakit, ez dakit.

- Baiña, baserri askotan erabili da...

- Askotan, ardua, bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Ardua, ta gazittuba hola, tabernen batian baldin bazeguan, pues baserrita ta bialtzen zittuen, beak [...] behiyentzako, zeatzen zittuen, bialtzen zittuen, bai.

- Ta txekorra...

- Txekorra're, geo, ein bihar zitzayon, zea, txekorra'i ondo erreparatu, arnasa zakan edo ez zakan eta beak, gatza bota ta behiyak beak garbitzen zun. Ta seuru txekorra ta, "a lixto".

- Gatza botata?

- Gatza botatzen ziyoen gaiña, bai, ta beak mingaiñakin garbitzen zun. Bai, holaxe...

- Behi harek denetik izango zun, ardua, azukria, gatza...

- Hoixe, danetatiken.

### 2.33. Garotara joaten zireneko ohiturak

- **Hizlaria(k):** Igoaran Elustondo, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-022/008
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Garotara asko joaten ziren, ganaduarentzako azpiak egiteko. Garotara nora eta nondik barrena joaten ziren azaltzen du. Bi lagun joaten ziren gutxienez, goizeko ordu bietan etxetik irtenda.

#### Transkripzioa

-Gero garotaa, osea, ganauentzako azpiya itteko. Mendi asko juten giñen. Eta gue osak eta hoik, ni gutxi ibilli nitzan baiño, ba al dakizu hemen Urneietan Xoxoka baakizu, Xoxokatik barrena jun irikin hor mendiz, hor mendiz Adarra mendin azpikaldetik jun; Etxubi, Etxubitik barrena, Etxubin zeon iñostorra, Onddi edo hor haruzkaldetik, e, ya Arano-eta bista-bistan dala, Etxubin kargatu ta zeera, Ugaldetxora ateatzen zien irikin. Atea ze zirkuito egiten zuen, e. Ugaldetxo frontoiyea. Hor badia erreka hartan Olazar eta; Olazar baiño aurrexeao han goitik behera narra ta arrastan. Gurdiya bestela irauli itten zan eta Narra eusten ziyola. Hua bota behera ... gaiña ta geo kamiyoiz Portu(r)a Hernania. Ta gero ostera hortik behetik

gora. Horrea atea beste iri pare bat Hernania ta. Garua bakizu ze jornada etortzen zien. Orduan jende asko ibiltzen zan hor kamiyo hortan. Hor jorna jornaan gaiñian etortzen zan, Hernaniko ta urnietako ta.

-Egun batian jornada bat nahikua izango zan ba.

-Bai, honbre. Ta goizeko hirutan, ordu bitan eta ateatzen zien, e. Goizeko ordu bitan-eta.

-Josu, garai hortan atera.

... bakarrik aitzeko lanak ez diela hoik izango.

-Ez. Bi laun gutxieneko bihar zien, ba botatzeko ta bestiak kargatu ta bi laun, bai. Ordun garo asko ekartzen zan eta.

### 2.34. Sagar moten zerrenda

- **Hizlaria(k)**: Igoaran Elustondo, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-022/027
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:48:42. **Bukatu**: 00:50:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Sagar motei buruz hitz egiten du eta mota bakoitzeko izenak esaten ditu. Gaur egun sagar mota asko dago. Lehen nahiko sagar egoten zen hemen, baina gerora kanpotik ekartzen hasi ziren.

#### Transkripzioa

-Eta sagar klasiak? Esango al zenizkidake batzuk? Badakit gezak badiala, gazik'e badiala...

-Bai, mordua. Gazik esango dittu batzuk?

-Bai.

-Piristiña, urtebi haundiya, urtebi ttikiya, goikoetxia, berde agria... Holakotan askotan ez dia goatzen baiño. Urtegik esan dittut; mainttoni ta kapandoja, ta geo boskantoi, aizpitti saarra... Besteikan hola. Badia oandikan beste pare bat. Sagar txuriya edo; santiyo saarra... Klase asko daude hola. Gezak berriz, gezamiña ta mozolua ta, pastolua ta, merkeliña ta, potrokillo sagarra ta, urdanitturri ta. Geo sagar beltza esaten zaiona're bai ta; txori-saarra ta; huartia ta. Bai, hola mordoxka.

-Nik reineta eta errezil sagarra...

-A, hoi gaziya da. Hori ez dizut esan. Bestea mendiyola, gazia.

-Asko daude, ezta? Lehen hainbeste ba al ziran?

-Lehen saasti asko zan basarritan hotan. Bueno. Asko-asko! Lehen ez zan kanpotik sagarrik erosten sagardoa itteko. Sagardoaliak'e dana bertakua. Geo hasi zan, hemen gutxitzen hasi zanian Galizitik ekartzen. Galizitik eta Asturiastik eta Frantzitik, danetatik. Aurten'e Galizitik eta Frantzitik ekarri deu.

### 2.35. Dolarean sagardoa egiten

- **Hizlaria(k)**: San Sebastian Esnaola, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-023/049



- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:18:50. **Bukatu:** 01:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Dolarea izan dute beti. Nolakoa den deskribatzen du. Sagardoa nola egiten den. Lehen eskuz estututa egiten zen, baina orain argindarrezko motorra erabiltzen da.

### Transkripzioa

-Nolakua zan tolare hura?

-Hua da, kaja ormigoizkua du, eta geo ardatza, bakizu, hua burnizkua. Ta geo bestia "urkatxua" esaten zaio, azpin geo kaja hortan saarra jotzen dezu ta geo jarri bihar dia bi kanal [hoik] batetik besteaiño. Haren gaiñian, "patsolak" esaten zitzaion, holako lorikuak, ta haik danak jartzian geo beste egur haundi batzuk batetik besteaiñokuak lau, ta beste lau motxauak, ta geo urkatxua. Ta urkatxuo etortzen da behera ta harek estututa sagardua han ateatzen da.

-Urkatxua behera nola etortzen da?

-Hori oain motorrakin jarriya zeon, baiño lehen eskuz hola trik-trak-trik-trak. Lasai daon bitartian bueltaka're bai, bueltaka're. Baiño puxkat estutzen hasi ezkeo hontara ibilli bihar dezu. Ta harek berak koxka batzuk dazka eta han estutzen da. Oain indarrakin do ta indarra eman eta harek beak ttarrarraaa itten du.

-Baina lehen lana izango zan.

-Bai, lan haundiya hua, lan haundiya. Dana eskuz eitteko horrek lan haundiya du.

-Sagar jotzen bakarra ere...

-Sagarra jotzen makinakin aitzen giñan, baiño aurrena eskuz. Geo indarrakin jarri zan. Ordun errex. Baiño tolaría dana eskuz itten lan handiya du. Oain tolare haundiyok danai motorrakin altxa ere itten dittue, esan dean egur hoik eta danak motorrakin altxatzen dittue. Ta han geratzen da patsa bakarrik. Ta hua preparatzen dezu berriz'ee, pixkat kendu ixkiñatik bueltan, ta gaiñea bota ta berriz'e zapaldu ta berriz'e sagardua atea.

### 2.36. "Zizarra", lehenengo sagar-zukua

- **Hizlaria(k):** San Sebastian Esnaola, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-023/050
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:20:42. **Bukatu:** 01:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Aurrena ateratzen den sagar-zukuari "zizarra" deitzen diote. "Sagardo berria" edo "muztioa" ere bai beste batzuek. Sagardoa putzutik ateratzeko baldea erabiltzen zen lehenago baina bonba orain.

### Transkripzioa

-Ateratzen den lehbiziko zumo hura zer da?

-Hua, batzuk "muztioa" esaten diye, beste batzuk "zizarra" ere esaten diye. Ze tokitan ze izen dan. Guk "sagardo berriya" esan izandu diogu beti. Oain

aurren-aurrenekuai esaten genion zizarra. Baiño handik aurea ezkeo beti "sagardo berriya". Oain beste batzuk "muztiua" esaten due, ez dakit oain izen hoi nolakua izango dan.

-Ta kanal batzuk dittula esan dezu kaja harek.

-Bai.

-Ta kanal hoitatikan nora erortzen zan?

-Baztarretaa, bi baztarretaa. Ta geo haik garbi eoten dia ta geo beste bat, "tinilla" esaten genion, beste ontzi bat, hara eroritzen zan ttarrarraaaa, hara. Ta geo handik bonbakin ateatzen zan. Bonba ttiki batekin. Bueno, aurena eskuz baldiakin. Geo bonbakin. Ta bonbakin errex itten zan baiño baldiakin bee lana badu harek, e.

-Bakarrik aitzeko ez,...

-Bakarrik aitzeko ez, bi laun gutxinian bihar dia. Bi laun gutxinian. Oain bonbakin bakarrik ingo dezu.

-Eta tinillatik nora botatzen zenduen?

-Barrikaa edo upela edo zaonera.

## 2.37. Upel motak

- **Hizlaria(k)**: San Sebastian Esnaola, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-023/051
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:22:05. **Bukatu**: 01:23:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Upelak tamaina diferentetakoak izaten dira. Beraien handienak 3.000 litro hartzen zituen. Badira 600ekoak ere. Zur klase ezberdinak erabiltzen dira upeletan. Hiru mila litrokoak oso sagardo ona ateratzen zuen. 1.500ekoa gerezi-zurez egina zen eta sagardo gorrixka ateratzen zuen. Seboz estali behar zaizkie zirrikituak.

### Transkripzioa

-Tamaña diferentetako upelak izango ziran.

-Bai, bai, hoi bai.

-Zenbat litrokuak edo akordatzen zea?

-Hor upela bat bazan hiru milla litrokua ta bestia izango zan milla ta bostehunekua edo hola ta geo bestiak ttikiauak, seirehunekuak eta holakuak. Holakuak zien.

-Material diferentetakuak ere bai igual.

-Egurra diferentiakin iñak? Bai. Horrek'e diperentziya izaten du, e; sagarduantzako diperentziya izaten du horrek'e. Upel haundi hua oso ona zan, ta beste esan dedan milla ta bostehun litroko hoi, hoi zan gerziakin eña, ta horrek ateatzen zun beti sagardua gorriyaua. Ta beti gustua're pixkat diferentexiaua edo. Ontzi guzik ez dia gusto iguala ematen diyenak, e; ez dia.

-Politta izango zan lan hoi dena, zaila baino... Gero barrika barrenian sebua edo zeozer ematen...

-A bai, upelai bai. Barrikai ez, barrikai ez zitzaiyon sebua ematen. Han ez zeon sartzeko tokirik eta hua itten zan jarri kanpua eta urakin, pixkat irikita eoten zien, ta urakin ase. Baiño upel haundiyan ez do eittek hoi. Upel haundiya in bihar da sebuakin jarri. Baiño harrek'e bee lana badu, e,

bee lana badu. Ez badezu ondo sebotzen geo sagardua alde itten hasten da.

### 2.38. Platanondoa ona da

- **Hizlaria(k):** Igerategi Santa Cruz, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-024/024
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:46:41. **Bukatu:** 00:48:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Bananondoa oso txarra omen zen, baina denborak erakutsi dio Joseri ezetz, ona dela.

#### Transkripzioa

-Platanua're oso txarra esaten due. Nun dakat platanua? Platanuakin indako mahia, eta hemen zeak'e bai, alkik'e. Alkik'e badia platanuakin iñak. Hok. Hau hala da, platanua.

-Zeorrek iña hori're.

-Bai. Danak, platanua.

-Txarra omen zala baiño.

-Baiño hoi're hemen batek esan zian bazakala ta bihar ote nun edo, hola esan zian. Ta "ona al da" ta, "bai, ona dek". "Beno, ona baldin baa hartuko dit baiño txarra baldin bada ez, e! Bueno, bota zak ilbeheran". Ta ez dakit zer zan, oktubrian edo nobienbre edo hola zan zerbait'e, eta "ilbeheran bota zak eta jungo nak". Eta geo etorri zan eta esan zian: "E, bota diu, e!". "A bai?". "Bai". Jun ta ikusi nun ta markatu nittun nundik moztu, ta geo moztu eaman taillerrea. Ekarrri ta neonek zerratu nittun ta hor egondu dia.

### 2.39. Gurdia egiteko egurra

- **Hizlaria(k):** Igerategi Santa Cruz, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-024/040
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:23:33. **Bukatu:** 01:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Gurdiaren zatiak egiteko zer egur klase erabiltzen zuten aipatzen du.

#### Transkripzioa

Goldia eta lera eta hoik egur onakin egin biharko ziran. Zer egun klaserekin egiten ziran holako erremintak?

-Erremintak?

-Haitza, pagua, ze ibiltzen zan?

-Gurdiyan erruedak eitteko haitza ibiltzen zan. Eta pertika eityeko aketzia. Eta gehiinak aketzia nahi izaten zuen. Aketzia gogorra dalako aketzia. Baiño haitza're ona. Oain, aketziak du "samago" esaten diyuena, gizena, izkiñako gizena txuri hoi gutxio du aketziak eta harek hobeto heltzen zion. Eta haitzak berriz jeneral nola baitun asko, ta [agotzak] hua're sartu iten zion, ta handik bela izurratu itten zan.

-A.

-Gizena, gizena galdu itten zan eta.

-Asko jakin biharko da.

-Boo. Asko jakin? Ondo itten ezkeroz bai.

#### 2.40. Ur bila astoarekin

- **Hizlaria(k)**: Atxaga Fernandez, Axun; Atxaga Fernandez, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-025/011
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:17:54. **Bukatu**: 00:19:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Astoa erabiltzen zuten etxean lan egiteko. Urik ez zuten etxean, eta iturrira joaten ziren ur bila. Harako bidea txarra zenez, batzuetan asto gainean zekarten ura erori egiten zitzaien.

#### Transkripzioa

JM: -Eta astua. Zuek aberia ibilliko zenduen seguruna Aranon. Baiño guk astua. Astua harea ta astua honea. Urik ez gendun etxian, ura're ekarri in bihar izaten gendun.

-Horrek etxeko lanak zailduko zittun ba. Garbiketa kontuk eta.

-Errekaa juten giñen. Putzu bat bagendun eta harea arropa garbitzea.

-Nola zun putzuak izena?

-Aitzako itturria esaten giñun, ez dakit. Aitzako itturria. Aitza zan, bi baserrin tartian zan, zulo batian eta askotan astua ez jartziaatik eta lan gutxio eitegatik hartu marmitak eta astoik be jun. Eta ia goraiño ailligitu garaiyan irristatu, ur guztik ixuri eta berriz hastea. Txarraua biria ta tokia, bueno!

-Astua jartzia zer zen ba?

-Astua jarri ezkeo astuak ekartzen zittun baiño, gu ordia artian gaztiak giñan eta, astua zestuakin eta jarri in bihar zendun eta. Marmitak hartu ta marmitakin. Bai behin baiño gehiotan. Oaintxe kaskora ya ailligitu gea, eta riiiaaaa! eta adios ur guztik. Oain jarriko nuke nik hola jendia oain.

#### 2.41. "Infernuak ere hartuko ez zuen astoa, ostikalaria eta koskaria"

- **Hizlaria(k)**: Setien Ezeiza, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-026/005
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:08:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Hasieran ia esnea bakarrik eramaten zuten Donostiara saltzera, baina gero patata eta beste gauza batzuk ere bai. Astoaz zera dio: "asto bat bagenun inpernuak ere hartuko ez zuena, ostikalaria eta koskaria". Gaiztoa benetan. Behin anaiak segaz buruan jo eta lurrera bota zuen. Istorio barregarria.

### Transkripzioa

-Zer egiten zenuten, esnia?

-Esnia. Aurrenien esnia bakarra. Baiño geo baserriya atera zan saltzea ta dirurik ez ta komerik zian han. Patata eiñen hasi giñen. Esniak eramanda, e. Esnia beti galazi zuen arte. Geo autobusa juten zanian janaya ittea astua ta karruakin, anaiya ai zan lekua, anai gaztena nee aurrekua. Harea. Asto bat bagenun inpernuak hartuko ez zuna. Ostikalaiya ta koskalaiya. Goatzen naiz.

-Gaxtua.

-Gaxtua! Egun batian anaiyak, jana itten ai giñan eta besaka alpapa botia zakan, e, baiño han ere ez zan konforma.... Aittu zan eta txist! eta martxa. Segakin kanka! Kirten zea, atzeko, nola jartzen da txabeta ta. Harekin eman ziyon nunbait punto txarrian burun eta seko lurrea. Belaxe ostera altxa ta ostikoka. Ondo zio.

-Ez zan ordun makala.

-Ez, ez. Baiño hua seko botatzia. Nunbait punto txarrian edo. Haren letxiakin!

## 2.42. Gaitzetsitako arkumea maitatzeko trikimailuak

- **Hizlaria(k):** Lekuona Mitxelena, Hilario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-028/039
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:07:56. **Bukatu:** 01:08:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Ardi batek bere umea gaitzesten zuenean (titia eman nahi ez zionean), sagardo tinan sartzen zituzten ama eta umea, eta gehienetan lortzen zuten maitatzea, baina ez beti. Hildako arkumearen larrua ere jartzen zen.

### Transkripzioa

-Ardia izango dezu zuk seguraski, ardiekin ari ginen lehenago eta. Ardiak gaitzetsa egiten duenian umia...

-A, hoixe nun. Tinilla hartan sartzen giñun. Arkume arra baldin bazan, beste ardin bat umia kendua txarra zulako, eta ume-hazitzaile ona bea, itten giñun ez bazun hartu nahi tinilla hartan sartu biyak. Ta han hartuazi beai. Ta askotan batzuk ez zuen hartu nahi izaten, eta lehangoa bean hildako

umian larruba jarri gaiñian eta hola hartzen zuen (barreak).

-Usaitik?

-Usaitik eta, bai. Ez zuen hartu nahi izaten. Batzuek aixa hartzen zuen, bestiek ez. Bean larruakin bai, bean larruakin bastante. Derrigorreko hortan'e azkeneako jartzen zien batzuk, e, baiño denboa askua zeatuta.

### 2.43. Ganadua garraiatzen kamioian

- **Hizlaria(k):** Iriondo Galarza, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-031/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena:** Pixkanaka Patxiren aitak negozioa zabaldu zuen, eta ganadua eramaten hasi zen kamioian.

#### Transkripzioa

-Eta geo gure aita horri ba hasi zitzaion esaten baserritarrak eta:"Aizak, txekor bat zaukat saldua Donostira matadera..." Askotan ordun bidetikan hartzen zuten txekorra, basarritik, mendiz mendi oiñez eamaten zittuen mataderaa, e, ganaua.

-Mataderia nun zegon?

-Donostin. Eta Donostia bidian zuk pentsa zazu ganau horrek ze galdu bihar zun eta nola ailligitu bihar zun. Hala gue aittai hasi zian esaten: "Aizak, zekor bat, eta hik eamango al hukek" eta. "Bueno, bai, bai". Haik basarritikan jaixten zuten bide oneaiño, kamiyo baztarrea edo jaixten zuten, eta hartaa gure aitak hartzen zun ganau hori eta iamaten hasi zan. Ta geo beste batzuk'e bai, eta batek bestiai, geo zabaldu itten zan kontua. "Aizak ba holakok eamaten dixkik, eta holako hasi dek, eta hau ta hoi ta. Eta hala behintzat geo hasi zaiten esaten: "Behia're hartuko al huke, kabittuko ote litzake behi bat. Behia ere..." Ta hartara atzeneako ba moduz moldatzen zan zekor bat eta behiya; zekor bat eta behiya ya sartzen zittun kamioi koskor hortan. Hala bazabillen eta, bueno, bee denboan aurrea, geo ta lan gehiyo ta hor animatu da; ta ordun erosi zun hor atzian dakazun kamioi hoi.

### 2.44. Taloa eta ogi klaseak

- **Hizlaria(k):** Yurramendi Larburu, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-033/005
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:08:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Errota

Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Baserria » Baserriko lanak » Garia

- **Laburpena:** Artoa zein garia, biak ehotzen zituzten. Artoa gehiago ehotzen zen garia baino, taloa jaten baitzen orduan. Ogi klaseak. Orduan ogi zaharra jaten zen, lehor-lehor egindakoa.

### Transkripzioa

-Garia egiten zen orduan hemen?

-Bai, gariya puxkat eitten zan.

-Haren lana eta artoarena diferenteak izango dira?

-Bai, diferentia.

-Nola egiten zen akordatzen zara zu?

-Bueno, hura ere igual-igual, artua bezela eiten zan hura ere. Artua eitten zan harriin, azpiyan harriya ta gaiñekua bueltaka ibiltzen zan. Ta han itten zan, arto-iriña bezela gari-iriña ere igual eitten zan.

-Zeiñena zan estimatuagoa, artuana ala gariana?

-Zeana, artuana askoz'e; talua ordun..., ogi gutxi zan, talua jaten zan ordun. Talua.

-Talua esniakin edo, urdai gizenakin edo...

-Zeakin ere bai, beste jakiakin ere. Bueno, ogiya ere izaten zan baiño ogiya, ez oaingo bezelako ogiya. "Hiruko Ogiya" esaten zan. Hiruko Ogiya zan hiru librakua. Ta seiko ogiya izaten zan, berriz, hiru kilokua. Ta hola koskorak izaten zittun. Sei koskor bueltan. Ta dana mami hutsa. Ta hua jan bihar... Oain ezta... ez luke... Oain eguneroko ogiya berriya bihar izaten da. Ordun... Ogiya zahar-zaharra jaten zan. Ta geo talua zeakin... Esniakin eta. Ogiik ez zanian talua ta hola.

## 2.45. Zenbat eta leunagoa hobea arto-irina

- **Hizlaria(k):** Yurramendi Larburu, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-033/010
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Artoak iharra egon behar du, bestela itsatsi egiten da. Haziendentzako pixka bat larriagoa eginda ere berdintsu izaten zen. Baina zenbat eta leunagoa, hobea jateko. Bahean pasatzen zen gero.

### Transkripzioa

-Artuak bihar zun, iarra bihar zun. Arto..., sorotik bildu eta artua motela baldin bazeon harrekin ez zeon iriñik eiteik. Hua bota ta geo ra-ra-ra ta, harriya bueltaka, peatu, ostera errota altxa ta ikeragarri lantegi txarra izaten zan. Artuak bihar du iar-iarra iriña itteko.

-Ta haziendentzako eta pertsonentzako igual eihotzen al zen artua?

-Bai, igual-igual. Bueno, haziendentzako puxkat larrixeo inda ere igual izaten zan, baiño zenbat eta leunao ein hua ta hobia jateko. Ta gero izaten zan gaiñea, izaten zan hua zean bahiyan pasa, bahiya, hola bii eskuak hartu ta ra-ra... Bahiyan pasa, gaiñian zahia geratzen zan eta hua geratzen zan iriña pin-piña. Gero harrekin taluak itten zien.

- Gaiñian gelditzen zen zahia zerbaitetarako ba al zen?

-Behientzat, txekorrenzat edo. Baiño txekorrei ematen zaienian, 'orria' (orea) esaten zan. Masa ein, pelotak ein... Baiño hua, hua ez zan pasa biharrik izaten bahiyan, talua jateko bakarrik bahiyan pasatzen zan.

## 2.46. Emaztea Donostiara saltzera hirurogeitaka urtez

- **Hizlaria(k):** Yurramendi Larburu, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-033/031
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:52:16. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Baserritik bizi izan da. Emaztea hirurogeitaka urtez joan da Donostiara saltzera.

### Transkripzioa

-Beste nonbait'e ibili zea lanian nozbaitte?

-Ez.

-Baserritik bizittu zea?

-Bai, bai, baserritik.

-San Martinera merkatura junda eta, berdura salduz eta...

-Hoi familia izaten genduanian, beste gaiñekuan beti andria. Zenbat urtian jun ote da Donostia nere andria! Bueno. Oain larogeitazazpi. Hogeitazazpi kendu eta hirurogeitazazpi urtian bai Donostia; aixe. Hogeitazazpi baiño lehenaotik hasi zan gaiñea Donostia. Han bere basarritiken. Ta geroztik egunero Donostia.

-Andria zer zan, Hernanikua?

-Ez, Urnietakua. Latxe. Hor sagardoteia nola do? Iguarain, harren ondokua.

## 2.47. Errenta ordaintzeko modua lehen

- **Hizlaria(k):** Mujika Treku, Isidoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-037/006
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Hautzaroko oroitzapenak: gurasoak maizter ziren etxean, hainbat abere zeuzkaten; eta, errenta ordaintzeko egunerako, oilaskoak eta txekorra prestatzen zituzten gurasoek.

### Transkripzioa

- Ni jaiyo nintzanien, ba, gure etxian zian maixterrak zien gure gurasuak. Maixterrak zian, eta lau behi izaten giñun, lau behi, bost, lau behi. Geo beren txekorrak hazi itten zian, umiak hazi itten zian, ta beste ba igual hogeita hamar-berrogei bat oillo; eta eguarri egunian izaten zan errenta



pagatzeko eguna. Ta orduako preparatzen zittuen ba berrogeita hamar bat oillesko-oillanda, ta beste txekor bat eo izaten zan; ba haik izaten zian ba errenta pagatzeko, ya preparatzen zittuen hoik gure gurasuak. Gure gurasuak hoi izaten zuen, [...] preparatzen zittuen, ta geo haik saltzen zittuen, oilleskuak eta hoik saltzea Santo Tomasetan jutun zian Donostia, ta Santo Tomasetan saltzen zittuen oilleskuak eta geo txekorra're garai hartako preparatzen zuen. Ta errenta pagatzeko izaten zuen beren alderdi hartan.

## 2.48. Erdaraz ikasi izanagatik eragindako harridura

- **Hizlaria(k)**: Mujika Treku, Isidoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-037/020
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:40:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Nagusiak esnea Donostian saltzen zuen, eta trenez eramaten zuen hara, goizeko 7etan. Han, erdaraz hitz egin zuenean, harriduta geratu zen bertako emakumea. Garai hartan, Urnietan, ez zuten hitzik egiten erdaraz.

### Transkripzioa

- Ta beste kaso bat'e gertatu zitzadan. Zazpitako ribera eramaten zun, nagusiyak esnia Donostin saltzen zun. Hortxe, ez dakit ba, berrogei bat litro esne, holako postura bat edo. Ta gazta pare bat bakarrik itten zittun etxian, ta [...] geo bea saltzen zan, jutun zan esnia saltzea, Bretxa o... saltzen zun. Ta goizian ni're marmita batekin, esaten dizut, harena zazpitako treneako bizkarrian hamar litroko marmita hartu ta hara jun bihar izaten nun. Ta gero bueltakuan, Zaldundegi o, famatuba da etxe hoi. Ordun, ba pentsuba ta ogiya, komestiblia ta pentsuba ta gasolina ta iketza ta... Danak saltzen zittuen etxe hortan. Eta ogiya bueltakuan ba nagusiyak paatuko zun, goizian hartzen nun [...] nagusiyak; eta bertako alaba soltera ta non hor ateratzen zait alegiya "Ba, nagusiyak pagatuko dizu bueltan" esan biharrían "ya le pagará... el patrón ya le pagará cuando, a la vuelta". Ta hola gelditu zitzadan begira... Nik huaxe atera zitzadan! Kasuen diez!  
- Ordun Urnietan euskeraz hitz eingo zen dena.  
- Dana! Guk ez giñakigun hitzik'e! Hitzik esateko, esaten dizut ba, nik hantxe.

## 3. Lanbideak

### 3.1. Senarraren lanak eta gudari izan zeneko gorabeherak

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: URN-001/030
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:47:32. **Bukatu**: 00:49:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena:** Senarra tranbiako gidaria zen. Gerora, kamioiarekin hasi zen lanean, tranbian jendaurrean lan egin behar baitzuen. Gudari izandakoa zen, eta fusilatzetik ozta-ozta salbatutakoa. Azkenean, SIGMAko inspektore izan zen.

### Transkripzioa

-Zure senarrak tranbian egiten zuen lana. Zer lan egiten zuen?  
-Kondutor. Eta geo ibili zan kamioiak. Bai, nee gizonak ez zun baliyo tranbietan "frente al público", ezin zun, zeatik bakizu ordun eozer gauza aitzen zan eta esaten zuen eta gudariya nola izandu zan, Castro Udrialesen harrapatu zittuen prisionero, eta anaiyagatik libratu zan zeatik anaiya zun oso asko zekiena, harrek Francokin uste det hitz egiten zula, frailia. Ta afusilatzeke bildurrakin anaiyak atea zun. Baiño ez zan oso kontentu etorri hua, e, zeatik bee lagunak danak han utzi kartzelan ta bea atea ta, anaiyakin izandu zun frentia, e. Aber zergatik in zun lana hua handik ateratzeko, lagun danak hantxe utzi bihar izandu zittula. Ta hola geo ibili zan, azkenian ibilli zan kamioiak. Edadea. Ta geo kamioia zeatu eta izandu zun proporziyua Máquinas Sigma, hor inspektore jarri zuen. Ta hortikan erretiratu zan.  
-Hori nun zegon?  
-En la calle Garibay. Eta Elgoibarren do etxia, zan, oin kendua dola uste det, e. Oin ez det uste donik. "Máquinas Sigma no hay ahora".  
-Josteko makinak?  
-Bai, josteko makinak. Eta halakoxe bizimoua.

### 3.2. Errotazar egondako lekuan gaur egun presa

- **Hizlaria(k):** Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-006/026
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:44:03. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak  
Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Errotazar zegoen lekuan, presa txiki bat egin zuten. Han, uztarriak egiten zituzten. Ubillos anaiak ziren uztargileak. Pagoa egur egokia izaten da uztarriak egiteko.

### Transkripzioa

- Errota hura zer zun erorita hola aspaldi?  
- Tomas: Bai, Errotaxar ezer ez dao.  
- Juan Bautista: Errotaxar ezer ez do; erreka besteik ez do.  
- Errotaik ez da gelditzen ordun?  
- Juan Bautista: Ez, ezerren mustrarik ez do.  
- Tomas: Gero in zuen hor presa ttiki bat, zeak uztargilleak han itten

zittuen.

- Juan Bautista: Pagoerdikuak.

- Tomas: Seuru asko ganaduk ura eateko iña-eo hola igual izango da, presa ttiki bat.

- Juan Bautista: Azpindiko [...] danak harea juten ittuan.

- Tomas: Ta uztargik itteko materiala eukitzen zuen, lehen esan deun zumitza itteko zea bezela, uztarrilla're urian eoten da.

- Presa hartan?

- Tomas: Bai.

- Juan Bautista: Pagua izaten zan uztarrik itteko.

- Tomas: Hoik paguak dia.

- Zein zen uztargillia hemen?

- Tomas: Hemen Pagoerdi, hemen hortxe dao baserriya bixta-bixtan.

- Juan Bautista: Hemen bi anai zian.

- Bizi al da?

-Tomas: Ez hil zian.

- Hil zian?.

- Juan Bautista: Eulogio Ubillos ta Alejandro Ubillos. Bi anai aitzen zien hoik.

- Ya. Ta paguakin itten dia uztarrik?

- Juan Bautista: Bai.

- Tomas: Bai. Bueno piñuakin igual-igual itten dezu, haritzakin igual baiño pagua zan, pagua zan.

- Juan Bautista: Bai baiño laneako.

- Tomas: Laneako paguakin itten zuen.

- Piñuk ez due hainbeste indar izango igual?

- Juan Bautista: "Qué va". Aguantia´re.

- Tomas: Nik ez dakit zeatik itten zuen paguakin.

- Juan Bautista: Aguantia paguak.

- Tomas: Haritza're material ona izango du, baiño.

- Juan Bautista: Baino oso pixua. Pagua sekatu ezkeo, baiño haritzak pixua paguan alden.

- Tomas: Zerbait´e izango zun.

### 3.3. Aita estraperloan aritzeagatik kartzelara eraman zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-007/019
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Polizia  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Ezkondu baino lehen, josten ikasten aritu zen. Garai hartan, estraperloa zen. Eta, behin, Guardia Zibilak gizaseme bat eskuak lotuta zituela eraman zuen. Horrela jakin zuen garai batean bere aita ere hala eraman zutela Guardia Zibilek; izan ere, zaku-irinekin estraperloan harrapatu zuten. Azkenean, baserriko nagusia joan zen kartzelara, eta hark atera zuen aita kartzelatik. Goserik ez zuen pasa Anitak; baina bere senide zaharragoek, bai.

### Transkripzioa

- Zea estraperloa izaten zan eta beste batean ezkontzeko neola, hemen Hernania etorri ta hiru hillaete pasa nittun hemen nik Joxe Mariñean eta josten ikasten, bai ezkondu baiño leheno. Hiru hillabete hor pasa nittun ta josten ikasten neola ta ordun ni nola ez bainun Guardia Zibillik ta holakoik han ez giñun politikaik ezautu eta honea etorri ta hemen Karkaban, zea Guardia Zibillak zian. Ta Guardia Zibillak ikusi nittun nik eta mutil bat eaman zuen eskuk lotuta. Gizaseme bat eta ni harrittuta, ez nun sekula ikusi, aittu ta ezer ez. Holako gauzik, ez telebistaik eta ezer ez zan. Ta etxea juten nitzan jaietan eo juten nitzan etxea bastante ta etxea jun nitzan ta hola esan niyon. Ordun, sekretuak gorde itten zian e. Umiei ez zitzaizkien esaten oain bezala. Eta esan niyen etxea junda: "Nik Guardia Zibillak ikusi dittut eskuk lotuta gizaseme batei eamaten" hola ta. "Hire aitta holaxe eman ziñenan" amak esan zian. Ta nik ez nekin.

- Hoi sekretua e?

- Bai, ta nik esan nun: "Baiño hoi zeatik?" ta zer da ta zer da, klaro galdezka. Hemezortzi urte eukiko nittun, hemezortzi-hemeretzi urte. Bai, hemeretzi're bai, orduako ya mutillakin neon eta hemeretzi urte ta galdezka ta aber zeatik eta nola-ta. Estraperloan harrapatu zuela, zaku-iriñekin Gipuzkoatik Naparrora zaku-iriñekin harrapatu, hamahiru umen aitta zaku-iriñekin jutea ze delitua. Eta zaku-iriñekin harrapatu due eta kartzela! Eta ordun, maizterrak giñen, han. Eta maizterrak giñelako etxeko andrea zan nausiya eta etxeko andrea jun omen zan kartzela. Bai. Ta hola ta hola, ume txikik, zenbat ume txiki zeon ta harrek ez dakit patu zun eo ez zun. Harrek atea omen zun aitta, guria. Bai.

- Hamahiru seme-alaban aitta?

- Bai zaku-iriñekin harrapatuta. Ta holako kasuk asko, holako kasuak asko. Bai, holako kasuk. Beti zean ta hoi nik goseik ez nun ikusi e. Urdaiazpikoa ta baratxuri-xopa ta beti izaten zan. Gosaltzeko-ta. Nik goseik ez nun pasa. Gue zaharrenak bai, gue zaharrenak; haik neskame-ta ahal zuen tokin. Ni beti etxean.

### 3.4. Kanpotik etorritako jendea, pobrea baina oso jatorra

- **Hizlaria(k):** Garmendia Ubillos, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-013/042
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:00:05. **Bukatu:** 01:01:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- **Laburpena:** 01 00 06 Natic denda jarri zuenean, salmentak nolakoak izaten ziren azaltzen du: gutxika saltzen zuten; askotan, erosketak libretan apuntatzen zituzten, eta hilaren bukaeran etortzen ziren bezeroak zorrak ordaintzera. Kanpotik etorritako jendea pobrea zen, baina oso jatorra, zintzoa.

### Transkripzioa

- Ta nik denda jarri nunian'e, hoi da, zean, berrogeita honbeste urte, pues, ez pentsa oain bezela saltzen gendun... Libra erdi bat azukre, libra erdi bat

oliyo, ehun gramo tomatia, lata haundi batetik... Holaxe.

- Lata guztik [...]

- Latak izaten zian bost kilokuak o hola, eta libra erdi bat, edo libra bat, edo beren ontziyakin etortzen zian ta. Oliyua're bai libra erdi bat, eta azukria're bai ta... Hola. Ta gero jendiok etortzen hasi zianian, kanpoko jende hau etortzen hasi zanian, ya orduako zeozer gehiyo zeon. Baiño xoxik ez zuen, eta dena apuntatu in bihar izaten zan. Eta eramaten giñun bi libretan, bat harek eta bestiak guk, egunian, egunen eguneko ze gastatzen zuen. Ta geo hillian behin kobratzen zuenian, etortzen zian pagatzea. Majiña bat libreta pasa diñat. beren libretakin etorriko zian, ta hantxe. baiño jende bat jatorragua etorri zan, pobria baiño bai jatorra. Bai. Hillan azkenian fin etorriko zian haik. Nik behiñik behin hala izandu ditut klientiak, oso onak. Esaten det, kastillanauk oso onak neretzat. Etxe batian bost famili ta egoten zian, basarri batian ta...

- Hura bizimodua.

- Bai, bai, oain kejatzen dira, oain kejatzen dira.

### 3.5. Apaizari eta Guardia Zibilari tratu desberdina baita zakurrek ere

- **Hizlaria(k)**: Igoaran Elustondo, Isidro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-022/042
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:11:39. **Bukatu**: 01:13:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Lanbideak » Polizia
  - Euskara » Tratamenduak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
  - Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena**: Apaiza edo Guardia Zibilak etortzen zirenean etxera, zakurrak zaunka desberdina egiten zuen. Bidean apaiza topatuz gero, txapela kendu eta berorika egiten zitzaien.

### Transkripzioa

- Anekdotak politak badak. Zakur bat hemen hor atereran, oin hor mandio-zubia do, eta hor zan uran depositatua eta haren gainean txabola eta, zakur handi bat-eta. Gu soruan lanean ari ginala, ezutzen, bagenekigun etxea zein etorri zan, apaiza edo Guardi Zibilla, bitako bat. Apaizei ta Guardi Zibilei zaunka diferente iten zien. Ta, aiba, badek ba apaiza edo Guardi Zibilla bitako bat, esaten gendun. Apaiza izaten zan askotan baiño Guardi Zibilei're bai, e. Sotanagatikan edo. Zaunka diferenteia.

-Zer zen zaunkahola errespetuzkoa?

Bai, bildur-zaunka, bai.

-Bai, e?

-Bueno! Puerte, e. Bai.

-Esaten da apaizarekin gurutzatu ezkerko bidian edo...

-A! Txapela kendu ta. "Beorri" hitz ein da.

-Eta gurasoei ere beorrika?

-Aita eta amari ere beorrika hitz egiten zenien?

-Ez, guk ez, baiño toki askotan, e. Lehen-lehenok nik uste det dana ta.

Geo're nik ezautu det hemen auzuan'e, hoik beorrika aitzen zien baiño gu ez. Gu ez gea behin'e aittu hola beorri, ez. Ez gea aittu.

### 3.6. Gurdia egiteko prozesua

- **Hizlaria(k):** Igerategi Santa Cruz, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-024/034
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:11:43. **Bukatu:** 01:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Lanbideak » Arotzak
  - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Gurdia nola egiten den eta zer zailtasun dituen azaltzen du: pertika ondo egitea da zatirik zailena. Denborarekin eta esperientziarekin ikasten da.

### Transkripzioa

-Gurdia nola itten dan. Zea haundiya du. Pertika itten, erdiko luzi hua itten da lantei txarrena. Hari forma eman eta. Hari zeak jartzen eta harek bihar dittun trastiak erasten eta zean eta. Pertika deitzen zaio ta pertika itten txarrena. Hua moldatzen. Ta ai zinala okertu igual itten zitzazun, ta hua're noiz bota jakin in bihar ez okertzeko, ta zeinek zakin noiz bota bihar zan. Ta hemen bertan zan beste bat gurdik arreglatzen zittuna, beste aton bat, ta hari zeatu ta harek esan noiz bota bihar zan ta. Ta harek esaten zun: "E, nik esango dit, jun eta ikusi ta txuxena baldin bado nik esango dit noiz bota, ta ekarri nei seittun". Ta harek esandakuan moztu ta ekarri harek esaten zun garaiyeen, eta seittun ta-ta-ta-ta ta handik lau eguneako gurdiai sartu. Ihartu ta ezer in be. Ta ni hortakua naiz gainea, e. Pertika bihar baldin baa, zenbat eta hezegua hobia. Zeatikan hue itten da ordun sekutzen ai dala enkojittu itten da egurra, ta enkojitzen ai dan bezela zeatzen ai da, estutzen; espigak eta zuluak eta zeak eta ai da ta, indartzen ai da. Ta "ez, iharra sartu, ihar-iharra". Ta iharra sartzen baldin bada segittun klik-klak-klik-klak, segittun hasten da. Ta geo "Eee!, lasaitu duk!,

eta. Bai, kuñakin jun eta kuñakin di-da! estutzen.

-Hezia hobe.

-Hor be jakin in bihar baita. Ta hoik noiz ikasten [ohi] da? Zartuta geo, ez gaztetan. Iñork ez du esaten eta. "Ja-ja, espabilatuko haiz nahi baldin badek. Ikasiko dek denboakin".

### 3.7. Josi bitarteko kantak

- **Hizlaria(k):** Arizmendi Txapartegi, Agurtzane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-032/019
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:26:28. **Bukatu:** 00:27:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Sastreak, jostunak  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Josi bitartean, kantuan aritzen ziren; orduko kantak aipatzen ditu.

### Transkripzioa

- Ta kantari, gu beti kantari aitzen giñan, gu beti kantari. Entrebista bat ittea etorri zian behin, oain dala hogeia bat urte o ni hemendik jun nintzanta, Andoaindikan. Esan ziyen "Zuek ze itten zenduen?" "A! Guk kantatu, kantatu, guk josi ta kantatu, kantatu, abestu, josi ta abestu, josi ta abestu..."

- Ta ze kantatzen zenittuzten?

- Zeanak, "Maritxu nora zuaz" ta kanta hoik. Ta geo bersuak edo liburun bat o bazun, liburun bat, ta handikan "ikusten dezu goizian", hoik denak'e bai. Geo," mutil koskor bat itsu aurreko", ta bersuak eta... Geo zeanak'e bai, Genovevanak'e bai.

- Nola zien hoik, Genovevan bertsuak?

- Zeak, Jesus, Maria... Genoveva, zein dittuzu hoik? Esan diyozu ba Rokei, galdetu diyozu ba lehen...

- Markesaren alaba.

- Markesaren alaba, Markesaren alabak eta hoi denak, hoik denak.

### 3.8. Harrobian lanean

- **Hizlaria(k):** Yurramendi Larburu, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-033/030
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Etxean egin du lana. Harrobian ere ibilia da Donostian urtebetez. Lan gogorra zen, kamioiak kargatzen, borraz harria apurtzen...

### Transkripzioa

-Joxe Mari, zu zertan ibili zeu lanian. Hamabi urtetan eskolatikan atea ta ze ibili zifian, etxian lanian edo basoan nunbaitt ibili zifian edo...  
-Etxian lanian. Harrobin'e Donostin aittu giñan bai hor zean..., Monpásen, harrobin. Hango harri [ateratzeko] trenian. Zera eitteko, [eskailera?] eiteko. Ta nausi hura zein zan? Harrek kiebra ein zun. Bukatu gabe utzi zun harrek. Ezin zat goatu oain.  
-Zenbat urtekin jun zifian harrobira?  
-Ba zean... Ni hogeitabost urtekin ezkondu nintzan eta tarti hortantxe. Urtebete edo hola pasatu nun nik han.  
-Ta hango lana nolakua zan?  
-Hango lana gogorra, zeakin... Kamio kargatzen'e bai; eta borraikin harrik txikitu ta... Lan goorra.  
-Etxian hobeto...  
-Bai, bai. Etxian hobeto.

## 4. Ohiturak eta bizimodua

### 4.1. Ur bila iturrira joateko alferkeria

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** URN-001/041
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:06:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala  
Natura » Meteorologia  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Edateko ura iturritik ekartzen zuten. Iturria erreka baino urrutiago zegoen eta ez zuten nahi izaten hara joan. Ura kristalezko botilatan ekartzen zuten. Anaiak behin ebakia egin zuen ur bila joan zenean; amak sendatu zuen sendabelarrei esker: inurri-belarra, besteak beste.

### Transkripzioa

-Edateko ura nundik ekartzen zan?  
-Iturritik, iturria, bai. Erreka baiño urrutiyo gendun iturria. hara jun nahi ezik ibiltzen giñen. Eta txandan juden giñen ta hara jun nahi ezik ura ekartzea, baiño hara juden giñen. Eta askotan hara ez jutegatik erreka kua igual. Udaran bai, udaran edan zeiken baiño negun ezin zeiken, izugarri hotza zan eta. Udaran tira baiño negun..., negun ezin zan.  
-Nola ekartzen zenuten, marmitetan?  
-Botilletan, botilletan. Marmitik ez gendun eta.  
-Ez?  
-Ez ba.  
-Botillak kristalezkuak?  
-Kristalezkuak, bai, bai. Egun batian nee anaiak gixajuak uretaa bialdu eta ebakiya in zun izugarriya hemen. Puxka kendu ziyon zeai. Bai, eta amak sendatu ziyon. Lehengu hoik bazekiyen ze belarrak eta ze gauzak eta. Bazekizkien eta sendatu ziyon, baiño gixajuak min hartu zun.  
-Eta zer belar erabiltzen zituen zure amak, berbena belarra eta holakuak?



-Berbenakin ni ez naiz goatzen baiño txingurri-belarra ta. Hoik, txingurri-belarra goatzen naiz. Txingurri belarra, ura ematen ziguten hola katarrazua edo hola gelditzen giñanian, ur hartatik edaten gendun. Eta sendatu itten giñen.

-Eta ur bila orduan egunero jun bihar izaten ziñaten?

-Bai, klaro, egunero bihar zan ura.

#### 4.2. Arbela, klariona eta lapitza

- **Hizlaria(k):** Lasarte Zugasti, Xanti
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-002/020
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Eskolan, klariona zuria erabiltzen zuten arbelean idazteko. Bakoitzak bere arbela ere izaten zuen mahaian. Hartan idazteko, lapitza izaten zuten.

#### Transkripzioa

- Eskola horrea ibiltzen giñan garaiyan, kleriona esaten zitzaiyon zuri bat, oain'e oaindik'e badira hoik, garai haitakok. Ta harekin enziarrun aitzen giñan. Enziarrua haundiya zan, metro t'erdiko ikearri hola, han. Ta maistrak ifingo zizun ze jarri, ta ateratzeko hua, ta danan bistan atera bihar izaten [...]. Ni han hasi baiño lehen, ateria nakan hua. [...] Baiño, ta bestia izaten zan pizarra: lau... ispilluba nola izaten da? Ispilluba. Estilo igual-igual, pizarra. Ta harentzako lapitz-harriya, harriyak iten giñun lapitza. Harriya hemen atera, lapitz-harriya du izena beak'e. Ta hua bezperan zeatu, biribildu, ta dotoriak itten giñun, horko mutillak eta biyok.

- A bai e? Ta ze harri klase zen hori ba?

- Hoi hemen bertan da. Ta ez da hargorriya ez da, ta karaitza're ez da, baiño lapitza esaten zaiyo. Beak izena hala du, harri-lapitza. Ta harekin itten giñun. Ta danak jende beira, guk harekin eskribitzen pizarrian earki, taka-taka-taka-taka. Ta geo beste batzukin itten ta're aitzen giñan.

- Hara, berriz.

- Holaxe.

#### 4.3. Donostiako laranjak eta baserriko lanak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:04:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Baserria » Baserriko lanak

- **Laburpena:** Ahizpa Donostian ibili zen neskame, eta handik laranja ekartzen zituen. Laranja haiek, ordea, zapore desberdina zeukaten. Baserrian, zer lan izaten zuten azaltzen du.

#### Transkripzioa

- Ta beste gauza eukitzen det rekuerdia, gure ahizpak Donostin ta serbitzen, eta haik ekartzen zittuela naranja eta. Ta naranja haik beste gusto bat zuela. Beti goatzen naiz ni. Eta hortxe, holaxe zan.
- Zuek bazenittuen baratzan, bueno...
- Bai, aza, porruk, eta azak eta garai hartan ez zan azelgik eitten. Aza, porrua, ta koliflora ta holako gauzak. Patata, babarrunak eta artuak... Ta holaxe zan. Ta gero iñistorra bildu bere garaiyan, eta belarrak ondu. Ta geo artua bildu, ta artua aletu, errota jun, Urnietan bazan errota, artua eraman, iriña ekarri, talua, ta esnia ta txerriya hiltzen genun, eta bakizu, urdaiya ta txorixuak eta...

#### 4.4. Eskolako maistrak eta josten ikasteko moduak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:18:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Sei urterekin hasi zen eskolan. Han ikasitakoak gogoan ditu: matematika, josten... Maistra oso jatorra izan zuten, Angela. Gerora, beste bi izan zituzten, eta azkena gaizto hutsa izan zen. Josten ikastea, landutakoari buruzko azterketak egiten zizkieten; egun horietako ohiturak aipatzen ditu.

#### Transkripzioa

- Eta eskolan ibiliko ziñen?
- Bai.
- Zenbat urtekin hasi ziñen eskolan?
- Sei urtekin hasitzen giñen, ordun, garai hartan. Ta ez dakit zenbat urte arte, hamabi urte arte o ze ibiliko nintzen ni. Gutxi. Ta eskola haundia're "suma" ta "restar" ta "multiplicar" pixkat eta puntu itten-ta ikasten gendun hor-ta.
- Zein zenuen maisua eo maistra?
- Maistra, nik maixuik ez det ezautu. Maistra hemen baserri batekoa, Angela zun izena, oso jatorra zan. Harrek puntua ta dana eakusten zun. Baiño ni hiru ezautu nittun. Aurrenekua hua, beste bat Oriyokua ta hirugarrena erdalduna zan hua ta hua gaixto hutsa. Ta horrek behala alde in zun. Hortxe.
- Puntua itten-ta.
- Bai, ni goatzen naiz geo iten zien examiñak e? Eta jartzen zun bakoitzak bazun manteleri, bestia galtzerdi puntuk eta gauza asko eakutsi zun aurreneko maixtra horrek eta geo jartzen zien examiñek ta mahai batian dana bakoitzak beria jarri txukun-txukun ta ni goatzen naiz galtzerdi puntuzko berde batzuk belauneaiñok in nittula, bai. Bai, hala, nik nahi

nittun, gehio ez dakit. Batzuk bai, bai jertsia, galtzerdik eta bordatu ta bai, hala itten genun guk hor.

- Geo etxeako're balioko zizuen ba?

- Bai, bai, bai; etxeako balio zuen eta etortzen zien apaizak, meikua eta etortzen zien ordun'e examiñatako eunian.

- A bai e?

- Bai, etortzen zien. Etortzen zien.

- Eta haik ze iten zuen, nota jarri haik'e bai edo?

- E?

- Haik'e nota jarri?

- Haik'e bai notak, klaro, notak. Ta ekartzen zittuen karameluk, gailletak eta bakoitzai partittu ta politta izaten zan, hoixe.

#### 4.5. Maistraren zigor "zurrinak"

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-004/015
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:21:35. **Bukatu**: 00:22:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Maistrak zigortzen zituen, baina haren mutil-laguna etortzen bazen, zigorra kentzen zien. Orduko zigorrak nolakoak izaten ziren.

#### Transkripzioa

- Ta maistrak?

- Maistrak hurrungo egunian ez dakigu ze esango zigun, edo ez dakit kastigatu giñun edo ez. Kastigatu're itten giñun e? Ta gertatu zan behin hemen maestra bat bazeon, eta oso neska politta zan, oriyotarra. Eta gero hemen bazeon hor gizon bat ezkondata zeon, ta familiya ta asko zun, ta... Baiño gizon hua "por ahí" ibiltzen zan. Ta ze pasatzen zan? Gu kastigatzen giñun, baiño gizon hura etortzen zitzaion maistrari, ta ordun guri libre. etortzen zan... Eta ordun'e izaten zian.

- Ez zen ordun zuetaz akordatzen, kastigatuta ziñatenik?

- Ya kastigua barkatzen zigun guri ordun, ta gu pozik.

- Hoixe. Hura noiz etorriko zain.

- Bai, gustoa.

- Ta kastiguk eta nola izaten zian, nolakuak?

- Belauniko jarri aurrekaldea, o besuak zabaldua eon, ta hoixe. Txarra gelditzen da e? Belauniko jarrita eskuk nekatuta earki baiño...

#### 4.6. "Dantza lotu madarikatua"

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-004/017
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:23:12. **Bukatu**: 00:25:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** 16 urterekin hasi ziren erromerian ateratzen. Iluntzerako, baina, etxera joan behar izaten zuten. Bilera haiek nolakoak izaten ziren azaltzen du. Dantza lotu "madarikatua" bekatua zen garai hartan; eta konfesatzera joan behar izaten zuten, dantza lotua eginez gero. Garai hartan, dena bekatu zen, eta beraiek sinetsi egiten zuten. Bere alaba zaharrenaren garaian ere, oraindik bekatuak indar handia zuen.

### Transkripzioa

- Eta geo igandetan ta gu iñoa ateatzen hasteako, hamasei urte ta Xoxokan izaten zan,soiñua, eskusoiñua jotzen zun bat. Horrea etortzen giñan, [...] itten genun baiño illuntzen hastían, etxea danak. Jun biharko. Ta etxen'e zai eoten zien.

- Ta billerak-eta nolakok izaten zien ordun?

- Ordun, soiñua aitzen baldin bazan denak dantzan sueltoan. Baltseokua ez zan libre. Ta pekatu mortala, "dantza lotu madarikatua"-ta esaten zittun sermoeitan, "dantza lotu madarikatu hoy" ta beida eotea're pekatu ta behin o behin ibiltzea jun giñen konfesatzea.

- Oi ama!

- Oi ama? Hoixe oi ama.

- Ta sermoia eta fuerte?

- Oso fuerte esaten zuen: "Dantza lotu madarikatu hoi pekatu mortala" ta Jesus! Ta konfesatzea ta ze penitentzik ematen zittuen. Ze gaixuak giñan gu.

- Ta eozein gauza txar itten zenuela iruituko zitzaizuen?

- Izugarriya, dana pekatua. Ta xinixtu itten gendun. Ze nahi dezu? Dana xinixtu beak esaten zuna.

- Eta konfesatzea korrika?

- Korrika konfesatzea. Amai txokolatia harrapatzen bagenion´e. Gue neska zaharrenak'e honbesteaiño ez baiño hua zaharrenak'e konfesatzea txokolatia hartzen bazioten ta junak izango die, zaharrenak. Hirurogei urte ittea dijoa nere alaba zaharrena ta hoik konfesatzea jungo zien holako gauzak. Gazteneako ya espabilatu zien baiño. Ene!

### 4.7. Ura lortzeko moduak, eta zenbait istripu

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/023
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:37:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Etxean, euri-ura aprobeztatzen zuten. Iturrian garbitzen zituzten arropak. Behin, behor gagnetik erori zen, haurdun zegoela, zazpi hilabeteko.

### Transkripzioa

- Urik ba al zenuen etxean?

- Ura azkenian jarri gendun teillatukoa. Bozaera in borda gaiñian eta teilla, ebia iten zunian depositua betetzen zan eta erropa garbitzeko-ta primerakoa. Beheratu iten zittun erropak.

- Bozadera esan dezu?

- Bai, depositua, depositua in gendun. Hoi ez dakit zenbat litrokua izango zan. Oantxe bota dute. Haundiya zan eta ura eltzia-eta jartzeko ta hor itturritik eamaten gendun beti, hoi bai eateko ta hoi bai baiño ontzik garbittu ta arropa garbittu ta bakizu. Barrilloa burun hartu ta horrea itturria erropakin ta behin eroi in nitzen barrelloa burun nula ta honen aittak, aittagiñarrebak esan zian: "A ze garaiyen in dezun, eroi hoixe!". "Que va", ez zen ezerre pasa.Ez. Beste eun batian, alaba gaztena jaiotzeko zeola zazpi hillabetekoa neon ta bihorren gaiñian netorren Armindei bakizu? Portutik gorao etorri ta gora. Bihorren gaiñin netorren ta bihor horri zerbaiten iruipena jarri zaio, saltatzen ta ni atzeko aldea seko eroi nitzan, aizu. Bihorran gaiñetik zazpi hillabeteko estadun neola, ene!

Konozimentua're jun zitzaiten pixkat ta bihorra bere birian martxan ta nik bihorrai heldu xisterotik eta nik ya ikusten nun baserriya, nondik pasa bihar nun. Iruitzen zitzaiten atzeaka nijoala. Ta geo basarri hua ezautzen nun ta hortik bihorra ondo dijoa ondo dijoa bide puxka batian etorri nitzan halaxe, mareatua bezela, zazpi hillabeteko. Ez zitzaten ezerre pasa. Primeran jaio zan.

#### 4.8. Azken bi umeen jaiotzen gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-004/024
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:37:56. **Bukatu:** 00:40:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena:** Etxean izan ditu zortzi seme-alaba. Bederatzigarrena ospitalean izan zuen, "parto sin dolor" egiten zutelakoan. Baina ez zen hain erraza izan. Hamargarren semeak 4,7 kg zituen jaio zenean.

### Transkripzioa

- Ordun umiak nun jaiotzen zian?

- Ba zortzi izandu dittut basarrin, hementxe Aierdin. Komadrona oso bizkorra gendun Urnietan, komadronakin. Zortzi hortxe ta geo familiya're haziya ta alaba biarrena mutillakin ta geo etxian zea txarra jartzen zan, bakizu haur ondorian ta jun nitzan ospital probintzialesa, "partos sin dolor" itten zuela. Hola ni bai pozik. Jun nitzen oso ondo zatorren, ondo zatorren, ondo zatorrela ta etxian bezalaxe ta etxian baiño komadrona hau bizkorraua hango enfermera baiño. Han jaio zan. Ta geo hamargarrena jun nitzan residentzia. Bazittuen ba ume tarte bi urte t'erdi o hola, bi gaztienak. Ta horrekin jun nitzen residentzia. Ta bakizu zenbateko mutilla jaio zan? Lau ta zazpirehun. 'Urtain txikiya' esaten ziyoena. Noizbait 'e jaio zan, aizu. Han bildu zian ikasten ai zianak, zea partera ikasten ai zianak ta komadrona edadekoa tokatu zitzaten ona eta jaio zan [...]. Ni baiño aberatsagoik ordun ez zan iñon e! Nik esaten nun, berrogeita bi urte ta

esaten nun bueno ez det ba berriz izango eta pozik! Gaiñea lehen semea nun ta hoi beste biarrena. Pasillun eon nitzan [...] osuan baiño pozik eondu nitzan ta. 'Urtain txikiya' esaten ziyon, izugarritzko mutil puxka. Ta bitartean esaten zien nei Urnietakua hemen haur haundiya dator ta zu ez hartu ez esneik eta ezerre. Baiño naturaleza honek ez daki, ez nun zeatu, baiño haundiya jaio zan ta ondo jaio zan. Besoa atera omen ziyoen jaiotzen eo.

- Kosta ingo zitzaion [...].
- Ta komadrona zahar horrek esan zian bildur haundiya zioela haur asko izandutako emakume haidi matritza eoten zala oso flojotua ta ez zula indarrik itten, ta bildur haundiya. Baiño izan zala partok ikasten ai zienek eta dena betia.

#### 4.9. Etxekoen artean moldatutako bataioa

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Arrieta, Angela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-004/025
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:40:33. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Haurra izan ostean, ahizparen etxean egon zen astebete. Bataiora, ama ez zen joaten; gero izaten zen elizan sartzea. Etxekoen artean moldatu zuten bataio osoa.

#### Transkripzioa

- Ta gero, ahizpa Donostin banazken bi ta han pasa nittun zortzi egun ahizpan etxian. Etorri, otsaillian jaio zan eta behala bataiatzen giñun ordun. Ta bataiua izandu zan gue etxian oso politta. Alaba zaharrenak eta seme zaharrenak padrinuak. Koro, Oialumekua, hirugarrena zan, harrek in zun iñudetza aurea eaman, ordun hala izaten zan. Haurra bestek eamaten zun. Ordun amak ez giñen juten bataioa gu.

- Ta zer dela-eta?

- Ordun, garai hartan, ez zan usatzen. Padrinoa ta madrina ta aitta. Ama [...].

- Eta zergatik ez ziñan zergatik ez zian amak juten? Oso goiz zen igual?

- Ez dakit zeatik. Gero eliz sartzea juten giñan. Eta oain hildako alaba hoi [...] zan kozina ikasten ta harrek jarri zun bazkaiya.

- Ze politta, etxia dena moldatua.

- Oso. Etxen dana moldatu.

- Apaiza kanpoko ezta?

- Apaiza're herrin apaiza zeona.

#### 4.10. Altzora astoarekin zihoala...

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/012
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:14:12. **Bukatu**: 00:15:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Behin, Altzora eraman behar zuten txerria. Anitak astoarekin eraman nahi; eta, hala, mendian zihoala izandako bizipenak kontatzen ditu.

#### Transkripzioa

-Ta beste batean holaxe, Altxoa eaman behar zan txerriya. Ta txerriya ta astuakin eamango nula ta. Abittu gea. Zaate (Zarate) ez dakit jzuk akingo dezun, Zaate zan Gipuzkoa ta Naparruan mugan zeon etxe bat, han guardazibillak egoten zien, baiño ordun igual ez zan eongo. ez dakit bazeon ez zeon. Etxe bat zan. Eta haraiño amak laundu zian. Ta txerri hoi ez jabetzen zeangana astuangana. Han halako batian ezin eamanda arbolai lotu [genion], txerriai lotuta gaiñea sokakin ta. Arbolai lotu [genion]. Astoa eaman harren ondoa ta astoai eantsi geo. Eta astoai eantsita nolabaitt'e abittu zan baiño, ni bakar-bakar-bakarrik handi Altxoa astoa ta txerriyakin. Garai haitan ze ibillera! Gazte-gaztea. Hoik zian hamabost hamasei urteko kontuk. Gue aitta-zanak beti izaten zun, bai, mutilletako zea izaten zun harrek kontu eitten, nei kontu eitten, nei beti kontu eitten ibiltzen zan. Ala urdun ez al zeon arriskuik? Nik esaten det...

-Festara igual ez zizun ateratzen...

-Festaa ez.

-Lanera bakarrik.

-Baiño hoik ibillerak! Pentsatze hutsakin'e ez dakit ze eitten deten nik.

#### 4.11. Konortea galdu eta uretara erori

- **Hizlaria(k):** Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-007/022
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Behin, arropa garbitzera joan zen batean, emakume batek konortea galdu eta uretara erori zen. Berehala atera zen arren, busti-bustia zegoen, eta arropa lehorra eman zion, etxera itzul zedin.

#### Transkripzioa

- Eta mutillekin estadun neonean'e erropa garbitzea erreka juten giñen. Hue iraillian jaio zan eta udara hartan guztin, errekan aberiak hartu erropak eta hemendik erreka jun Alimaiko zubia eta han erropa garbitzen.

- Alimaiko zubia esan dezu?

- Bai.

- Nun da hori?

- Hoi hemendik Hernania abittu eta mugatik pasa ta seittun. Hantxe, zubi hartantxe pasatzen zian. Erreka goitik behera, nola dator? Goizuetatik

datorren erreka hoi? Hoixe! Erreka hortako zubi hoi. Hor pasatzen da. Ba hor pasatzen zian erreka hoi, Alimaiko zubiye. Eta zubi azpin...

- Eta astua, astuan?

- Aberiak, behorakin. Bai. Ta han hartu erropak eta harea juten giñen bi auzoak eta batean, horko Maixux Bentan etxeko andria gaur daona, pues harri mareo bat eman zitzaion. Ta ni neon tripa haundiyakin eta mareoak eman zion eta ureta erori zan. Ta ureta erori zan bezelaxe espabilatu zan ta seittun altxa zan, baiño dena busti-bustiya. Eta nik ez dakit zenbat erropa, aukera haundik ez nun izango, baiño nauken holako mantala bat eta mantala hua harrei eman niyon jazteko eta ni gaiñekoakin nola etorri nitzan hoi beti gogoan izaten det.

- Eskerrak espabilatu zela ura gaiñen.

- Bai. [...] ze koadroa.

- Ze in behar zenun e?

- Bai. Ze koadroa izango zan. Ta holaxe, holako gauz asko.

#### 4.12. Eskolan Espainiako himnoa abesten

- **Hizlaria(k)**: Pagola Ibarrola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-008/002
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:02:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
  - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Umetan aita hil zitzaien. Eskolara gurpilekin egindako abarkekin joaten ziren. Eskolara sartzean, abestu egin behar izaten zuten Espainiako himnoa.

#### Transkripzioa

-Aittik be geatu giñan ta hamaika urte arte, hamaika urtekin hil zan atta, ta eskolaa juten giñan Arriatxuko eskolaa. Ta antomoillakin indako, antomoillan erruedakin indako abarkak izaten giñun.

-A bai?

-Bai. Ta taluan tartian urdaiya hartu bokadillotako ta zakua burutik jantzi euriya danian ta juten giñan eskolaa. Ta han eskolaa sartzeako bandera bat eoten zan haundiya, eoten zan bandera, ta nik indar asko samar nun; bestiak izango zien baiño nei esaten ziaten gehiyenetan hua ateatzeko. Ta atea hua ta kantatzen gendun: "Gloria, gloria corona de la patria que tu rojos es, abierto el corazón, una bandera gloriosa nos da nadie viviendo el gozo de morir por tí. Viva Cristo Rey! Viva Franco! Arriba España!" Hoi kantatzen gendun eskolaa sartzeako.

-Eskolara sartzeako? Bai.

-Gustatu edo ez gustatu?

-Biharko. Hua legia hola jarritta zeon eta hua [altxa deu], egunero kantatzen zan hue.

-Hura kantatuta eskolara.

-Eskolaa.



#### 4.13. Aitonak astero bizarra labanaz egin eta abarketa pare a erosi

- **Hizlaria(k):** Rekondo Iribar, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-009/014
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:26:17. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena:** Aitona astero joaten zen bizarra labanaz egitera. Eta astero abarketa pare bat ekartzen zuen, zenbaki berekoa, etxean beste bi senidek ere zenbaki bera zutelako. Pezeta bat balio zuen pareak.

##### Transkripzioa

-Harek eitten zun goizian, pentsa e, zortzitako mezetaa juten zan. Jaitan, e, attona. Eta Urnietan zan plazan pelukero bat Enrike esaten zitzaiona, difuntua, eta harek itten zittun alpargatak. Alpargatak. Eta denboa hartan jendia alpargatakin ibiltzen zan, ez zan oain bezela zapatakin ibiltzen. Eta jaiero-jaiero-jaiero-jaiero jungo zan bizarra, gustatzen zitzaion zortzin behin zeakin, bizar-labanakin moztutzia. Ta, klaro, bizar-labana ibiltzeko jakin ein in bihar da. Zeatik eze harek bestela in lezake "un corte"... Bueno, ikera emateko modukua. Eta juten zan. Eta aldi berian apreta pare bat ekartzen zun, "el número veintisiete".

-Astero?

-Bai. Bai ba. Bi suhiyak, beno, semiak eta suhiyak eta beak oiña berdiña zuen. Eta beti euki bihar zan apreta pare bat ona estraiñatu gabe noara jun bihar baldin bazan.

-Jolin, ordun astero bizarra moztea jun eta alpargata pare bat erosi.

-Alpargata pare bat. Pezta bat alpargata paria.

-Harek izango zun ba lana alpargatak itten.

-Aber ba! Pentsaiozu! Ta pezta bat. Alpargata beltzak ekarriko zittun.

#### 4.14. Ume bihurria izan zen eskolan

- **Hizlaria(k):** Belauntzaran San Sebastian, Praxku
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-011/015
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:28:26. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Goiburuko eskolan ibili zuen. Irakurtzen eta dotrina ikasi zuen. Makina bat kaskarreko hartua da. Gaiztoa omen zen maistra. Oso bihurria zen Praxku. Neskekin borrokak.

##### Transkripzioa

-Maistra Goiburuko eskolan, Goiburuko eskola esaten diou, Barrio Goiburua da hori, Xoxoka du izena plazak, herriyana da, Xoxoka. Ta hor harek letzen dotriña erakusten zun. Letzen erakusten zun ta dotriña. Ta berak ez zun

erdratz... Arrue zan, Anjela Arrue. Ta harekin ttiki-ttikitatik eta; makiña bat kaskarreko ematen ziten. Gaxtua... Oaindik esaten dit, oaindik hemen bizi da, neekin eskolan ibilliya; ni mutil koskor ttiki-ttikia, bestiak nere edadekuak hazi ta geo juten zien eskolaa; baiño Rosakin ni ttiki-ttikia eamaten niñun bea juteagatikan. Ta nola ibiltzen nitzen neska guztikin eta ddanakin eta. Maistra etorri, [gorostizko?]holako makilla batekin, kas-kas! Belauntzaran Praxku! Ordutik Praxkua. Kas-kas! eta. Etxera etorri ta nik ez niyon esaten amai ta aitai, e! Kaxkarrian koskorrak. Bai. Oaindik esaten du hor Kukuteko andre batek, Resurrecioneak: "Praxku, goatzen al zea..." Neska batekin borrokan hasita kosk einda hemen puxka kendu izandu die hemendikan...

-Zuk harei?

-Ez, ez, harek nei. Jota puxka, dio! Joxepa zun izena, Legarralde, Arrieta.

Joe! Ni baiño..., nere edadia edo hola zan ta. Iñoi ez nion obeditzen nik, e!

#### 4.15. Handik ez da inor bueltan azaltzen

- **Hizlaria(k)**: Belauntzaran San Sebastian, Praxku
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-011/049
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 01:47:05. **Bukatu**: 01:48:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena**: Iñaki, Urnietako apaiza, laguna du. Edozer gauza esaten diote elkarri. Apaizari esaten omen dio gauza bakarra esaten dutela egia: Hara joan eta denak konforme egoten direla, inor ez dela behintzat itzultzen. Apaizak, mojak... denetik sartu du, baina inor ez da bueltan azaldu.

#### Transkripzioa

-Iñaki (Urnietako apaiza), laguna dakat Iñaki. Edozein gauzak esaten diogu alkarri. Esaten diyot: "Gauz bat bakarra esaten dezue egiya: hara jun eta danak konforme egoten diala han. Ta hoixe bakarra esaten dezue egiya". "Zeatik? Ez al dezu ba sinisten?". "Sinisten det zeoze badala, baiño gauz bat, handik ez da iñor... Nik apaizak, monjak, maiña bat sartu dittut baiño iñor ez da azaltzen. Eze azalduko balitz neegana edo esango luke: 'aiba, Praxku Santa Agedara eramango diek, erotu ein dek edo', esango likek". Esaten diyot eta parrez eoten zan. Ez, ezta azaltzen. "Hoixe bakarrik esaten dezue, hara jun ezker ezta bueltatzen, han danak konforme eongo diela". "Egon zaitez ixilik, esaten dit, zuk bestela haundiauak esango [dizkizue] ta".

#### 4.16. Hildakoen beldurrik ez, bizi direnena bai

- **Hizlaria(k)**: Belauntzaran San Sebastian, Praxku
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-011/050
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 01:48:01. **Bukatu**: 01:48:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Behin kazetari baten galderari erantzun zion hildakoek ez diotela beldurrik ematen, baina bizi direnak bai.

#### Transkripzioa

-Beste gauza bat ere esaten dezu ba zuk politta, hildakoak ez dizutela beldurrik ematen...

-Ez. Periodistan batek, aspaldiko kontua hau ia. Bai, etorri ta: "Ze mouz Praxku?" ta. Ez dakit zein periodista zan. "Hamentxe". "Zeiñek ematen dizu bildur gehiena, bizitzadunak edo?". "Eee, hildakuak ez dit nei bilddurrik ematen, bizitzadunak ematen dit bildurra". Bo, holakuak, holaxe etortzen zaizkit; askotan.

#### 4.17. Soldadutzan Melillara, erdaraz hitz bat jakin gabe

- **Hizlaria(k):** Izagirre Arrue, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-016/041
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:08:02. **Bukatu:** 01:09:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzara joan zenean, ez zekien hitz bat erdaraz. Kintoan, 31 lagun ziren, eta berari Melillara joatea suertatu zitzaion. Han, zer eginkizun izaten zituen azaltzen du. Ondo pasa zuen soldadutzan; baina gaixo eman zuen hilabete.

#### Transkripzioa

- Eta soldadu jungo ziñan?

- Bai, soldadu egon nintzan, hizketan errex asko nakin gizona, hitz bat erderaz ez nakin. Ta hogeita hamaika laguneko zea giñen, kintua giñen, hogeita hamaika lagun. Ta besteik iñor ez, ta neroni bakarrik tokatu nintzan Afrika, Melilla. bai, Melillan pasau nun soldaduska. Beno, soldaduska. Urruti egotia, gaiñeakuan, gaizki're ez nintzan eondu soldaduskan. Bateri batian sartu ninduen, ta hango kontabilidadia eraman, ta behiyak jetzi, ta geo esne hua partittu zean artian, jefien artian, ta militarrai partitzen zitzaizen esne hua. Ta ondo pasa nun nik soldaduska. Oain, esnia edaten nun gogotik, ta kalenturakin pasa nitun hogeita hamahiru egun edo, zean.

- Bai e?

- Bai. Nola deitzen ziyoen? Ospitalan moduko zea bat zan, izen rarua deitzen ziyen oso. Han pasa nittun. Baiño brigada oso ona nun, ta ikusten zittun, ganadue ta ondo zainduta zerela, ta ondo kontatuta zerela, ta etxetik ekartzen zian jana; ta nik soldaduska ondo pasa nun, egiya esate ezkeotan. Baiño urruti egotia.

#### 4.18. Soldadutzako brigadarekin oso harreman ona

- **Hizlaria(k):** Izagirre Arrue, Miel

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-016/043
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:12:24. **Bukatu**: 01:13:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadutzan, ganaduz arduratzen zen Miel. Lizentziatu zenean, brigadak opari bat eskaini zion: ezkon-bidaian Melillara joateko. Emazteak, baina, ez zuen nahi izan; eta, orduan, hormako erlojua oparitu zion.

### Transkripzioa

Geo teniente koronelak eta etortzen zienien ta, garbi-garbik eukitzen nittun ganaduk; etxian ez oso garbik oain baiño... Ta gustoa ikusten zittuen haik. Ta bat bazan haizetu're itten zan behiya, ta hua're dominatzen nun, zulatu itten nun [...] haizetzen zanian; ta ni ondo ikusiya neon soldaduskan, egiya esate ezkerotan. Ta geo ni lizentziatu giñan garaiyien, esan zien erregalotxo bat ingo ziela; ta, hala, ez zakala erregaloik ein biharrikan; ezkontzen nintzarian erregalotxo bat ingo ziela, ta biajea harea joateko esan zian; ta ez zakala erregaloik ein biharrikan, neretzako ona izandu zala-ta. Ta behin karta bat in zien, handik urtebete o, ta juteko harea ta juteko harea. Ta ez merezi ez dulako, baiño honek ez zun nahi izaten, oain ez bezelako pertsona zan baiño... Ta geo, behiñik behin, erregalotxo bat egingo ziela ordun, ta zea bialdu zien, releju bat, paretoko releju bat bialdu zien, goiyen hor dao. Ta ikeragarri gizon ona izandu zan neretzako hua. Nik soldaduska ondo pasa nun.

#### 4.19. Aberatsak bezala janzten zen Kontxita jaiegunetan

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/003
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:04:08. **Bukatu**: 00:05:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: Gurasoek aginduta, aberatsak bezala janzten zen Kontxita jaiegunetan. Berokia, setazko soinekoa... Astean, berriz, normal. Prakarik eta horrelakorik ez, jakina. Galtzerdi sportekoak eta soineko mehe bat..., oso arin janzten zen orduan.

### Transkripzioa

- Jaitakuak.  
- Ta jaitan trajez eta astez?  
- Astian korriente ibiltzen giñan. Baiño ni jaitan oso ondo jazten nitzan. Nik izeba banun, solteruak zian ta gutzako zian. Guk izandu dittugu bi ama ta bi aitta. Ta izeba horrek izaten zun gutzako beste, bueno, aberatsak bezala janzten nitzan ni jaitan. Ta nei ez zitzaten gustatzen. Bakizu, nere launak beste zea batea janzten zian baiño. Ordun, esaten zuena in beharra zeon: "Ez hoi jantzi behar dezu!". Ixilik hua jantzi.  
- Deskribatuiazu, esaiazu nolako trajez zea?

- Ba abrigo elegantiak eta. Soiñekua're sedaskuak hemen, bolantiakin ta kapakin ta. Astian ez, astian ni korriente ibiltzen nitzan.
- Ya ta astian, bueno e pentsatzen det.
- Bueno astian, galtzik eta ez. Oain pentsatzen eoten naiz hoi. Diferentzi earra. Ordun ibiltzen giñan, galtzerdi esportekuak. Eta negun zapatillakin eskolan eta geo pues abrigua-eo izaten gendun, baiño geo soiñekua, ez zan oso lori haitakua're ez. Galtzik eta ez zan ematen ordun.
- A ze hotzak.
- Bai. Holaxe zen dena-ta.

#### 4.20. Doña Francisca erdalduna, maistra ona

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/006
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:10:54. **Bukatu**: 00:12:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Euskara » Euskararen egoera  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Maistra oso ona izan zuten, doña Francisca Perez. Erdalduna. Bi familia zeuden bakarrik Urnietan erdaldunak. Berehala ikasi zuten euskaraz haien seme-alabek, dena euskaraz egiten zelako.

#### Transkripzioa

- Baiño eskolan, ordun sei urtekin hasten giñan eta geo maestra kastellana gendun. Baiño maestra, bueno oso ona. Eta guk ez genekin erderaz, ez dakit nola ikasi genun letzen'e. Dena harek erderaz esaten ziun eta geo nolabaitte ikasi gendun. Oain pentsatzen eoten naiz, "nola ikasi gendun erderaz?". Ta rekreora ateatzen giñan eta oso, maistra oso ona gendun guk.
- Akordatzen zea izenaz?
- Geo... Doña Francisca. Apellidoa ez naiz goatzen zer zun. Doña Francisca Perez.
- Nungoa ote zan kastellana hoi?
- Ez dakit nungoa zan. Ez dakit, ez dakit nungoa zan.
- Euskeraz eakusten zuen eskolaik ba al zen hemen?
- Ez. Geo hemen, bi famili eo etorri zian. Batzuk Madriltik eta bestiak alabesak zian. Oseake Madrilkoko hoik Renfeko billeteiak eta ematen zittuna zan eta honea destinatatu zuen, ta bazian bost-o bazittun umiak ta beste alabako hoik'e erderaz ez zekiyeen, eo euskeraz ez zekiyeen denak. Baiño guk nola ez baigenkin euskeraz, erderaz, gu bezelaxe oso ederki ikasi zuen. Beste erremedioik ez zitzaieen geatzen. Oaindikan'e ikusten dittut. Mutillak bat'e ez. Neskak ez zuen ikasten hainbeste, baiño mutillak bai. Ordun, erderaz-ta iñor ez.
- Nola zun izena eskola, zu ibili ziñan eskolak? Hemen zu ibili ziñan eskola harek nola zun izena? Nongo eskolan ibili ziñen?
- Hemengo aldemeneko hontan ibili nitzan ni hamabi urte arte.

#### 4.21. Donostian ikasten gose denboran

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/007
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak  
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena:** San Bartolome Ikastetxean bi urte egin zituen Kontxitik. Aurreneko urtean "externa" egon zen; izeba baten etxean bizi zen. Bigarrenean "mediopensionista"; etxetik joaten zen eta han bazkaltzen zuen. Errazionamendu garaia zen, oso momentu txarra.

#### Transkripzioa

- Eta geo beste bi urtian ibili nitzan, Donostin San Bartolomeko kolejiyuan. Bai.

- Ze eskola zan hura?

- "Colegio de las hijas de María".

- Monjena-edo?

- Monjena bai. Oain "por ejemplo, la presentación, presentación de las hijas de María" San Bartolomen goien.

- Han izaten al zan uniforme ta...?

- Bai, uniformiak ta ibiltzen giñan. Ta geo gaiñea, gerra denboako zea zan hua, ya gerra. Izeba nun Donostin bizi zana ta haren etxen, bueno ez, aurreneko urten haren etxen eondu nitzan ta geo bigarreguan hemendik juten nitzan. Aurrenguan eondu nitzan "externa" eta bigarregon "media pensionista". "O sea que media pensionista" zan han bazkaldu ta meriendatu. Ordun etxetik, hemen etxetik juten nitzan.

- Ta eskolan bertan eukitzen zenuen jangela ta lotako lekua ta dena?

- Ba, bueno "medio pensionista" neola bai. Ordun han ematen ziguen. Baño, ordun rasionamentua zeon ta Jesus! Ogiya're holako pixkat ematen ziguen eta iñor faltatzen baldin bazun, iñor etortzen ez bazan, haren ogik hartzen aitzen giñan. "Hau ez da etorri"-ta. Nik behin eo hartu non, baño jendiak askotan hartu itten zuen. Klaro oso zan, oso momentu txarra zan ordun. Rasionamentua zeon dena ta ogiya're gutxi-ta.

#### 4.22. Izebaren pentsioan Donostian

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/008
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:14:08. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak  
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena:** Oso gustuko du Donostia. Gogoan du amak pezeta bat ematen ziola ogia erosteko. Errekaduan egin bai baina beste lanik ez zuen egiten izebaren ostatuan. Jende inportantea egoten zen.

### Transkripzioa

- Kontxita, hemendikan, Urnietatikan Donostirako salto hura edo, hamabi-hamalau urte bittarteko zea hura, ze diferentzia harrapatu zenun?
- Bueno, diferentzia, diferentzia haundiya. Baiño gustoa eoten nitzan Donostin. Donosti asko gustatzen zitzaten. Oain'e bai e. Nik Donostiya pues izeban etxian ta izebak zun pentsiyua, "Pensión Arrieta, este" Plaza de Bilbaon. Eta han aurrenetikan ezin [...] eondu nitzan e. Aurrenetik, baiño geo ya pixkat jarri nitzan ta nola pasa nun kursoa bakarrik urtebete eta geo, etxetik juten nitzan, etxetikan, hemendik. Goatzen naiz amak nola pezta bat ematen ziten "pan" zea eosteko "pan", ogiya zea zan "esto" bollo bat. "Pan Bimbo" bezelako holako bollo bat eosten nun eguardin, errekreuan jateko.
- Pezta bat balio zun?
- Pezta bat ordun baliyo zun.
- Han pensiyu hartan izebakin eo eondu ziñan lanian, lanian ta hola bai?
- Bai, bueno. Ez, ez, ez. Nik lanik ez nun itten han. "Aunque sea" enkargun batzuk bai bialtzen niñuen: "Aizu, zoaz horrea, estanko hua" ta geo klientiak beak'e bai bialtzen zizkiten "a por sello, a por lo que sea" ta geo errealuak-eta itten zizkinen. Zeatikan jende gaiñea bastante inportantia eoten zan pensiyu hartan. Ta jende Valentzikoak-eta bazian, bueno "este" sekulako terrenuak zezkenak zeanak, naranjenak ta klaro ordun haik zeuden refujiatuta bezela hemen. Valentzikoak ta geo beste hoi izandu zan Jose Antonio. Hua berriz zea zan Francon hurrungua, Francon ingurun ibiltzen zana. Hua're han eondu zan pensiyu hartan ta bai, jendia bastante inportantia eoten zan pensiyu hartan. "Pensión Arrieta" zan, gerra denboan.
- Haintzako enkarguk itten ta?
- Bai. "Oye chavala, pues oye, me vas a ir al estanco y me traes un sello?". Ta beste batek ez dakit ze ta geo naranjak ematen zizkidan ta geo, behin, nere, bai nere kunpleañotan ta han eokitu nitzan ta erregalo asko in zizkiten. Nik gaiñekon han lanik ez. Eskolak [...] ematen giñun, deberian in ta bakizu.
- Hemendikan hauntza nola, nola juten ziñan? Hemendik jun-etorri itten [...]?
- Goizian juten nitzan zortzi t'erditako trenian eta geo, klaro atsaldian etortzen nitzan, ez dakit seitan-o. Hola ateatzen giñan ta meriendatu ta geo trenian etortzen nitzan. Trenian jun ta trenian etorri.

#### 4.23. Diziiplina gogorra mojetan

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/009
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:16:50. **Bukatu**: 00:18:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  - Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena**: Mojak ez zuten ilea solte erabiltzen uzten, "zaldi-buztana" ipini behar zen. Uniformea ere ezinbestekoa zen. Diziiplina gogorra.

### Transkripzioa

- Eskola polita izango zu, ordun zuk?
- Bueno, ba.
- Ze ikasi zenittun?
- Batxillerra hasi nun baiño ez dakit hiru urte eo ze ikasi nittun. Ordungo batxillerra're diferentia zan. Eta ordun gaiña Jesus! Komentuko hartan ta "buf". Nik klaro, melena ibiltzen nun nik luzia ta denak hala ibiltzen gendun. Ta han jarri behar izaten gendun "cola de caballo". Mojak ez zun uzten han hola illia sueltuan. Eta behin uniformeik be juten baziñan, bueno "una bronca". Ta askotan bueno esaten zun amak, gaur unifomia garbittu in bihar dizut, ez zala lehortu o bakizu oain bezelako adelantuik ez zeon ta "de calle" igual juten ziñan ta hori ez zitzaien moja hairi gustatzen. Baiño giñan errespetua giñekan guk mojai, bueno. Oaindik goatzen zazkit San Bartolomeko eskaillerak haik-eta. Geo elizan hizketan eoten bagiña, "castigadas". Gu ez baigiñan ixilik eoten. Eliza oso kapilla ederra zan. Ta nere ume denboako kontuk hola izandu zian-ta.
- Han'e erderaz?
- Bai, dena erderaz zan. Euskeraz esaten dizut, pues etxeko euskera dakigu guk, besteik ez dakigu.

#### 4.24. Lehengo erlijioa barreneraino sartuta

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/012
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:20:16. **Bukatu**: 00:21:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Apaiza elizakoekin pasatzen zenean, lurrean belaunikatzen ziren, harri artea egokituta ere. Mezetara igandero eta hileko lehen ostiraletan. Lehengo erlijioa du barreneraino sartuta.

### Transkripzioa

- Ta geo goatzen naiz ni hemen apaizak ordun, "este" norbait hiltzen bazuen elizakuak eamaten zizken, komuniyoa eamaten zuen tapatuta ta guk jolasten ai giñanen harri tartian belauniko jartzen giñan plazan, hua pasa arte. Ta holakoxeko errespetun bizittu giñan, ordun.
- Ze gauza e.
- Bai. Ta jaiero eliza, bueno eta "primer viernes"ak-eta ez dakit ze "primer viernes" klase itten giñuzen zeatikan ez giñen ixiltzen. Oain itten ditugu egitazkok. Ordun, bueno "primer viernes"etan beti ta jaiero're mezeta beti eta orduko relijiyua dakau barrena sartuta ta gu gaiña ttikittan ohieatzekoan ta oraziyuak-eta. Komoniyua itteko're kreduak eta salbiak-eta bagiñizkin ta oain aitzen diet, ez dakittela gurutze santuarena itten oaingo umiak ta komuniyoa itten duela eta klaro, oain ez due eakusi're itten ta, dena kanbiatu in baita gauza guziya.



#### 4.25. Lehengo zapatak

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/022
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena:** Anaien zapatak garbitzen lan asko egin izan du. Jaiegunetan erabiltzen zituzten; astegunean, berriz, abarketak.

##### Transkripzioa

- Ta ordun, aizu, zapata mordoxka jartzen zizkiten amak. Hemen jartzen zizkiten zea trapua ta-o; "benga zapatak garbitzen!". Jaitakuak izaten zian e. Astian ibiltzen giñun pues ebittan ta hola gomazko zapata batzuk eo. Bazan hemen 'kinkilleroa' esaten ziyena. Hari eosten giñezkan ebittako ta gaiñeakoan alpargatakin.

- Ta kinkillero hoi zer zan?

- Kinkillerua zan zapatak eta gauz hoik saltzen zittunak eta geo feritan ibiltzen zan. Ta hari eosten giñezkan horroko zapata gomazko batzuk ebittako. Eta astian apretak, "cero" patzen giñun "cero noventa", baiño "euros no" e "céntimos". Ta beti zeakin, hemen baatzan barberua zan eta geo apretak itten aitzen zana. Ta klaro astian apretakin. Zapatak-eta jaiyian.

#### 4.26. Santa Leokadiaren erlikia bisitatzera umeak hartuta

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/049
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:13:50. **Bukatu:** 01:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa
- **Laburpena:** Santa Leokadiaren erlikia bisitatzera etortzen ziren leku askotatik familiak umeak hartuta, umeen osasunarentzako ona zela-eta. Hondarribia, Pasaia, Irun... Trenez etorri eta elizara joaten ziren. Gero batzuk herrian gelditzen ziren bazkaltzen eta pilota partiduak ikusten.

##### Transkripzioa

-San Migelaz aparte ze festa gehiago?

-Zerakuak, Azkortekuak.

-Leokadia, Santa Leokadia esan diazu lehen. Ze reliki izaten dia hor?

-Santa Leokadian relikiya. Eta ordun izaten zan umiak ez gaizkitzeko edo, umiak osasuna izateko, umiak guzik hartuta etortzen zien. Uste det Hondarrabi guziya etortzen zala, Pasaia, Irun, Andoain... Baiño hemen korreo bat izaten zan, korreua esaten ziyen, tren bat. Eta hua geratzen zan

hemen hamarrak laurden gutxitan hola. Pasatzen zun ordulaurden bat bai hemen jendia jetxi ta jetxi ta jetxi. Eta geo hamarretan edo izaten zan meza nagusiya eta danak meza nagusira [umi haikin] Eta geo, klaro, batzuk goizo etortzen bazian, goatzen naiz ni gue izeban etxian eta nola gosaltzen zuen. Ta gero bazkaldu ere itten zuen hor bertan. Ta geo pelota-partiduk izaten zien ordun kontsejupian. Hoi bai, goatzen naiz pelota partiduk nola izaten zien eta. Geo atsaldian ya musika.

#### 4.27. Gerra zibilari izarrei begiratuta igarri zion sasimedikua

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/073
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:45:23. **Bukatu:** 01:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Ukenduak ekarri ohi zizkien sasimedikuak izarrei begiratu, eta gauza onik ez zettorrela iragarri zuen. Laster sortu zen gerra zibila. "Allapurko Ttikia" esaten zioten. Oso kurandero ona ei zen.

#### Transkripzioa

-Akordatzen zera kurandero haren izena, edo nungua zan edo?

-Hua Allaforkua, "de Allaflo". Ze izena zun harek? Julien ez baiño ez dakit, Allaforkua zan. Eta gue amai esaten zion beti, gue amak Angeles izena zun, "Angelex, hemen gauz onik ez dator". Ta "Ze ba" ta. "Egunero izarra bat ikusten det hor eta harek esaten dit, ez dator hemen gauz onik" "Baiño ze etorri bihar du ba?" gue amak esaten zion. Ta baakizu zer anuntziatu zun? Gerra zatorrela.

-Gerra aurretik esaten zun hori?

-Bai, beti esaten zun. "Hemen badator ikaragarriya!" Gue amak esaten zun "Ze ikaragarri etorri bihar du ba, ze esaten du gizon honek?" Ta geo gerra etorri zan. Allapurko Ttikia esaten zion ordun, izena ez dakit zer zun.

#### 4.28. Tinta eta lumaz idazten

- **Hizlaria(k):** Igerategi Santa Cruz, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-018/061
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:32:00. **Bukatu:** 01:33:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Etxean ez zen dirurik luma-punta berriak erosteko, eta hautsiekin ibili behar. Betun kaxa batean erabiltzen zuen lapitza eta klariona eta borragoma (kortsearen botoia). Luma eta tintaz idazteko orduan izaten ziren komeriak.

### Transkripzioa

-Eskolan plumakin eskribitu bihar izaten zan, gooratzen naiz tinterua, holako tintero ttiki bat, askotan ezta tintik'e eskolan, aizu. Tirrik eta tarrak eta, nola ikasiko gendun ba. Punta puxkatu, gue ama gaxua nola izango zun ba punta berriya erosteko dirua. Tirritt eta, jesus! Oaingo boligrafuak izango bazian, ene! Ta borragoma, borragoma badakizu? Lustre kajak izaten zien ordun klisk! itten zienak. Oain ez dakit [badian] oain. Gantxo bat zuen eta klisk ein eta irikitzen zienak. Lustre kaja batian, goma puxkat, tiza puxkat eta lapitz puxkat, [...] zenbateaiñokua. Holakoxe kaja ttiki batian. Eta borragoma ze izango? Korsiak, garai bateko korsiak botoiak izaten zittuen galtzerdiei eusteko. Halako botoiak. Guk ez gendun besteik, nik ez nun beste borragomik. Nik borragomik ez det ezautu nik. Harekin. Edo bestela ogi-mamiakin. Ogi-mamiakin lapitza, baiño tinta, tirri, jesus. Lapitzakin zeatik puntak puxkatzen, ez gendakin ta. Ez ziuen eakutsi nola eskribitzen zan. Tintetan bustita, ura izaten du eta batez, ez ura ta ez tinta. Jesus!, zulatuk..., oi ene, oi ene!...

#### 4.29. Madrila hezkuntza ona jasotzera

- **Hizlaria(k):** Almortza Goñi, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-019/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:21:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Umetatik bihurria izan omen da Mertxe; orduko gaiztakeriak kontaktzen ditu: idiak mozkortzen zituen, zezenak askatu... 11 urte bete zituenean, Madrila bidali zuten hezkuntza ona jaso zezan eta bederatzi hilabete eman zituen han. Madrila trenez joan zen, oso atsekabetuta.

### Transkripzioa

- Baiño ni oso ttikitatikan gaiñea gaxtua izandu naiz. Osobak zatua-ardua ekartzen zunia eta belar pillara botatzen zun goitikan, ganbaratikan botatzen zun belarra, lehorra zulo batera, han gordetzen zun freskua egoteko ardua, hartu hua ukuillu-atxurrakin, atera handikan eta idiri eman. Mozkortuta, geo laneako gauza ez diela.

- Ai ama!

- Ez, aberik haundi xamarrek eiñak dittut nik. Nee bengantza amonak zigorrakin ematen zianian, nee bengantza izaten zan zezenetaa jun eta zezenak askatu.

- Ze bitxua!

- Bitxua? Desde luego. Geo ezin bilduik haik etxea. Bueno, hamaika urte. "El día que cumplí los once años me fui a Madrid".

- A bai? Madrillea.

- Bai. Beatzi hillabete pasa nittun han. Hillero-hillero jutun zitzan osoba. Estuve muy bien, e. Por mediación del tio fui allá para que, enfin, para que no sería tan burra en el caserío. Para poder aprender la educación". Bai,

bai. "Me escapé allá". Neskamiakin jun arrandeira ta. "Me escapé, me fui hasta El Retiro, y no conocía Madrid para nada".

- Zeinek bidali zintuen?
- Izebak. Izebak eta osobak.
- Eta aitak eta amak zer esan zuten?
- Attak ez zun nahi baiño. Hainbeste enpeñatu zan osoba. "E, Xegundo, hola ez zioz umia hola aztarrika jarri hemen eta. Ez ez, hobia dek edukaziyua ikasten baldin badu eta eskola. Ez dik buru txarra. Talentua badik eta ikastia dula. Ta ikasten baldin badu berantzako izango dek".
- Eta hemen ez al zendun ba ikasiko?
- Baiño hua ordia osoba haundiya baizan.
- Hamaika urtekin bederatzi hilabeterako Madrillea jun ziñen.
- Bederatzi hillabete. "Fui para una temporada. Pero lo que pasa que pasé nueve meses". Ez nahi orduko etxea etorri.
- Nola joan ziñan harea?
- Trenian.
- Emango zizuen zorrón bat edo. Ezta batere?
- Ez, ez nun jan haundiik biharrikan.
- Jale txarra ziñala esan dezu.
- Txarra nitzan alde batetik eta geo bestetik "el disgusto que llevaba para marcharme fuera de casa". Sekula, atera bai, Donostin izaten nitzen izebakin eta, baiño beste gaiñentzian hola kanpoa behintzat atera ez, eta ba al dakizu zer zan? Nik atta oso maittia nun, e.

#### 4.30. Dena kontatu behar apaizari

- **Hizlaria(k)**: Urdangarin Esnal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-020/011
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:19:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Zirriak-eta egitea bekatua zen. Apaizari dena kontatu behar zitzaion konfesioan. Lehen gehiegi alde batetik, eta orain beste aldetik. Oraingoan aukera izan balu... ez omen zuen gauza onik egingo, eta alde batera horrela hobe.

#### Transkripzioa

-Ez al zeon xirririk eta egiterik?

-Et, et, et. Pekatu zan. Hillero komeniyua hartzea edo konpesatzea luistarren zea. Ta apaizai dana esan bihar ziñon. Ta in zazu pekatu gero hari esateko!

-Dena esan bihar zitzaion apaizai?

-Dana [haik]. Txintxo ibilli biharra zeon. Ordun gehiegiya zan ta oain'e gehiegiya do. Alde batea ta bestea.

-Bi muturretan

-Bai. Oaingo gaztiak bezelako aukera izan banu nik...

-Ze egingo ote zenittun?

-Gauz onik ez nun ingo, ez. Gauz onik ez nun ingo ta hobia. Pekatua errespetatzen gendun.

#### 4.31. Erakutsitako belea

- **Hizlaria(k):** Ubillos Atxukarro, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-021/030
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena:** Erakutsitako bele bat izan zuten. Jendeari txapela edo belarritakoak kendu eta horrelakoak egiten zituen. Azkenerako asko narrastu zen.

#### Transkripzioa

- Ta hemen badaukazue beste hegazti bat, zea.
- Zapalaitza?
- Belia.
- Belia, osea, belia bai, belia zan. Belia zan eo zapalaitza zan, hoi ezin goatuik nao, hortxe eoten zan, hortxe egur horren gaiñian eoten zan, danai burutik txapela igual kentzen ziyen. Ta beste batian, nere anaiya horri, Jexux, esan dedan horri're, kotxia're bazun ta, kotxe zahar bat eta, azpiko zea guztik danak zeatu're bai, arrankatu're.
- Ai ama!
- Bai, zeak, argiyan zeak eta... zizkiyon, bi bider'e bai. Kanpokuak ez zitun ikusi nahi izaten, danak ezautzen zittun harek, ez ez.
- Ordun, etxeko animala bat bezela zenuen hura.
- Igual-igual, ta geo ez dakit hua nola, geo, auzoko etxi hortara jun zan hor egondu zan bolada batian, ta geo ez dakit nola, erretiatu zan. Zikiña zan, geo gaiña, zeatu in zan, zikiña eo nunahi kaka, zea eo itten zittun ta. Ta oain, bestia hor daka, besti hoi ez du ateatzen hoi, baiña hua hemen libre ibiltzen zan. Libre ibiltzen zan, belarritakuak kendu ta, zea, bai, bai, bai, bai.

#### 4.32. Ama erditzen eta medikua aldameneko ohean zurrungaka

- **Hizlaria(k):** Ubillos Atxukarro, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-021/032
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:53:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena:** Sekretuak izaten ziren umegintza eta sexu kontuak. Ahizpa txikiena jaiotzean medikuak amari esandakoa. Ama haurgintza minetan eta medikua aldameneko ohean zurrungaka lo.

### Transkripzioa

- Baiña nik ez nun, beste gaiñontzekuan arropak preparatzen zittula ta bai, hantxe eukitzen zittun txukun-txukun, hortan, hortan hala zan, ba jaiyotzen zaneako. Eta ordun, meikuba ibiltzen zala're bai, meikuba. Ta badakizu azkenekua ttiki hau Jexux hau izandu zan, nik hamazazpi urte nittun, ta nik, guk, ordun sekretuak izeten zian gauzak ikiarri. Guk, han nik behin'e ez nun aittu hitz berdeik eta holako gauzik, oain aitzen diran bezela neska-mutillak, ez dakit, han sekulan ez gendun, guk ez gendun ezer'e behin'e hitz ein, ez gendun. Oain bezela, sexue esaten duen bezela ta, nik etxe hartan behin'e ez gendun guk aittu, e. Oin esaten det, gu bi ahizpak bai, baiña han ez giñun guk sekula, oin ez giñun holako istorik eta ez dakit zer. Eta, hola, eta [...] nik ez dakit, ordun, o Donostin esniakin izango nitzan o ze nola izango nitzan eo, zea, [...], ta meikuk esan ziola, "neska, heorrek in biherko den ba" esan ziyola. Eta aldemeneko oyian lo nola jarri zitzayon meikuba. "Oaindikan denboa dakan, ta heorrek in biharra dakan" esan ziyola. Eta hemen nola aitzen zan istoriyok bai, hoik esaten zittun, eta hua beste oyian zurrunkaka lo.

### 4.33. Atsolorra

- **Hizlaria(k):** Ubillos Atxukarro, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-021/036
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:55:40. **Bukatu:** 00:57:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak  
Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- **Laburpena:** Haurra jaio eta handik hamabost egunera, auzoko emakume guztiak ama berriaren etxean bildu eta merienda egiten zuten: atsolorra. Xerra piperrekin, txokolatea boladurekin... merienda ederra.

### Transkripzioa

-Bataioan inguruko ospakizunak eta.

-A, atsolorra. Atsolorra, bai. Ba haurra jaiyo eta handikan hamabost egunera edo hola. Bai. Merienda, auzoko emakumiak danak bildu eta merienda izeten zan. Atsolorra, bai. Ya ahaztuta [neukan].

-Nun juntatzen zinaten edo?

-Ahal zan tokin. Sukaldian tokiya izango zan eta. Sotua're haundi xamarra izaten zan ordun basarritan eta han mahaia erdi-erdin jarrita. Danak sillak edo zerak bilduta. Ahal zan bezela. Eztoo. Eta goatzen zat piper moruakin xerrak izaten zien. Urte guzin ez zien jango baiño ordun jaten zien. Eta geo txokolatia. Eta ura zeakin, esponja... Ez dakit zuk baakizun, "bolatuk" esaten diye oain. Txuri batzuk. Ez dakit, oain'e izaten emen dia, e. Aurreko batian ez dakit zeñi esan nion, eta oain'e izaten ziela esan zien pastel haik.

-Jatekuak hola?

-Urai sartutzen ziyen. Oain bolatuk esaten diyela uste det. Esponjak esaten giniyon guk. Eta ur preskuai basuan sartzen zien boladua. Merienda elegantia itten zan ordun, e!

-Espeziala.

-Especiala. Geo baten batek ekarriko zittun zeak'e, goxokik'e, pastelak eta zeak eta. Danak reuniyuan. Dozenerdi..., ze, auzoko emakuma guzik. Atsolorra? Hoixe.

-Gizonik?

-Gizonak etxian baldin bazian eta hoixe, izango zian.

-Festa politta izango zan?

-Festa politta itten zan.

-Oparirik ekartzen zuen jendiak?

-Hoixe esaten dizut ba, ekarriko zuen zerbaitt. Ez naiz goatzen opariya baiño gailletan batzuk ekarriko zittuen. Nik hala uste det, e. Ez dakit, ez dakit.

-Umiaantzako...

-Ez naiz goatzen hoi, ez naiz goatzen umientzako ezer ekartzen zueniken.

#### 4.34. Hurgintza, gauza sekretua

- **Hizlaria(k)**: Setien Ezeiza, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-026/038
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:11:30. **Bukatu**: 01:12:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Hurgintzaren ingurukoak gauza sekretuak ziren. Ez zen horretaz hitz egiten. Paristik etortzen omen ziren haurrak. Kontxita familia pobreakoa zen eta berak josi zituen umeen atorrak eta abar.

#### Transkripzioa

-Jaiotzerakuan, berriz, emakume bat haurdun geratzen danielanetxeko ama, etxeko andria, beste umiei eta esan egiten al zaie?

-Ordun? Nei ez zat gertatu, txikia nitzan eta, baiño ez zat iruitzen.

-Esaten due ez omen zala hortaz hitz egiten?

-Keba. Gauza sekretuak zien. Paristik ekartzen zan eta.

-Parisetik, e?

-Hoixe.

-Eta prestaketa politta izango zen ba haurdun gelditzen zanian, sehaskak eta mantak eta. Erosi edo josi edo zer egiten zien maindiriak eta?

-Mantak eta bai, ze erremeiyo. Baiño hoek etxe onekuak zien ta. Eosi? Jolin! [...] eta. Gutzako ez zan holakoik, gue etxian pobriak zien. Neonek josten nittun kamisoiak eta; almueda-azala eta; maindiriei ere "vainica ciega"n dibujo batzuk ein, eta hola.

#### 4.35. Aballarriko elezaharra

- **Hizlaria(k)**: Lekuona Mitxelena, Hilario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-028/055
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 01:33:00. **Bukatu**: 01:34:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Aballarri izenekoa lekuan plaka bat jarrita dago hildako hernaniar baten omenez. Aballarri buruzko esaera edo elezaharra: Buruntza menditik harria botatzen hasi zen Sanson, Adarreko Puntara jaurti nahi zuen, baina behi-kakatan irrist egin eta orain dagoen lekuan erori zen, Aballarri.

#### Transkripzioa

-Goian Aballarri jartzen dun batian, Aballarri ta bestia..., Aballarri deitzen zaio Sansonek botatako harriya emen dala edo. Haundi bat!, harri haundi bat kuadratua ta; haren deitzen zaio, eta handik honuntza etorri ta zea batian jarriya do Hernanikuan mutillan zea jartzen du ta oso ondo kuidatzen duena. Alanbriakin eta jarriya do, beti loriekin eoten da urte guzin. Bai, ta harriyan zean daka plaka jarriya, ormigoiakin hartuta. Zein zan eta nola-noiz hil zan eta dana.

-Aballarri hoi zer zan ba?

-Aballarri esaten due garai baten Buruntzan hemengo mendiya Buruntza da, ta ein emen zun abailakin Sansonek harriya hara bota bihar zula, ta irrista!; Adarreko puntaa botatzeko idea emen zun Buruntzati, ta behi-kaketan irritatu zalako eroi emen zitzaiyon hor harriya. Ja-ja, esaera du zean, Aballarri hor, hor eroi zan eta jarri Aballarri izena. Taberna're bado hemen Aballarri.

-Zertarako nahi zun bota ba harri hori?

-Sanson fuerzudo bat zalako, indartsua zalako. Jendiak ateatako zea izango da dena. Istoriya izango da.

#### 4.36. Arriatxuko eskola fama handikoa

- **Hizlaria(k):** Lizaso Itxaso, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-029/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:19:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
Euskara » Euskararen egoera  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Arriatxuko eskolara joan zen. Frontoi txiki bat ere ba omen da Arriatxun. Makina bat aztarrika egin ei zuten pilotan. Fama handia izan zuen Arriatxuko eskolak; urrutiko haurrak ere hara joaten ziren. Maistrak euskaldunak ziren baina hitzik ere ez zen egiten euskaraz.

#### Transkripzioa

-Eskolara esan dezu Arriatxura?

-Bai; jakingo dezu nun don Arriatxuko eskola.

-Hori ere aittu det baiña ez dakit ze etxe.

-Ez? Etxia ez, eskola da.

-Nun dago Arriatxuko eskola?

-Arriatxu baserriya-tik hauntza, Itxaspuru aldea. Itxaspuru-ta,



sagardotegiya do oain, ta hantxe do. Frontoi ttiki bat'e badu. Makiña bat aztarrika in gendun han'e pelotan. Bueno! Bide pixka bat zan, baiño ordun Arriatzuko eskolak fama izugarriya zun. Pentsatu hemen Agarrekoa, Urnitako apeaderuan ondoko baserrikuak'e harea juten zien eskolaa, e, Urnietaa etortzeko partez. Eta [Goiburutakuak'e] bai ta. Izugarrizko fama zun. Maixtra onak, bi maixtra zien, Dionixi ta Ixabel. Ta oso, gerratian gaizki ibillik. Jo.., Ixabel hua behintzat. Dionixi. Ez, Ixabel.

-Euskeraz erakusten zuen?

-Keba! Ezta hitzik'e euskeraz. Euskaldunak zien, e, baiño euskeraz ordun? Ezta...

#### 4.37. "Ia igualtsuak dirade zozua eta belia" bertsoa

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Itxaso, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-029/060
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 01:34:56. **Bukatu**: 01:35:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Ia igualtsuak dirade zozua eta belia" hasten den bertsoa kantatzen du.

##### Transkripzioa

Iya igualtsuak dirade  
zozua eta belia  
modu horretan jarriyak gaude  
baserri eta kalia  
iñok lanikan egin nahi ez du  
ta hua aritu eskalia  
nahiago nuke alper guziyak  
desterratuko balia.

#### 4.38. "Esan zidazun nekazaritzan ez zenduela etsiko" bertsoa

- **Hizlaria(k)**: Lizaso Itxaso, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-029/062
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 01:37:28. **Bukatu**: 01:38:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Esan zidazun nekazaritzan ez zenduela etsiko" hasten den bertsoa.

##### Transkripzioa

Esan zidazun nekazaritzan  
ez zenduela etsiko  
denda koxkor bat ipiñi eta  
ondo giñala biziko  
zazpi ministro bihartuta ´re

ez ninduzula utziko  
kariño piña hartu zidazun  
baiñan denbora gutxiko.

#### 4.39. Baserrietatik elizara hilkutxa eramateko

- **Hizlaria(k)**: Iriondo Galarza, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-031/016
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:26:22. **Bukatu**: 00:27:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Baserrietatik elizara hildakoaren hilkutxa eramateko zer egiten zen azaltzen du.

#### Transkripzioa

-Hildakua rezibitzeko, hilkutxa elizara ailegatzen zanian, baserritakuak eta hola pentsatzen det haren bila, hilkutxaren bila ere jun egin biharko zan? Zeinek ekartzen zuan hura?

-Hua bizkarrian, beti familiarrak eta lagunak eta. Ta gu juaten giñan monagilluak zein apaiza zun barrio hartako basarri bat, hildako harren ze apaizekin zun kontatua, ta apaiz hua juaten zan. Gurutziakin gu. Urruti baldin bazan, gu juten giñan gurutziakin monagilluak bakarrik. Eta gero Urrietako sarreran hor puntu bat zeon, mahai bat jartzen zuten kamiyan, eta aurrena horra ailligitzian mahi horren gaiñian uzten zuten eta harea apaiza etortzen zan ya. Apaiza etortzen zan harea beste bi zirolekin eta erdin gurutziakin, baiña orduako ni nola gurutziakin natorren ba ni jartzen nitzan gurutziakin. Neria baldin bazan, e.

-Zu zerorri bakarrik juaten ziñan?

-Bai. Gu bakarrik juten giñan baserrira. Ni monagillo bakarra.

-Jazkera diferentia zan?

-Gu jazkera beti zea jazten gendun, blusa txuria eta geo gaiñontzian bata beltza. Batzutan beltza. Geo zerbait baldin bazan askotan gorriya ibiltzen gendun, baiña beltza bestela. Bai. Eta hola juten giñan billa eta abar.

#### 4.40. Oinutsik lanean

- **Hizlaria(k)**: Yurramendi Larburu, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-033/012
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:19:05. **Bukatu**: 00:20:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- **Laburpena:** Hanka hutsik ibiltzen ziren. Aitak bost marmita eramaten omen zituen oinutsik. Segan ere oinutsik. Kailuak egiten ziren hankapean eta minik ez. Gusturago ibiltzen ziren horrela.

#### Transkripzioa

- Mutil koskorra ta zea, hankutsik juten giñan gu! Gure aitak bost marmita aixe eamaten zittun hankutsik.  
 - Hankutsik...  
 - Gu hankutsik ibiltzen giñan segan eta. Ia egun erdia baiño gehio hankutsik pasatzen gendun guk. Hoixe ohittuta, orduan zea, azkazalak...; harri koskorrak min eman? Oain, berriz, hemendik abittu horrea, ta, joe! Ezin zeatu. Ordun jartzen zien hanka azpik kalluak, joe!  
 - Eta hankutsik zeatik zen? Ez zenduelako zapatillaik edo...  
 - Aixe, gustoa ibiltzen zalako.  
 - Bai?  
 - Bai. Segaa jun, ni makiña bat bider segaa ta. Agg!, enbarazu eiten du ta bota baztarrea ta hankautsik. Askotan, e. Oain negun, negun zea, ordun ez, negun hankutsik ez zeon ibiltzeik, hotz izaten zan eta.

#### 4.41. Probintzien izenak gogoan

- **Hizlaria(k):** Yurramendi Larburu, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-033/018
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Gutxi ikasi zuen eskolan. Buru txarrekoa zen. Hala ere gogoan ditu probintzien izenak. Hainbat esaten ditu.

#### Transkripzioa

-Zu eskolan ibili ziñan Urnietan?  
 -Bai.  
 -Eta zer ikasi zenuen eskolan?  
 -[Nik pixkat] eskolan. Buru txarrekoa nintzan ni. Anaia zaharrena hua omen zan pizkorra, esaten zuen, buru onekua. Nik puxkat ikasi nun. Oaindik goguan dazkat orduan ikasitakuak. Nola esaten da? Andaluzian nola probintzik-eta nola dittu? Hoik danak goguan dazkat nik. Zortzi probintzi: Granada, Málaga, Almería, Jaén Córdoba, Sevilla, Cádiz, Huelva. Cataluña eta Galiziak eta.  
 -Ilobak parra egiten du.  
 - (barre). Nik hoik danak badakizkit. Hoi, eskolan txikitan ikasitakuak hoik danak goguan dazkat. Bai.  
 -Ta Espainiako geografia ikasten zenuten?  
 -Bai, bai. Cataluña... Itxoin: Barcelona, Tarragona, Lérida y Gerona. Bestia Galiziyak... Coruña, Lugo, Orense y Pontevedra.  
 -Hoiek ondo ikasita daude, e...  
 -Hoik danak goguan dazkat.

## 5. Aisia

### 5.1. Poxpolinak Kursalen

- **Hizlaria(k):** Garmendia Arrieta, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** URN-001/054
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:23:31. **Bukatu:** 01:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Gerra aurretik poxpolina izan zen Juanita. Kursalen ibili ziren ikasten bi maistrarekin. Maistra haiei ilea moztu zieten gerra garaian nazionalistak izateagatik. Gerra iritsi zenean, bertan behera geratu ziren klase haiek.

#### Transkripzioa

-Ni gerra hasi baiño lehen ni pospoliña nitzen. Bueno, pospoliña nitzan, denborik ez nun izandu. Ez gendun denporik, gerra sartu zan eta. Bai, ni hemen Kursalian ibiltzen giñan. Ondo ai giñan ikasten baiño geo danak galdu zian eta kitto.

-Eta orduan nor zebillen pospoliñen kargu?

-Guk Urnitan bagiñun bi ahizpa modistak. Margarita eta bestia ez naiz goatzen. Margarita..., oso-oso euskaldunak zian. Hairi gerra-denboran illiak moztu ta dana in zizkaten. Bai, dana moztu illiak eta. Aceite ricino eman eta izugarritzko zeak. Oso nazionalistak zian ta haik zuen kargua ta haitako batekin etortzen giñan.

-Eta hona etortzen ziñaten?

-Donostira Kursalera.

-Urnietatik etortzen ziñaten?

-Bai, Kursalea.

-Dantzan ikastera?

-Bai.

-Eta pospolin jantzita?

-Bai. Politta zan hua, e, oso politta zan.

-Hori gerra hasi zanian bukatu.

-Dana, danak bukatu zian.

-Orduan zuk bazendun zaletasuna dantzarako eta katurako.

-Hoixe. Bai, nei erakutsi izan bazidaten ikasiko nun. Nik neonek konprenditzen det oain nik baiño eskasauak ikasten due ta. Erakutsi ezkeo dana ikasten da. Guk ez degu izandu ikasteko moduik eta hoixe.

### 5.2. Xoxoka eta Eusebio soinu-jotzailea

- **Hizlaria(k):** Miner Irastorza, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-006/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena:** Beraien baserria Goiburu auzoan dago. Xoxoka izenaren jatorria azaltzen du: baserri baten izena zen; eta, bertan, soinua jotzen zuen Eusebiok. Ilunabarrean, kalera jaisten zen hura; eta, pixkanaka, ospea hartu zuen. Eusebio nongoa zen aipatzen du.

### Transkripzioa

- Bai. Alturan dao ta hor bertan dao azpiko aldin, hemendik hirurehun metro.
- Bueno esan zagun denda ze auzotan daon ere.
- Goiburu.
- Goiburu auzua da?
- Goiburu auzua.
- Xoxoka deitzen diou batzuk.
- Bai baiño Xoxoka da konkreto, "o sea" bea, ez da barriyoa. Xoxoka da etxian izena zan lehen, basarri batena.
- Eta Xoxokak ordun, kasik auzuai izena eman bezela in dio, ez?
- Bai.
- Askok esaten deu: "Xoxoka aldea jungo gea".
- Bai, hemendik kanpoa ateatzen baldin bazea, "nungua haiz?" ta "Xoxokakoa" esaten da. Guk ya ez, baiño han inguruko baserrik bai.
- Ya, ta hoi zer dela-eta? Xoxoka zer zan ba?
- Xoxoka zan basarri bat. Nik ez dakit zeatik jarriya izango zan izen hoi.
- Zer holako inportantzia emateko inguruai eo?
- Bai, hor, horrek bakizu ze izango zun, zeatik inportantziya? Lehenoi soiñua jotzen zun hor. Billera bezela izaten zan hor. Auzoko bat zan soiñu jotzen zuna, Eusebio Orkaizagirre eta berez ikasitako soiñuakin jotzen zun ta ordun, jendia bastante ibiltzen zan ta horreatik uste det zea hartu zula.
- Ordun, Hernanin Oialumek?
- Holaxe, holaxe. Gutxi gorabehera hola hartuko zun.
- Ze jende juntatzen zan? Zu zeorri're ibili al ziñen hor?
- Ba gutxi-gehio bai. Geo itten gendun, iñularrean hor saiua in ta kalea jeixten zan Eusebio ta arkupian jotzen zun berriz ta. Jendia biltzen zun, egiya, besteik ez zan ezer ta.
- Aizu ba egun guztiko soiñua jotzia izaten zan?
- Ez, atsaldetan, atsaldian izaten zun, jai atsaldetan.
- Nongoa zen Eusebio?
- Ba aldamenekua, etxian izena Oiarbide. "Oiarbi", guk "Oiarbi" esaten diyou. Ez dakit Oiarbide eo Oiarbi dun. Oiarbi, gue hizkeraz behintzat "Oiarbi" esaten diou.

### 5.3. Umetatik perretxikotan

- **Hizlaria(k):** Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-006/022
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:37:48. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Atsolorrak ziren batean, perretxiko bila joateko proposatu zuen aitak; Tomas joan zen, eta orduko anekdota kontatzen du.

### Transkripzioa

- Atsolorrakin ai giñen.

- Tomas: [...] ta atsolorra zeatu in behar zuela. Ta gue aitta ta ez dakit zein zian, baiño Iñaxio [...] etorri huan goizian zeozerta honea ta: "Aizu, zea batzuk, perretxiku batzuk bilduko dizkiau. Ez likek txarra izango". Oilluak behar zittun. Atsolorreko.

- Juan Bautista: Atsolorreko oillua, oillua ta.

- Tomas: "Ta perretxikok bilduko beharko dittuzte?" aittak esan zin ta ni mutil koskorra nintzen. Ez dakit zenbat urte izango nittun, baiño hamabi o hamahiru, hamalau gehienez nintzen. Aztobidetako basoa jun ta han egongo dirala perretxikuk ta jun giñun, zestoa arraultzak in eabiltzen genun horrekin, zesto ttiki bat ta harekin jun ta perretxikuk biltzen giñan ta emakume bat Andoaingoa zala esan ziyen, ta nik bixta hobia igual eukiko nin ta azkarro ibilliko ninduan ta beai aurria hartu. Hoik errietak eman zizkian perretxikoak ta geo oso gaztia niñun. Haeik hartuko omen zula ta ez dakit ze ingo zula ta nik hartu ta martxa. Ta perretxikok biltzea horreatik goatzen zat oso gaztetatik bagendun.

- Juan Bautista: Ni oain goatzen nak, hor izaten zittuan urkiazpin ta nola bildutzen giñun, baiño bat'e afiziyuk ez.

### 5.4. "Harrapazka eguna"

• **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas

• **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa

• **Erref**: URN-006/028

• **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:46:56. **Bukatu**: 00:48:23

• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

• **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon

• **Gaia(k)**:

Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

• **Laburpena**: "Harrapazka eguna"ren nondik norakoak aipatzen dituzte: "i&ntilde;ostarra" (iraztorra edo garoa) ebakitzeko eguna izaten zen, eta goizean goiz hasten ziren lanean, suziaren eztanda entzun ostean.

### Transkripzioa

- Zer zen "Harrapazka euna"?

- Tomas: "Harrapazka euna" zan, iñostarrak ebakitzen hasteko euna.

Bitarten, ez zakazun hasteik. Herri-terrenoak eta zillegi-terrenoak eta zea hoik zian. Lote batzuk zeuden. Lotez aparte, beste puska batzuk zien, kanpon geatzen zienak, loteik ez zuenak ta ordun zu goizian jun ta han in bihar zendun markatu. Bueno, markatzen-ta nik ez nin ezautu.

- Juan Bautista: Markatu, hasi. Bazekiken gutxi gorabehera jendiak nundik noa zien.

- Tomas: Sailla behintzat hasi in behar zan.

- Juan Bautista: Ta jun ta hasi. Zui hobena iruitzen zazuna eo eokina eo iñostarrak haundina eo goxona eo.

- Tomas: Baiño zeñek harrapatzen zun?

- Juan Bautista: Zu hasten baziñan, hua zutzako zan.

- Tomas: Baiño goizian Adarrako puntan etxeferoa tiatzen zuen ta ordun hasten zan, hasten omen zan. Nik etxeferoa tiatzen ez nin...

- Juan Bautista: Ez, nik'e.

- Tomas: Baiño geo, nik uste det guk ezautzeako lotiak iñak zeudela,

bakoitzak bere lotia.

- Juan Bautista: Bai ba. Ordun hoi izaten huen inportantia, jun ta hasi.

- Tomas: Ez, ez, ez. Hoi lotez apartekua huan beste ohitura hoi. Lotez aparte.

- Juan Bautista: A "fecha" utzita alegiya.

- Tomas: Ez, ez. "Diez de septiembre" hasten zuen, hua hasteko euna.

Bitarten ez zekaeen ez batian ta ez bestian, baiño lotiak zeken markatuta...

- Juan Bautista: A geo bai. Bakoitzak beria.

## 5.5. Gutunak idazten ikasteko eskaera

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/029
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:39:13. **Bukatu**: 00:40:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kultura » Irakurtzea  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Amak eskatu zion Anitaren maistrari, gutuna idazten erakusteko. Horrela, kanpoan zeuden seme-alabekin komunikatu ahal izango zuen. Gutun haiek erdaraz izaten ziren.

### Transkripzioa

- Bai ta karta eskribitzeko're bai. Maistrai esan zion, ez dakit erderaz nola moldatuko zan, baiño bintzat esan zion senide, umi asko kanpuan, neskame, morroi ta neskame-ta, nei eakusteko karta eskribitzen. Ta maestrak eakutsi zian nei karta eskribitzen. Oain ahaztuta dakat nola zeatzen zun, baiño aurrenetik ez dakit nola esaten zun, oain ahaztu zaizkit baiño.

- Euskeraz eo erderaz?

- Erderaz. Karo, harrek nola euskeraz ez zekin.

- Maestra erdalduna-ta.

- Erderaz dena.

- "Querido hermano" ta hasten ziñen?

- Bai. "Querido", bai, bai. "Querido" holako zeakin. Dena hola, karta eskribitzen eakusteko. Ta nei karta eskribitzen eakutsi ta harrek ze esan nei esan zer jarri behar nun ta nik jarri ta.

- Ta kartak erderaz idazten?

- Erderaz, klaro. Euskeraz eskribitzen ez nekin nik ta nik ikasten letzen'e Gipuzkoa etorri ta geo ikasi det gehiena euskeraz letzen, eskribitzen ta letzen ta umiakin asko're. Ikastola umiak bialdu ta ikastolako umiakin. Bai. Haikin ikasi, nola letzen. Letzen ta eskribitzen.

## 5.6. Irratia ezkutuan entzuten

- **Hizlaria(k)**: Garmendia San Sebastian, Bixi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-014/027
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:34:26. **Bukatu**: 00:35:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, hainbat senidek kanpora alde egin behar izan zuten. Garai hartan, ezkutuan entzuten zuten irratia, argiak itzalita, irratia ren gainean zapia jarrita.

### Transkripzioa

- Nola akordatzen zea gerra hasi zala edo, nola...?  
 - Ni ez nintzan, ni ez nintzan jun eskapa, nere ahizpakin ta dana. Beste anaiya ta ni geldittu giñan hemen bakarrik. Ez zitzaigun pasa guri. Ta hoik ibilli zian Frantzitik, Bartzelonan, ta leku guztitan ibilli zian.  
 - Ta nola konturatu ziñaten hemen hasi dala, o nola zeñek esan zizuen o...?  
 Ama're telefonista zenuen.  
 - Bai, bai, bai.  
 - Nola enteratu ziñaten gerra gertu zala, gerra hasi zala?  
 - Enteratzen giñan nun zetozten'e bai, nun sartu zian ta. Ordun'e radiyuak'e bazian, izkutatuta, baiño "por lo bajín", etxietan jarrita, ta handikan orientatzen giñan. Gabian dena argi guztik itzali ta zapiya jarri gaiñian radiyuai, ta han onduan, esaten zittunak aitzen.

## 5.7. Inguruko herrietara jaietara

- **Hizlaria(k):** Igerategi Santa Cruz, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-024/012
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** 19 urte inguru zituela hasi zen etxetik ateratzen, tabernan beti baitzeukan lana. Hernanira, Ergobira, Tolosara... joaten zen. Hernanin ezagutu zuen neskalaguna eta geroztik elkarrekin egon izan dira.

### Transkripzioa

-Ni etxetik ez nitzan ateatzen, zenbat urtekin? Hemeretzi urtekin edo holakon bat hasiko nitzen ni etxetik ateatzen. Tabernan beti, beti tabernan. Ta hemeretzi urtekin hasi nitzan ateatzen.  
 -Nora joaten zinen?  
 -Noa? Hernanir. Hernania juten giñen eta Ergobia festetan Ergobia. Ta ez dakit, jun al giñen? Oilalumea ez dakit jun giñan behiñ'e. Geo hasi giñan Tolosaa juten. Tolosaa. Ta, bueno, Tolosaa ta, hara juten aspertu nitzan ta Hernanin andria [den honen] neskakin hasi nitzan ta akabo. Gerotik elkarrekin.



## 5.8. Bolatokia eta bola etxean egin zueneko

- **Hizlaria(k):** Lizaso Itxaso, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-029/049
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:20:41. **Bukatu:** 01:22:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Bolaria izan da Bixente. Mutikoa zelarik bolatokia eta bola egin zituen etxean. Gero, urtetan ez zuen jokatu. Urteak igaro ondoren, herrian egin zuten bolatokia. Herriko kopa irabazi zuen eta zaletu egin zen ostera.

### Transkripzioa

-Etxian ein nun bolatokia neonek mutil koskorra nitzala, e. Neonek bolatokia ein eta bola're bai neonek in nun. Erremintik ez zan ordun ezerren zeik. Ni harrittuta eoten naiz. Sagar-gerri bat hartu ta oso moztu gabe borobildu ahal nun guziya aixkoakin bi aldetan zea utzita, erdiko zea moztu gabe utzi bi aldetan bi kabilla bezela, eta raspakin hartu. Raspa erderaz "escofina" esaten diyue, guk raspa ikasi gendun; eta harekin hartu ta raka-raka-raka, daratuluakin zuluua ein eta eskuzuluua in ta bola in. Brillak'e bai nolabaittekuak, eta bola tokiya in nun neonek bola ta guzti. Geo urte askuan bate ibilli gabe egondu nitzan. Geo hemen bolatokiya in bihar zala ta hortxe zineko zer horren azpikaldian ein gendun, aittu giñen behintzat, auzolanian danak eta. In gendun. Eta geo konkursua jarri bihar zala. Jarri ta hasi eta neonek irabazi aurreneko herriko kopa. Herrikua bakarrik, e, zeakua ez, herrikua. Joño! Ordun ostera hartu nun indarra, ta aurea!

## 5.9. Bilerak amaitutakoan, mutilak bertan gelditu

- **Hizlaria(k):** Iriondo Galarza, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-031/030
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:43:39. **Bukatu:** 00:45:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Bilera amaitzean, mutilak geratzen ziren, neska-laguntzen joan ez zirenak. Herrira kanpotik norbait etortzen zenean, harrika hartzen zituzten leku batzuetan.

### Transkripzioa

-Mutillak bakarrik gelditzen ziran bukaeran?  
-Bai, bai. Neskak bere garai batian nobio zunak beri horrekin etxea ta; bestela libre zian mutillak-eta bertan afai-legia in eta. Haik'e armonia bihar zuen eta, tabernakuak'e armonia bihar zuten puxkat haik eukitzeko ta. Ta dena hola, bai.

-Han geo gelditzen zien mutil hain artian rekuentua ingo zan, hau falta dek eta hau harekin jun izango dek...

-A, hori bai, bai. "Bai, bai, zerbait sumatu dit nik eta. Hori horren laguntzea jungo huan". Ta bai, bai. Garai hortako kontuk hola zian, bai, bai.

-Ta neska-laguntzera auskalo nungo baserrira.

-Baita ere. Nik neoni honi laguntzea oiñez hemendikan Lastolaraiño juten nitzen. Hiru kilometro egongo dia, e. Hiru bat kilometro.

-Orduan neska-laguntzia ta, esaten due herri batzutara juten zanian norbait kanpokua, harrika edo...

-Ingurukuak? Bai, esaerak bazian hoik'e. Bai, bai, sortu dia holakuak, e. Esaten zan. Oiartzun aldian ta hola jende goor xamarra izan bihar zun hortan; eta esaten dittuzte holako gauzak, bai, e.

-Hernanin ez al zan holakoik?

-Nik ez det hortaiñoikoik zeatu. Ez. Nik neonek ez det izandu zerik eta iñorkin ez naiz sartu ta ez dakit ezerre. Ni honekin, besteik ez nun izandu leheno ta geo're hau hartu nun eta honekin izaten naiz.

## 6. Familia eta harremanak

### 6.1. Dantzari eta kantari amorratua

- **Hizlaria(k)**: Olinaga Urdangarin, Juanatxo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-005/010
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:17:34. **Bukatu**: 00:18:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Dantza eta kanta izugarri gustatu izan zaio. Klean ere dantzan eta kantan aritzen zen.

### Transkripzioa

-Ikaragarri gustatzen zitzaten kantatzia ta, dantza ta. Pentsa zazu, dantza, esango dizut, oain soltera do hoi, baiño nee aldemenian bizitzen zan. Ta ordun, oain do kamio elegantia einda, baiño ordun zan dena harriz betetako estrata zahar bat. Nola esan dizut lehenguan kalabaza... Bai, bai, eta han. Ta amak bialtzen niñun, rasionamentun ematen zuen gailletak eta holako gauzak, eta amak bialtzen niñun, eta geo ardo goxua, ardua edo ez dakit zer ekarriko nun. Eta itten nun gailletak jan, ardo tragoxka bat in eta estretan dantzan ibilli bakarrik. Eta denak kaletik jende guzta beira. baiña ni ez nintzan kontuatzen. Goitik eta behetik dena ikusten niñuela. Ni ez nintzan... Eta oain esaten du neska ze horrek, esaten dit: "A, Joanatxo. Joanatxo, zenbat dantza eitten zendun. Amak goiti deika: "Neska, etorriko al haiz etxea!", ta segi nik, gailletak jan ta ardo pixkat edan ta. Segi dantzan bertan. (Barre).

### 6.2. Eskolara, egurra moztera

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/030

- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:51:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan gutxi ibili izan da; askotan, maistrari egurra moztu behar izaten zion. Aita zinegotzi izan zen urte askoan. Gerora, Juan Bautista Xoxokako gaueko eskolara joaten zen tarteka, eta ia beti aizkorarekin joan behar izaten zuen.

### Transkripzioa

- Eskolan gutxi ibilli naiz, ta askotan lanea juten nintzan eskola.
- Lanea?
- Bai. Aitta kontzejala zan urte askuan, ta aixkora bizkarrian hartu ta joaten nintzan ni eskola, askotan.
- Ze izaten zen zure lana?
- Ba maistrai egurra txikitu. Bestiak rekreuan, bakizu, ordun rekreua esaten zan, jostatzea, ateatzea. Ni hortik [...] ber izaten nun askotan. Ta gero're, gabeko eskola juten giñan, tarteka. Ta iya beti aixkorakin jun bihar izaten nun.
- Gabeko eskola're?
- "Hombre".
- Nun ibili ziñaten?
- Xoxokan. Unibersidadia.
- Xoxokako Unibersidadia
- Hoi da.
- Zenbat urte arte?
- Ba hamaika bat urte arte o, ez dakit, hamabi... Zea, eskolako obligaziyua o bidia hoi gendun. Jun ez giñan juten erditan'e. Beti izaten zan ardiya o behiya o idiya o...

### 6.3. Ezkontzeko baimenik bai?

- **Hizlaria(k):** Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-007/016
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:20:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** 21 urte zituela ezkondu zen, 22 urte bete baino egun bat lehenago. Apaizak kontu hartu zion Anitari, 21 urte izateagatik.

### Transkripzioa

- Geo ezkontzea aillatu giñan ta ezkontzea ailleatuta gazteik, hogeita, hoita bat urte ta hoita bi urte hurrungo egunian, ezkonduatako hurrungo egunian.
- "Ya" hogeita bikin.
- Ta paperak in bihar ziala ba ta paperak itea jun nitzan ta apaiza ordun ez zeon orduko, ttikittakoa ez, beste bat zeon eta jun nitzan ta esan zian: "Zure gurasuak nahi al due mutil horrekin ezkontzea?" Ta: "Bai, nei ez nate behin'e ezer esan". Eta ba "menor de edad". Ordun zan hoita bi urtekin

"mayor de edad". Oain hemezortzikin da, ordun hogeita bikin zan. Bai. Eta nei esan ziten ba nahi ez baldin baue gurasuak ez zaittu utziko. Ta nik esaten nun, hurrungo eunian hogeita bi urte. Eta ez niyon ezer esan beai. Ze esan behar niyon? Baiño ni, geldittu nitzan ze mentalidade, hoixe.

- Ya. Harea jun ziñeteneako nahi zenutelako izango zen ba?
- Ba hoi esan zian. Detaille hoi beti gogoan izaten det. Asike hogeita, zure gurasuak ez badue nahi, ez dizue utziko ezkontzen.
- Ya. Baiño gurasoek ez zuen nahi?
- Gurasoek ez ziaten sekula ezer esan. Gurasoak zer esan beharko zuen?

#### 6.4. Senargaiarekin gelditu ostean, etxerako bidea

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/017
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:20:46. **Bukatu**: 00:22:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Senarra nola ezagutu zuen azaltzen du. Dantzara Tolosara joaten zen egunetan, itzultzean, aita bidera etortzen zitzaion bila, bakarrik etor ez zedin.

#### Transkripzioa

- Eta nolaz ezautu zenun, zea Azkaratetik?  
- Hemen, neuzken nik anaiak Basitin hemen baserri bat, oaiñ'e jendea bizi da.  
- Urnietan?  
- Ez. Bai, Urnietan, hemen. Bai, hemendik, gure etxe hontatik horrea. Ta ni horrea etortzen nitzan anaiangana. Eta hau hortik horrea atea zan eta biyok Tolosa juteko zita in genun. Eta hortixe etorri zan.  
- Tolosan dantzaldi bat eo izango zan baita ere?  
- Bai, baiño Tolosan zortzitan autobusa ta zortzitan eo ta negun Roncalesian, atxalden bostetan eo ez dakit ze izaten zan, bost t'erditan. Hiruetakoan etorri ta bost t'erditakoan etxea.  
- Motxa, atxalde motxa baiño bueno.  
- Ta, etorri ta gustoa eta aitta atea, ateatzen zitzaidan bide erdia, Azkaratetik Atalloa, bide erdia ateatzen zitzaidan aitta eta ni hantxe oiñez behetik gora ta hue goitik behera etortzen zan biyok elkar jotzen giñun ta etxea.  
- Propio etortzen zen zure billa.  
- Nere billa.  
- Zu bakarrik ez ibiltzeko?  
- Ni bakarrik ez ibiltzeagatik. Karo, besteik ez zeon. Beste iñor, kotxeik eta ezer ez zeon.  
- Baiño zuk esaten dezuna, lanea bakarrikan juten ziñan?  
- Lanea, ni goiz askotan. Bai. Eta urdun, aitta etortzen zan eta biok etxea. Bizimodua hoi zan eta batzuk libertade gehio izaten zuen, baiño nik gutxi nun, nik gutxi nun.  
- Gaztenatakoa baita're?  
- Gaztena eta.

- Gaztena.
- Neskatan gaztena, mutille bazeon gaztegoa.

## 6.5. Bidegintza Eguna

- **Hizlaria(k)**: Belauntzaran San Sebastian, Praxku
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-011/009
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:19:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Bidegintza Egun bat ere izaten zen. Ez zuten lan asko egiten baina derrigor presentatu behar zuten familia bakoitzeko batek. Eta ez bakarrik zilegien jabeak (baso-jabeak), baita garoa ekartzen zutenak ere

### Transkripzioa

-Ta gero harako bidia iteko eun bat izentatzen zuen, ta holako eunetan guardak abixatzen zun ta. Ez zan bideik eiten, atxurra bizkarrian hartu ta... Eguna pasatzen zan.

-Ta bidia zer egiten zan, oinezkuentzako edo burdientzako?

-Burdientzako ta, zuluak zianian bete... Inontzako ez. Oain de bidiak eiñak kutxariakin eta dana. Ordun iñontzako ez, iñontzako ez. Ze ia kilometro ta erdin [eutsi biharra] izaten zan ez iraultzeko goitik sartuta ta, hala etortzen giñan... ta. Batez, eguna pasa. Ta jun be ez, jun in bihar zendun, e! Gero erariya jartzen zun, ardua edo sagardua nahikua, herriyak, baiño hara... Herriyak edo zilegitako zerak. Hara jun in ber zendun. Han beti presentatu in bihar zendun famili bakoitzetikan bat. Ta holaxe ibiltzen giñen.

-Zilegia zenutenak, edo gainontzekuak ere bai?

-Gaiñuntzekuak'e bai. Handik garua ekartzen zunak'e bai, e! Zilegiz fuera... Zilegia zuenak han zenbat izango giñan ba? Berrogeitamar? Beste ehun igual hangua. Ta haik pena haundina, haik..., garuak eta denak bukatu zian saldu zanian ta. Piñua sartzerakuan'e "Jode, gure garoteiyan sartu behar al dezue hor?". Toki hobenetik hobenea sartzen gendun. Lehenbizi txarretikan hasi giñan pagua sartzen. Ni goatzen naiz mutil koskorra, holako pagua, landare txikia ta: "Hau hazitzeko gu akaatuko gaittuk gu".

## 6.6. Erdaldun artean bizi arren, erdararik ikasi ez

- **Hizlaria(k)**: Belauntzaran San Sebastian, Praxku
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-011/014
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:26:48. **Bukatu**: 00:28:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana  
Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Beti saltseroa izan da, ez du harremanetarako arazorik izan. Beti erdaldun artean bizi izan da, lanean, soldadutzan..., baina hala ere ez du erdararik ikasi.

### Transkripzioa

-Ni oain Urnietako apaizak esaten ditena, ez naiz izandu kortua ta ixilik egotekua. Ta Trintxarpen lanian aitu nintzarian gailleguak danak eta, eta nik erderaz ikasteko abildadeik ez det izandu. Hoi gauza, e! Andriak'e hala esaten dit: "Honbeste urtian kastillanuen tartian ta zea, erderaz ikasteko abildadeik ez...". Ez. Nola pertsona izatia [...]. Ni halakoxia naiz.

Sodaduxkan'e kastillano guztikin inportik be ta. Ez; ajolaik be edo... Ez, ez nai... Oain pasadizua eitten det, e! Ni "Tú" esan edo "hi" esan ez dit inportik eta eitten det. Eta apezak Iñakik esaten dit makiña bat bider, Iñaki deu, erretoria ta: "Zu, Praxku, ez ziñen ba kortua izandu, e!". Ez. Ta honezkeo ez det ikasiko. Ez det biharrik gaiñea, esaten diot. Ez det ikasiko, ez det bihar eta. Arrebak eta, alabak eta, hoik danak. Semiak'e, hoik danak aixe, ta. Ez, ez, ni, ez det izandu. Ta epoka bat ni... nahi ta nahiez ikastekua, ta ez.

-Soldaduxkan ere Guadalupen...

-Soldaduxka Guadalupen, eta ostiral..., geo Iruna jetxi giñan ta ostirelero etxera etortzen giñan. Baiño kastillano tartian beti! Hantxe jokuan ta hika ta mika ta tú ta...

-Bizia izango ziñan zu...

-Buff. geatzen ez nintzana.

## 6.7. Etxeko txikiena izatearen abantailak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Ubillos, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-013/005
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena:** Etxeko txikiena izan da Nati; eta, horri esker, abantaila handiak izan ditu: goi mailako batxilergoa egiteko aukera izan zuen.

### Transkripzioa

- Ttikina?

- Oain ttikina geldittu naiz, bai.

- Izaten da bentaja batzuk.

- Bai, haundik, haundik izaten dira. Zaharrena kastigatugo izaten da. Gure etxian hala zan behiñik behin. Ta oain... Ez, bentaja haundik izaten dittu gaztiak, gaztenak.

- Adibidez?

- Pues estudiyuak eman zizkiten, "a ver", [...], oain dala "a ver veintinueve, esto, bachiller superior" in nun. "Échale guindas". Hemen in zazpi urtian Donostin, eta Valladolida geo esamiñatzea, eta han titulua atera. "A ver" hoik zenek itten zittun ordun? Bigarrena izango nintzan Urnietan ni, batxillerra in zuna. Beste bat oaindik monja da, bizi da, Etxalberrikoa Sarasola, bizi da. Horregatik esaten dizut ba bentajak bestiak, zaharrena

hamalau urte ezkeo etxian lanian. Eta bestiak osoba-izeba batzuk bazittun ez zuenak familik, eta haik Tolosan euki zuen urte pare batian monjetan. Baiño, ez, ni, "hombre", hogen urtekin lanian hasi nintzan.

- Bentaja haundiya da.
- Bai, bentaja haundiya.

## 6.8. Dantza lotua bekatu zenekoa

- **Hizlaria(k):** Garmendia Ubillos, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-013/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:40:29. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Dantza lotua debekatuta egon zen garai batean, bekatua zelakoan. Orduan, udaletxe azpira joaten ziren, ezkutuan, mutil-lagunarekin. Lehen, dena zen bekatu; eta orain, ordea, ezer ez.

### Transkripzioa

- Baiñon, dantzan baltsian ez zeon ibiltzeik. Ez. Urte batzutan...  
- Zeatik ez ba?  
- Ez zeolako baltsian ibiltzeik mutillakin, pekatuba zalako. Ze uste dezu? Gu gordeka zea juten giñan, zean azpira, aiuntamentuan azpira. Beste, sueltuan zebiltzanak kanpua ibiltzen zian, ta guk mutilla [...] bihar bagendun, barrena, ez ikusteagatik.  
- Eta han ez al ziñuzten ikusten?  
- Ez hainbesteaiño, ez hainbesteaiño, ez hainbesteaiño.  
- Harrapatuta zenuten ordun manejua?  
- Bai, bai, bai, gehienak in giñun. Ez zuen uzten, ez. Ta gero konfesatzea jun bihar ta beti pekatu tartian, beti pekatu tartian.  
- Ordun zer zen pekatua?  
- Dena. Zer ez zan esan zazu. Oain nola ez dan... Zer da oain pekatu? Ezer ez oain. Ordun zer ez zan pekatu, ezer ez. Hernanira jun ta baltsian ibilita konfesatzea jun bihar. Ta bi egun bi jai segidan baldin bazian, larunbata baldin bazan jaiya tokatuba, zea, festa tokatuba ta jaiya gu larunbatian dantzan baltsian ibili ta berriz jai gozian konfesatzea, berriz atsaldian Hernanira juteko baltsian ibiltzea.  
- Aurrena konfesatu ta geo...  
- Hoi da, geo segi berriz'e. Ze in bihar gendun ba? Ez zuen uzten ta. Ze libertadiak izandu dittugun.

## 6.9. Nesken kortse sozialak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Ubillos, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-013/046
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:03:42. **Bukatu:** 01:05:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Lehen, emakumeek ezin zuten tabernatan sartu, galtzak jantzi, ilea tindatu, zigarra erre... Emakume batek ilea tindatzen bazuen, deigarria egiten zen. Donostiara Martutenera dantzara joaten ziren neskak markatuta egoten ziren.

### Transkripzioa

- Tabernan sartzeik ba al zeuken emakumeak?
- Ez, ez, ezta... Oain [...]. Gure gaztian'e, gure gazte denboran'e... Ta galtzak jantzia? Josus! Hua bai zala pekatua, galtzak jantzia. Ta tabakua? Fama txarra harek. Illia tintatzen bazun'e bai: rubia-rubia jartzen baldin bazan'e, ordun'e hoi... Zigarrua erre? Bai, zea.
- Ta illia tintatu're ez e?
- Llamatiboa, oain rubioz in ta... Baiña ordun rubia... Zea.
- Ta rubia baldin bazan berez?
- A, "hombre", rubia baldin bazan ez noski. Baiño beltza izanda zeatzen zana...
- Llamatiboa al zan?
- Bai, hoi da, lllamatiboa.
- Baiño rubia zana...
- A, ez, ez, ez, ez, bestelakoa.
- Rubia gutxi egoten zala o?
- Eta Donostia bazian baileta [...] Martutenen, oain kolejiyua dao. Eta hara juten zianak... "Señaladas con el dedo". Gu baiño zaharragoak juten zian.

## 6.10. Mutilak trajez eta ondo orraztuta jaiegunetan

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena:** Sei anai-arrebatatik neska bakarra zen. Zapatak garbitu, alkandorak lisatu eta abar, lan handia zuten emakumeek orduan. Jaietan oso dotore irteten ziren mutilak, ez orain bezala; traje dotoreaz eta ondo orraztuta. Trajeak ondo zaintzen ziren. Pena ematen dio arropa botatzeak.

### Transkripzioa

- Aizu, lan dexente izango zenun etxe hartan ez?
- Bai, klaro, eske gaiñea ordun zan denboa haitan aizu, dena zapatak garbittu ta galtzak plantxatu ta geo ordun, trajiakin ateatzen zan jendia eta trajiak onak gaiñea jaitan-ta. Eta bakizu, galtzak plantxatu in behar zian ta alkandorak'e jaitakuak eta zapatak eta denak garbittu ta gaiñea denboa hartan hari irudittu zitzen emakumiak in bihar giñula. Oain ez, oain gizasemiak itten dittue, bere zapatak-eta garbittu, baiño ordun dena emakumiak itten geniyen. Ordun, hola zan biximodua eta geo jai atxaldian ateatzen zian ta denak ondo jantzita. Oain ikusten dittutenian esaten



pentsatzen eoten naiz, Jesus! Jendea nola ateatzen dan oain ta ordun nola ateatzen zian.

- Akordatzen al zea mutillai, mutil gazteen janzkera?

- Hoixe goatzen naizela! Guapo asko juten zien.

- Orrazkeraz-eta.

- Bai, bai. Orraztuta. Orraztuta, ez oain bezela, zea ijittuak baiño okerro ibiltzen dia oain. Eta orraztuta, rayakin alde batea ta geo beste anai zaharrena hua, harek atzea uste det orrazten zula.

- Trajea zen nolakuak izaten zian?

- Traje onak, traje onak, aizu. Oain ikusten dittuzu miñistrua holako trajek.

Bueno, hoik akaso zeauak izango dittue, baiño izaten zien trajiak zeak iñak, sastriak iñak izaten zian. Ta traji hoi kontu in behar zitzaien, bueno! Ni amak bialdu izandu nau nere anaia gaztenak andregaiia Zaldibikoa zun eta egundalako tormenta izandu zan han ta ni Donostitik etorri nitzan ta guardasolakin billa, bestela trajia bustitzen bazitzaion eta ordubeteko atrasuakin etorri zan ta hortxe eondu nitzan.

- Haren zain?

- Bai klaro, trajia ez bustitzeko.

- Aman preokupaziyua.

- Bai. Ordun erropai asko beirutzen geniyon guk ta horreatik oain asko kostatzen zagu arropa botatzia. Nei pena ematen dit erropa botatzia, zeatikan ordun hala hainbeste kontu itten geniyon arropai ta jaitakua gaiñea.

## 6.11. Jolasak eta ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-017/004
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:05:22. **Bukatu**: 00:08:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Kaniketan eta kurkuluxetan ibiltzen ziren eskolatik irtendakoan. Kanpandorrera igotzen ere bai. Behin goian zeudela kanpaiak jotzen hasi ziren eta ikaratuta jaitsi ziren zaratarekin. Hildakoak ikustera joateko ohitura ere bazuten. Sokasaltoan, gerezi hezurak zuloan sartzen... orduko jolasetariko batzuk

### Transkripzioa

- Geo eskolatik atea ta kaniketan ibiltzen giñan. Ta kurkuluxakin'e bai. Kurkuluxakin ibiltzen giñan. Eta geo illunarran pues etxea goiz juten giñan. Aurrena, bueno, meriendatu itten giñun, aurrena meriendatzea juten giñan ta meriendatu eta kaniketan ibiltzen giñan jostatzen. Ta geo kanpantorrera ´re juten giñan honea, eliza irikiya eoten zan eta juten giñan koadrilla bat eta han kanpantorreko leihotik behian geatzen zienai "o" itten geniyon. Geo gu jetsi ta geo haik jun. Ta gu [...]. Ta eun batian, klaro gu jun giñan koadrilla bat eta nik hemen laun haundiya nun aldamenen, aldamenen bizi zana-ta, jun giñan hara ta hor hasi orduba jotzen. Ta ze soiñu, bueno uste det airian etorri giñala behera.

- Ia ikaratuta?

- Bai, bai. Ta geo eskolatik atea ta beste kostunbre bat izeten zan, norbait

hiltzen bazan, ume guztik hua ikustea eskolatik ateata. Bai. Holako aittona hil da, holako amona hil da ta etxea. Ta askotan parre igual itten giñun ta geo. Kostunbria izaten zan. Eskolan irakurritzen zan, esaten zan: "Bueno, oain holako aittona hil da eo halako ez dakit zein hil da" ta eskolatik atea ta denak hara hua ikustea.

- Ta ze, ze izaten zen hua ikusi ta bueno.

- Hua ikusi, ikusi ta atera ta segi. Ikusi in bihar. Eta ordun gaiñea hildako hairi bula jartzen zizken hemen, etxian eoten zian ordun trajiakin jantzita ta. Hemen bula jartzen zizken. Batzutan geo "este" ur bedeinkatua izaten zan, zeakin "esto" Jesus! Nola esaten da? Oain ez det ahaztuko, erramubakin, erramubakin ta erramubakin igual botatzen giñezkan hildakoai ta "tan felices".

- Ta ze zea izaten zen hoi, erramuakin ze seiñale in behar izaten zan?

- Gurutziana.

- Hoi ume-umetatikan daukazue?

- Bai, ordun umek hola izaten zan.

- Baiño atxalde pasa juten ziñaten, hola bueno kuadrillan edo aittai ta amak esaten zizuen: "Zuaz harea jun behar deu?"

- Ez, meriendatuta kanpoa ateatzen giñan ta geo hemen Postan eo bazeon emakume bat burutik ondo ez zeona eta hua terrazan eoten ziñan. Ta geo ume guztik hara juten giñan. Geo errita ematen ziguen etxian ta harek esaten zittun: "Hoy, pues yo no sé que no sé cuantos, es igual igual pero distinto distinto" ta gu parren. Eta holaxko, holaxe dibertitzen giñan; aurrena kurkuluxetan, geo "este" gereziyak zeakin ibiltzen giñan hexurrakin'e eta sokasaltuan.

## 6.12. Txingoka, kurkuluxetan, sokasaltoan, gerezi hezurak zuloan sartzen

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Txingoka eta kurkuluxetan nola jolasten zen azaltzen du. Gerezi hezurak zuloan sartzen ere jolasten zuten. Sokasaltoan asko ibiltzen ziren baina ez du ongi oroitzen kantua.

### Transkripzioa

- Eta geo zean'e bai, "esto" oain ez dakit nola esaten dian, markatzen giñun klerionakin ta saltokan'e bai.

- Txingoka.

- Txingoka, bai, txingoka.

- Ta ze jolas izaten zen hoi? Ze kuadro eo ze margotzen zen?

- Kuadroak jartzen zittuen ta bostekoa igual ta geo zeatu in behar zian, geo aldamenen itten zizken ta aber denak ondo itten giñun hankie sartu behar rayan.

- Ta zerbaitte botatzen zen kuadro bakoitzean?

- Ez, ez zan botatzen ez. Txingoka ibiltzen giñan. Eta geo gaiñekoan bakizu.

- Kurkuluxakin ta, kurkuluxakin ze jolas mota izaten zan?

- Kurkuluxak izaten zian, bueno bat aidian bota bihar zendun ta bestia jira alde batea. Eta bigarrena ´re bota ta beste alde jira. Askotan batzuk pintatuak izaten zittuen. Ordun, kurkuluxak bueno! Estimazio haundiya izaten zuen.

- Zer da kurkuluxa?

- Kurkuluxa arkumian, ze esango dizut ba nik? Gordetzeko asmoa nun ba, baiño. Halako hexur bat izaten zan, halako hexur bat arkumiak izaten duna eta harek izaten dittu, pues lau bueltan lau: bat lisua, bestea zeagoa, "esto" rayakin ta eta [...] in bihar zian. Bat bota, hola botatzen zun ta ikusi beak jira. Ta bestiak bota ta jira.

- Zenbat laun ibiltzen ziñaten kurkuluxetan?

- Bueno, pues igual hiru-lau launak, hola. Hiru-lau-o. Askotan bi're igual ta.

- Kantaikan eo bazun han, han.

- Ez zan kantaik, ez. Kantaik ez zan izaten.

- Ta gereziyakin, berriz, nola jolasten gerezi-hezurakin?

- Gereziyakin xulo batian sartu behar izaten gendun. Hola jarri, eskubakin eta txulo batian sartu hua. Eta ordun, gereziya asko izaten zan ta hemen Zimotoyuan ta asko izaten zien hexurak ta haik bildu ta geo, txulo batian sartu.

- Ya, ta zeñek irabazten zun?

- Gehienak sartzen zittunak-o.

- Gaiñekoan, sokasaltuan ta?

- Bai, sokasaltuan ibiltzen giñan, bai. Sokasaltuan asko, sokasaltuan.

- Ta kantaik eo?

- Bueno, sokasaltun kantaik izaten giñun, nola zen, "la niña del barquero". Ahaztu zat. "La niña bonita se llama" ez dakit "unos cuantos" ta geo hola ibiltzen zan hua. Ta geo bestela ibiltzen giñen saltoka ta gue zeako zian, gue jostailuk eta gue gauzak.

### 6.13. Atari batean ezkutatu dantza lotuan egin ahal izateko

- **Hizlaria(k):** Igerategi Santa Cruz, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-018/054
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:16:50. **Bukatu:** 01:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Hernanira joan behar izaten zuten dantza lotuan egitera, apaizak galarazita baitzeukan Urnietan. Urnietako festetan ere, arkupeetako atari batean sartu behar izaten zuten dantza lotuan ibili ahal izateko. Erretorea ibiltzen zela begiratzen esaten dute.

#### Transkripzioa

-Orduan edozeinen aurrean dantzan juntu egitea eta...

-Keba. Bai, Hernania juten giñan gu, Urnietan ez zeon itteik eta Urnietako erretoriak esaten zun Hernania juten zanak pekatu mortala itten zula, han alkarri eutsita dantzan ibiltzen giñala ta. Bai. Gu hoi nobiotan hasi baiño lehen esaten zun, ni ez dakit zenbat aldiz jungo nitzan Hernania dantza gaztetan. Ta geo san Migeletan hemen [...] bazuen , klaro, hor tabernan

ezaunak zian danak; zarrak edo gaztiak edo denak-eta. Eta esaten zien gaiña, goazen dantzaa baltsian ibiltzea. Bai, eta baltsian nun?, zimitoria...; zimitorian ez, aiuntamentukuan azpin ibiltzen giñan, ate haundi bat zun eta baltsian ibili nahi zuna ati hartan sartu ta lau edo bost pareja, segi atea ta. Hu!, komeri earrak ibiltzen giñun guk, e. Ez dakit zenbat urte izango nittun nik ordun. Hamasei edo, hamazazpi edo.

-Ta han gordeta...

-Balsian, eta tabernaa etortzen zian gizonakin. Gizonak, mutil gazteik ez zan etortzen. Gizonakin ibiltzen giñan, bi edo hiru dantza in eta korri ostera tabernaa ta. Esaten zuen, nik ez nun behiñ'ee ikusi baiño erretoria ibiltzen zala baltsian zein ote zan bijilatzen. Esan itten zuen, ez dakit, nei ez zat egokittu behiñ'e.

-Erretoria bakarra ez seguraski.

-Igal, beste batzuk'e igal.

-Beti izaten da herrin.

-Herri [guztietan] izaten da bai, saltseron bat izaten da. Baiño hoi esan izandu du, Hernania juten zana pekatu mortalen bizitzen zea, han alkarri eutsita dantzan ibiltzen ziela ta. Segi...

## 7. Euskara

### 7.1. Animaliak arreske

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/010
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:18:15. **Bukatu**: 00:19:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Animaliak arreske daudenean, animalia bakoitzarekin zer izen erabiltzen den azaltzen du.

### Transkripzioa

-Arkera izatia ardiak, zer da?

-"Celo", "susa" edo ez dakit nola dan.

-Behian kasuan izango da...

-Susa.

-Animalia bakoitzak badu bere zera... Ardia?

-Zerriya irausi, ardiya arkera, astua igel, ta behorra ere bai.

-Astoa ta behorra igal.

-Zakurra alta... Bakoitzak bere...

-Besteikan hola? Beste haziendarikan hemen ez da apenas izan, ezta?

-Ahuntza ere arkera izaten da, jakina. Katuak-eta ez dakit nola izaten dun...

-Ahuntza arkera ez da izaten. 'Ahuzkera'. Esaera diferentia.

-Bai, e?

-Ahuzkera.

-Aittu gabe nengoen behin ere.

-Ahuntza adierazten du horrek. Ahuzkera.

## 7.2. Beraien baserri inguruko lekuen izenak

- **Hizlaria(k)**: Miner Irastorza, Juan Bautista; Miner Irastorza, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-006/024
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:42:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Beraien baserri inguruko toponimiaz hitz egiten dute.

### Transkripzioa

- Hemengo mendik zein dia?
- Tomas: Hemendik gora abittu ta lehenbiziko kurbai beti Zulana esan diyou. Hoi askok ta askok ez dakiye. Beti Zulana. Hor beheko hoi Inbutikaxkua.
- Nola?
- Tomas: Inbutikaxkua.
- Inbutikaxkua.
- Tomas: Ez dakit zeatik esaten zaion. Hor behian.
- Juan Bautista: Hauzko mendi ttonttor, ttonttor bati berriz Basaun.
- Basaun. Basaun? Hoi etorriko da ba basajaun eo hoitako zerbaitetik.
- Tomas: Ta hoi, hoi mapetan ta zean eongo da. Hoi eongo da.-
- Juan Bautista: Basaun.
- Non dao Basaun?
- Tomas: Horixe, hementxe.
- Juan Bautista: Hementxe. Hemendik bistan.
- Tomas: Hortxe.
- Juan Bautista: Mendi ttonttor bat da.
- Hernani aldea?
- Juan Bautista: Bai, baiño Urnietan e.
- Tomas: Hemendik bostehun metroa, bertan do.
- Juan Bautista: Oain gaiñea puntta-punttan etxe bat in due, ttonttor-ttonttorrian.
- Tomas: Geo beheko erreka horri Errotaxar.
- Juan Bautista: Bai.
- Tomas: Ahaztua [...] e!
- Juan Bautista: Errotaxar? Bueno ez naizelako bihartu ´re baiño geo behera Errekabeltz. Erreka hoi bea aurrena Errotaxar.
- Tomas: Errekabeltz ´e uste det dola zean, azaltzen dala uste dit, mapa hoitan ta, uste det.
- Juan Bautista: Bai, Errekabeltz inportante xamarra da.
- Tomas: Geo itturriya herriako itturriya're handik etorri zan, aurreneko itturriya-ta.
- Juan Bautista: Gero, zenbat izen, Jesus!

## 7.3. Eskolan erdaraz egin beharragatik, asko sufritutakoa

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/003
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:02:34. **Bukatu**: 00:03:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan asko sufritu zuen, berak ez baitzekien erdaraz, eta maistrak euskaraz ez. Eskolan, askok ez zuten maistrak esandakoa ulertzen; negarrez hasi, eta batzuetan etxera bidaltzen zituzten.

#### Transkripzioa

-1941. Ordun erderaz hitz eitten giñun ta eskolaa jun eta nik asko sufrittu nun eskolan. Nik euskeraz nekin dana eta maestrak euskeraz ez zekin. Eta hor kontraste hoi ikeragarriya izandu zan. Nik asko sufrittu nun.

-Nungua zen maistra?

-Ez dakit nungua zan. Kanpotik etorriya eta hango mutil batekin ezkondu zan. Hangoakin ezkondu zan, baiño kanpotik etorriya zan eta... Ona zan, nik ez det esaten txarra zanik. Ona zan, baiño ez giñen [ezkiñen] ulertzen. Harrek esaten zuna nik ez nion entenditzen, ta gaizki. Ta nik sufrittu eitten nun asko ta nik bezela beste askok'e bai. Eta askotan nearrez, nearrez ta nearrez, ta igual etxea bialtzen zian. Bai. Ta ez giñan entenditzen, ta hola gaizki pasatzen giñun.

#### 7.4. Seme-alabak erdaraz ikastea gurasoen afana

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Orduko gurasoen afana seme-alabak erdaraz ikastea zen, beharrezkoa ikusten baitzuten. Ez daki nola ikasi zuen, familian inork ez zekien eta. Askok kostatzen zaio euskara irakurtzea.

#### Transkripzioa

- Gurasuak hemenguak al zenittun?

- Bai, bueno ama hemengua zan, Urnietakua eta nere aitta zan Zubietakua. Baiño euskaldunak ta gure etxian dena euskeraz hitz eiten zan anaiakin ta denakin. Ta, eta orduko gurasuan orgulloa izaten zan erderaz ikastekua. "Hoi erderaz!", klaro erderaz inportantia zan ikastia ta hamar urtekin guk ez genekin erderaz ezerre. Maistrakin pixkat eo eskolan-o ikasten bagendun, baiño harek dena erderaz zeatzen ziun. Ta nik oain pentsatzen det, hizkuntza nola ikasi, nola "esto" eskribitzen ta letzen ta nolabait ikasi gendun ba! Gure etxian erderaz ez iñfork'e. Aittak eta amak eta semien artian ta dena.

- Baiño ikasten da.

- Hala ikasi, pixkanaka-pixkanaka ikasi gendun. Ta oain erderai gehio ematen diou euskerai baiño. Nei etortzen bazat bat euskeraz idatziya ta erderaz, nik erderaz. Askok kostatzen zat nei, zea letzia oain erderaz. Oaingo batu honekin. Euskeraz. Eske Aiurrin bertan eoten naiz. Launak dittut hor eskribitzen dittuenak: "aizu faborez e aber gure euskeraz pixkat

zeatzen zuen e, zuek jartzen dittuzuen hitz hoik ez dakit rusuak eo alemanak eo zer dian" esaten diyet. Pixkat guria, ta ez dit kasuik itten. Ta geo klaro esaten dezu "gutxi gorabehera hola izango da ba!". Diferentia da ta gure euskera beste euskera klase bat.

### 7.5. Anaiekin hika, baina gurasoei berorika

- **Hizlaria(k):** Zaldua Zabala, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-017/011
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:20:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k):**  
Euskara » Tratamenduak  
Euskara » Tratamenduak » Berorika  
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Anaiekin hika egiten du. Bestela, bietara, baina hika kasik gehiago. Aitari eta amari, berriz, berorika egin izan die. Apaizari ere bai.

#### Transkripzioa

- Lehenoz zuen artian 'e pentsatzen det, zuka hitz eitten zenuen edo hika edo?  
- Anaiakin ta hika, anaiakin hika.  
- Ta zuek eskolan hola nesken artian ta?  
- Nesken artian-ta hika eo batzuekin hika ta bestek zuka ta "aizan, hau" ta hika kasik. Beste batzuekin zuka. Eta aittai ta amari berro, hairi, berriz, esaten giñen "beorrek, beorrek". "Zu" ta ez, "beorrek". Ta hemen apaiza haidi're bai "beorrek".

### 7.6. Euskarak orain indar handiagoa lehenago baino

- **Hizlaria(k):** Lizaso Itxaso, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-029/069
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:46:30. **Bukatu:** 01:47:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** "Nere bizi-posturako hizkuntza" da euskara, dio. Orain indar handiagoa omen du lehenago baino.

#### Transkripzioa

-Bixente, bukatzeko, euskara ze izan da zuretzako?  
-Bueno, nee hizkuntza. Nik erderaz hitz eitten det baiño kostata ta gaizki, gaiñea. Ondo ez. Nahiz eskolan erderaz ibilli, beti euskeraz hitz ein deu etxian eta laun artian eta, gaiñentzian danian beti euskeraz. Neetzako izandu da nee bizi-posturako hizkuntza.  
-Euskerak bizkortzeko edo tratatzeko izan al dittu kontrarioak eta aldekoak zure gazte garaian eta?

-Bueno!  
-Kontrarioak ala aldekoak zer gehiago?  
-Asko, bueno! Euskerak indarra oain haundiya daka, e, gue gaztetako aldian, e. Bueno! Ordun euskerak ez zun oain bezelako indarrak eta gutxioik'e. Joño! Asko indartu da. Baiño oaindio gehixio nahi genduke. Ez dakigu.

## 8. Herria, azpiegitura

### 8.1. Kotxerik ez zeneko garraio bideak

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Goikoetxea, Anita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-007/009
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:09:21. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Garraioak
- **Laburpena**: Elur asko egiten zuen lehen. Aitak astoa erosi zuenean Zumarragan, etxera goizeko 03:00etan iritsi zen, oinez. Lehen, kotxerik ez zenean, nola moldatzen ziren aipatzen du: oinez, esnezalearen gurdian, astoan... Astoarekin hainbat bidaia egin behar izaten zituzten; orduko komeriak.

### Transkripzioa

- Ta elurra asko itten zun?  
- Elurra asko itten zun ordun, asko elurra. Eta gue aitta zanak astoa eosi Zumarragan ta etxea oiñez etorri omen zan, goizeko hiruretan aillatu omen zan etxea. Astoakin, Zumarragan astoa eosita. Ta holako gauzak asko, asko.  
- Hoik ibillerak.  
- Bai, ibillera txarrak. Ordun txarra denak. Geo ez zan izaten, ez kotxeik ta ezer ez zen izaten. Zerbaite behar baldin bazan, Ataltoa oiñez. Oiñez joan ta pues enkargu bat in ta oiñez etxea. Letxeroa izaten zan ta karga pixkat baldin bazan-o, letxeroan, letxeroakin batean gora eman jun Azkaratea. Ta astoakin, astoakin'e zenbat triste, baje triste asko. Astoakin gariya kargatu etxian ta Ataltoa eamaten giñun errota.  
- Ataltoa?  
- Bai.  
- Zenbat distantzi zeon Atallo?  
- Hiru kilometro pasiak, hiru kilometro t'ardi o holaxen. Ta Ataltoa eaman ta han eoskor earra zan errotaiya ta Jesus! Astoak deskargatzeko ta purrustaka. Gaixtoa zan ta [...] utzi zun behintzat eta geo ekartzekoan berdin eta deskuidatzen bazan, lasai xamar baldin bazun, jo ta astuak buelta eman ta tripa azpin igual zakua-ta. Ze gauz, ze trixtia.

### 8.2. Auzolanean bideak egiten, baita izozte handiaren urtean ere

- **Hizlaria(k)**: Pagola Ibarrola, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-008/013



- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:16:12. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Bideak lehen auzolanean egiten ziren. Negu batean izozte handia izan zen, eta lan gehiago egin behar izan zen bideak egiteko. Bideak nola egiten zituzten azaltzen du.

### Transkripzioa

-Gero bide eitten. Beti araldin itten zan ordun bidia dana.

-Zer?

-Araldin.

-Zer da hori?

-Auzolana.

-A, araldia.

-Auzolanian, araldia.

-Eta hartan aritu ziñaten?

-Hartan? Urte askuan. Baiña ordun itten zian [Urnietako] apeaderotik hasi ta honeaiño. Hemendikan goitik jun eta Iruranaiño. [Urnietako] kanposantutik hasi ta Barkaiztegiraiño. Hoik danak araldian itten zian baiño. Araldian atxurra ta zeakin jun eta danak [urbide hoik] garbittu. Harriya atera ta [...] ere bai. Jelate haundi urte hartan, ez dakit ze urte zan hoi, zinkuentaytres edo izan zan jelate haundi hua. Mikelako harrobin harriya ateatzen hogeita hamahiru atsalde pasatu nittun negu hartan nik, harriya ateatzen ta geo txikitzen borraikin. Ta geo hor Inbutegiko zihar hoi in zan hango harriyakin.

-Harriya ateatzeko ze erreminta ibiltzen zenduen?

-Tiroz. Palenkakin zuluia inda harrobin ateatzen zan.

-Ez zan errexia izango.

-Ez. Zakina Pagua difuntua zan zakina ta harek [...] benga! Jata hiru metroko zuluak-eta iten giñun ta sartu kartutxua, buum! ta kriston harri pillak ateatzen zien. Bai, hogeita hamahiru atsalde pasatu nittun jelate haundiko negu hartan harrobin.

-Jesus. Eta gero hura dana nola ekarri?

-Gero irikin berrehun bat metro bide berriya itteko, kilometro edo gehiyo [...] zan gurdiya. Gurdi zorrotzak izaten zien ordun. Ta hantxe tiki-taka jo mailluakin jo hua berriz eta benga! Geo txikitzen eta geo bidezior hoi gaiñea, Jose Ezkerra difuntua ta, zotalakin pareta azpin ipiñi ta zabaldua iña zan.

### 8.3. Herri-izenen etimologiak

- **Hizlaria(k):** Almortza Leizeaga, Miel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-015/039
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:25:20. **Bukatu:** 01:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak  
Euskara » Lexikoa

- **Laburpena:** Herrien izenen etimologiari buruzko azalpenak ematen ditu.

### Transkripzioa

-Lehen esan dizkidazu herri izenak. Urnieta nola da?

"Ur-mi..., Ur-ne ez, mi, me, me, mi ez, "mehe", Ur-mieta. Nik hor ikusten det, esan nahiko du "ura mia" edo; meheta. Eta Hernani, berriz, "erne", Henani ez, "erne ni". Erne egoteko edo holako zerbait esan nahiko du. Hernani. Eta Andoain, berriz, "Andolain". Andoain ez, "Andolain". Ta Billabona, berriz, "Biyona". Zeatik bi harrapatzen baitittu harek.

-Eta hoik nun aittu dittuzu zuk hoik?

-Aurrekuei. Aurrekuei aittutakuak dizkit hoik. Ta egongo dia hemen asko ta asko ez dakienak.

## 8.4. Lasto-sortak argi egiteko

- **Hizlaria(k):** Urdangarin Esnal, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-020/018
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:30:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirre, Eli
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Lastoaz lasto-azaoak egin eta argi egiteko erabiltzen zituzten zuzi gisa. Estu-estu lotu, su eman eta ilunetan elizara joateko eta zernahitarako erabiltzen zituzten. Bideak oso txarrak ziren garai hartan. Nahiko meritu izan zuten gurasoek hain familia handia aurrera ateratzeko.

### Transkripzioa

- Geo zea hoi, garrillua eo ez dakit ze izen zun, zea jota indako harek ta hare in bihar izaten gendun eliza jungo bagiñan.

- Hara!

- Illun eoten zan ta parolik ez, hue estu-estu lotu bi-hiru lekutan, ta lau-bost bat lagun bai, ama, beti gukin, aitta, behiyak [...] eo [...]. Hari eman su, modu hontan ta martxa hor [...] ta aurea, lau-bost lagun.

- Harek aguantatzen al zun hola..?

- Bai, estu lotu ezkeo bai, bai. Pixket itzaltzen eo zeaten bazan, "eman!" buelta bat eo bi ta berriz'e [...]. Bidiak txarrak zian ta, abarka zahar batzuk baldin bazian, berrinak, berriz, aurena jaikitzen zanak jazten zitun, ta azkena jaikitzen zanak, zaharrak.

- Ordun ez zun norbeak eukitzen bere abarkaik?

- Bai, zea eukiko zun, harrapatu in behar.

- Aurena harrapatutakuak, aurrenekuak hobenak jantzi.

- Bai. Zazpi siñade ta aitta ta ama, beatzi, ta aittona, hamar. Etxe txar hontan, nahikua gure aittak eta amak eitten zuen e? Gu danok bizik ateatzia.

## 9. Iritziak

### 9.1. Elkarri laguntzeari buruzko filosofiak

- **Hizlaria(k):** Urruzola Loinaz, Praxku
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-010/021
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:30:11. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Merkatuta joateko, tranbia edo autobusa hartzen zuten. Han, emakume bat beti begira egoten zen. Elkarri laguntzeari buruzko filosofiak aipatzen ditu, eta gaur egun ikusten diren jarrerekin alderatzen.

#### Transkripzioa

- Bagendun emakume bat gu bezelaxe juten zana, ta gu alkarri laguntzen, ta hua beti beira. "Beinga, Anttoni!", eta eongo zan ta: "Norbere buruai kalteik in be bestiei onik ez zaiyo itten e?". Entzun al dezu behin'e hoi zuk?  
- Ez.  
- Hua're bazan.  
- Arrazoa.  
- Bai, arrazoiya da, baiño ez dakit ba nik ze esan.  
- Ez gaudela ohittuta.  
- Ez, ordun, alkarri laguntzia biharrezkua zan, edo hala ikasi gendun, edo hala zan. Oain, berriz, alkarri izorrrauta gozatzen gea, gauza askotan, gauza askotan. Ordun, berriz, etxian ingo ez bazun'e, kanpoan laguntzea igual. Geo, atzeatugo zegolako, edo ezin zulako, edo beinga!

### 9.2. Konforme bizi da Kontxita

- **Hizlaria(k):** Igerategi Santa Cruz, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-018/067
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:40:26. **Bukatu:** 01:41:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Konforme bizi izan da Kontxita, ezereen inbidiarik gabe. Inbidiatan bizi den jendea ezagutzen du. Diruak ez du dena egiten.

#### Transkripzioa

-Ni konforme bizi izandu naiz nee denboa guztin, sekulan ez det ezen inbirik izandu. Ta oain gutxiyo gaiñea. Ez dakat ezen inbirik. Zeatik inbiriya duen jentia ikusten dittut nik, zea. Bat izan eta bi nahi dittuenak eta bi izan eta lau nahi dittuenak. Nik baldin badet batekin koforme eta bi baldin badittut pues ya está. Hiru ezin dittut, pues ya está. Hiru ezin dittu, pues batez. Kitto. Nee biziya holakotxia izandu da.

-Aberatsa, daukazuakin konform...

-A, bai, ni bai. Nik sekula ez diyot exijitu iñorri ezer. Hau bihar det /bihet/ eta hau bihar det /bihet/. Ahal baldin badet, bien, ez badet? Bueno... Kontentu detenakin. Eta ez zat iruitzen ni baiño hobeto iñor bizi danik. Ta diru gutxi deula, baiño diruak ez du dena eitten. Asi ke...

-Laguntzen du baiña.

-Laguntzen du baiño ez da zoriontsu izaten diru gehien in duna [gehienekin dona], e. Gue Agustinek askotan, "Ze mouz bizi zea?" "Ni oso ondo, oso ondo bizi naiz, Agustin". Asi ke.

-Ba eutsi horri. Segi bizkor.

-A, bai. Ahalegiñak... Bueno, urtiak dittegu ta ez dakigu noiz jungo gean beste mundua edo... Hoi're ez zakiu zer dan baiño bueno.

### 9.3. Mariaren harridura orduko bizi-baldintzak oroituta

- **Hizlaria(k)**: Ubillos Atxukarro, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-021/013
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:19:40. **Bukatu**: 00:21:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Harrituta dago Maria nola bizi izan ziren oroituta. Su txiki bat besterik ez berotzeko, kazkabarra zirrikituetatik sartzen zen etxean, hainbeste jende bizitzen... Behiek ematen zuten berotasunak epeltzen zuen pixka bat etxea.

#### Transkripzioa

-Nik esaten det, ordun'e bizi itten giñen. Negun ez zeik, ez kalafaziyoik, holakoxe su ttiki-ttiki bat, besteik ezer ez. Aizu, hunbeste sei-zortzi ume; amona're gogor-gogorra gendun, e; amona ta danak. Nik hoi esaten det, etxe haundiya zan, etxe zea zan. Ta nik uste det ikuilluba berotzen zan, ikuilluba iñestorrez mendiko zeatikan ekarrita haikin betetzen zan. Garua edo esaten ziyena. Haikin ikulluba bete-bete itten zuen. Ikuilluba zea egoten zan nunbaitt behien beruakin ta zeakin...

-Epela.

-Bai, bai, epela. Eta harekin danak zirrikitu guztik eta ixten zian, eta hara nolako bizimoua zeon ordun.

-Nik uste det ordun gehio pentsatu egiten zenutela naturak zer, zer gauza... Iñestorrakin zirrikituak itxi eta.

-Bai, bai, danak zirrikituk et itxi. Eta geo ikuillua don tokia haundiya zan, eta harea botatzen zuen gurdik zea, garua dana. Eta dana baztar guztik itxi ta nik uste det harekin, halaxe salbatu. Nik zenbat bider esaten det oain. Biziik nola atea giñen'e nik ez dakit. Kazkabarra itten zunian edozein txulotatik sartzen zen kuartoa're. Geo zielorrasuak eta hazitzen ai giñen bezela eman zizkiyen, diruba zan bezela. Baiño ni ni harrittuta nao oain. Harrittuta eoten naiz, e.

## 10. Natura

### 10.1. Hainbat sendabelar

- **Hizlaria(k):** Atxaga Fernandez, Axun; Atxaga Fernandez, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-025/037
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:21:03. **Bukatu:** 01:22:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Pasma-belarrak zer itxura duen azaltzen dute. Oiloak ibiltzen diren lekuko belarra ona izaten da sendabelarrak egiteko. Zenbait sendabelar aipatzen dituzte.

#### Transkripzioa

A: -Pasma belarra ezagutzen dezu?

-Esplikatu nolakua dan.

MJ: -Batzuk loria gorri antxa izaten due, bestiak roxaua...

A: -Arrastaka jartzen da pasmo belarra.

-Lore gorrixka duena?

MJ: -Bai. hoik danak hara nonbait dira. Oain, tokiz zeatzen ai dia, e. Lehenoa baatza ta baatz izkiñan eta gobernatu eta oillua libre, ta oilluak ibillitako tokia zeatzen baldin badezu, hua botiketako ona da. Ta geo beste bat ibiltzen deu zea, pulmoniyana ta katarruana ta belarra.

A: -Ta katarruantzako're bai, pulmoni belarra.

MJ: -Ta maiatzian kitto gelditzen da belar hoi, ez dezu gehio billatuko.

-Pulmoni belarra zein da, nolakua da?

A: -Txe-txe-txe-txia, oso gutxi ikusiko dezu. Gue batzan, batza daka honek, eta batzan asko ateatzen da. Ez dakit hotzangatik edo zeengatik, asko ateatzen da.

MJ: -Ta gaiñentzian ez zenduke billatuko hemen izkin hontan.

A: -Iñon ez.

MJ: -Etxe zar pareta botatzen bait da, han eta. Esan dedana, oilluak ibili baldin badira [...] ta hua gorrittu, han da. Da rarua oso.

-Lorerik badu?

MJ: -Ez, koxkor ttiki-ttikiak ateatzen dittu.

### 10.2. Piko-hostoak eta diarrea-belarrak

- **Hizlaria(k):** Atxaga Fernandez, Axun; Atxaga Fernandez, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** URN-025/046
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:44:07. **Bukatu:** 01:45:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Piko-hostoak erakusten ditu: eztularen aurka onak izaten dira; jaso eta ihartzen utzi behar dira. Diarrea-belarrak erakusten dituzte.

### Transkripzioa

-Bueno, hok piko-hostuak. Katarruantzako, eztulantzako.

-Hoik ze egiten dira, infusian?

MJ: -Bai, infusian. Nahi badezu esniakin egosi ta nahi badezu urakin egosi.

-Ta jasotzeko?

-Ihartu. Hari batian sartu ta sekatzan jarri, ta sekatzian...

-Txintxilik?

-Toki illuna biharko du edo?

JM: -Ganbaran jartzen dittegu guk, ganbaran. Han illuna do, hoi bai. Hara bestia.

A: -Hau diarrea belarra. Diarreantzako. Estamua gaizki baldin badaukazu gora ta behera edo zea.

-Erakutsiko dezu, mesedez?

-A: -Bai. Hemen oain gutxi do zea ta. Hemen hostua ta zea bado hemen.

MJ: -Txortanak erakutsi dixkan, txortanak.

A: -Hau luxe-luxia izaten da; eta hau da belarra izaten duna. Baiña oain ihartua do eta. Hau luzia izaten da eta hau zea.

-MJ: -Hoi loria du.

-Moria da, ezta?

MJ: -Moria bai. Hau bide baztarretan ateatzen da.

MJ: -Hoi Arano aldea izango dira baztarretan.

A: -Izango dittuzu igual.

-Hau ere infusian...

JM: -Bai, bai. Nahi dezun aiña, aldiz hartu. Bai, bai, gora ta behera.

### 10.3. Azeri-isatsak, mihilua eta pixa-belarrak

- **Hizlaria(k)**: Atxaga Fernandez, Axun; Atxaga Fernandez, Maria Josefa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: URN-025/050
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:55:34. **Bukatu**: 01:56:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Beste zenbait sendabelar aipatzen dituzte: azeri-isatsak, mihilua, pixa-belarrak...

### Transkripzioa

-Beste bat gelditu zaizue kontatzeko, azeri-buztanana.

A: -A! Aber, harrik botatzeko.

MJ: -Ja! Harrik botatzeko? Harrik botatzeko azari-buztanak. Azari-isetsa're esaten diye.

A: -Azari itsesa. Ez degu ondo pronunziatzen eta. Azari-itsesa.

MJ: -Eta geo milluba. Hua're baratzen aldatuta [dakak]. Anixan usaiya du harek. Milluba. Hori're baztar... Nik Ormazetik (Ormaiztegitik) ekarrita aldatu nun. Ormaiztegiko kamiyo baztarretik ekarrita aldatu nun. Eta geo pixa belarra esaten diyou. Beste belar bat. Baatza guztia hartzen ari ziaten, aldatu nittun, baztarrian aldatu nittun eta gue semiak jata moztu zun segadorakin eta ez da berrittu. Eta geo eman zian dendako..., nik askotan eman det hoi, eta eman zizkidan baiño ez dakit itsatsiko dan, ez dakit. Hoik hirurak batea. Ta harrek desegingo dittu, zuk botako dittuzu.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Urnietan bizi den txinatarra (101-002/002)**

Jieren aurkezpena: nongoa den, zein hizkuntza hitz egiten dituen.

### **2. Milioika hitzun ditu mandarinak (101-002/004)**

Txinera mandarinak zenbat hitzun dituen esaten du: miloika.

### **3. Madrildik Euskal Herrira ikastera (101-002/006)**

Madrilera joan zen ikastera, eta, Euskal Herrira bidaiatu zuen batean, orain bere senarra dena ezagutu zuen. Hona etorri zen ikastera, eta hemen topatu du lana.

### **4. Hasierako hilabeteak ondo eraman zituen (101-002/007)**

Europara etorrira izandako lehen esperientziak kontatzen ditu: Madrilen pozik, jende asko ezagutu zuelako, janari berria dastatu, dezente bidaiatu... ez ei zen gogorra izan.

### **5. Tabernaz taberna joateko ohiturari buruz (101-002/009)**

Txinatik hona etortzean gehien harritu zuena: tabernaz taberna joateko hemen dugun ohitura; berari nekagarria egiten zaio.

### **6. Bertakoekin harreman ona (101-002/011)**

Bertakoekin duen erlazioa oso ona da. Euskaldun batekin ezkondu zen, eta bertako jendearekin ez du arazorik izan.

### **7. Urtezahar txinatarra ospatzen du (101-002/013)**

Bertan bizi diren txinatarrekin duen harremana oso ona da; adibidez, txinatar urte berrian elkartu egiten dira elkarte batean, eta bere antzeko adina duten lagunak izatearen zortea badu.

### **8. Bertan txinatarrekin badu kontaktua (101-002/015)**

Hemen beste txinatarrekin harremana badu, jatetxeetan, dendetan, trenean, Internet bidez... ezagutuak.

### **9. Txinan zein hizkuntza hitz egiten diren (101-002/017)**

Txinan zein hizkuntza hitz egiten diren azaltzen du: ofiziala mandarina dela, eta gero eskualde bakoitzak bere dialektoa duela.

### **10. Mandarin batek ez du ulertzen wu-yua (101-002/018)**

Wu-yu bere ama hizkuntzaren nondik norakoak kontatzen ditu, nola 80 milioi hitzun dituen eta mandarin batek, adibidez, ez duela ulertzen.

### **11. Dakizkien hizkuntzak eta ikasketa prozesua (101-002/019)**

Zein hizkuntza hitz egiten dituen eta prozesua nola izan zen kontatzen du: ingelesa, Txinako bere bi hizkuntzak eta, hona etorri baino lehen, gaztelania apurtxo bat ikasi zuela.

### **12. Euskara etorkizun batean ikasiko du (101-002/021)**

Euskararekin duen harremana: ez du ikasi, baina etorkizunean egingo duela dio, senarrak eta familiak badakitelako, eta umeak izanez gero gustatuko litzaiokeela eurekin euskaraz hitz egitea.

### **13. Txinatarrez hogeitaz hitzeko hiztegitxo (101-002/023)**

Hogei hitz, bi hizkuntzatan: mandarineraz eta wu-yuz.

### **14. "Zoriontsu" da bere gustuko hitza (101-002/024)**

Gustuko hitza "zoriontsu" du.

### **15. Euskaraz dakizkien hitzak (101-002/026)**

Hitz batzuk euskaraz esaten ditu.

### **16. Aho-korapiloa (101-002/028)**

Aho-korapiloa egiten du zenbakien inguruan, mandarineraz.

### **17. Hernanin neskame 12 urte zituela (URN-001/004)**

Gaztetatik neskame joan behar izan zuten senideek. 12 urterekin Hernanira joan zen bera neskame, bere ahizpa lanean zebilen etxera. Familia hark Donostian denda bat zeukan; behin Juanita dendara bidali zuten eta ez zen galdu bidean. Neskame zegoela plantxa egiten eta frantsesez hitz egiten erakusten zion etxeakoandarearen ahizpak. Gerra etorri zenean, ordea, etxe hura utzi egin behar izan zuten, nagusiak Frantziara joan baitziren.

### **18. Ume-zaintzaile Donostian, euskaraz egin ezinik (URN-001/005)**

14 urterekin Donostiara joan zen lanera, beste ahizpa baten etxera, etxe hartako jaioberria zaintzera. Guardiek ez zieten uzten euskaraz hitz egiten lagun artean, nahiz eta Juanitak erdaraz jakin ez. Azkenean, nola edo hala, ikasi zuen erdaraz egiten.

### **19. Ume-zaintzaile ibili zeneko eginkizunak (URN-001/006)**

Ume txikiak zaintzeko, lehen ere bazeuden txupeteak, baina fardelak eskuz garbitzen zituzten, berriro erabili ahal izateko. Bere lana umea zaintzea eta haren arropa garbitzea zen, baina zeregin gehiago ere bazituen.

### **20. Anaiaren azken nahia (URN-001/007)**

Ume-zaintzaile zegoela, Urnietara joaten ziren uda pasatzera. Han zegoela, anaiak gerrara joan behar izan zuen eta joan aurretik bazekien hil egingo zela. Hiltzen zenean, neskame-lana utzi eta etxera itzultzeko eskatu zion Juanitari. Hala gertatu zen azkenean.



## **21. Eskolan nola ikasten zuten (URN-001/008)**

Eskolara joatea ez zitzaion asko gustatzen; beldurra ematen zion arbelera ateratzeak. Urnietako eskolara joan zen. Maistra bat izan zuen, eta hiltzorian zegoela, Juanita egon zen hura zaintzen. Maistra jatorra zen eta ondo irakasten zuen. Neskak eta mutilak denak batera ibiltzen ziren eskolan. Doktrina oso ondo ikasi behar izaten zuten. Katona erabiltzen zuten ikasteko. Arbelean idazteko klarion zuria erabiltzen zuten. Euskaraz ikasten zuten. Maistra euskalduna zen.

## **22. Mezara goizean goiz (URN-001/011)**

Igandero eta jaietan joaten ziren mezara. Goizean goiz kongregazioko mezara joaten ziren. Ordu horretan oraindik ilun zegoenez, argia izateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Biderako alpargatak erabiltzen zituzten, zapata onak elizarako.

## **23. Donostian bederatziurren guztiak entzutera (URN-001/012)**

Donostian zirela, bederatziurren guztiak entzuten zituzten. Bederatziurrenak goizeko zazpitan izaten ziren eta hainbat elizatarara joaten ziren haiek entzutera.

## **24. Donostian neskame (URN-001/014)**

18 urte zituela, neskame-lanetan hasi zen eta han egon zen lau urte eta erdi; hilean 50 pezeta irabazten zituen. Etxe hartako eguneroko bizimoduaz hitz egiten du.

## **25. Bar Urangan lanean zebilela, Oñatiko mutil tuberkulosoaz zaintzen (URN-001/015)**

Neskame izateari utzi eta "Bar Uranga" tabernara joan zen lanera. Han Oñatiko mutil bat zaindu zuen, tuberkulosia zuena; bera ez zen kutsatu. Tabernan zer lan egiten zituen azaltzen du. Soineko beltza eta mantal zuria eramaten zuten.

## **26. Lurra garbitzeko argizaria eta alanbrea (URN-001/017)**

Etxe partikularrean zebilela, lurra garbitzeko argizaria ematen zuen. Eskuila, alanbrea eta bailleta ere erabiltzen zituen, besteak beste.

## **27. Senargaia ezagutu eta ezkondu zirenekoa (URN-001/018)**

Lanean diru pixka bat egin ondoren, ezkondu egin zen. Senargaia Beizamakoa zen, gudaria izandakoa eta lana bilatzeko arazoak izan zituen horregatik.

## **28. Erromeriara igandetean autobusez edo tranbiaz (URN-001/019)**

Erromeriara igandetean bakarrik joaten ziren. Asteazken zehar ez zieten uzten etxetik irteten. Dantzara arratsaldean joaten ziren eta iluntzerako etxean egon behar izaten zuten. Erromeriara autobusez edo tranbiaz joaten ziren.

### **29. Bretxako postuan fruta saltzeko egin beharrekoak (URN-001/022)**

Ezkendu eta berehala, postua jarri zuen Bretxako plazan koinatu-koinatarekin batera. Jeneroa karroarekin ekartzen zuten Atotxatik Bretxara. Karro handia izaten zen, fruta asko ekarri behar izaten baitzuten Hotel Londresekoei saltzeko.

### **30. Postuan oilaskoak eta arrautzak saltzeko komeriak (URN-001/023)**

Bretxako postuan, frutaz gain oilaskoa ere saltzen zuten. Oilaskoak ferietatik ekartzen zituzten. Arrautza pila bat erosi behar izaten zituen ferietan, Hotel Londresekoek eskatzen baitzizkieten. Arrautzekin gora eta behera, gaizki pasatzen zuen. Arrautzak bidean ez apurtzeko, saskian lastoa jartzen zuen.

### **31. Hotel Londres bezero garrantzitsua (URN-001/024)**

Hotel Londres bezero zuten. Haien eskariak handiak izaten ziren. Oilaskoak hiltzen ikasi behar izan zuen; sukaldean eta postuaren barruan hiltzen eta lumatzen zituen.

### **32. Gaixo egon eta zergatik jakin ezin (URN-001/026)**

15 urtean izan zuten postua Bretxan, Juanita gaixotu zen arte. Medikuei kostatzen zitzaizkien jakitea zer gaixotasun zeukan, baina azkenean lortu zuten asmatzea. Operatu egin behar izan zuten, 10 hilabete egon zen ingresatuta eta ondo osatu zen.

### **33. Gaixotasunetik osatutakoan, lentzerian lanean (URN-001/028)**

Ingresatuta egon ostean, Bretxako postua utzi zuen, kargarik ezin baitzuen eramanez. Hala ere, beste era batzuetako lan-eskaintzak izan zituen. Horrela, lentzerian hasi zen lanean. 18 urte egon zen Hotel Londresen lanean. Lentzerian zer lan zuen azaltzen du.

### **34. Gerra erreketek inguruan eta gazte ugari hil (URN-001/031)**

Gerra hasi zenean, baserrian zegoen. Tropak baserrietik gertu zeuden eta tiroak entzuten zituzten. Erreketeek hainbat gazte hil zituzten Juanitaren baserri inguruan. Gotzaina ere etorri zitzaizkien etxera.

### **35. Gerra familia sakabanatuta (URN-001/032)**

Anaia zaharrena gerra hil zen. Oso mutil ona zen hura. Familiako beste gehienak baserrian elkartu ziren gerra garaian, baina laster sakabanatu ziren. Ahizpak espoletak egiteko fabrikari aritu ziren lanean Andoainen gerra garaian.

### **36. Gerra ostean, janari gutxi eta eskasa (URN-001/035)**

Gerra ostean, oso gutxi eta gaizki jaten zuten. Etxean ez zuten egiten ogia. Artoa entregatu behar izaten zuten eta nola-hala moldatzen ziren artoa beraientzat lortzeko.

### **37. Estraperloan oinarritzko jakiak erosten (URN-001/036)**

Estraperloan olio, ogi beltza, azukrea... erosten zuten. Emakumeak ibiltzen ziren jenero hura saltzen isilka. Behin, bere postuan isuna ordaindu behar izan zuen platanoen prezioa kartelean jarri ez izanagatik.

### **38. Baserriko janaria, komuna eta komuneko papera (URN-001/037)**

Baserriko bizimodua ez zitzaion gogorra egiten, huraxe bakarrik ezagutzen baitzuten. Lo egiteko, ohe bakoitzean bi lagunek egiten zuten lo. Sukaldean janariak nola prestatzen zituzten azaltzen du. Garai hartan janaria goxoagoa zen, egurrezko sua erabiltzen baitzuten. Bazkaltzeko, denek erretilu beretik jaten zuten eta bakoitzak bere zatia zuen. Komuna ukuilu gainean egoten zen. Ipurdia garbitzeko egunkariaren papera erabiltzen zuten. Etxean, Argia aldizkaria irakurtzen zuten.

### **39. Ama josten trebea (URN-001/038)**

Amak eskuz josten asko zekien. Ahizpari soinekoak egiten zizkion eta gauean berandura arte egoten zen josten. Argirik ez zuten etxean (kriseilua erabiltzen zuten) eta urik ere ez (errekara joan behar izaten zuten). Edateko iturriko ura ekartzen zuten.

### **40. 7 urterekin ikasi arropa garbitzen (URN-001/039)**

7 urte zituenerako arropa garbitzen ikasi zuen. Ahizpa bat tifusarekin hil zitzaion eta beste bi kutsatu egin ziren. Sendatu bitartean, baserrian egon ziren eta inork ezin izaten zuen sartu. Garai hartan, amak behatza zauritu zuen eta ezin zuen errekara joan horregatik. Egoera horrela, Juanitak ikasi behar izan zuen arropa garbitzen.

### **41. Arropa garbitzeko ohiturak (URN-001/040)**

Arropa eskuz garbitzen zuten eta Lagarto xaboia erabiltzen zuten; lehen-lehen sutako hautsa erabiltzen zen. Arropa errekara buru gainean eramaten zuten. Arropa zintzilikatu egiten zuten gero alanbrean.

### **42. Gazta etxean egiten (URN-001/044)**

Baserrian gazta nola egiten zuten azaltzen du: esnea epeltzen zuten, gatzagi puska bat ur epeletan sartuta egon ostean esnetara bota eta azkenik molde batean sartu. Batzuetan gosea pasatzen zuten.

### **43. Norbait hiltzean eta jaiotzean, auzokoak elkartu (URN-001/045)**

Norbait hiltzen zenean, iluntzean etxeetara joaten ziren arrosarioa errezatzerara. Gauean beti egoten zen norbait hildakoarekin gaubela egiten. Ume bat jaiotzen zenean atsolorrak izaten ziren: inguruko emakume guztiak biltzen ziren, merienda ematen zen eta irrintzika ibiltzen ziren; ahal zuenak oparia edo dirua eramaten zuen. Bataioa zenean ere merienda izaten zen, baina kalean. Bataiora ama ez zen joaten, aita eta aitajaun-amandreak baizik. Elizan sartzea egiteko, ama umearekin joaten zen kandela eskuan zuela.

#### **44. Lehengo mezak eta misioek sartutako beldurra (URN-001/046)**

Lehen latinez ematen ziren mezak, apaizak bizkarra ematen zion jendeari meza eman bitartean... Garizuman misioak izaten ziren eta beldur handia sartzen zuten. Behin, misioak izan zirenean, Urrietako 7 neska joan ziren moja.

#### **45. Maistraren diziplina eta gurasoekiko errespetua (URN-001/048)**

Lehen errazago jotzen zen: maistrek makila edukitzen zuten harekin jotzeko buruan, bizkarrean, eskuan... Berari ez zioten inoiz jo. Gurasoei lehen errespetu handia edukitzen zitzaien eta haiek esandakoa betetzen zen.

#### **46. Ilunpetan ikusteko moduak: farola eta kriseilua (URN-001/055)**

Goizean iluna zenean mezara joan behar izaten zutenean, farolak eramaten zituzten. Farola haiek nolakoak ziren azaltzen du. Etxerako, kriseilua erabiltzen zuten. Garai hartan ez zen sute askorik izaten. Ohera goiz joaten ziren, negu garaian zortziak aldera.

#### **47. Aierdi baserriaren egitura, lehen (URN-002/003)**

Aierdi baserriaren egitura lehen nolakoa zen azaltzen du.

#### **48. Gerra ostean, garia egiten zuten (URN-002/005)**

Garai hartan, gaztaina asko zen. Garia ere egin zuten gerra ostean, harekin irina egin eta ogia lortzeko. Garia nola lantzen zuten azaltzen du: erein, ebaki, bildu, txorrokak egin, jo...

#### **49. Auzokoen artean, harreman handia lehen (URN-002/006)**

Lehen, auzokoen artean harreman handia zegoen. Auzolana egiteko, denak elkartzen ziren. Gaur egun, elkartasun hori asko galdu da.

#### **50. Garai batean, taloa nagusi (URN-002/012)**

Taloa jaten zuten garaian, ogi gutxi jaten zen. Taloa esnetan sartzen zuten. Ohitu egin ziren taloa jaten. Eskolara joaterako, zer gosaltzen zuten. Lehen, diru gutxi izaten zuten.

#### **51. Erdaraz hitzik ez zekiela, eskolan erdaraz egin behar (URN-002/017)**

Eskolan, erdaraz ikasten zuten, maistra erdalduna baitzen. Komeriak izan zituzten hura ulertzeko; eta, azkenean, Xantik ez zuen erdara ikasi. Bazen, ordea, beste ikasle bat euskaraz hitzik ez zekiena; eta, harekin ibiltzeko, besteak ikasi zuen euskaraz.

#### **52. Elur-zuloak eta ikatz-txondorrak (URN-002/022)**

Mendian, elur-zuloak zeuden. Haietan, elurra sartu, izotza egin, eta Donostian saltzen zuten. Gerora, ikatza egiten hasi ziren mendian; garai hartan, dena pagoa eta haritza zen. Txondorrak egiten zituzten, eta ikatz ederra ateratzen zuten handik. Askok ateratzen zuten bizibidea handik.

### **53. "Harrapazka eguna" (URN-002/025)**

"Harrapazka eguna" irailaren 10ean ospatzen zen. Egun ederra izaten zen hura. Orduko ohiturak aipatzen ditu. Hurrengo egunean, zalapartak eta komeriak izaten ziren, batak besteari lapurtu ziolakoan.

### **54. Txerri-hiltzaile izandakoa (URN-002/034)**

Txerri-hiltzen aritzen zen Goiburun, etxez etxe. Lehenago, aita aritzen zen lan horretan, eta hark erakutsi zion lanbidea Xantiri. Gerra ostean, txerria hiltzeagatik ordaindu egin behar izaten zuten; orduko kontuak. Txerri-hiltzaile izateagatik, ez zuen kobratzen; baina txerri zatiak ematen zizkioten trukean.

### **55. Aitona-amonekin hazitakoa txiki-txikitan (URN-005/002)**

Aitona-amonek zaintzen zuten txikitan. Amona astoarekin joaten zen Hernanira esnea partitzera. Handik, laranja ekartzen zituen, eta usain ederra izaten zuten laranja haiek. Amona etxera etortzerako, aitona baratxuri-zopa prestatzen zuen. Gerora, 5 bat urte zituela, kalera joan ziren bizitzera.

### **56. Baserritik kalera joandakoan etorritako nahigabeak (URN-005/004)**

Barkaiztegin bizi izan zen Juanatxo, koskortu zen arte, aitona-amonekin. Gerora, Aranzubitzikira joan ziren bizitzera. Han zeudela, aita trenak harrapatu zuen eta hil egin zen. Juanatxok 15 urte zituen orduan.

### **57. Iriondotarrean eta Olamian lanean (URN-005/005)**

11 urte zituela, Lourdes Iriondoren familiaren etxera joan zen neskame. Familia handia zen hura. Olamia fabrikan lanean hasi zen garaian ere, plantxa egitera joaten zen Iriondotarrenera. Olamian 12 urte eman zituen lanean. Aitaren heriotza gainditu zuenean, oso neska alaia izan zen.

### **58. Xoxokara joateko arropa (URN-005/011)**

Xoxokara joaten ziren bileretara. Hara joateko, arropa ondo prestatzen zuen.

### **59. Arropa plantxatzeko zaletasuna (URN-005/012)**

Arropa plantxatzea asko gustatu izan zaio. Plantxa egiteko, nola moldatzen zen aipatzen du.

### **60. Osasun betean, denera iristeko energiarekin (URN-005/016)**

Goizero-goizero, 7etako meza entzutera joaten zen Juanatxo; eta, gero, 8etarako, fabrikan hasten zen lanean. Bizikletaz joaten zen, eta batzuetan, kamioiari atzetik heltzen zion, azkarrago ailegatzeko. Osasun ona izan du Juanatxok.

### **61. Olamia fabrikan lanean (URN-005/017)**

Olamian zer lan egiten zituzten azaltzen du. Egurra putzuetan edukitzen zuten, makinetatik pasa aurretik. Behin, Juanatxo putzu haietako baten erori zen. Egurra lantzeko prozesua nolakoa zen azaltzen du. Langileen arteko giroa, lan-baldintzak...

## **62. Etxeko atepak zabalik, eta kafea prest (URN-005/021)**

Amak kafea prestatzen zuen, elizatik bueltan zetorren jendeari emateko. Jende asko etortzen zen beraien etxera: kafea hartzera, dotore janztera... Beste baserrietan ez zeukaten halako ohiturarik.

## **63. Ondo begiratu behar oinetakoak non utzi (URN-005/023)**

Igokundearen (Aszensioaren) egunean, 40 kredo errezatzen ziren. Haietako batean, baserri bateko semeak, mezara joatean, oinetakoekin izandako anekdota kontatzen du.

## **64. Senide ugari familiaren txistea (URN-005/024)**

Senide ugari ziren familia bati buruzko txistea kontatzen du.

## **65. Txiste bat (URN-005/027)**

Txiste bat kontatzen du.

## **66. Kalabazarekin bihurrikeriatan (URN-005/029)**

Kalabazarekin egindako bihurrikeria kontatzen du.

## **67. Zarautza bizikletaz joan ziren eguna (URN-005/031)**

Gaztetan, bizikletan ibiltzen zen, anaiari tonbolan nesken bizikleta tokatu baitzitzaion. Urte batean, anaia eta Juanatxo Zarautza joan ziren bizikletaz; han, izozki bana erosi zuten, baina lurrera erori zitzaion Juanatxori, eta batere gabe geratu zen.

## **68. Zilegiak (URN-005/034)**

Zilegiak zer ziren azaltzen du.

## **69. Klean, gauero antzerkia (URN-005/036)**

Emakume batek antzerkiak egiten zituen klean, ia gauero. Kaleko umeak harekin ibiltzen ziren jostaketan.

## **70. Juanatxo film batean azaldu zenekoa (URN-005/048)**

Behin, film batean atera ziren Juanatxo eta bere lagunak; izan ere, filmaren grabazioa Urnietan bertan egin zuten, eta hainbat herritarrek hartu zuten parte.

## **71. Titiriteroak Urnietako kaleetan (URN-005/050)**

Gauetan, titiriteroak izaten ziren Urnietan, eta beraiek haiei begira egoten ziren, badira 50 urte. Orduko kanta bat gogoan du.

## **72. Mezak latinez zireneko kanta (URN-005/052)**

"Salve Regina" abesten du. Lehen, mezak latinez izaten ziren gehienbat. Jendeak fede handia zuen.

## **73. Eskolan ere baratze lanetan (URN-008/003)**

Eskolan baratzea zegoen, eta jolas-orduan baratzean aritzen ziren lanean. Mendiko bideak ere garbitzen zituzten eskola garaian.

#### **74. Eskolan geografia ikasteko metodologia (URN-008/004)**

11 urtera arte ibili zen eskolan eta asko ikasi zuen. Kantuan ikasten zuten geografia eta buruz ikasten zuten.

#### **75. Aita hil zenekoa (URN-008/006)**

Aita hilzorian zegoela, etxeko lurretan segan aritzeko eskatu zion, eta gaur arte bete du Patxik haren nahia. Aita hil zenean, elizara joan zirenekoa kontatzen du. Hil-kanpaiak jotzen ziren norbait hiltzen zenean.

#### **76. Osaba hil zenekoa (URN-008/007)**

Osaba ospitalean hil zen; Patxi etxera joan zen korrika amari abisatzera osabarengana joateko, baina iritsi zenerako hila zen osaba. 7 familiarteko hil ziren 6 hilabetean.

#### **77. Apustua irabazi eta behia umetu (URN-008/008)**

29-30 urte zituela, idi-apustu bateko itzain joateko eskatu zioten. Apustua galdu egingo zutela uste zuten denek, baina irabazi egin zuten. Apustua irabazi izanagatik, saria afari bat izan zen. Patxik ez zuen nahi joan, behia umetzeko zorian zegoen eta. Azkenean joan egin zen, lagun batzuei behia nola zaindu behar zuten azaldu ostean.

#### **78. Ahitzen ez zen gizona aitajauna (URN-008/012)**

Aitajaunak urtero apustua egiten zuen. Aitajauna ahitzen ez zen gizona omen zen.

#### **79. Auzolanetarako ardoa eskatu eta jaso (URN-008/014)**

Urte batean ardoa eskatu zioten alkateari auzolanetarako; ardoa eman zien, eta gero etorri egin zen ardo harekin zer egiten zuten ikustera.

#### **80. Bideak egiteko hartutako lanak eta haiengatiko ordaina (URN-008/015)**

Hasiera batean, ur-bideak garbitzeko aitzurrarekin joaten ziren elizara. Gerora, kamioiarekin hasi ziren ekartzen harria. Patxik lan asko egin izan du bideak egiten. Gaur egun, bide haiek baztertuta geratu dira, nahiz eta beharrezkoak izan oraindik.

#### **81. Gerra garaian, umeak astoaren aurretik (URN-008/017)**

Gerra garaian, etsaiak mendian gertu zeuden; eta, janari bila joateko, Patxi joaten zen astoaren aurretik; gizonak joanez gero, tiro egiten zuten soldaduek. Gertuko baserri batera kanoikada sartu eta asto bat geratu zen bizirik.

#### **82. Gerra ostean janaria nola banatzen zen (URN-008/018)**

Gosea pasa zuten gerra ostean; errazionamendua izaten zen orduan. Janaria entregatu ere egin behar izaten zen. Herrian arduradun gutxi batzuk egoten ziren janariaren banaketa antolatzeke. Sagardoa etxean egiteko, eskuz egiten zuten dolarean. Orain ez dute sagardorik egiten etxean.

#### **83. Harrapazka eguna (URN-008/020)**

Lotea eta harrapazka egunari buruz hitz egiten du.

#### **84. Andregaiarekin hasitakoan, bazkari batera joatean izandako komeriak (URN-008/021)**

Oialumera bi aldiz joan izan da Patxi, festara. Andregaiarekin ateratzen hasi zenean, Tolosara joaten zen hamabostean behin eta han elkartzen ziren. Behin andregaiaren ahizparen etxera bazkaltzera gonbidatu zuten. Egun hartan izandako komeriak aipatzen ditu.

#### **85. Segaren prestaketa; Baserriko lanen eboluzioa (URN-008/024)**

Sega nola prestatzen zuen azaltzen du. Zortzi urterekin aitak erakutsi zion sega pikatzen. Lehen dena eskuz egiten zen, baina gerora behien ordez traktorea erabiltzen hasi ziren. Belar-sortak bizkarrean ekartzen zituen.

#### **86. 80 kilo bizkarrean 10 urte zituela (URN-008/025)**

10 urte zituela, arbi bila joan zen Patxi: 80 kilo inguruko belar-sorta ekarri zuen bizkarrean, eta aitak hura ikusitakoan, ikaratuta, belarra lurrean uzteko esan zion, astunegia baitzen Patxik horrela eramateko.

#### **87. Aitaren agonia eta hileta (URN-008/026)**

Aitaren hiletan, hilkutxaren atzetik zihoazela, erremolatxa bila joan ziren. Aita agonian zegoela, oinaze handiak pasa zituen. Aitak kontatzen zuenez, agonian zegoela gizon batek oinazea kendu zion.

#### **88. Doktrinan diploma lortu zueneko (URN-008/028)**

Ama Lezamakoa zuenez, gaztelaniaz ondo zekien Patxik. Eskolan ere gaztelaniaz ikasten zuten. Doktrinan diploma lortu zuen Patxik.

#### **89. Heziketa lehen etxetik hasi (URN-008/030)**

Bere kintako batek ez zekien irakurtzen, baina haren arrebak buruz ikasten laguntzen zion etxean. Garai hartan etxean ikasten zuten doktrina. Gerora, Patxik seme-alabei etxetik erakutsi zizkien hainbat gauza eskolara joan baino lehen. Alaba eskolara joateko beldurrez egoten zenez, eskutik helduta laguntzen zuen Patxik; bidean biderketa-taulak erreparatzen zituzten.

#### **90. Oianume, berrikuntza guztiak zituen baserria (URN-009/002)**

Familia handia ziren. Lau urterekin Oianumera (berak "Oialume" esaten du) etorri zen bizitzera, Urnietara. Baserri handia zen, aurrerapen klase guztiak zituena. Makinak artoa aletzeko, erremolatxa xehatzeko, sagarra txikitzeko eta abar. Hiru silo zituen baserriak, Gipuzkoako silo bakarrak ei ziren.

#### **91. Aiatik Urnietara, maizter izatetik etxejabe izatera (URN-009/003)**

Aristerrazun maizterrak ziren eta beren baserria izateko gogoan zuten. Zenbait familia-arrazoi tarteko, Urnietara aldatzea erabaki zuten. 19 laguneko familia zen.

#### **92. Aristerrazuko oroitzapenak (URN-009/005)**

Lau urterekin etorri zen Aristerrazutik. Hain txikia izan arren, gogoan du nola amak apaizari meza ondoren ateratzen zion txokolatea esponjarekin



(boladua). Eta baita nola amak mahai gainean tente jarrita jantzi zuen Urnietara etortzeko. Nolako maleta ekarri zuten ere bai.

### **93. Maite zuen Urnietako amona (URN-009/006)**

Maritxuk ezin zuen Urnietan etsi Aiako amonarik gabe. Urnietako amona fundamentu gutxikotzat omen zeukaten baina orain pentsatzen jarrita iruditzen zaio aitona gaizki tratatzen zuela. Oso zakarra omen zuen aitona. Berak maite zuen amona.

### **94. Muxu eman nahi ez aitona Patrixiori (URN-009/007)**

Gogoan du beste familia etxetik irten zen eguna. Zein koadro tristea: ezin utzi etxea! Sorabillara joan ziren bizitzera; eta, handik gutxira, aitona eta amona gaixotu egin ziren. Bisitara joan eta ez zion muxu eman nahi izan aitonari, ez zuela maite esanez. Kontu handia izan behar omen da umeen aurrean hitz egiterakoan, umeei dena barruan geratzen zaielako. "Hasi da gure katu txuria negarrez" esaten omen zuen aitona.

### **95. Hemeretzi laguneko familia (URN-009/008)**

Oso libre egiten zen hitz beren etxean. Txandaka egiten zituzten jatorduak, hemeretzi laguneko familia zen eta. Ez zuten sekula goserik pasatu. Gaur egun behar ez den makina bat gauza kontsumitzen da.

### **96. Familia-giroa galdu da gaur egun (URN-009/009)**

Edozein etxera etortzen zela, leku bat izaten zuen mahaian. Gaur egun familiatasuna galdu egin omen da, elkarri konprenitzen ezin omen dugu ikasi. Familia-giro hobea balego, ez legoke hainbeste zaharretxeren beharrik. Amona, ama bezain beharrezkoa omen zuen, eta osaba eta izeba aita eta ama beste.

### **97. Amonaren amantalak zenbat biltzen zuen familia (URN-009/010)**

Birraitona serioa zen, baina haren alaba, Mariaren amona, jakintsua eta zoragarria. Gaur jaioa balitz, auskalo noraino helduko zen. Oraindik gogoan izaten ditu haren esanak. Amonaren ondareak jarraitzen du gaur egun ere familian. Amona zen etxeko gidaria.

### **98. Ganadu-tratulariarekin tirabiran (URN-009/011)**

Txekor jaio berriaren salerosketa-tratuaren istorio zoragarria. Mariak kontaktzen du nola tratantea etorri zitzaien txekorra eroatera, salerosketako tirabirak, izandako elkarrizketak eta abar.

### **99. Tratanteek brusa irekia eta baserritarrek itxia (URN-009/013)**

Tratanteek brusa irekia erabiltzen zuten eta baserritarrek irekia. Aitona beti brusarekin ezagutu du; trajearekin pare bat aldiz bakarrik.

### **100. Brusa, txalekoa, gerrikoa..., gizonen jaiegunetako jantzia (URN-009/015)**

Garai batean brusa gizonen jaieguneko jantzia zen. Aitonak artilezko galtzerdiak erabiltzen zituen eta gainean abarkak. Oso dotore lotzen zituen. Maonezko galtzak eta oihalezko gerriko beltza. Brusan azpitik txalekoa eta alkandora zuria.

### **101. Buruan txapela, dotore jarria (URN-009/016)**

Artilezko galtzak oso onak direla dio oinentzako. Gizonezkoak buruan txapela, ondo jarria, alde batera pixka bat. Semeak ez omen du aitak bezain ongi jartzen. Trajea oso egun berezietan erabiltzen zen bakarrik.

### **102. Buruko painelua janztearen artea (URN-009/017)**

Emakumeak beltzez janzten ziren. Amona oso dotore jantzita ezagutu zuen beti. Soinekoa, berokia eta buruko painelua. Buruko painelua janzten berebiziko artea zuen. Orduan moñoa erabiltzen zuten emakumeek eta errazagoa zen haren gainean painelua ipintzea. Beltzez janzten behin berrogei bat urtetik aurrera.

### **103. Ileak kizkurtzeko tenazatxoak (URN-009/018)**

Emakume gazteak koloreko arropa ere erabiltzen zuen. Buruko painelurik berriz ez. Orrazkera dotoreak izaten zituzten. Ileak kizkurtzeko sutan berotutako tenazatxoak erabiltzen zituzten. Artean ez zen emakume ile-apaindegirik.

### **104. Erdalduna baina maistra ona (URN-009/019)**

Sei urterekin hasi zen eskolan. Oroitzapen ona du. Herri-eskolan, lehenago ez baitzen moja-eskolarik. Moja-eskolako kontuak. Maistra erdalduna zuten. Emakume ona. Adin ezberdinetakoak ibili arren, bakoitzari bere mailan erakusten zion. Erdaraz laster ikasi zuten. Senide gehienak ondo hitz egiten zuten erdaraz. Francisca Perez maistraren izena. Haren oso oroitzapen ona du.

### **105. Tinta eta lumaz idazten (URN-009/020)**

Matematikak gustatzen zitzaizkion batez ere Mariari. Eskola-mahaiak nolakoak ziren. Tinta eta lumaz idazten zen. Txinari buruzko erreportajea ikusi zuen duela gutxi telebistan eta horrela idazten ikusteak zer pentsatua eman zion.

### **106. Oianume, oso baserri handia (URN-009/021)**

Liburuak eskolan bertan uzten ziren. Etxera etorri eta lana egoten zen. Ganadu asko zuten. Behiez gain, txerriak ere izaten zituzten. Ordurako baserri handia zen. Oianumeko lurak noraino iristen ziren.

### **107. Ama eta izeba Donostiara esne saltzera (URN-009/022)**

Ama eta izeba joaten ziren Donostiara esne saltzera. Autobusez gerra denbora arte, trenean gero. Geltokiraino behorak tiratutako gurdian eramaten zuten esnea. 100 bat litro egunean. Hamabi litroko marmitak izaten ziren.

### **108. Xoxokako erromeria eta neska-laguntzea (URN-009/024)**

Ez du etxetik kanpo lan egin, Xoxokan bakarrik jatetxean senideei laguntzen. Xoxoka zen gazte denborako erromeria lekua. Neska-laguntzea egiten zen baina neskak ezetz esaten ere bazekien gustukoa ez bazuen mutila. Jaiero egiten zen erromeria Xoxokan. Leku askotako jendea etortzen zen, baita Andoain, Ereñtzu eta abarrekoa ere. Soltean dantzatzen zen.

### **109. Lagunak pikutara bidali pretendiente itsaskorra (URN-009/025)**

Mutil bat beti atzetik segika zuten berak eta beste neska batek, eta gogoan du nola bidali zuen pikutara lagunak.

### **110. Gerraren oroitzapen tristea (URN-009/027)**

Gerraren oso oroitzapen tristea du. Bederatzi urte zituen bakarrik; baina, hala ere, konturatu zen berak ezagutzen zituen hainbat urnietar hil zituztela.

### **111. Kanean gosea gerra ostean (URN-009/028)**

Gerra ostean gose handia egon zen kanean. Trintxerpe aldetik-eta "gallega jendea" etortzen zen patata edo babarrun eske. Jende diruduna ere bai Donostiatik.

### **112. Errazionamenduko ogia txakurrak ere ez zuen jaten (URN-009/029)**

Errazionamenduko ogia bola gogor bat zen, gurpila bezala joaten zena. Txakurrak ere ez zuen jaten. Baserrietan taloa egiten zen asko. Garia ere ereiten zuten baina aspaldi utzi zitzaion. Artoa asko, bai orduan eta bai gerora.

### **113. Orduko ogia oraingoa baino hobea (URN-009/030)**

Ogia nola egiten duen azaltzen du. Oso ogi ona egiten omen zen. Naturala. Oraingoaz ez du iritzi onik. Lehengo ogia hobea omen zen.

### **114. Astoaren gainean errotara (URN-009/031)**

Gariaren prozesua azaltzen du labur. Ebaki, pilak egin, motordun makina batez jo, errotara eraman... Trankaetxe zuen errotak izena. Errotaberri izeneko beste bat ere bazen Hernaniko mugan. Astoaren gainean zorroa jarri eta zorroaren gainean neska edo mutikoa, eta errotara. Astoari ez zaio ahazten behin egindako bidea.

### **115. "Aballarri", Buruntzatik Aranora bota nahi izan zuten harria (URN-009/035)**

Aballarri Urnietako partean dagoen zutarria da. Aitonak kontaktzen zien Buruntza menditik Aranora bota nahi izan zutela harri hori, baina jaurtitzailak irrist egin zuenez, Aranon beharrean, Urnietako mendian erori zela. Ipuina omen da; zenbait txantxa egiten du.

### **116. "Zilegiak", herri-lur bereziak (URN-009/036)**

Herriko "zilegia"ren gorabeherak kontaktzen ditu. Pinu sartu zuten herri-lur hori baina izozteak hondatu egin zuen hainbat aldiz. Entzunda duenez, antzina bi ahizpek herriko gizasemeentzat utzi zuten lur hori. Senarrak bazuen partea.

Egurra, inostorra, garoa... jasotzen zen gehienbat. Onddi mendi alde horretan dago Zilegia. Gero saldu egin zen eta kanpoko jendearen eskutan dago orain.

### **117. Marizuloko koba (URN-009/038)**

Marizulo baserriaren ondoan dago Marizulo leize-zuloa. Ez omen da hainbeste denbora horren berri jakin zela. Laborde andoindarra izan omen zen bilatzaileetariko bat.

### **118. Gezurretako sorginak eta hustutako kalabazak (URN-009/039)**

Etenetako triku-harriak noizkoak diren eta horrelakorik ez daki. Sorginei buruzko ipuin barregarri bat kontatzen du. Beste denbora baten, kalabazak hustu, aurpegia irudikatzeke zuloak egin, kandelak jarri eta horrela dibertitzen ziren.

### **119. "Garai batean etxean zaharrak errespetatu egiten ziren, eta gaur ez" (URN-009/041)**

Orduan orain baino sanoago bizi zen jendea. Asko laguntzen zitzaion elkarri. Indibidualismo ikaragarria sortu da egun, eta hori tristea da. Etorriko omen da zaharretxeei eutsi ezin zaien eguna. "Garai batean etxean zaharrak errespetatu egiten ziren, eta gaur ez".

### **120. Mutilzahar petral baten kamioiari potoak erantsi (URN-009/043)**

Oso ondo pasatzen zuten josten ikastera joaten zirenean. Behin kamioilari mutilzahar zikin bati potoak erantsi zizkioten kamioian eta nolako barreak!

### **121. Kaxeta jostundegia, jostundegi ona (URN-009/044)**

Kaxeta izeneko etxean zegoen jostundegia. Urtebete egin zuen ikasten. Jantzi asko egiten zen, baita Donostiarako ere. Jostundegi ona zen.

### **122. Ia dendarik ez Urnietan (URN-009/045)**

Urnietan ez zegoen ia komertziorik: okindegi bat eta denetarik egoten zen beste saltoki bat. Gero. bi barberia. Emakumeen ile-apaindegiak gerra pasatu eta oso gerora jarri ziren.

### **123. Gobada (lixiba) nola egiten zen (URN-009/046)**

Harrian garbitzen zuten arropa. Chimbo eta Lagarto ziren orduko xaboiak. Lixiba ere ezagutu zuen. Lixiba-ontzia edo tina nolakoa zen deskribatu ondoren, lixiba nola egiten zen kontatzen du. Kolore eta usain zoragarria izaten zuen horrela garbitutako arropak.

### **124. Buruan nahiago karga eskuetan baino (URN-009/047)**

Gobara-lekua errekonduan zegoen. Barrinoa buruan hartuta eramaten zuten arropa. Eskuetan baino erraztasun handiagoa izan du buruan eramaten. "Burutia" esaten zitzaion bigungarri gisa erabiltzen zenari.

### **125. Gorde-gordeka sabaian (URN-009/049)**

Gorde-gordeka sabaian nola ibiltzen ziren kontatzen du. Sokasaltoan ere ibiltzen ziren. Eta txingoka errepidean barrena. Mutilak futbolean ibiltzen ziren kaminoan.

### **126. Berorika gurasoei eta osaba-izebei (URN-009/050)**

Mariak etxean adinekoei (guraso, aitona-amona, osaba-izeba) berorika egiten ezagutu du beti, eta senarrak ere bai. Berari ere semeak eta erraina berorika egiten diote, eta beste seme-alabek ere bai, txikienak izan ezik. Hark zuka. Berak seme-alabei zuka egin die, eta berari ere gurasoek hala egiten zioten. Anai-arrebekin ere zuka egin izan du. Lagun artean ere gutxi egin du hika. Denbora hartan hika egitea errespetu faltatzat hartzen zen.

### **127. Gazteek errespetu falta ikaragarria (URN-009/051)**

Gazteek ikasketa handiak dituzte baina bizi esperientziarik ez. Eta errespetu falta ikaragarria, eta gero eta handiagoa, gainera. Pertsonak beren ekintzetatik ezagutzen omen dira.

### **128. Elutxeta baserria (URN-010/002)**

Elutxeta baserria oso kaskarra zen lehen: txikia eta nekosoia, dena aldapa. Elutxeta non dagoen azaltzen du. Hernanirako joera izan dute oro har.

### **129. Baserriko teilatua eroritakoan, nork konpondu? (URN-010/005)**

Maizter ziren etxean, eta Praxku geratu zen haren kargu. Behin, teilatua erori egin zitzaien; eta baserriaren jabearengana joan zen orduan, konponbidea bilatzeko. Azkenean, etxea erosi egin zuen.

### **130. Hormigoizko dolarea etxean (URN-010/008)**

Sagardoa bizi guztian egin izan du Praxkuk. Bera jaio zenean, hormigoizko dolarea egin zuten etxean. Baserrian maizter zirenez, errenta ordaindu behar izaten zuten; sagarrak ematen zizkieten nagusiari. Etxeko dolarean, baserritarrek beraien sagarrak ekartzen zituzten, sagardoa egiteko. Garai hartan, baserri gehienetan bazen dolarea.

### **131. Sagardoa egiteko prozesua (URN-010/011)**

Sagardoa egiteko, zenbat denbora behar izaten zen azaltzen du. Sagardoa egiteko prozesua eta teknikak.

### **132. Abereak mozkortu zituenekoa (URN-010/023)**

Behin, behiak mozkortu zitueneko anekdota kontatzen du.

### **133. Hernaniko kanpaien istorioa (URN-010/030)**

Hernaniko kanpaien doinuari buruzko istorioa kontatzen du.

### **134. Gerra hasieran eraso egin zietenekoa (URN-010/033)**

Gerra garaiko pasadizoak gogoan ditu oraindik. Tropak sartu ziren, eta eraso egin zuten; dena txikitu zuten orduan. Etxean, bost lagun zauritu zituzten. Orduan, etxetik alde egin behar izan zuten, beraien burua babesteko. Oroitzapen tristeak.

### **135. Eskolan egurtu egiten zituzten (URN-010/036)**

Eskolan, maisuak egurra ematen zieten, euskaraz hitz egiten bazuten. Behin, alde egin zuen Praxkuk eskolatik. Orduan, ez zuen gehiago jo.

### **136. Urnietako aldeko mendi "zilegiak" (URN-011/003)**

"Zilegiak" deitzen zitzairen Urnietako inguruko herri-basoei. Sail ikaragarriak ziren. "Montes francos", izena aldatu omen zieten gerra ondoren. Gero udalerrri bakoitzak bere parte hartu zuen. Santa Katalina egunean batzarra egiten zen eta familia bakoitzak kobratzen zuen zuraren etekinen parte. Izozte handi batek pinudi guztiak erre zituen.

### **137. Zilegi mendiak nola saldu zituzten (URN-011/004)**

Ehun bat lagunek omen zuten parte Urnietako zilegietan. Eztabaida handiak izan zituzten zilegiak saldu ala ez saldu. Azkenean saldu egin ziren, hiru geratu ziren bakarrik bere partearekin. Duela berrogeita hamar urte diru asko omen zen hartu zutena.

### **138. Zilegiaren funtzionamendua (URN-011/005)**

Basoa ziren zilegiak. Animaliak ere ugari zebiltzan. Artzainek hainbesteko bat ordaintzen zuten. Diputazioak laguntzen zuen landareekin-eta. Txandaka egin behar izaten zuten lan zilegian parte zutenak.

### **139. Iñostarra, iñaurkiña, garoa, iratzea... (URN-011/006)**

"Iñostarra" (garia) ekartzen zen mendi zilegietatik. Orain jende askok ez du ezagutzen hitza Urnietan. Oartzunen "iratzea" esaten zaio. Beste izen bat ere badu Urnietan: "iñurkiña". "Harrapazka Eguna" zer zen. San Migel egunera arte igitaiz ebaki behar zen garoa. Handik aurrera libre zen segaz egitea.

### **140. "Harrapazka Eguna" (URN-011/008)**

Su-ziria botatzen zuten Adarra puntan, eta garoa ebakitzen hasteko seinalea zen. "Harrapazka Eguna" esaten zitzaion egun horri. Jendea zain egoten zen, eta goizean goiz toki onenak hartzera abiatzen zen. Aurrez begiz jota izaten zituzten sailik onenak. Gerora, loteak izendatzen hasi ziren leku ezberdinetan.

### **141. Ama esnearekin egunero Donostiara (URN-011/011)**

Mutikoa zela, pago-landareak sartzen ibilia da aitarekin. Maizterrak ziren, familia pobrea. Ama esnearekin joaten zen egunero Donostiara. Ume txikia zela, alboko etxean uzten zuten Praxku hango etxeakoandarearen kargu.

### **142. Martuteneko kartzelan igeltsero (URN-011/013)**

Martuteneko kartzelan ere ibili zen igeltsero. Gaez egiten zuten lan. Lagun asko egin zituen han. Etxean ez zuten erretzen eta errazionamenduko tabakoa sartzen zion atean egoten zen euskaldun bati.

### **143. Ilea moztu hainbat neskari nazionalistak izateagatik (URN-011/016)**

Eskolan dena euskaraz ikasi zuten. Gero gerra etorri zen. Maistrari eta beste hainbat neskari ilea moztu zioten nazionalistak izateagatik. Maistra ezkatututa egon zen baserri batean. Gero maistra erdalduna jarri zuten, herrena. Dotrina erdaraz; Cara al Sol abesten zuten. Ez du gaitasunik izan erdaraz ikasteko.

### **144. Katu beltza eta izeba (URN-011/018)**

Harrika ibiltzen ziren mutikotan. Katu beltz bat zuten, eta beti hari gaiztakeriak egiten aritzen ziren. Behin, harrika egin zioten arbolan igota

zegoela; katua jaitsi eta etxe barruan ezkutatu zen. Katuarekin eta izebarekin gertatutako komeriak.

#### **145. Aharia ispiluaren aurrean (URN-011/019)**

Beste bihurrikeria bat: behin aharia eraman zuten ispiludun armairuaren aurrera, eta honek hautsi egin zuen buruaz.

#### **146. Uraren arduradun eta kale-garbitzaile (URN-011/025)**

Uraren ardura eman zioten. Eginkizunak. Kloroa nola ematen zen. Kale-garbitzaile ere bai Lasarten (orduan Urnietakoa zen parte bat). Ardoa eskaintzen zioten edozein momentutan, eta erdi mozkortuta bukatzen zuen inoiz. Oraindik ere deitzen diote hoditeriaren nondik norakoen berri emateko.

#### **147. Goiburuko urak berak jarri zituen (URN-011/026)**

Goiburu auzoko urak berak jarri zituen. Apaiza harrituta, ikasketa gabeko batek nola egin zezakeen obra hura... Eskopeta kanoi-zulotik begiratuta kalkulatu zuen errekatxoa altuago zegoela baserria baino.

#### **148. Oilaskoz betetako eltzea harrapatu (URN-011/028)**

Aita zakarra zuten. Idi-, zerra- eta aizkora-apustueta ibiltzen zen. Parrandazalea. Eta semeak ere berdinak. Errenterian leiho batetik oilaskoz betetako eltzea harrapatu zuten. Berotu eta jan egin zuten kuadrillan, neska eta mutil. Eltze hura gero etxean izan zuten.

#### **149. Luistarren domina kendu dantzan egiteagatik (URN-011/031)**

Luistarren domina kendu zien apaizak neskekin dantza lotuan egiteagatik erromerian. Lagun batek salatu zituen.

#### **150. Neska-laguntzeak eta adar-jotzeak (URN-011/033)**

Txantxa-zalea izan da. Bera toreatzen ahalegintzen ziren, baina azkenean berak toreatzen zituen denak. Juanita izeneko neska bati baietz etxera lagundu eta ezetz, apustua egin, eta irabazi.

#### **151. Amezketako neska-laguntza xelebrea (URN-011/034)**

Amezketako festetara joan ziren batean, neska-laguntzera abiatu ziren Praxku eta bere laguna. Baina ilunetan okerreko neskei heldu zieten, eta ez ziren berandura arte konturatu. "Geron amak baiño zaharragoak" omen ziren.

#### **152. Neska-laguntzera joan eta arbi-hazitakoa ekarri (URN-011/037)**

Behin Larraitzeko erromeriaren ondoren neska-laguntzera joan ziren laguna eta bera. Neska baten baserrira heltzean, etxeakoandreak afaria eman zieten eta berari arbi-hazitakoa, aurrez aginduta zuena.

#### **153. Enterradore hogeita bederatzi urtez (URN-011/040)**

Enterradore ibili da 29 urtez. Igeltsero lana egin behar izaten da ehorzketetan, eta horrela hasi zen. Eskaini ziotenean, ez zuen zalantzarik izan. Bolari amorratua zen eta asko lotzen zuen enterradore lanak.

#### **154. Epailearekin batera hilotza jasotzera (URN-011/041)**

Norbait hiltzen zenean, berak joan behar izaten zuen hilotza jasotzera epailearekin. Bere buruaz beste egindakoak ere hainbat egokitu zaizkio. Orain gauzak aldatuta daude. Ehortzi ere errazago egiten dira.

#### **155. Tximistak hildako neska ingelesaren kasua (URN-011/043)**

Emaztearen herrira, Intzara, joan ziren oporretan. Boletan jokatzera itzuli zen Urnietara, eta neska ingeles baten hilotza zegoen depositoa, tximistak jota hilda. Astebete egon zen gorpua depositoa. Mediku alu batekin izandako gorabeherak. Pasatu duen trantzerik txarrena omen.

#### **156. Ahuspez zegoen hilotza (URN-011/045)**

Behin, hilkutxa irekitzeko agindu zioten, eta hilotza ahuspez aurkitu zuen, buelta emanda. Bizirik ehortzi ote zuten?

#### **157. Orain hilerria apainago orduan baino (URN-011/047)**

Betiko lekuan dago hilerria. Lehen zaila zen zaintzen. Andreak laguntzen zion. Orain ormigoia botata dago, oso txukun. Oraingo enterradoreak zalantzak dituenean Praxkurekin kontsultatzen du.

#### **158. Boletan ume-umetatik (URN-011/051)**

Bolatokia eta toka ziren orduan sagardotegi guztietan. Ume-umetatik hasi zen bera. Bostekoa botaz gero, bost zentimo ematen zieten zaharrek. Anai guztiak ibili dira boletan. Pena hartzen zuen enterradore lanak bola-saioren bat eragozten zionean. Leku askotan ibiltzen ziren boletan.

#### **159. Urnietako mendien izenak (URN-011/054)**

Urnietak ekialdeko zenbait leku-izen: Zuluta, Onddi, Adarra-mendi, Aballarri, Irumugarrieta. Berastegiko muga: Amasa-mendia, Otso-lepo, Tximistarria...

#### **160. Mugarriak ipintzen ibilita dago Lasarte udalerrri bihurtu zenean (URN-011/055)**

Urnietak iparraldean: Buruntza... Mugarriak jartzen ibilita dago bera (lehen Lasarteko zati bat Urnietak zen; Lasarte ez zen udalerrria). Lehengo alkate emakumearekin (Ana Urchueguia) harremana izan zuen. Lasaitasun handia izan zen berarentzat Lasarteren independentzia. Lan handia ematen zuen. Agintzeko jende asko eta lanerako gutxi garai hartan.

#### **161. Antzinako Urnietako tabernak (URN-011/059)**

Lehenago Urnietako kalean ere baserriak ziren. Udaleko bazkaria Dendaberrin egiten zen. Eliza aurreko taberna txiki bat zen. Sandutegi, Matxoenea eta Zapelenea, beste tabernak.

#### **162. Karobiak eta txondorrak (URN-011/062)**

Karobiak eta txondorrak ere ezagutu ditu. Aitak idiekin ateratzen zituen ikatz-zakuak autobusera. Arreba eta biak Berastegiko mugaraino joaten ziren astoaz zakuak ekartzera.



### **163. Aita artzaina eta Miel hari laguntzen ibilia (URN-012/002)**

Aita artzaina zen: udaberrian ardiak etxean egoten ziren, baina gainerakoan mendian. Ardien esnearekin gazta egiten zuten. Aitak 20 egun inguru pasatzen zituen etxolan ardiekin, eta Miel ere harengana joaten zen batzuetan. Etxolan nola egiten zuten lo azaltzen du.

### **164. Mendien "jabeen" jokaera (URN-012/004)**

Etxolan zeudenean, jaiki eta beste mendi batera joaten ziren oinez ardiekin. Inguru haietan artzain asko egoten zen, mendi ona baitzen. Lursail batzuk Astigarragako gizon batenak ziren, eta artzainek han egoteagatik ordaindu egin behar izaten zioten. Mendiaren "jabeen" artean ika-mikak egon ziren.

### **165. Etxolatik irtetean egiten zituzten lanak (URN-012/005)**

Etxolatik irtetean, zer lan egiten zuten azaltzen du.

### **166. Erlezaintzan ere lehen errespetu handia erleari (URN-012/006)**

Bi anaiari buruzko istorioa kontatzen du: batek ardi asko zituen, besteak behiak. Anaia bat hil zenean, bestea artzaintzan sartu zen; erlezaintzan ere aritzen zen. Erleei ezta kentzen hasi zen batean esandakoa kontatzen du. Norbait hiltzean, erleei baimena eskatzeko ohitura zegoen, argizariarekin kandelak egiteko. Lehen naturari errespetu handia zitzaion.

### **167. Tabernariak bezeroa ardo bila bidali zueneko (URN-012/008)**

Lehen ikazkin asko zeuden; "Etxola berrin" elkartzten ziren. Oiartzuar bat han egoten zen, eta behin "Etxola berriko" nagusiak ardo bila bidali zuen; bi egun eman zituen kanpoan, eta dirua bukatutakoan itzuli zen.

### **168. Errotak itxita zeuden garaian, Aranoko errotara joandakoa (URN-012/009)**

Arano ondo ezagutzen du Mielek. Errotak itxita egon ziren garaian, Aranoko errotara joan izan ziren. Hara joateko zer bide egiten zuten azaltzen du. Aranoko jendearekin harremana izan du.

### **169. Txondorren egitura eta funtzionamendua (URN-012/011)**

Ikatza egitea gauza polita da: behin ikatza egiten ari zen bati ikatza ondo errez gero zer gertatzen zen galdetu zioten. Txondorra nola egiten den eta nola funtzionatzen duen azaltzen du.

### **170. Txondorrek non egiten ziren (URN-012/012)**

Hainbat lekutan ikusi izan ditu txondorrek. Baso-sail batean jartzen zituzten txondorrek. Ikazkinek leku txarretan egiten zuten lo.

### **171. Lehen baino zuhaitz gehiago orain basoetan (URN-012/014)**

Bere ustez, lehen ez zegoen gaur egun adina zuhaitz Urnieta inguruan. Gaur egun egurra ez da horrenbeste saltzen. Nolanahi ere, zuhaitz asko egoteak mesede egiten du.

### **172. Katona: urtetan eskolatan erabilitako liburua (URN-012/016)**

Zazpi urterekin hasi zen eskolan. Katona erabiltzen zuten ikasteko. Katonari buruz Txirritak bota zuen bertsoa kantatzen du.

### **173. Eskolako maistra eta hari zitzaion errespetua (URN-012/017)**

Urnietako eskola utzi eta Hernanira joan zen ikastera. Garai hartan ez zekien gaztelaniaz. Tolosako maistra zuten: ona baina gogorra zen, eta denek zioten errespetua. Etxekoak maistraren alde jartzen ziren.

### **174. Ume bihurria izandakoa (URN-012/018)**

Miel oso bihurria zen umetan. Amak esandakoa egin nahi izaten ez zuenean, onera ez bazen txarrera bete egin behar izaten zuen. 17-18 urterekin baretu egin zen.

### **175. Eskolara joateko aukera izan, eta gerora aitari laguntzen aritua (URN-012/019)**

Arriazuko eskolan ibili ostean, klase partikularretara joan zen. Etxeko senideen artean, eskolan gehien ibili zena bera izan zen. Gerora, aitari ardiekin laguntzen aritu zen: ardiak jezten, gaztak egiten...

### **176. Gaztak egiteko prozesua (URN-012/020)**

Gazta nola egiten zuten azaltzen du; gatzagia nondik lortzen zuten aipatzen du. Gazta hobeto egiteko, gatz-ura botatzen zioten.

### **177. Ardi hobeak izateko modua (URN-012/023)**

Ardi hobeak izateko "peakatu" egiten zituzten. Nola egiten zuten hori azaltzen du.

### **178. Ardien jateka eta haien kalitatea (URN-012/024)**

Ardiei jateko zer ematen zieten azaltzen du: artoa, babarrun-azalak... Behiek belar-ondoak jaten zuten. Ardi gogorrek ateratzen ziren garai hartan.

### **179. Mendia nolakoa, ardia halakoa (URN-012/026)**

Mendiak garrantzi handia du ardiak onak izan daitezen. Mendi onak nolakoa behar duen izan azaltzen du.

### **180. Basoa hazteko, ardiak urruti (URN-012/027)**

Ardia larrean dagoenean, babeslekuak behar izaten ditu: arbolapean, harkaitzaren ondoan... Zuhaitzak botatzen zituztenean, eta berria hazten zenean, ardiek gustura jaten zuten hura; eta aita beldurrez egoten zen orduan, basoa desitxuratuta uzten zutenez, norbait kexatu egingo zelako. Ardiak ez dira lagungarriak izaten basoa haz dadin.

### **181. Umatzen ziren ardiak vs ardi antzuak (URN-012/028)**

Ardi asko izaten zituzten: 80-85 ardi inguru umatzen ziren, baina antzuak ere asko izaten ziren.

### **182. Arkumeen salmenta lehen eta orain (URN-012/029)**

Arkumeak Hernanin saltzen zituzten. Ardi onenak aurrerago saltzeko uzten zituzten; zikiroek salmenta ona izaten zuten. Ardi zaharrak lehen garestiak izaten ziren, baina gaur egun ez.

### **183. Artileak estimazio handia lehen (URN-012/030)**

Artileak estimazio handia izaten zuen lehen: koltxoiak egiten ziren, hariak... Koltxoi haiek lana ematen zuten, urtero askatu, jo eta josi egin behar izaten baitziren.

### **184. Mendiaren jabeak historian zehar (URN-012/031)**

Umetatik 23 urtera arte artzaintzan ibili zen Miel. Gerora, 27 urte zituela, saldu zituzten ardi gehienak, mendian pinu-sail ikaragarriak sartu baitzituzten. Mendiaren jabetzari buruz hitz egiten du. 1956ko izozte handian, zuhaitz guztiak ihartu ziren.

### **185. Lanean batean eta bestean bizi guztian (URN-012/035)**

23 urterekin artzaintza utzi zuenean, Urnietako hondar-harrobian hasi zen lanean. Geroago, basora joan zen lanera; Erreterian 3 urte zerrategi batean ibili zen; Andoaingo teila-fabrikari 22 urte pasa zituen; eta Donostian lorezain egon zen 13 urte. Donostian lanean oso gustura egon zen.

### **186. Harrobiko lanaren nondik norakoak (URN-012/036)**

Urnietako hondar-harrobian 16 lagun aritzen ziren lanean. Han zer lan egiten zuten azaltzen du. 3 urte eman zituen han, eta 60 duro irabazten zituen astean, baina asegururik ez zioten ordaindu.

### **187. Basoko eta Erreteriarako lana (URN-012/038)**

Basoan bi lagun hasi ziren lanean. Ondo ibili ziren han. Gerora Erreteriarara joan zen lanera, apopilo ibili zen han eta etxera larunbatetan etortzen zen.

### **188. Teila-fabrikako beroa eta zereginak (URN-012/039)**

Teila-fabrikari 22 urte egon zen lanean. Han bero ikaragarria egiten zuen, eta udan oso gaizki pasatzen zuten egun batzuetan: 60 gradurekin aritu izan dira han lanean. Lan hartan zer egiten zuten azaltzen du. Lan-baldintzak hobetzen hasi zirenean, fabrika itxi egin zen eta langabezia geratu zen 50 urte zituela. Fabrikako nagusia gizon portatu zen.

### **189. Festatara hara eta hona joandakoa (URN-012/041)**

Gazte garaian festatan ibilia da Miel hainbat lekutan. Neska-laguntzak izaten ziren orduan. Dantzan gustura aritzen ziren, soltean eta lotuan. Aranora ere joan izan dira festetan: joan oinez eta buelta kamioi gainean egin zuten behin.

### **190. Urnietan izandako zenbait aldaketa (URN-013/002)**

Urnietan asko aldatu da. Herriaren lehengo egitura eta eraikinak. "Txapel" taberna janari-denda zen lehen; oinarrizko janariak saltzen zituzten.

### **191. Batxilerra ikasteko aukera izan zuen (URN-013/007)**

Ikastea beti gustatu izan zaio. Batxilerra ikasteko aukera izan zuenez, aprobeixatu egin zuen. Baina, gerora, etxean ez zegoen dirurik karrera bat ordaintzeko, eta bertan geratu behar izan zuen. Garai hartan, goi mailako ikasketak kanpoan egin behar izaten zituzten. Batxilerrean zegoela, ez zekien erdaraz, eta buruz ikasi behar izaten zuen dena. 7 urtean ibili zen hala, Donostian. Orduko azterketak gogoan ditu.

### **192. Batxilerra buruz ikasi zuen (URN-013/008)**

Batxilergoa ikasi zuenean, zer ikasgai izan zituzten azaltzen du. Dena gainditu arren, bere iritziz, ez zuen ikasi, buruz ikasten baitzituen gauzak.

### **193. Emakume gutxik ikasten zuten garai hartan batxilerra (URN-013/009)**

Laboreak oso garrantzitsuak ziren garai hartan. Emakume gutxik ikasten zuten garai hartan batxilergoa: bera Urnietako bigarren emakumea izan zen. Ikasteko borondate handia zeukaten beraiek.

### **194. "Txapel" taberna (URN-013/011)**

Txapel taberna lehen nolakoa zen azaltzen du. Baserritik etortzen zen jendeak gosari txikia hartzen zuen bertan; bazkariak ematen zituzten...

### **195. Udatiarrak Urnietan (URN-013/012)**

Urnietara, lehen, jende asko etortzen zen uda pasatzera. Haiek sortutako giroa nolakoa zen azaltzen du.

### **196. Gerran ere, elkartasun handia (URN-013/013)**

Gerra garaian, Aiara joan ziren, Urnietako taberna utzita. Han, etxe batean, 20 bat lagun kabitu ziren. Oso jende jatorra zen etxe hartakoa; izugarri ondo portatu ziren beraiekin. Amak sukaldean egiten zien, eta asko estimatzen zioten hori. Lehen, elkartasun handia zegoen.

### **197. Valladolida joateko treneko giroa (URN-013/015)**

Valladolida trenez joaten ziren errebalidako azterketa egitera. Trenaren ibilbidea, bidaiariak... Orduko giroa gogoan du. Behin, aterkia irekita eraman behar izan zuten, sabaiko zuloetatik euria sartzen baitzen. Tren haren egitura nolakoa zen azaltzen du.

### **198. Errebalidako azterketa Valladoliden (URN-013/016)**

Errebalidako azterketa egitera Valladolida joaten ziren. Azterketa hartan, edozein gai sar zitekeen.

### **199. Batxilerraren ostean, oraindik ikasteko gogoia (URN-013/017)**

Batxilerra bukatutakoan, 3 urtean aritu zen takigrafia ikasten. Orduan, enpresa batean sartu zen lanean, eta 7 urte eman zituen han. Ezkondu ostean, ordea, gaizki ikusia zegoen emakumeek etxetik kanpo lan egitea; eta lana utzi zuen. 45 urte inguru zituela, dudatan egon zen karrera bat ikasi ala ez; baina, azkenean, ezetz erabaki zuen.

## **200. "Beranduegi" iristeagatik, kanpoan egin behar lo (URN-013/023)**

Zinemara joaten ziren gaztetan. Behin, lagun bati ez zioten etxean sartzen utzi, "beranduegi" iristeagatik. Orduan, Natiren etxean gelditu zen lotan.

## **201. Mozorroekin entretenituta (URN-013/027)**

Umetan, kalean egoten ziren errepidean jostatzen. Eta, batzuetan, etxe batean elkartzen ziren herriko gazteak. Bertako emakumea zomorroz mozorrotzen zen, eta denak garrasika aritzen ziren. Anttoni "Kaxetakoa" zen mozorrotzen zen hura, eta umeak entretenituta egoten ziren berekin. Anttoni jostuna zen.

## **202. Inauteriak debekatuta, Tolosan izan ezik (URN-013/028)**

Inauterietan, Tolosara joaten ziren, 17 urte zituztenetik. Hango giroa gogoan du: txarangak, zezenak, mozorroak... Gainerako herrietan, ez zen inauteririk egiten, debekatuta baitzegoen mozorrotzea, aurpegia estaltzea.

## **203. Urnietako plazako dantzaldiak (URN-013/029)**

Jaietan, Urnietako plazan musika izaten zen: hasieran, soinua; gerora, gramofonoa. Orduko kantak gogoan ditu. Gazte asko etortzen ziren Andoaindik; eta, pixka bat ikasitakoan, Hernaniko Oialumera joaten ziren. Orduko soinu-jotzailea Eusebio izaten zen.

## **204. Antzerkian ibili zenekoa (URN-013/032)**

Antzerkian ibili izan da Nati. 'Acci&oacute;n Cat&oacute;lica'ko taldean sartu ziren, eta beraien artean antolatutako zituzten antzerkiak, euskaraz. Uste di&ntilde;at, ya lo creo zen antzezlan haietako baten izenburua. Entseguak egiten zituzten; oroitarazlea edukitzen zuten.

## **205. 'Las segadoras' antzezlana (URN-013/033)**

Las segadoras antzezlana egin zuten, kantuan aritzen ziren; lan hura erdaraz izan zen.

## **206. Erretiroa eta jardun espiritualak (URN-013/034)**

Mojetan zeudela, erretiroa izaten zuten Aste Santuan. Bertan egoten ziren: hitz egin gabe, elizan, errezatzen, jan, lo, konfesio orokorra egin, eta etxera. Ezkondu aurretik, Arantzazura joaten ziren jardun espiritualak egitera.

## **207. Elizaren indarra, baita janzkeran ere (URN-013/036)**

Elizak indar handia zeukan lehen. Behin, lagun bat elizara buruko zapiarekin joan zen, eta apaizak errieta egin zion pulpitutik, mantelina ez eramateagatik. Eskolako uniformeak belaunak eta eskotea tapatu behar zituen.

## **208. Errazionamendu garaiko jatekoa eta kapritxoak (URN-013/041)**

Gerra ostean, gosea etorri zen; baina beraiek ondo moldatu ziren, nahiz eta kapritxorik ez izan. Tabernan, batzuek ogi zuria jaten zuten; eta, alde egitean, haiek utzitako apurrak jaten zituzten. Errazionamendua eta kartila eguneroko kontua ziren. Lehen, dilisten arteko harriak kentzen ibiltzen ziren, dilistak jan aurretik.

## **209. Irrati-nobelak entzuteko irrika (URN-013/044)**

Lehen, irрати-nobelak entzuteko irrikan egoten ziren. Edonora joanda ere, irratia eramaten zuten, edo irratia zeukanaren ondoan jartzen ziren.

## **210. Lehengo gizon-emakumeen janzkera (URN-013/047)**

Lehen, emakumeek zahar itxura handiagoa zeukaten, etxean gordeta egoten ziren zaharrak. Haien janzkera nolakoa zen azaltzen du.

## **211. Aitona eta aita, aguazil (URN-014/002)**

Bixiren aitona eta aita Urnietako aguazilak izan ziren. Aguazilak zer zeregin izaten zituen azaltzen du.

## **212. Ama gazterik hil zenez, senideak sakabanatu zituzten (URN-014/003)**

Ama oso langilea zen; emakume txikia eta polita. Gazterik hil zen, baina, bost seme-alaba izan ostean. Eta bost senideak hainbat baserritan banatu zituzten orduan. Bixi etxe dotore batera bidali zuten; hango bizimodua gogoan du.

## **213. Gerrako historiaren orrialde beltzak (URN-014/006)**

Gerra garaian, Urnietako hiru lagun Andoainen fusilatu zituzten, PNVkoak izateagatik. Herrikoak ziren salatariak: itxuraz, harakina eta bere semea. Gerrako kartzela Ondarretan zegoen; Bixi han izan zen behin bisitan, eta han ikusi zuen oso gaizki tratatzen zituztela presoak. Gerra garaian, zenbait etxe sakeatu eta erre egin zituzten. Orduan lapurtutako altzariak gogoan ditu.

## **214. Emakume abertzaleei egindako beheramenduak (URN-014/012)**

Ahizpa ezkutuan joan zen Iparraldera Telesforo Monzonekin. Herrian geldituz gero, PNVkoak zirenak zigortu egiten zituzten. Emakumeei egindako beheramenduak aipatzen ditu. Emakume haietako batzuk gogoan ditu. Bere ahizpak ihes egitea lortu zuen; Frantzian lan handia egin zuen, eta handik asko lagundu zion Bixiri.

## **215. Frantziatik bidalitako arropa (URN-014/013)**

Frantziako komentu batean, izeba bat moja zegoen. Handik arropa asko bidali izan zion Bixiri.

## **216. Antzerkian aritu zireneko gorabeherak (URN-014/022)**

10 bat lagun ziren antzerki-taldean. Batzokian elkartzen ziren entseatzeko. Zerbait ahazten zitzairenean, oroitarazleak laguntzen zien. Hainbat lekutan izan zituzten emanaldiak. Orduko jantziak beraiek lortzen zituzten handik eta hemendik. Gerra aurretik ibili ziren antzerkian. Haiek ikustera joaten zen

jendea PNVkoa izan ohi zen. Apaiz batek asko lagundu zien, don Jose Ignazio Zubilagak.

### **217. Beraien antzezlan batzuk (URN-014/023)**

Antzerkian, hainbat obra antzeztu zituzten: "ya lo creo, uste dinat", "Itziartxo"... Haietako batzuen gaiaz eta nondik norakoez hitz egiten du.

### **218. Gerra garaian kanpoan egondako senideen bizipenak (URN-014/031)**

Gerra garaia gogorra izan zen. Anaia eta bera herrian geratu ziren; baina beste 3 senideak handik eta hemendik ibili ziren errefuxiatu gisa. Kanpoan ziren bitartean, ezin izaten zuten gutunik idatzi. Ahizpa gazteenak oso gaizki pasa zuen, ikaragarriak pasa zituen.

### **219. Telefonemak (URN-014/033)**

Ama telefonenez arduratzen zen. Telefonemak zer ziren azaltzen du; jende askok erabiltzen zituen, gutxik baitzeukaten telefonoa.

### **220. Jendeak asko maite zuen ama (URN-014/035)**

Inguruan, estimazio handia zuen beraien familiak. Ama asko maite zuen jendeak. Ama Donostian izan zen zerbitzatzen, ezkondu aurretik. Udan, Madril aldera joaten ziren bere nagusiak; eta, behin, amari ere hara joateko eskaini zioten.

### **221. Telefonoaz arduratzen zen ama (URN-014/037)**

Ama telefonista-lanetan aritzen zen. Telefonoa nolakoa zen azaltzen du. Horretarako, gelatxo txiki bat zeukaten. Lan haren nondik norakoak azaltzen ditu.

### **222. Amaren janzkera dotorea (URN-014/039)**

Amaren janzkera garai haietan nolakoa izaten zen azaltzen du: astean zehar, era batekoa; eta, asteburuan, erabat bestelakoa.

### **223. Eskolara ezin joan (URN-015/003)**

10 urte zituela hasi zen lanean baserrian aitarekin. Eskolan hasia zen ordurako, baina osasun-arazoak zirela eta ezin izaten zuen nahi adina joan. Doktrinara joaten zen.

### **224. Klase partikularrak gerra hasi aurretik (URN-015/004)**

Amak irakasle partikular batengana bidali nahi izan zuen Miel, eta sei laguneko taldea osatu zuten. Gerra Zibila sortu zenean, ordea, bertan behera gelditu ziren klase haiek. Klaseak non izaten ziren azaltzen du.

### **225. Hiru jaunartzeak eta kongregazioa (URN-015/007)**

Lehen hiru jaunartze izaten ziren: lehenengoa 7 urterekin, bigarrena 10 urterekin eta hirugarrena 11 urterekin. Lehen hilero aparteko meza izaten zuten luistarren kongregaziokoak izateagatik; egun hartan zinta jartzen zieten, eta zinta hura nolakoa zen azaltzen du.

## **226. Ura iturritik ekarri behar etxera (URN-015/009)**

Garbiketak egiteko komeriak izaten zituzten baserrian: ura pertzetan ekarri behar izaten zuten iturritik. Ura oso garrantzitsua zen etxean, baina iturritik ekarritakoa baino gehiago behar izaten zuten. Norbere burua garbitzeko nola moldatzen ziren azaltzen du.

## **227. Baxuko sua eta ekonomika (URN-015/010)**

Ura berotzeko, baxuko sua erabiltzen zuten hasiera batean, eta gerora ekonomika. Baxuko suak nola funtzionatzen zuen eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

## **228. Sukaldeko harraska eta lotara joan aurretiko ohiturak (URN-015/012)**

Sukaldean labetxoa eta harraska onak zeuzkaten: ontziak eta aurpegia garbitzen zituzten haietan. Ohera sartu aurretik, hankak garbitzeko ohitura izan izan du beti.

## **229. Bi baserrian lanean (URN-015/014)**

Baserriko lana banatu egiten zuten gizonen eta emakumeen artean. Garai batean bi baserri izan zituzten, eta batetik bestera ordubeteko bidea zegoen. Neguan artzaina edukitzen zuten, harentzat gauzak prest utzi behar izaten zituzten. Emakumea izan da sukaldeko eta etxeko ardatza.

## **230. Donostiara egunero hanka-hutsik esnea saltzera (URN-015/015)**

Emakumeak izan dira sukaldeko eta etxeko ardatza. Mielen amak bizimodu latza izan zuen: amona egunero Donostiara joaten zen hanka-hutsik buruan saskia zuela; Donostiara iritsitakoan janzten zituen alpargatak, lotsagarri ez gelditzeko jendaurrean.

## **231. Garia eta artoari esker janaria etxean (URN-015/018)**

Garia egin zuten urte gutxi batzuetan. Igitaiaz mozten zuten garia, lotu egiten zuten, metatu eta jo egiten zuten. Artoa ere egiten zuten: horri esker taloak egiten zituzten. Amak, amonak eta arrebak oso talo onak egiten zituzten.

## **232. Negu gogorrak eta haiei aurre egiteko moduak (URN-015/021)**

Asto bat zeukaten etxean. Harekin trenera jaisten ziren behi-esnea garraiatzera. Neguan astoa irrista ez zedin, eutsi egiten zuten. Lehen neguak gogorragoak ziren, eta ez zuten behar bezalako arropa izaten.

## **233. Neguko baserriko lana (URN-015/023)**

Neguan azienda gobernatzeko zuten eta artoa zuritzen zuten. Artoaren azala (txupina) zertarako erabiltzen zuten azaltzen du.

## **234. Eguraldi txarra zenean, artoa aletzen (URN-015/025)**

Artoa eskuz aletzen ez zutenean, laia erabiltzen zuten. Kanpoan eguraldi txarra zenean aprobetxatzen zuten artoa aletzeko. Hasiera batean ez zuten argirik etxera eta farolekin edo bestelako tresnekin moldatu behar izaten ziren. Lehen egunaren argia hobeto aprobetxatzen zuten.



### **235. Egurra mozteko ilargiari begiratu behar (URN-015/026)**

Egurra mozteko ilargiak zeresan handia du. Noiz eta zergatik moztu behar diren arbolak azaltzen du. Egur mota bakoitzaren ezaugarriak aipatzen ditu.

### **236. Eguraldia lehen eta orain (URN-015/029)**

Haize klaseei buruz hitz egiten du. Lehen galerna orain baino gehiagotan izaten zen. Harria udan izaten da, berorik handiena denean. Altzibarra zer den azaltzen du.

### **237. Hilabeteko izoztea (URN-015/030)**

Duela 54 urte hilabete oso batean izoztea egon zen; galera handia ekarri zuen horrek.

### **238. Lehengo eta oraingo bertsolariak (URN-015/034)**

Lehengo bertsolari onak zein ziren aipatzen du. Lehen bertsolariak ez ziren noiznahi izaten. Gaur egungo bertsolaritzari buruzko iritzia ematen du.

### **239. Sagarrak bildu eta sagardotegia gobernatu (URN-015/037)**

Sagarrak nola biltzen zituzten azaltzen du. Amonaren garaian sagardotegia zeukaten, baina gerora utzi egin zuten. Sagardotegiko komeriak entzunak ditu Mielek.

### **240. Jaiotetxea erosteko diruaren istorioa (URN-016/003)**

Aitak Orbegozori saldu zizkion lursailak; eta, diru harekin, kalean etxea egin zuten. Azkenean, Mielek erosi zuen jaiotetxea, Inbutegi behekoa. Etxea erosteko dirua nola lortu zuen azaltzen du.

### **241. Etxeko lehengo komuna (URN-016/008)**

Lehen, etxeko komuna nolakoa zen azaltzen du. Anaia bihurri xamarra zen.

### **242. Artoa landatzeko lur onak (URN-016/010)**

Lehen, baserriko lanak nola antolatzen zituzten azaltzen du: batzuk segan, besteak lurra jiratzan... Garai hartan, arto asko ereiten zuten; lur onak zeukaten. Artoa hainbat gauzatarako erabiltzen zuten.

### **243. Argindarra joaten zenean, kinkeak eta kandelak (URN-016/013)**

Etxean, Mielek 7 urte zituela jarri zuten ur korrontea. Argia beti ezagutu izan du, nahiz eta askotan argirik gabe geratzen ziren, haizea zela-eta. Orduan, argia egiteko, kinkea, kandelak... erabiltzen zituzten. Noizbait, baserriak erre izan dira kinkeen erruz. Izan ere, etxe zaharrak egurrezkoak zirenez, berehala hartzen zuten su.

### **244. Amarekin herrira joateko borrokan (URN-016/016)**

Anai-arreben artean, borrokan ibiltzen ziren, amari herrira merkatura joaten nork lagunduko zion erabakitzeko. Bestela, baserrian lan zailagoak izaten zituzten.

#### **245. Lurra lantzeko tresnak (URN-016/017)**

Iturrean ibiltzea ez zen lan polita izaten. Lurra lantzeko, zer tresna izaten zituzten aipatzen du: goldea, harria, arrastelua, karramarroa, besabea...

#### **246. Sega zorroztearen garrantzia (URN-016/019)**

Segan asko ibili izan da Miel. Sega zorroztea oso garrantzitsua da.

#### **247. Umeegia segan aritzeko (URN-016/022)**

Oso gazterik hasi zen segan umetan. Larrabi baserriaren inguruan zuten garolekua; eta hango baserritarrak errieta egin zion Mielen aitari, Miel umeegia zelako segan aritzeko.

#### **248. "Harrapazka eguna" (URN-016/024)**

Adarran "Harrapazka eguna" izaten zen irailaren 10ean. Orduko kontuak aipatzen ditu.

#### **249. Erromeria gutxi, dena baitzen bekatu (URN-016/027)**

Xoxokako erromerietara gutxitan joaten zen, garai hartan dena baitzen bekatu. Erromerietan, zaharrak begira egoten ziren, nor norekin ibiltzen zen kontrolatzeko.

#### **250. Neska laguntzeagatik, errieta etxean (URN-016/029)**

Behin, neska bati laguntzera joateagatik, etxean kontuak eskatu zizkioten Mieli. Gerora, berriro lagundu izan zion neskari; baina, oraingoan, aurre egin zion aitari. Garai hartan, 23-24 urte zituen. Gaur egun, garaiak asko aldatu dira.

#### **251. Etxera berandu iritsi zireneko abenturak (URN-016/030)**

Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren erromerian. Iluntzerako, etxera itzuli behar izaten zuten; eta emakumeek, mutilek baino lehenago. Behin, etxera berandu iritsi eta ezkutuan sartzen saiatu zirenekoa kontatzen du. Amak babestu egin zituen.

#### **252. Txoriekin batera, Miel ere eskolatik ihesi (URN-016/032)**

Arriatsuko eskolan ikasi zuen Mielek. Maistra gaiztoa omen zen; zigortu egiten zituen ikasleak, makilarekin jota. Behin, eskolarako bidean, txori batzuk harrapatu eta eskolara eramane zituen poltsikoan gordeta; klasean, txoriek ihes egin zioten. Maistraren errieta ez jasotzearen, eskolatik ihes egin, eta gehiago ez zen itzuli. 7 bat urte izango zituen orduan.

#### **253. Gereziak jaten ari zireneko pasadizoa (URN-016/034)**

Gereziak jatea izaten zen beraien jolasa. Behin, gereziak jaten ari zirela, etxeko nagusia makilarekin atera zen, beraiei eskarmentua emateko asmoz. Orduko komeriak.

#### **254. Kaboaren gehiegikeriak ez ziren oharkabeen pasa (URN-016/042)**

Soldadutzan, gimnasia aritu zen, eta oso ondo moldatu zen. Orduko probak gogoan ditu. Han, erdaraz ez zekienez, kabuak masailekoa eman zion. Kabo hura, hala ere, zigortu egin zuten jarrera hori eduki izanagatik.

#### **255. Soldadutzan ganadua zaintzeko jakin beharrekoak (URN-016/044)**

Soldadutza ondo pasa zuen Mielek. Ganadua zaintzeaz arduratzen zen. Miel etxera itzuli zenean, bere orde, Zaldibiako beste soldadu bat jarri zuten. Hark zaintzen zuen behia, ordea, berehala hil zen; izan ere, gaixo zegoen, eta zainketa berezia eman behar izaten zitzaion.

#### **256. Gerrako tiroak eta lapurretak (URN-016/046)**

Gerrako oroitzapen gutxi dauzka. Behin, ozta-ozta salbatu zuen bizia. Soldaduek etxeko oiloak eraman zizkieten. Gerora, oilo haiek ordainduko zizkiotela esan zioten aitari; baina ez zuen sekula xoxik jaso. Beste zenbait etxetatik txekorrak eraman zituzten.

#### **257. Errotara ezkutuan joan, eta astoa galdu (URN-016/050)**

Gerraostea garai txarra izan zen. Errotak itxita egoten zirenez, gauez joan behar izaten zuten, ezkutuan, astoa zakuz kargatuta. Behin, halakoaldi batean, astoa galdu zuten.

#### **258. Saskigile asko Urnietan (URN-017/023)**

Lau saskigile ezagutu ditu Kontxitik Urnietan. Osaba "xesterua" zuen. Bigarren aita bezala zen. Tolosan saltzen zituzten saskiak. Oso ona omen zen bere lanbidean. Kontxita sarri joan zen Tolosara saskiak kobratzera.

#### **259. Urnietako lehen telefonoa eta irratia (URN-017/024)**

Aita telefonoetako langilea zen. Lokutorio txiki bat zegoela uste du herrian, baina ez omen zen beste telefonorik. Auzoko batek irratia ekarri zuenean ume guztiak hara joaten ziren entzutera, txoratuta eta harriduraz beteta.

#### **260. Azkorteko Santokristoaren historia eta eguna (URN-017/026)**

Aitona oso gizon zuzena zen. Azkorteko Santokristoaren historia kontatzen du. Urnietako ermitak. Maiatzaren 3an izaten da Azkorteko Santokristoaren eguna. Txikitan beti joaten ziren hara egun horretan eta orduko oroitzapenak fresko ditu.

#### **261. Baltsean ibiliz gero, infernura (URN-017/029)**

Igandetan Hernanira oinez joaten hasi ziren hamasei urte betetzeaz bat. Itzuli trenez, dirurik bazuten. Dantzan egiten zuten baina ez mutilekin, kongregaziotik botako zituzten beldurrez. Sermoietan esaten zieten baltsean ibili eta momentu hartan hilez gero, infernura zoazela zuten. Beldurrezko erlijioa zen hura. Kamiseta eta jertse manga luzedunak erabiltzen zituzten. Orduan dena infernua zen. Asko joan ziren moja garai hartan, horrela infernutik libratuko zirelakoan. Konfesatzera joan zireneko pasadizoa.

## **262. Lutoa eta tindatutako manta (URN-017/030)**

Etxeko norbait hiltzen zenean, urtebetez arropa beltza eramaten zen. Eta urtea konplitzean sei hilabetez txuri-beltza. Tindatu egiten ziren normalean arropak. Gerra denboran manta bat tindatu eta berokia egin zioten.

## **263. Arropak josten eta "pasaratzen" (URN-017/031)**

Gerra ostean Donostian erosten zuten oihala eta jostunak josten zizkieten arropak herrian. Berak galtzak-eta "pasaratzen" ikasi zuen, puskatutakoa konpontzen, alegia.

## **264. Maindirerik gabe lo (URN-017/032)**

Maindireen bi saihetsak josi eta gastatutakoa bazterrean ipintzen zen. Maindire gabe ere egiten zuen lo zenbaitek. Eta puskaz osatutako maindireak ere baziren.

## **265. Jolas kantak: "al pasar la barca", "Mariana goiko" (URN-017/034)**

Sokasaltoko kantua erdaraz: Al pasar la barca dijo el barquero". Euskarazkoa: "Mariana goiko/ zer bihar den beheko...".

## **266. Gurdiari jarraika gustura (URN-017/035)**

Gurdiarekin baserritarrak pasatzen zirenean haren atzetik joaten ziren umeak gustura.

## **267. Sakamantekas (URN-017/036)**

Eskale eta ijito asko ibiltzen zen orduan. Eskale bat herrira heltzen zenean Sakamantekas etorri zen zurrumurrua zabaltzen zen eta ume guztiak beldurtuta etxera.

## **268. Donostian taberna ipini familiak (URN-017/037)**

Angulak sarri jaten ziren etxean. Anaiak janariarekin egiten zizkion tranpak. Familiak taberna-jatetxea jarri zuen Donostian eta han bizi izan ziren lau-bost urtez.

## **269. Angulak eta bisigua nahiko merke (URN-017/039)**

Orduan angulak orain bokartak bezain merke zeuden. Noiznahi erosten zituzten. Bisigua ere asko izaten zen eta sarri jaten zuten. Eguberrietako afaritan jaten zutena. Konpotaren osagaiak. Turroia ere jaten zuten. Hori kalean, baserri askotako jatordua askoz ere pobreagoa baitzen. Kontxitak-eta bi merienda jaten zituzten, bata etxean eta bestea osabarenean.

## **270. Bi mutil fusilatu gerra denboran (URN-017/040)**

Soldaduak etorri zirenean, haien kantak ikasi zituzten. Udan etortzen ziren familia oneko bi mutil fusilatu egin zituzten gerra denboran, Santa Barbaran. Anaia bat 18 urterekin joan zen gerrara; azkenekoak izan ziren. La Quinta del Biber esaten zitzairen.

### **271. Elizarekin sartzea, Errepublikaren hankasartzea (URN-017/041)**

Oblatoen komentua erretzen ikusi zuten baserritik. Komentu handia zen. Elizak erre, apaizak hil eta horrelakoak egin zituen errepublikak. Bera txikia zen errepublika denboran eta ez da ezertaz oroitzen baina entzuna du errepublika ez balitz elizarekin sartu oraindik jarraituko zuela.

### **272. Eskolako bihurrikeriak eta zigorrak (URN-017/043)**

Anaia bihurria zen eta sarri egoten zen eskolan zigortuta. Etxean ez zuten ezer esaten, matrailekoa zutelako bestela. Egiten zituzten bihurrikeriak.

### **273. "Marizulo" ikuskizuna Luis Mari ilobak-eta prestatua (URN-017/045)**

Luis Mari Zaldua ilobak Urnietako bide, harri eta putzu-zulo guztiak ezagutzen omen ditu. Liburuak eta mapak argitaratu ditu. Arrakasta handiko "Marizulo" ikuskizuna prestatu zuen beste batzuekin batera.

### **274. Ikasturte bukaerako ibilidia Donostiara (URN-017/047)**

Gogoan du poltsikoa beroarekin nola joan zen behin ikasturte bukaerako bidaiara Donostiara. Zaldikoetan ibili, San Telmo Museoa ikusi..., egun handia izan zen hura.

### **275. Laboreak ikasten arratsaldeetan (URN-017/048)**

Eskolan "laboreak" egiten zituzten arratsaldetan. Puntillak, tapeteak eta abar egiten zituzten. Oso irakasle ona zuten.

### **276. Ezkondu gabe haurdun gelditzea, delitu ikaragarria (URN-017/051)**

Delitu ikaragarria zen neska ezkongabea haurdun gelditzea. Herritik alde egin behar izaten zuten, etxekeok bidalita askotan. Zenbaiten neskame egin ohi zuen denboraldi bat eta gizentzen zirenean Villabonako Fraisorora joaten ziren umea izatera. Ama aurrerakoia zuen Kontxitak. Lagunen artean bakarra izan zen amaren bidez hilekoaren berri jakin zuena. Sasoi hartan ama ezkongabea izatea azkena zen, eta solterak ere ("neskazaharrak") oso gaizki ikusita zeuden.

### **277. Gizonak matxista hutsak (URN-017/052)**

Gizonak oso matxistak ziren, aitarengandik hasita. Emakumea hutsaren hurrengoa izan da.

### **278. Plantxak eta garbigailuak (URN-017/053)**

Hiru plantxa mota ezagutu ditu: txapa gainean berotzen zena, ikatzarekikoa eta elektrikoa. Lehenengo garbigailuek, berriz, garbitu bakarrik egiten zuten; akklaratu eskuz egin behar izaten zen. Zarata handia ateratzen zuten. Lehenago utziko luke autoa garbigailua baino.

### **279. Kontxitaren amona oinez Donostiara buruan saskia hartuta (URN-017/056)**

Herriko baten autobusean joaten ziren baserritarrak Donostiara salerosketak egitera. Kontxitaren amona oinez joaten omen zen buruan saskia zuela.

### **280. Neska-mutil kontuak eta gurasoen ardurak (URN-017/059)**

Zoriontsuak ziren txikitan. Hernanira joan lagunarekin, eta barre eta barre, primeran pasatzen zuten. Neska-taldea batzuetan mutilei ihesi eta beste batzuetan jarraika ibiltzen zen Hernanin eta Donostian. Gurasoak beti arduratan. Trenak matxura izan zueneko larrialdiak. Anaia-eta Bilbora joan ziren behin, eta berak ere joan nahi zuela esan zion amari. "Hoiiek gizasemeak dira" erantzuna.

### **281. Emakumeak erretzea, oso gaizki ikusitako gauza (URN-017/060)**

Emakume beraneante bat fulanatzat hartzen zuten zigarroa erretzen zuelako. Ezkondu gabe elkarrekin bizitzea, berriz, bekatu barkaezina zen. Bera egunero joaten da elizara baina horregatik ez du pertsona hobetzat bere burua. Elizara joaten direnen artean ere jende txarra omen dago. Pertsona gezurtiak eta lapurrak ez ditu jasaten.

### **282. "Ezin duenari laguntzera joatea da ebanjelioa" (URN-017/062)**

Baloreak galdu egin omen dira. Dena dela, jende on asko dago orain ere, baita elizara joaten ez direnen artean ere. Kartzeletara bisitak egitera edo hirugarren mundura laguntzera doazenen jarrera gorai patzen du: "Ezin duenari laguntzera joatea da ebanjelioa"

### **283. Jaiotza ikusten eta turroia jaten Donostian (URN-017/064)**

Behin hiru anai-arrebak Donostiara joan ziren jaiotza ibiltaria ikustera, paga onarekin. Jaiotza ikusita gero, diru guztia turroitari gastatu, banku baten eseri eta dena jan zuten. Urnietan lagunei kontatu zietenean sortutako inbidia.

### **284. Ikastolari eskerrak eutsi zaio euskarari (URN-017/066)**

Ikastolari eskerrak eutsi zaio euskarari, Kontxitaren iritziz. Bere seme-alabei erdaraz egiten dieten ama baserritarren kasua.

### **285. Erregenetako opariak (URN-017/068)**

Erregenetako opariak zeintzuk izaten ziren kontatzen du. Behin portzelanazko panpina erregalatu zioten. Anaiak puskatu egin zion eta egun guztia negarrez pasatu zuen. Oso pozik jartzen ziren erregaluekin. Familia pobretako umeek ez zuten ia ezer izaten.

### **286. Beltzaran egoteko modak azala hondatu (URN-017/070)**

Amaren denboran aberatsak guardasolarekin ibiltzen ziren larrua zuri izateko; gero beltzaran egoteko moda etorri zen, larruazalaren kalterako. Azala guri eta zuri izateko formulak.

### **287. Sendabideak (URN-017/072)**

Baratxuria ipintzen zuten iltzea hankan sartzen zitzaizenean desinfektantea delako. Beste ukendu beltz bat ere erabiltzen zuten hainbat gaitzetarako. Kurandero batek ekartzen zieten.

### **288. Dolarean sagardoa egiten laguntzen (URN-018/003)**

Garai hartako dolarea eta gaur egunekoa oso ezberdinak dira. Dolareko lana nolakoa zen kontatzen du. Artean umeak zirela han ibiltzen ziren gurasoei sagardoa egiten laguntzen eta jolasean.

### **289. Lan-klase guztiak egin ditu Kontxitak (URN-018/004)**

Etxeko lan klase guztiak egin izan ditu Kontxitak. Neskatoa zelarrik arropa garbitzera ere joaten zen garbitegira aitaren bota handiak jantzita. Ura hotza egoten zen neguan eta eskuak suminduta geratzen zitzaizkien.

### **290. Soldaduentzako galtzerdiak egiten eskolan (URN-018/005)**

Gogor egin du lan Kontxitak, baina ez du horren damurik, hala ere pozik bizi izan baita. Eskola gutxi ikasi zuen. Erdaraz izateaz gain, soldaduentzako galtzerdiak egiten ematen zuten denbora.

### **291. Sagardoa botilaratzen goizean goiz jaikita (URN-018/007)**

Gobara egitera labaderora joaten zen. Sagardoan botilaratzen ere goizean goiz hasita jarduten zuen. Lan ikaragarri egin izan du. "Hura bai ez zela bizia!" dio barrezka.

### **292. Plantxan hiru eratara (URN-018/010)**

Ura eta argia betidanik ezagutu du. Plantxa: hiru sistemak ezagutu ditu, sutan berotutako plantxa, ikatzarekikoa eta elektrikoa. Azken hau aurrerapen handia izan da. Sukaldean ere egiten zuen. Tabernan, sagardotegian zein etxean denetatik egiten zuen. Konforme bizi zen halere.

### **293. Lau erregelak bai, baina kebradoak ezin buruan sartu (URN-018/011)**

Bizitzak berak erakusten du gehien. Liburu bakarretik ikasten zen orduan, entziklopediatik. Denetik zuek hark: Matematika, Geografia, "Historia Sagrada"... Orain ilobak liburuz beteta ikusten ditu. Lau erregelak bai baina kebradoak (zatikiak) ezin zituen buruan sartu.

### **294. Jolas orduan elkarrekin neska eta mutil (URN-018/012)**

14 urte arte ibili zen eskolan, sei-zazpi urterekin hasita, eskola publikoan. Adin guztietakoak nahastuta. Goian neskak eta behean mutilak. Jolas-orduan, ostera, denak elkarrekin.

### **295. Eskolan paretari begira zigortuta (URN-018/013)**

Maisu-maistren izenak. Doña Franciscak beti "mirando a la pared" edukitzen zuen. Besoak zabaldu eta liburuak ipinita ere bai. Oso mugitua zen eta zigortuta egoten zen sarri. Lotsagabe samarra zela onartzen du.

### **296. Ama "eltzeko tapa" (URN-018/015)**

Ama onegia zuten. Amarekin zuten konfiantza. Ama "eltzeko tapa" zela esaten zen. Berari kontsultatzen zioten dena, sekula ez aitari.

### **297. "Matxonea", aitari gustatzen ez zitzaion etxe-izena (URN-018/017)**

Matxonea esaten zioten beren etxeari. Aita sokatiran ibilia zen, eta gizon indartsua zenez, nonbait hortik etorriko zaio izena. Baina ez zen aitaren aurrean izen hori esaten, haserretu egiten baitzen.

### **298. Nolakoa zen Matxonea (URN-018/018)**

Matxonea nolakoa zen deskribatzen du. Lehenengo pisuan bizi ziren beraiek. Bigarrenean, gerra aurretik euskal teatroak eta egiten ziren tokia zegoen. Gerra ostean Falangekoen "Margaritak" sartu ziren. Atso sorgin batek eramaten zuen. Behean euren taberna eta sagardotegia.

### **299. Arropa garbitzen kantari (URN-018/020)**

Beti izaten zuten txerria etxean. Oiloak ere uste du baietz. Labaderoa ere bazuten. Aitak behin esan ziona arropa garbitzen kantari zebilelako.

### **300. Errepide nagusian jolasean (URN-018/021)**

Errepide nagusian ibiltzen ziren futboleak, pilotan edo beste edozein jolasetan. Gogoan ditu futboleak ibiltzen ziren mutilen aurpegiak; horietako zenbait gerran hil edo fusilatu zituzten.

### **301. Dutzak aberats-etxetan bakarrik (URN-018/022)**

Labaderoan garbitzen eta bainatzen ziren. Oso berandu arte ez zuten dutxarik izan etxean. Aberats-etxetan ziren bakarrik dutxak. Nolakoa zen etxeko labaderoa. Ez daki zergatik joaten zen kanpoko labaderrora etxean izanda.

### **302. Anila arropa zuritzeko (URN-018/023)**

Herriko labaderoa jendez bete-betea egoten zen. Anila erabiltzen zen arropa zuritzeko. Orain ezin du anilik inon topatu. Anilaz zuri-zuri geratzen da arropa eta oraingo deterjentearekin, berriz, horixka. Lagarto eta Chimbo ziren orduko xaboiak. Lehenago bazegoen beste bat urarekin nahastean aparrik ateratzen ez zuena.

### **303. Beharrak erakutsitakoa daki Kontxitak (URN-018/024)**

Beharrak erakusten omen du bizitza nola eraman. Dakien pixka beharrak erakutsitakoa omen da. Aitak mutil bati esaten ziona: "biharrak, deituiok eta erakutsiko dik!". Oraingo gazteak ez omen dakite bizitzen.

### **304. Arropa gutxi eta sekulako hotza neguan (URN-018/026)**

Negu eta uda arropa berberarekin ibiltzen zen. Abarkak erostea galarazi egin zion aitak. Gomazko katiuskak ere erabili izan zituen. Sekulako hotzak pasatzen zituen neguan. Ez zegoen ez kalefakzio eta ez ezer. Lotarako poltsa beroa eta galtzerdiak behar izaten zituen. Orain berriz ezer gabe egiten du. Eskolara joateko ere jertseren bat izango zuten, baina berokirik-eta horrelakorik ez berandu arte.



### **305. Belaun barrenerainoko prakak baserriko mutikoeak (URN-018/028)**

Belauna baino beheraxeago heltzen ziren prakak janzten zituzten baserriko mutikoeak orduan. Orain modara etorri dira berriz. Janzkera kontuak ahaztuta ditu.

### **306. Emakumeen janzkera eta orrazkera (URN-018/030)**

Buruko painelua, mantal aurreko beltza eta abarkak, apain asko etortzen ziren baserriko emakumeak. Orrazkeragatik "Arriba España" deitzen zioten emakumearen aipamena. Permanentea modan egon zen orduan. 17-19 urterekin joan zen lehenengoz ile-apaindegira, Donostiara.

### **307. Babarrunak egunero (URN-018/031)**

Babarrunak, azak, lentejak... orduko jana. Lentejek harri ugari izaten zuten. Babarrunak egunero, eta jaiegunetan zopa eta haragi egosia piperrekin. Gabonetan oilasko errea, aza-olioa, mazapana. San Josetan arkumea. Garbantzua ere jaten zen azekin.

### **308. Txerriaren parte onenak etxeko nagusiarentzako (URN-018/032)**

Txerria hiltzen zenean zati onenak nagusiari eman behar izaten zitzaizkion. Etxerako urdaia geratzen zen. "Txerrimonik" esaten zitzaion opari gisa auzotar eta senideen artean banatzen zen txerriari. Zilarrezko duroa eman zion amonak behin opariarekin joan zenean.

### **309. Oso gazterik hasi zen sagardoa edaten (URN-018/034)**

Errege-sagarrak apartatzen ibiltzen zen dolarean, ez zitzaiolako aitari sagardotarako gustatzen. Pitarra edaten zuten umeez eta sagardoa aitak. Denek hari begira inbidiatan. Berak gaztetatik edan izan du sagardoa. Inoiz zipotza (txotxa) atera eta zuzenean edaten zuten. Behin ere ez dio kalterik egin sagardoak.

### **310. Olioaren errearen prezioan (URN-018/035)**

Denetik saltzen zen denda bat eta harategia zeuden Urnietan. Gogoan du ama Tolosara joan izan zela olioaren erostera eta nolako dirutza ordaintzen zuen. Seboarekin eta margarinarekin ere egiten zituzten frijitze lanak oliorik ez zenean.

### **311. Alaba Gurutze torturatu eta hil (URN-018/038)**

Gerra denboran hainbat herritar fusilatu zuten Francozaleek. Askoz geroago, beren alaba Gurutze torturatu eta hil egin zuten. Orduko legeak jarraitzen omen du orain.

### **312. Gerran, hainbat fusilatu eta hildako Urnietan (URN-018/039)**

Anaiak anaien kontra ibili ziren gerran; eta orain, berriz sortuko balitz ere, berdina gertatuko omen litzateke. Berak ezagututako bost edo sei urnietar fusilatu zituzten. Gerran hil ziren beste hainbat soldadu ere ezagutu zituen.

### **313. Etxean egindako ikurrina guardia zibilek ostu (URN-018/040)**

Gurutzek (torturapean hil zuten alabak) eta biek egin zuten ikurrina ostu egin zieten etxetik guardia zibilek. Alaba etxetik eraman eta bi egunera ekarri zuten gorpua. Ez zuen ezer txarrik egin alabak. HBko ideiak izateagatik garbitu zuten.

### **314. Soldaduentzat galtzerdiak egiten eskolan (URN-018/044)**

Soldaduentzat galtzerdiak egiten jardun zuten eskolan. Bestela, oso labore gutxi ikasten zuten. Agian monjetan ikasiko zuten. Oso eskola gutxi ikasitakoa da Kontxita.

### **315. Ume-jolasak (URN-018/045)**

Egiten zituzten jolasak: "San Sebastián a buena" (morroka), paperezko pilotekin, gerezi-hezurrekin, kurkuluxetan (tortoloska). Oraingoek ez dakite kurkuluxak zer diren ere.

### **316. Kurkuluxetan (URN-018/046)**

Kurkuluxetan nola jolasten zuten azaltzen du, armairuan gordeta dituen hiru kurkulux aterata. Arkumearen kurkuluxak gordetzeko ohitura du. Oraingoak ez dakite kurkuluxak zer diren ere. Gorde-gordeka eta sagar lapurretan ere aritzen ziren

### **317. Zirrindolarekin jolasean (URN-018/047)**

Kontxita asko ibiltzen zen zirrindolarekin jolasean errepide eta kaleetan barrena. Bazuen anaiak egindako alanbre berezi bat zirrindola gidatzeko.

### **318. Zepoarekin txorriak harrapatzen (URN-018/048)**

Elurra zenean zepoarekin txorriak harrapatzen egiten zuten. Nola, kontatzen du. Ez da oroitzen gero jan egiten zituzten edo zer.

### **319. Kirkilak harrapatzen (URN-018/049)**

Kirkirak (kirkilak) harrapatzen ere jarduten zuten, zulora pixa egin eta horrela. Etxean beti izan dira kirkilak kanturako, alaba gazteenak baserriko mutikoei ikastolan erositak.

### **320. Karburoarekin jolasten (URN-018/051)**

Lurrean zulo bat egin, karburoa ipini ("azufrea" dio Kontxitak), ura bota, gainean piper-pote bat jarri zulotxo batez, sua hurbildu zulora eta potea airean joaten zen indar handiz.

### **321. Sakristauari basoerdia ordaindu erromeria luzatzearen (URN-018/053)**

Kanpoan festa gutxi egindakoa da Kontxita. Sakristauak abemarietakoa jotzen zuen arratsaldeko zazpitan-edo, baina dantzaldia apur bat luzatzearen basoerdia ordaintzen zioten. Beranduenez ere bederatzietarako hel zitezkeen etxera.

### **322. Hernaniko plazako dantzaldia (URN-018/055)**

Hernaniko Tilosetan sekulako dantzaldia egiten zen igandero. Donostiatik eta denetik etortzen zen jendea. Beraiek ere joaten ziren. Dirua ordaindu behar izaten zen dantzan egiteko. Hernaniko orkestinak jotzen zuen.

### **323. Ikaragarri aldatu da Urnieta (URN-018/058)**

Dena belazeak ziren Kontxitaren etxe inguruan. Belarra biltzen laguntzen zien auzoko emakume batek. Gorde-gordeka pozik ibiltzen ziren jolasean. Orain dena ethez bete da. Ikaragarri aldatu da Urnieta. Ia ez zegoen saltokirik Urnietan. Farmazia ere gerora jarri zen.

### **324. Oso apain jantzita komunio handia (URN-018/063)**

Komunio handia etxeakoandreak oparitutako soinekoarekin egin zuen, 11 urterekin. Oso apain joan zen. Elizako liburua, eskularru zuriak eta abar. Gero bazkaria. Hori izan zen erregalu bakarra, ez oraingo umeak bezala.

### **325. Ezteiak (URN-018/064)**

Soineko beltz oso polit batekin ezkondu zen. Takoizko zapatak. Fagollagako jatetxean bazkaldu zuten. 40 bat lagun ziren senide eta lagunen artean.

### **326. Arreoa (URN-018/065)**

Arreo oso txikia zuen berak. Orduan arreo handia zuenak etxean jartzen zuen erakusgai eta lagunak ikustera joaten ziren. Arreoa zer arropa egoten zen azaltzen du.

### **327. Umetatik zaildutakoa (URN-019/007)**

Etxean gogorrena izaba zen. 4 urte zituela, Hernanira bidali zuten Mertxe amonarekin ferian txerrikumea saltzera. 16-17 urte zituela, Donostiara astoa eta esnea hartuta joan izan zen hainbat hilabetetan. Eskolatik ateratzen zenean, mandatuak egin behar izaten zituen.

### **328. "Gerra gogorra ez, gogorregia" (URN-019/014)**

Gerra garaian bi hilabete eman zituen ezkututzen, gauero kotxe blindatu batean etortzen baitziren bere bila. Azkenean, Andoaina eraman zuten izeba-osabek. Hainbat gizon fusilatu zituztela ikusi zuen Mertxek.

### **329. Zenbait sendabelarren erabilera (URN-019/021)**

Sendabelarrak aipatzen ditu: pasmo-belarrak ganbaran jasotzen zituzten eguzkiak joko ez ziren lekuan; zertarako erabiltzen zituzten aipatzen du. Ilarrondokoari eta sarnari buruz hitz egiten du.

### **330. Goierritar asko Urnietan (URN-020/002)**

Aitona Goierritarra zuen, Ataungoa. Urnietako baserri askotan Goierritik etorritako jendearen ondorengoak bizi dira, baina ez daki noiz etorri ziren.

### **331. Hilean behin eskolara (URN-020/004)**

Zazpi-zortzi urte bete orduko itaurrean lanean. Eskolara hilean behin edo joaten zen bakarrik. Zenbat eta gutxiago joan, orduan eta gogo gutxiago joateko. Herriko eskolan neskak eta mutilak nola banatuta zeuden. Orduan ez zitzaion eskolari inportantziarik ematen.

### **332. Maisuak belarrondokoa arrebarekin dantzan egiteagatik (URN-020/005)**

Doktrina erdaraz ikasten zuten eskolan maisuarekin, eta euskaraz sakristian apaizarekin. Maisu bat erretzaile handia zen, eskuak hori-hori eginda zituen. Behin belarrondoko ederra eman zion arrebarekin dantzan egiten ikusi zuelako.

### **333. Egun batean nahikoa ikasi soldadutzan (URN-020/007)**

Soldadutzan analfabetoak eskolara bidali zituzten. Behin joan zen klasera eta esan zioten gehiago ez joateko, bazekiela nahikoa eta. Iru&ntilde;ean egon zen soldadu.

### **334. Soldadutzan eta doktrinan ikasitakoek ezertarako balio ez (URN-020/008)**

Soldadutzan eta doktrinan ikasitako gauzek ez diote ezertarako balio izan. Carrascalen (Artederretan) egin zion banderari zin. Gero, etxera etorri zen baimenarekin. Pozik, denbora luzea zeramalako andregaia ikusi gabe.

### **335. 17 urterekin Oilalumera dantzara (URN-020/009)**

15-16 urterekin hasi zen neska-laguntzen. Pilotan pasatzen zuten denbora. 17 urterekin Oilalumera dantzara. Autobusez joaten ziren.

### **336. Basomutil, artzain, laborari..., ofizio asko (URN-020/012)**

Udan hilabete pare bat Goizuetan ematen zuen basoan lanean. Udazkenean artzain joaten zen maiatzera arte. Ondoren, etxera etortzen zen artoa erein eta belarrak ontzera. Lan asko eta diru gutxi.

### **337. Udaberriko soroko lanak (URN-020/013)**

Maiatzean prestatzen zen lurra gehienetan. Goldatu lehendabizi, harria pasatu, gero; kirrimarroa ondoren. Markatu, aitzurrarekin zuloak egin eta artoa eta baba sartu.

### **338. Buztin-lurra eta lur beltza (URN-020/014)**

Buztin-lurra da bere baserrikoa eta inguruetakoa. Emaztearen baserrikoa, berriz, beltza, samur-samurra. Buztin-lurra txarragoa da izatez, baina lehorte garaian hobeto irauten du, hobeto erantzuten du.

### **339. Taloa egiten (URN-020/020)**

Ogia eta taloa berdin egiten omen dira. Taloa nola egiten den azaltzen du. Taloa gustura jaten du orain ere, nahiz eta komeni ez. Edozer gauzak aspertzen omen du egunero janez gero.

### **340. Aranora eta Goizuetara errotara (URN-020/022)**

Urnietako errotak prezintatu egin zituzten gerra ostean eta Aranora edo Goizuetara joan behar izaten zuten Ramonen gurasoak, astoan zorroa hartu eta artoa ehotzera. Nafarroan libre zen nonbait.

### **341. Garia eta artoa entregatu egin behar (URN-020/024)**

Garia, artoa eta abar entregatu behar izaten zuten. Hainbeste kilo entregatzeko abisua etortzen zen, ez daki zeren arabera. Baserriaren tamainaren, uste du. Baziren garia edo artoa erosi behar izaten zutenak entregatu ahal izateko.

### **342. Basomutilaren lanak eta ardurak (URN-020/025)**

Basomutil ibili zenean, zuhaitzak botatzen jarduten zuten. Trontzarekin bota eta aizkorarekin soildu. Etxetik hurbil samar zebiltzanean, etxera erretiratzen zen baina urrun zebiltzanean txabolan egiten zuten bizimodua. Gazteena zenez, berak zuen baba-eltzea prestatzeko ardura. Nahiago izaten zuen txabolara erretiratzea etxera edo beste baserri batera gaua pasatzera itzultzea baino.

### **343. Nobio-nobien ikusmiran Donostia aldean (URN-020/027)**

Igeldo inguruan lanean zebiltzala, ilunabarrean behera jaisten ziren, nobio-nobiak elkartzen ziren inguru batean ikusmiran ibiltzeko.

### **344. Putetxera bisita (URN-020/029)**

Ilunabarretan Benta Berri aldera jaisten zirenean, inoiz putetxean sartu-irtena egiten zuten. Behin nagusia okerreko alpargatak jantzita agertu zen bueltan. Taldean baziren erdaldun batzuk eta haiek ez ziren jaisten; afaria gertatzen gelditzen ziren: bakailaoa tomatearekin ia egunero.

### **345. Bizimodua basolanetik ateratzea, gogorra (URN-020/033)**

Arroan, Elduainen eta beste leku askotan ibilia da basolanean. Enborra nola prestatzen den kontatzen du basotik atera ahal izateko. Oso gogorra omen da basotik bizimodua ateratzea.

### **346. Artzaintzan hiru-lau urtez (URN-020/034)**

Hiru-lau urtez ibili zen artzain, udazkenetik udaberrira arte. Idiazabalgo familia batekin morroi gisa. Urnieta aldera etortzen ziren artaldearekin negua pasatzera.

### **347. Urnietatik Idiazabaleraino oinez artaldearekin errepede nagusitik (URN-020/035)**

Apirilaren azken aldera bueltatzen ziren sorlekura. Oinez, berrogeitaka kilometro eginez, herriz herri. Arratsaldeko bostak aldera abiatu, Villabonan afaldu eta gau guztia ibiliz emanez, eguerdi aldera heltzen ziren Idiazabalera. Farola eramaten zuten bizkarrean autoek ikusi zituzaten. Oinak odolduta heltzen ziren ardiak zein artzainak. Ia ez zuten autorik aurkitzen N-1 errepedean. Zer nolako ibilgailuak topatzen zituzten kontatzen du.

### **348. Otsaurte aldean udako larrelekuak (URN-020/036)**

Altsasu-Otsaurte aldeko mendietan larratzen zituzten ardiak udan. Gaztak ere mendiko txabolan egiten zituzten. Bera maiatz azkenera arte egoten zen han, hilabete batez. Gero etxera itzultzen zen.

### **349. Hankamina, ardien gaitza (URN-020/037)**

Gaitz bakarra izaten omen zuten orduan ardiek: azazkal tartea egosia (hankamina). Nola sendatzen zen esaten du.

### **350. Arkera garaian aharia batera zein bestera (URN-020/038)**

Arkera denboran (zelo), etxeko artaldean arkera dagoen ardirik ez badago, aharia beste artalde batera joaten omen da.

### **351. Arkumea, bildotsa; arkaztea, artantxoa eta ardia (URN-020/039)**

Berak udazkenetik udaberrira arte egiten zuen artzain. Garairik onena omen. Goizean ardiak atera larrera, eta eguna lasai pasatzen zuen. Baratze koskor bat ere izan zuen denbora pasa gisa. Ardiaren izenak: jaio berria "arkumea", urtebetekoa "bildotsa", bi urtekoa "arkaztea", hirukoa "artantxoa" eta hortik aurrera "ardia".

### **352. Euskara batua ulertzeko zailtasunak (URN-020/041)**

Oraingo euskara batzuetan ez du ulertzen. Ilobak ikastolan euskara diferente samarra ikasten dute. Etxean egiten ez duenak nekez ikasiko omen du eskara.

### **353. Urnieta inguruko euskarak denak antzekoak (URN-020/042)**

Inguruko euskarak Urnietakoaren oso antzekoak omen dira. Euskaldun zaharrei dena ulertzen zaie baina berriei erdirik ere ez. Zenbait euskaldunek erdaraz egin izan dio zenbat erdara dakien frogatzeko. "Jende gaiztotzat" ditu horrelakoak.

### **354. "Ese chapurriau" (euskara) galarazteko ahalegina soldadutzan (URN-020/043)**

Ez zuen euskararen aurkako debekurik sentitu soldadutzaz aparte. Soldadutzan euskaldun kuadrilla elkartzen zen tabernan, eta "txurriano" kalamidade batek salatu egin zituen euskaraz jarduteagatik, "ese chapurriau" galarazteko eskatuz. Ofizialak ezetz erantzun zion, hizkuntza zaharrena zela-eta. Ofiziala euskal abizenekoa omen zen.

### **355. "Otsaila" eta "katuila", biak (URN-021/002)**

"Otsaila" hitza erabili izan du beti; "katuilla" ere bai, katuak marruka ibiltzen direlako. "Ilbeltza" urtarrilari. Baserriak "Lobera" du izena, eta Arantzazuko fraide batek esan zenez, hori da antzina otsoak ibili ohi zirelako paraje hauetan.

### **356. Jatordu ezberdinetako jakiak (URN-021/004)**

Xoxoka auzoko Pagolaerdi baserrian jaioa da Maria. 8 anai-arreba ziren. Amonak prestatutako esne-zopak taloarekin jan eta Goiburuko eskolara joaten ziren. Bazkaltzeko babarrunak azekin izan ohi zuten eta meriendatzeko txokolatea eta ogia. Afaltzeko haragi gisatua.

### **357. Osaba eskulangile trebea (URN-021/005)**

Osaba elbarria zuten. Behien kopetekoak (zamarrak), abarkak eta gisa horretako eskulanak egiten zituen. Abarkak nola egiten zituen kontatzen du. Ezkondu zenean asko sentitu zuten haren falta. Abarketagintzan ere aritzen zen eta nola egiten ziren erakutsi zien. Auzoko gizonak tertuliara etortzen ziren eta "albokia" (afari-merienda) egiten zuten armonia ederrean

### **358. Kontu-kontari aritzeko astia hartzen zen orduan (URN-021/007)**

Garai hartan jendea etxera etorri eta kontu-kontari aritzen zen, eta kartetan eta kantuan ere egiten zen aldi berean. Gaur ez dago horrelako girorik.

### **359. Bizimodu gogorra, batez ere neguko hotzagatik (URN-021/009)**

Zortzi anai-arrebatatik hirugarrena zen. Arropa garbitzea lan gogorra zen, batez ere neguan. Iturri txiki bat zuten hiru baserrirentzako. Ez daki nola bizi ahal izan ziren ere, hotz izugarria egiten baitzuen orduan.

### **360. Altzibarko gobara-lekua (URN-021/010)**

Zinkazko barrinoa erabiltzen zuten arropa garbitzera eramateko. Geroago etxe ondoan egin zuten garbitokia, baina ez zen giro izaten neguko izotzekin. Altzibarko gobara-lekua (labaderoa) nolakoa zen kontatzen du.

### **361. Gobara (lixiba) nola egiten zen (URN-021/012)**

Udazkenean ez zuten urik izaten etxean. Astoarekin errekarra joaten ziren gobara (lixiba) egitera. Auzoko emakume asko biltzen zen eta tertuliarako aprobetxatzen zuten. Arropa garbitzeko prozesua azaltzen du: xaboia eman, beratu, igurtzi, astindu... Arropa zuri-zuria ateratzen zen. Hego haizearekin berehala lehortzen zen baina bestela sutondoan eskegi behar. Hamabostean behin edo garbitzen ziren maindireak.

### **362. Beheko sua kendu eta ekonomika ipini (URN-021/015)**

Baserri handia zen bere jaiotetxea. Sei-zortzi behi izango zituzten. Ekonomika bera neska koskorra zela ipini zuten. Beheko sua kendu zutenean pena eman zion.

### **363. Izebaren etxera bazkaltzera eskolara jaitsitakoan (URN-021/017)**

Eskolan zebiltzala izebaren etxera joaten ziren bazkaltzera, Txapel tabernara. Oso ongi zaintzen zituen izebak, bigarren ama bezala zen berarentzat. Arropa ere polit askoa izaten zuen hark utzitakoa.

### **364. Arropaz ondo, oinetakoz eskas (URN-021/018)**

Amak Donostiatik ekartzen zien arropa. Kaleko arropak eta etxeakoak ongi bereizten ziren orduan. Baina arropa faltarik ez zuten. Oinetakoz, ordea, gaizki ibiltzen ziren. Eguraldi onarekin tira, alpargatekin ibili ahal zenean.

### **365. Oinetakoak aldatzeko lekua herrian (URN-021/019)**

Oinetakoak aldatzen zituzten herrira heltzean etxe batean. Lokatza handia izaten zen orduan bidetan. Esker oneko hitzak ditu aldaketa egiten zuten etxeko emakumearentzat. Kafesnea ere ematen zien.

### **366. Farolarekin eta lasta-zuziarekin argi eginda ilunetan (URN-021/020)**

Igandetan sei eta erdietako mezetara joaten ziren ilunetan. Farola eskuratu zuten gerora, baina kristal bat apurtu zioten eta argi gutxiago egiten zuen. Lasta-zuziarekin ere ibiltzen ziren. Estu-estu lotzen zen, bestela berehala kontsumitzen zelako.

### **367. Urtean behin bidegintza auzolanean (URN-021/021)**

Urtean behin egiten zen bide-konponketa, auzolanean. Herriak jartzen zuen ardoa. Hala ere lohi ikaragarria egiten zen bidetan.

### **368. Auzolana (URN-021/023)**

Artajorrak ere auzolanean egiten ziren. Gogoan du tortilla, gazta eta ogia ematen ziela amak langileei. Orduan asko laguntzen zitzaion elkarri.

### **369. Itsasondora eta Goizuetara errotara gerra ostean (URN-021/025)**

Gerra denboran ibili ziren gaizkien. Itsasondoraino joaten ziren errotara, trenez. Goizueta, Arano eta alde horretara ere bai astoz. Orduan jendea oinez ibiltzen zen.

### **370. Teresa, oso komadronea ona (URN-021/034)**

Mariak etxean izan ditu ume guztiak. Oso komadronea ona izan dute, Teresa. Ordubeteko bidean etortzen zen gauez osaketak egitera. Ondoren afaldu eta gustura itzultzen zen bere etxera.

### **371. "Elizan sartzea" (URN-021/037)**

Ama berria zortzi egunez ohean egon ohi zen oilo-saldu hartuz. Buruan teila bat ipinita irten behar izaten zuten garai batean etxetik, "elizan sartzea" zeremonia egin arte. "Elizan sartzea": elizpean apaizak errezo batzuk egiten zituen ama berria elizan sartu aurretik.

### **372. "Gorputz-bidea", etxetik elizara arte (URN-021/039)**

Garai batean "gorputz-bidea" (etxetik elizara hilotza eramaten zena) nondik nora zihoan kontatzen du. Bizkarrean eramaten zen hilkutxa lau gizonen artean. Urruneko baserritakoei atsedean hartzeko mahaiak ipintzen zitzaizkien bidean.

### **373. Lutoa (URN-021/040)**

Lutoz janzen ziren norbait hiltzen zenean. Bestetarako ez omen zen dirurik izango baina horretarako bai. Arropa tindatu egiten zen gehienbat.

### **374. Oiartzungo euskara oso polita (URN-021/042)**

Goizueta edo Oiartzun aldekoiei ondo ulertzen die baina Azpeitia eta Durangokoei, esaterako, ez. Oiartzungo euskara gustatzen zaio.



### **375. Zoruak eta arropak usain ona (URN-021/045)**

Zurezko zoruari argizagia nola ematen zioten. Garbitutako arropak zein argizagia emandako zoruak askoz ere usain hobea hartzen zuten oraingoek baino. Errekako ur garbia bezalakorik ez omen dago lixiba egiteko. Menda ere ipintzen zuten geletan usain ona egon zedin eta arkakusuak uxatzeko.

### **376. Gurutzea eta elorri zuria babesgarri (URN-021/046)**

Erramu Egunean bedeinkatutako gurutzeak ipintzen ziren eta Santakruz egunean elorri zuria babes gisa. Apaiza ere urtero etortzen zen bedeinkazioak egitera. Oilaskoak ematen zitzaizkion trukean.

### **377. Soldadutza Frantzian egin izanaren ondorioak (URN-022/002)**

Igoaran abizena Frantziatik datorkio. Familiaren jatorriaz hitz egiten du. Aitak soldadutza Frantzian egin zuen, eta II. Mundu Gerrara joateko deitu zioten, baina ez zen joan. Ordutik desertore geratu zen eta ez zen atrebitzen Frantziarako muga pasatzen.

### **378. Simaurra Albizurtik Urnietara eramaten (URN-022/004)**

Aita Alkizatik etorri zen Urnietara. Behin Urnietako Egurrola baserrira Albizurtik simaurra eta harrizko askak ekarri zituztenekoa kontaktzen du. Lehen balio handia zuen simaurrak.

### **379. Garoak ebakitzeko etxafuegoaren zain (URN-022/009)**

Garoak ebakitzera noiz joaten ziren azaltzen du. Mendi-guardak etxafuegoa bota arte ezin izaten zen hasi igitaiarekin lanean. Sailen mugengatik batzuetan ika-mikak egoten ziren.

### **380. Goizean goiz jaiki lanerako prest (URN-022/011)**

Goizeko 6etan jaikitzen zen baserritarra lehen. Garotara joan behar zutenean, goizeko ordu bietan jaikitzen ziren gurdia prestatzeko.

### **381. Gerrako kontu tristeak (URN-022/013)**

Gerra izan zenean, 2-3 urte zituen Isidrok. Gerran Santa Barbaratik egindako erasoan baserriko pareta bota zieten; inguruko baserri batean neska bat hil zen eta beste batek begia galdu zuen. Frontea non egon zen azaltzen du. Behin aitak eskapada egin zuen, soldaduen ondotik pasa zenean.

### **382. Gerrako hildakoak eta salatariak (URN-022/014)**

Isidroren osaba bat fusilatu egin zuten Andoaingo eliza atzean. Urnietan gizon ugari hil zituzten horrela. Salatari asko egon zen Urnietan. Nafarroako zenbait herritan emakumeak bakarrik gelditu omen ziren bizirik gerra bukatutakoan.

### **383. Mutil gazteak gerran beldurtuta (URN-022/015)**

Gerra Zibila gogorra izan zen: osaba bat fusilatu egin zuten; beste bat 17 urterekin soldadu eraman zuten eta Zornotza inguruko borrokan aritu zen. Osaba hark ikusitakoak eta bizitakoak kontaktzen ditu.

### **384. Gose garaiak, errotak itxita eta errazionamendua (URN-022/016)**

Gerra ostean gosea etorri zen eta errotak itxita egon ziren. Osaba bat Aranora joaten zen errotara gauez; abereek erraz ikasi zuten bidea. Errotan gertatutako anekdota kontatzen du. Itsasondoko errotara ere joaten ziren trenez. Errazionamendua izaten zen garai hartan, eta baserriko jeneroa entregatu egin behar izaten zen.

### **385. 1.000 kilo irin bakar-bakarrik antolatu behar (URN-022/017)**

Irina estraperloan ekartzen zuten. Behin osabak 1.000 kilo irin hartu behar zituen, eta Guardia Zibilak harrapatuko zituen beldurrez, berak bakarrik antolatu behar izan zituen irin zaku guztiak. Etxean tranpa bat eraiki zuen osabak, inork ikus ez zezan irina gordeta zeukatenik.

### **386. Kanean gosea eta baserrira eskean (URN-022/018)**

Artoarekin egindako ogia jaten zuten gerra ostean. Kaleko jendeak gorriak ikusi zituen janariarekin. Baserrian hobeto moldatu ziren baserriko jeneroarekin. Jende asko eskean etortzen zen baserrietara.

### **387. Andoaingo La Sallen ikasitakoa (URN-022/020)**

11 urte zituela utzi zuen eskola. Andoaingo La Sallen ikasi zuen: goizean trenez joaten ziren hara, eta bazkaria etxetik eramaten zuten. Lehen ez zitzaion garrantzirik ematen hezkuntzari, etxean nahiko lan egoten baitzen.

### **388. Pitarrak, zizarrak eta upelak (URN-022/022)**

Muztioa lortutakoan, hurrengo pausoa zein den azaltzen du. Pitarra eta zizarra zer diren aipatzen du. Lehengo upelak oraingoak baino txikiagoak ziren. Upelaren egurraren garrantziaz hitz egiten du. Upelgileak baziren lehen.

### **389. Sagarrondoak aldatzearen garrantzia (URN-022/026)**

Lehen sagarrondoak aldatzeagatik duro bat ematen zuten. Bere arbasoek sagastia nola hedatu zuten azaltzen du. Mihurari buruz hitz egiten du.

### **390. Sagar-bilketa (URN-022/028)**

Kargak zer ziren azaltzen du. Sagarrak nola bildu izan dituzten aipatzen du.

### **391. Neska-laguntza eta mutilen arteko ika-mikak (URN-022/030)**

Neska-laguntzeak izaten ziren lehen. Mutilak harrika ibiltzen ziren batzuetan. Dantza lotua debekatuta zegoen lehen herri ugaritan.

### **392. Aisialdirako denbora gutxi, baina hura sakratua (URN-022/031)**

Lehen ez zegoen gaur egun bezalako oporrik. Larunbatak lehen lanegunak ziren. Igande arratsaldetan libre egoten ziren. Igandetan lan egitea ez zen libre eta apaizari eskatu behar izaten zitzaion baimena lana egin nahi izanez gero.

### **393. Soldadutzako bizimodua eta jendea (URN-022/034)**

22 urterekin joan zen soldadutzara eta ordurako nola-hala moldatzen zen gaztelaniaz. Soldadutzako eguneroko bizimodua nolakoa izaten zen azaltzen du. Orduan nabari zen baserritarren eta kalekoen arteko aldea.

### **394. Lehengo eta oraingo txoriak (URN-022/036)**

Lehen kaio gutxiago zegoen orain baino. Aldaketa horren arrazoiak aipatzen ditu.

### **395. Konjuruak eta bedeinkazioak (URN-022/041)**

Etxea babesteko elorri eta erramu bedeinkatua jartzeko ohitura zegoen, San Juanetan lizarra... Kandelario Eguneko ohitura aipatzen du. Apaizek lehen konjuruak egiten zuten harria egin ez zezan eta soroak bedeinkatzeko.

### **396. Baserriko lanen banaketa (URN-023/002)**

Ettxeko lanak beste tankera batekoak izaten ziren orduan. Bazkalorduan erditik jaten zen beren etxean. Familiakide bakoitzak bere lanak izaten zituen etxean eta kanpoan. Gustuko zuen behi jeztea, baina ez afalorduan upeletik sagardoa ekartzera joatea. Igandetan txandaka egiten zuten behi-jeztea.

### **397. Idiak zein behiak uztarrirako (URN-023/004)**

Orduan baratzea oso txikia izaten zen, ez zen traturik eramaten saltzera. Etixerako adina edo hartzen zen. Arreba zaharrena esnea banatzera joaten zen. Soroan, berriz, lan asko egiten zen. Idiak zeuden lekuetan idiekin, baina bestela behiekin lantzen zen lurra. Idiak aise prestatzen ziren lanerako baina ez, ordea, behiak. Idiak askoz ere hobeak ziren. Goldan egiteko, esaterako, bi behi pare behar izaten ziren elkarri lotuta.

### **398. Idiak nola uztartzen diren (URN-023/005)**

Bideak txarrak ziren eta sarri bi behi-pare erabili behar behar izaten ziren. Idiak nola uztartzen diren azaltzen du.

### **399. Lurra lantzeko tresnak (URN-023/006)**

Lehenengo karramarroa pasatzen zen lurra urratzeko. Gero simaurtu. Kirrimarroa, goldea, lastra eta harria. lurra lantzeko tresnak. Tresna gehiegi, Fernandoren ustez. Artoa apur bat hazten zenean, besabea pasatzen zen ilara bitartean idi edo behi bakarrak tiratuta. Hesia eta alperra ere erabili izan dituzte. Etxean gorde ohi zituzten erremintak

### **400. Artoa, erremolatxa, baba, babarruna... nola landu (URN-023/007)**

Lurra maneaututakoan markatu egiten zen. Artoa aitzurrez sartzen zen, zuloa eginda. Beste gauza batzuk, berriz, hazia lurrera bota (erein) eta harriaz edo lastraz estaltzen ziren. Babaren (Baba beltza) prozesua azaltzen du. Desberdina da, neguko lekalea baita. Arbiaz eta erremolatxaz azalpenak.

#### **401. Babarruna artoarekin batera ondoen (URN-023/008)**

Babarruna hobeto hazten da artoarekin batera arbak (parrak) ipinita baino. Baserri baten duela gutxi gertatutakoa kontatzen du: sail handia ipini zuten arbekin eta ez zuten ale bat ere hartu. Lekak, ostera, hobeto arban. Artoari hostoa kentzea ona da babarruna heldu dadin.

#### **402. Pagotxa, arbia, erremolatxa (URN-023/009)**

Arto artean pagotxa erein izan zuten garai batean, baina lan txarra zen. Arbia neguko janaria da, jan ahala ekartzen da sorotik. Erremolatxa, ostera, azaro aldera erretiratu behar da, usteldu egiten delako izotzaz. Frantses-arbia ere izaten zuten.

#### **403. Gose denboran baserrietan goserik ez (URN-023/010)**

Artoa hazienden janari gisa zein arto-irina egin eta talotarako erabiltzen zen. Gerraosteko ogi janezinaren kontuak. Baserrian taloa eta esnea janez konpontzen ziren baina kaletarrek gose latza pasatzen zuten. Kaletik baserrira etortzen zen jendea lanera jan apur baten truke.

#### **404. Kaletarrak baserrira lanera janari truke (URN-023/011)**

Etxeko lanak etxekoen artean egiten ziren. Bidegintza izaten zen auzolan bakarra. Kaleko zenbait emakume babarrun biltzera eta artoa zuritzera etorri ohi zen baserrietara. Gizonak ere bai patata ateratzera.

#### **405. Lixiba egiten askan eta errekan (URN-023/012)**

Etxe askotan errekarra joan behar izaten zuten arropa garbitzera. Belauniko jarrita, oso postura txarrean egin beharreko lana zen. Fernandoren etxean bazen arropa garbitzeko aska. Oso gogoan du nola aritzen ziren emakumeak lixiba egiten.

#### **406. Ura, arazo ikaragarria garai hartan (URN-023/013)**

Baserri askotan ez zegoen urik. Lasarte aldera dagoen baserri batekoak errekarako putzu batera etortzen ziren gurdiaz barriketan ura eramateko. Ura arazo handia zen orduan. Iturri txiki batzuk besterik ez ziren etxe ondota eta lehortea zenean berehala agortzen ziren. Bera morroi egondako baserrian ez zen urik eta nolako komeriak lehortea zenean.

#### **407. Goizuetaraino astoarekin errotara (URN-023/016)**

Aita Goizuetaraino joaten zen astoaz errotara artoa ehotzera gerra ostean. Baziren makina txiki batzuk arto-irina egiteko; irin zakarragoa egiten zuten baina balio zuen esnearekin nahastuta jateko.

#### **408. Garia eta artoa entregatu behar (URN-023/018)**

Uste du guardia gutxiago zebilelako joango zirela Goizuetako errotara. Itsasondora ere joaten ziren trenez errotara. Urnietako errotak prezintatuta zeuden. Garia eta artoa (eta baita inoiz txekorrak ere) entregatu behar izaten zen udaletxean.

#### **409. Zezina, gatzez kontserbatutako haragia (URN-023/019)**

Txekorra hil ohi zuten etxerako, eta orduan izozgailurik ez zenez, zezindu (gatza eman) egiten zuten haragia. Txerria hiltzea ere debekatuta zegoen.

#### **410. Artoa, garia eta abar udaletxean entregatu behar (URN-023/020)**

Baziren artoa edo garia erosi eta entregatutakoak ere uzta txarreko urteetan. Gurdika eramaten omen zuten artoa eta garia. Udaletxean biltzen zuten lehendabizi eta gero beste norabait eramaten. Arbigarak eta aza zuztarrak ere biltzen zituzten kaletarrek baratzetatik gose denboran.

#### **411. 6-8 behi eta astoa baserrietan (URN-023/021)**

Simaur asko behar zuten soroek eta ez zen sobera egoten. 6-8 behi egoten ziren baserri bakoitzean. Astoa etxe guztietan eta behorrak ere bai zenbaitetan.

#### **412. Beldurrez eskolara (URN-023/024)**

Eskola bakarra zegoen Urnietan. Dena erdaraz, eta hala ere ez omen zuten ikasi. Makila eramana eta gogor jotzen zituzten behatz puntetan eta buruan. Beldurrez eskolara. Gainera askotan etxean geratu behar itaurrean egiten. Orduan eskolari ez zitzaion inportantziarik ematen.

#### **413. Ume jolasak (URN-023/025)**

Korrika, gorde-gordeka, kaniketan eta horrelako jolasetan ibiltzen ziren. Pilotan ere egiten zuten baina futboleko gutxi, ez baitzegoen baloirik. Lehen diziplina handiegia omen zegoen eta orain txikiegia.

#### **414. Beste dibertsio batzuk: txori-habiak bilatzen, gerezi-lapurretan... (URN-023/026)**

Eskolatik etxera bizkor joan behar, lana izaten zuten eta. Txori-habiak bilatzen ibiltzen ziren igandeetan-eta. Gerezi lapurretan ere egiten zuten. Igerian erreka putzu batean.

#### **415. Perretxikutara gurasoak bazkalostekoa egiten ari ziren bitartean (URN-023/027)**

Perretxikutara ere joaten ziren gurasoak siestan zeuden bitartean. Kuletoa, onddoak, gibelurdinak, ziza horiak eta horrelakoak ezagutzen zituzten. Txanpinoiak eta lanpernak ez artean. Beste izen batzuk: apaiz-perretxikoa, urritz-perretxikoa. Tortillan prestatzen zituen amak.

#### **416. Aingirak harrapatzen (URN-023/029)**

Aingirak harrapatzen jarduten zituzten errekan sardexkarekin. Zatitu, frijitu eta jan egiten zituzten. Amu-arrainik ez zen, erreka txikia delako.

#### **417. Xoxokako erromeria (URN-023/031)**

Xoxokan igandero egiten zen erromeria, Pazkoetan hasi eta hurrengo negura arte. Andoaindik-eta etortzen zen jendea. Soinujole asko ezagutu du han: Gettari, Patxi eta abar. Erromeria ondoren neska-laguntzea.

#### **418. Kontzejupean ttunttuna eta gramola (URN-023/032)**

Neguan udaletxe azpian izaten zen dantzaldia. Lehendabizi ttunttunarekin (txistua eta danbolina) eta gero granbolarekin (gramola). Granbola zer den azaltzen du. Umeak bakarrik ibiltzen ziren granbolarekin.

#### **419. Apaizek galdeketa zorrotza konfesionarioan (URN-023/033)**

Dantza soltea bakarrik egiten zen udaletxe azpian, lotua galarazita baitzegoen. Lehen dena zen bekatu, eta, orain, berriz, ez omen da bekatu. Apaizek galdeketa zorrotzak egiten zituzten konfesionarioan. Penitentziak gogorak izaten ziren.

#### **420. Neskalguntzea distantziak gordez (URN-023/034)**

Neska laguntzera joan eta norbaitek harrika egindako kasuak izaten ziren orduan. Neskari gerritik heltzea eta horrelakorik pentsatu ere ez. Hala ere gertatzen ziren garaia baino lehenagoko haurdunaldiak.

#### **421. Orona kooperatibaren bilakaera (URN-023/037)**

Orona lantegia galdaragintzan aritzen zen hasieran. Gero patente italiarra erosi eta igogailuak egiten hasi ziren. Galdaragintzak oso lan gogorra zen. Azkenaldian lan eroso izan zuen.

#### **422. Soldadutza laburra (URN-023/039)**

Soldadutzan suerte handia izan zuen, lau hilabete eta sei egun egin baitzituen bakarrik. Mutil gehiegi zegoelako, zozketa egin eta batzuk soldadutza laburra eginda libratu ziren. Orio gaineko kanpamenduetan igaro zuen denbora gehiena.

#### **423. Soldadutzan ere erdara gutxi (URN-023/040)**

Soldadutzan ere ez zuen erdara asko ikasi, euskaldunak euskaldunengana biltzen baitziren. Teorikan izaten zuten problema handiena. Ilea zeroan moztea izaten zen zigorretariko bat.

#### **424. Militar euskaldunak erdaldunak baino okerragoak (URN-023/041)**

Batzuetan militar euskaldunak erdaldunak baino gaiztoagoak izaten ziren euskaldunekin. Eta zenbat eta graduazio apalagoa, orduan eta txarragoak, Fernandoren iritziz. Behin Mosketoia zikina izateagatik hurrengo egunera arte etxera etorri gabe zigortu zuten.

#### **425. Kubiartekin egindako abarkak (URN-023/045)**

Iluntzean elkartzen ziren sutondoan. Umeak ez omen du hotzik sentitzen. Kubiarta zaharrekin egindako abarkak erabiltzen zituzten. Abarkak nola egiten ziren. Larruzko abarkak oso irristakorrak ziren. Gero iltzedun botak etorri ziren baina oso kalitate txarrekoak.

#### **426. Gau ilunetan kanpoan ibiltzeko argiak (URN-023/046)**

Meza-orduak. Abarka zahar bati su emanda egin izan zuten argi zenbait gau ilunetan. Linternarik-eta ez zen, baina farolak bai. Lastazaoa ("lastuan garrillua") ere erabiltzen zuten argi egiteko. Emakumeek oinetakoak aldatu egiten zituzten herrira heltzean. Gizonezkoek ez.

#### **427. Aita baserri-arotza (URN-023/048)**

Arotz lanean aritzen zen aita. Etxean behar ziren zurezko tresnak egiten zituen: gurdia, harria, karretillak, eskaillerak...

#### **428. Sagardoaren prozesua (URN-023/052)**

Bere momentua heldutakoan, itxi egiten zaio goiko zuloa upelari. Handik denbora batera botilan sartzen da. Ezin da upelean denbora asko eduki, moteldu eta mindu egiten delako. Botilan sartzeak lan handia du. Etxerako bakarrik egiten zuten sagardoa. Ez dute txotxerako ohiturarik izan etxean.

#### **429. Eibar aldeko euskara oso diferentea (URN-023/053)**

Euskara da gehien maite izan duen hizkuntza. Tolosa aldera ere aldatzen da apur bat baina Eibar aldera-eta ikaragarri. Goierri, Oiartzun eta horietan ere pixka bat diferentea, baina ondo ulertzen da. Beterrin antzera. Plazentziar batekin lanean aritu zen eta "berakasalda" deitzen zion baratzuri-zopari.

#### **430. Gogoa duenak ikasten du euskara (URN-023/054)**

Haurrak egiten duten euskara (batua) diferentexegoa da. Urnietan euskara ondo mantentzen da. Borondatea duenak ikasten omen du. Euskaraz ikasi nahi ez zuen lantegiko erdaldun baten kasua.

#### **431. Eskolara oso gutxi joateko aukera (URN-024/002)**

Mutil koskorrek zirela, 7 urterekin hasten ziren eskolara joaten; Josek etxean geratu behar izan zuen amari tabernan laguntzeko, eta eskolara oso gutxitan joan zen.

#### **432. 'Matxo' ezizenaren oihartzuna (URN-024/004)**

'Matxo' taberna jarri zuten. Aitaren ezizena Matxo zen, oso gizon indartsua zelako. Jose Hernanin hasi zenean lanean, berari ere Matxo deitzen hasi zitzaizkion, baina hori moztu egin zuen.

#### **433. Sagardoa egin eta tabernan edan (URN-024/008)**

Sagardoa egiteko bertako sagarrak erabiltzen zituzten; dolarean txikitzen zituzten, prentsatu... Inguruko sagardo onenetakoa egiten zuten beraiek garai hartan. Sagardoa egiteko prozesuaz eta garaiaz hitz egiten du. Lehen orain baino sagardo gehiago edaten zen. Tabernako bezeroak noiz etortzen ziren eta zer egiten zuten azaltzen du.

#### **434. Pilotan errepidean jokatzen (URN-024/009)**

Lehen ez zen kamioi asko igarotzen Urnietatik. Errepidean jokatzen zituzten pilota partiduak etxearen paretaren kontra. Pilotan jokatzeke, beraiek egiten zituzten askotan pilotak trapu zahar eta harri koskorrekin. Ondo pasatzeko, dirua baino garrantzitsuagoa da giro ona.

#### **435. Infernutik ihesi zinera (URN-024/015)**

Urnietan dantza soltea egin behar izaten zen. Hernanin plazan sartzea infernura joatea omen zen; orduan, jendea Donostiara joaten hasi zen, zinera, neskari eskua sartzera.

#### **436. Arotz izateko pausoak (URN-024/016)**

Arotz-lanean nola hasi zen kontaktzen du: oholak eramaten aritzen zen, gerriko arazoak izan zituen, eta beste arotzeria batera joatea erabaki zuen, han arotz-lanbidea ikastera.

#### **437. Hainbat lantegi ezagututakoa (URN-024/018)**

Salinas arotzeriara joan zen lanbidea ikastera: han altzariak egiten zituzten. Soldadutzara joatea tokatu zitzaion, baina, eta soldadutzatik itzultitakoan lanik ez zegoen Salinasen. Andoaingo arotzeria batean hasi zen orduan lanean. Handik Martutenera joan zen obra-kolokazioan lan egitera. Gerora, Donostiako tailer batean hasi zen.

#### **438. Aitarekin etxeko zerrategira lanera (URN-024/019)**

Hainbat lekutan lan egin ostean, aitak etxean jarri zuen tailerra, eta han hasi zen orduan lanean Jose. Gerora, lokala aldatu eta semearekin aritu izan da bertan lanean. Badira 22 urte lokal berrira, Igerategira, pasa zirena. Beraien lehenengo zerrategia non zegoen azaltzen du.

#### **439. Ilargiaren garrantzia zuhaitzak botatzean (URN-024/022)**

Lehen egurra urte guztian izaten zen, ez zen begiratzen noiz botatzen zen, baina horrek arazoak ekartzen zituen gero. Zuhaitzak botatzeko, ilargiari begiratu behar zaio; horri buruzko azalpenak ematen ditu.

#### **440. Zilegi-mendiak (URN-024/027)**

Zilegi-mendien mugak lehen non zeuden azaltzen du. Zilegi-mendiak basorako eta ganaduarentzat erabiltzen ziren. Gerora, zilegi-mendiak saldu egin zituen jendeak, trukean dirutza jasoko zutelakoan; Josek ez zuen bere zatia saldu.

#### **441. Izoztearen ostean, sutea (URN-024/031)**

1956ko izoztearen ostean, 60ko hamarkadan sutea izan zen mendian. Su hura nola itzali zuten azaltzen du.

#### **442. Gurdiaren gurpilak egiteko artea (URN-024/036)**

Gurdiaren gurpilak egiteko, artista behar zen izan. Gurpila egiteko prozesuaren gorabeherak aipatzen ditu.

#### **443. Lerak egiteko prozesua (URN-024/037)**

Lerak egitea erraza zen: gurdia egitearen antzekoa zen, baina pertika motzagoa egin behar zen. Burdinak nola egiten zituzten azaltzen du.

#### **444. Lurra lantzeko tresnak egitea (URN-024/039)**

Lurra lantzeko harria egitea erraza zen; zailena burdinazko hortzak egitea zen. Hare-makila nola eta zer materialekin egiten zen azaltzen du.



#### **445. Hiru bikote etxe bakarrean bizitzen (URN-025/002)**

Hernanin bizi zirela, sukaldea erabiltzeko eskubidea zeukaten. Denbora batean 3 bikote bizi izan ziren etxe hartan. Etxe hura nolakoa zen azaltzen du.

#### **446. Ezkonberritan beste bikote batzuekin etxean (URN-025/004)**

Ezkonberritan bizi izan ziren etxean nola moldatzen ziren azaltzen du. Beraiekin batera bizi zen beste bikoteak patata frijituak tomatearekin jaten zituzten.

#### **447. Euromarren eta Aieten lan egindakoa (URN-025/006)**

Baserrian bizi izan da 28-29 urtera arte; udan Euromarren aritzen zen zerbitzari-lanetan. Etxea nola handitu zuten azaltzen du. Aieteko etxe batean egon zen sukaldari 14 urtez. Egunero hara iristeko egiten zuen bidea aipatzen du.

#### **448. Etxean jende asko eta lana banatuta (URN-025/009)**

Amonaren janzkera nolakoa izaten zen azaltzen dute. Familia handia izan dira etxean. Etxeko lanak banatu egiten zituzten: oheak egiten zituzten, lurra garbitzen zuten... Aitak denetik egiten zuen.

#### **449. Kareia gela zuritzeko (URN-025/010)**

Urtero zuritzen zuten gela karearekin; sukaldea urtean bitan zuritzen zuten. Kareia urarekin nahasten zuten hormarako pintura sortzeko. Kareia ez da alferrik galtzen.

#### **450. Arropa garbitzeko sortutako sistemak (URN-025/012)**

Arropa garbitzeko, bozadera zeukaten etxean, aitak sortutako sistema bati esker. Arropak garbitzeko nola moldatzen ziren azaltzen dute. Garbigailuak baziren garai hartan: nola funtzionatzen zuten azaltzen du Axunek.

#### **451. Astoek izenik ez, baina memoria bai (URN-025/013)**

Behin astoak ihes egin zion ur-marmitekin; baina, geroago, zigortu egin zuen, eta ordutik ondo obeditu zion. Lehen astoei ez zieten izenik jartzen; bai, ordea, behiei eta zakurrei. Etxean izandako zakurrari buruz hitz egiten du.

#### **452. Egur bila joan eta gurdia irauli (URN-025/014)**

Etxean behiak eta idiak zeukaten. Behiak ixtingan ibiltzen ziren. Egur bila joaten ziren mendira; behin gurdia irauli zitzaionekoa kontatzen du Mariak. Lehen erraz iraultzen ziren gurdiak.

#### **453. Harrapazka eguna (URN-025/017)**

Harrapazka egunari buruz hitz egiten dute: irailaren 5ean izaten zen, igitaiarekin harrapatzen zen saila lantzen zen, baserritar asko joaten ziren...

#### **454. Musika gustuko, baina etxera goiz bueltatu behar (URN-025/020)**

Musika entzutera gustura joaten ziren. Oialumera joaten zirenean, baina, ez zuten disfrutatzen, goiz bueltatu behar izaten baitzuten etxera. Xoxokan gustura ibiltzen zen Maria. Soinu-jotzailea Eusebio Orkaiz zen, auzokoa: bere kabuz ikasi zuen hark soinua jotzen, plazan ere jotzen zuen...

#### **455. Dirua irabazten hasi arteko bizimodua (URN-025/021)**

Soinu-jotzaileari ez zioten ordaintzen gehiago gera zedin, ez baitzeukaten hartarako dirurik. Axunek lanean hasi zenean izan zuen diru apur bat ordu estrak sartuta. Zarauzko Euromarren lan egiten zuenean 250 pezetako jornala izaten zuen. Lehen harategian 30 pezeta ordaintzen zuen Mariak.

#### **456. Etxeko janaria eta prezioak (URN-025/022)**

Haragia erosten zutenean, eltzerako izaten zen, denentzako moduan egon zedin. Arraina ere jaten zuten etxean: lehen zer prezio zuen azaltzen dute. Lehen haragia arraina baino merkeagoa zen. Kanean bizi zirela ere txerriak hazten zituzten.

#### **457. Donostiara saltzera joateko ohiturak: trenak, txerri-jana, zergak.. (URN-025/023)**

Donostiara baserriko esnea eta barazkiak eramatera joaten zirenean, erostunek txerri-jana ematen zieten etxera ekartzeko. Etxez etxe ibiltzen ziren esnea banatzen. Donostiara trenez joaten ziren eta trenak itxaron egiten zuen ohiko bidaiariak sartzen ziren arte. Saskiak eta marmitak eramateagatik zerbait ordaindu behar izaten zuten. "Guardavinoei" ere zerga bat ordaindu behar izaten zitzairen.

#### **458. Estraperloagatik batzuetan isuna bai eta besteetan ez (URN-025/024)**

Patata asko izaten zuten baserrian, eta Donostiara saltzera zihoan batean, Mariari erori egin zitzaizkion; hura estraperloa izan arren, eta poliziak inguruan izan arren, ez zioten isunik jarri. Auzoko bati, ordea, bai jarri zioten isuna. Donostiatik marmitatan ogia ekartzen zuten etxera estraperloan; olioak ere ekartzen zuten hala.

#### **459. Gose garaian kafea, tabakoa eta olioak etxean (URN-025/025)**

Olioak estraperloan lortzen zuten. Ez dute inoiz olio faltarik izan eta kafea ere soberan izan dute. Tabakoa errazionamenduan ekartzen zuten, anaia erretzaile amorratua baitzen. Behin Axuni dirua ostu zioten; emakume batek dirua nola gordetzen zuen aipatzen dute.

#### **460. Etxeko ekonomiako oinarriak eta ohiturak (URN-025/026)**

Emakume batek Donostian egiten zituen erosketak aipatzen dituzte. Lehen salmentako neurriak zein ziren azaltzen dute. Etxeko ekonomia eguneko jornamean oinarritzen zen. Ganaduarentzako pentsua sindikatuan erosten zuten.

#### **461. Umea jaio dela? Hobe bataioa dela esan (URN-025/030)**

Haurdun zeudela ez ziren medikuengana joaten. Haurdunaldia isilik pasatzen zen, inori ezer esan gabe. Umea jaio zela esateak lotsa ematen zuen, eta horregatik, bataioa zela esaten zen. Axun jaio zenean izandako nondik norakoak kontatzen dituzte. Lehen zesarearik ez zen izaten.

#### **462. Sendabelarrak erabiltzeko ohitura eta jakinduria (URN-025/031)**

Lehen ez zen ia botikarik izaten, sendabelarrekin eta etxeko maindireekin moldatzen ziren. Sendabelarrak nola prestatu izan dituzten azaltzen dute.

#### **463. Berbena-belarra prestatzen (URN-025/033)**

Berbena-belarra sendagai moduan erabiltzeko nola prestatzen duten azaltzen dute. Berbena-belarraren onurak eta kontraindikazioak.

#### **464. Berbena-belarra non jarri (URN-025/035)**

Berbena-belarra non jarri behar den azaltzen dute.

#### **465. Noiz hartu pasmo-belarrak? (URN-025/041)**

Pasmo-belarrak, ilberrian edo ilbeheran hartuta, ondorio desberdinak eragiten ditu.

#### **466. Malmaren erabilerak (URN-025/042)**

Malma lehen asko erabiltzen zen aiuta egiteko. Malma nola erabiltzen zen azaltzen dute.

#### **467. Pareta-belarrak eta kaka-belarrak (URN-025/044)**

Pareta-belarrak onak izan ohi dira gibelerako. Kaka-belarrak biltzeko Nafarroaraino joan behar izaten da; belar horri esker, onura handiak ekarri izan dituzte.

#### **468. Hainbat belar erakusten (URN-025/047)**

Pasmo-belarrak erakusten dituzte: nola erabiltzen diren, zertarako diren onak... Intxusa-belarrak erakusten dituzte eta zer onura ekartzen dituen. Pulmonia-belarrak erakusten dituzte. Belarrak nola lehortzen dituzten azaltzen dute.

#### **469. Beraiek egindako ukenduak (URN-025/048)**

Bost belar klaserekin egindako ukendua nola prestatzen den azaltzen dute. Intxusarekin egindako ukendua erakusten dute. Belarrek denbora pasata ere ez omen dute propietaterik galtzen.

#### **470. Garotatik etorri eta dolarera lanera (URN-026/003)**

Gurutzeta baserria oso zaharra zen baina orain berri-berria dago. Dolarea ere bazuen. Bera ere makina bat lan egindakoa da sagardogintzan. Inoiz basotik etorri inastorreakin (garioa eta orbela) eta dolarera zuzenean lanera. Beste modu batera bizi omen da orain jendea.

#### **471. Esnea saltzera Donostiara (URN-026/004)**

Anai-arrebatatik txikiena izan arren, asto-lan asko egitea egokitu zaio Kontxitari. Esnea astoaz eramaten zuten errepideraino, han marmitak autobusera igo eta Donostiara joan ohi ziren saltzera.

#### **472. Lurra lantzen kirrimarroa, goldea eta area erabiliz (URN-026/007)**

Laian ez du sekula egin, eta ikusi ere ez egiten. Kirrimarroa pasatzen zitzaion lehendabizi lurrari belarrak-eta kentzeko. Gero goldatu. Malkarretan zotalei eutsi egin behar izaten zieten behera ez erortzeko. Gero, harria pasatu eta zokorrak jo. Arto eta baba asko hartzen zuten.

#### **473. Ahizpa Donostiara neskame hamabi urterekin (URN-026/008)**

Ahizpa zaharrena etxean aritzen zen lanean gehienbat eta bigarrena, berriz, neskame joan zen Donostiara oso gazte. Hango etxeoandreak 12 ume izan zituen. Oso elizkoiak omen ziren.

#### **474. Oinetako eta jantzi eskasak (URN-026/010)**

Abarka zahar batzuekin ibiltzen ziren hotz handia egin arren. Perkalezko soinekoa eta jertse txar batekin joaten omen ziren mendira. Galtzarik ez zuen inork jantzen. Berak operatu zenean jantzi zituen aurrenekoz, 43 urterekin, eta lotsa galantaz gainera.

#### **475. Komunioa egitera dotore jantzita (URN-026/011)**

Izebak egindako soineko luze zuriarekin egin zuen komunioa. Mantilla, zapatak eta galtzerdiak utzitakoak edo oparitutakoak ziren.

#### **476. Organdizko soinekoa zeramanaren inbidiatan (URN-026/013)**

Denak antzera jantzita egin zuten komunioa, batek izan ezik: "Organdí" tela klaseaz egindakoa omen zeraman. Denak hari begira inbidiatan.

#### **477. Doña Francisca, kaskarrekoak ematen eskola erakusten baino hobea (URN-026/015)**

Dotrina sakristian ikasten zuten. Euskaraz. Eskolan, berriz, dena erdaraz. Doña Francisca maistra eskola ematen baino kaskarrekoak ematen hobea zen. Gero beste bat izan zuten ona, moja joan zena. Baina gutxi joaten ziren eta ezin asko ikasi.

#### **478. Maizterrak ziren gehienak bezala (URN-026/016)**

Eskolara gutxi joan zen, etxean lan asko zegoelako. Bi anai gerrara joanak eta lursail handiak lantzeko. Maizterrak ziren, Urnietako gehienak bezala. Gerora, 26 mila durotan erosi zuten baserria.

#### **479. Anaia istripuz hil fabrikan (URN-026/018)**

Anaia zenaren historia. Oso langilea zen. Eta mutil berezia: sendabelarrak erabiltzen zituen, eta dotore jantzen zen; oso gutxik zuten gabardina garai hartan, eta bera zen horietako bat. Goizuetarako joera handia zuen. Hango jaien bezperan gertatu zitzaion istripua.

#### **480. Kaniketan eta kurkuluxetan (URN-026/020)**

Kaniketan asko ibiltzen ziren errekreoan. Lagun batek kanika berriak ekarri ohi zituen eta berak hari erasotzen zion gustura. Kurkuluxetan (tortoloretan) ere aritzen ziren.

#### **481. Tomatada egiten (URN-026/022)**

Soroan eta baratzean lan asko egina da. Artoa eta baba, porrua eta tomatea... Tomate asko hartzen zuten. Ikaragarri kontsumitzen zen sagardotegian. Tomatada nola egiten zen kontatzen du.

#### **482. Txorizoa, urdaiazpikoa, arrautza eta bakailaoa, sagardotegiko jakiak (URN-026/026)**

Antzina ez zen hainbeste txuleta jaten sagardotegian. Txorizoa, urdaiazpikoa eta arrautza, berriz, ugari. Bakailao-tortilla ere bai. Aste barruan ere jende asko ibiltzen zen.

#### **483. Tolosako azokara sagardotegirako jenero bila (URN-026/027)**

Tolosako feriara joaten ziren larunbatetan trenean. Han erosten ziren arrautzak, arkumeak eta abar. Behin, erositako arkumea berak hil eta larrutu behar izan zuen.

#### **484. Hernani eta Urnietako jendez betetzen zen sagardotegia (URN-026/029)**

Jende asko behar zen lanerako sagardotegian. Familiakoak ibiltzen ziren gehienak. Ostegun eta Ostiral Santu Egunak izaten ziren jendetsuenak. Hernanitik eta Urnietatik, bietatik etortzen zen jendea.

#### **485. Txintxo-txintxo nobio denboran (URN-026/032)**

Konfesatzera joan behar zuten, txintxo ibiltzen ziren ezkongai garaian. Orduan ere izaten ziren haurdun geratuta ezkondu beharrekoak. Ez du jator ibiliaren penarik.

#### **486. Erromeriara joateko garaian sagardotegian lanean (URN-026/033)**

Portuan ibiltzen ziren igandetan baltsean negu partean. Udan Oilalumen zen erromeria-lekua, baina sagardotegia dela eta ez zuten hara joateko astirik izaten. Aita ostegunero joaten zen Hernaniko feriara baina beraiek ezin askotan erromeriara joan.

#### **487. Ereñozuko jaietatik itzulera penagarria oinez (URN-026/034)**

Ereñozura mendiz joan ziren festetara behin, bueltan autobusez etortzeko asmoz, baina autobusa beteta zegoenez, oinez itzuli ziren. Berandu, ilunduta. Etxera heldu eta gurasoek, errieta emateaz gain, esnetara bidali zuten beste baserri batera. Hurrengo goizean seietan jaiki behar belarretara joateko.

#### **488. Ura, oso gauza inportantea (URN-026/040)**

Neska koskorra zela ipini zuten etxean ura. Baina lehortea zenean ez zen ia heltzen. Berari ez zaio asko suertatu uretara joan beharra. Ura gauza inportantea zen orduan.

#### **489. Gobara (URN-026/041)**

Gobara amak egin ohi zuen, eta hura gaixotzen zenean Kontxitak beldur ikaragarria zion langintza hari. Galtzak koipez beteta egoten ziren eta haiek garbitzea ez zen batere lan samurra.

#### **490. Arropa garbitu berria astintzen eta zabaltzen (URN-026/042)**

Lagarto jaboia erabiltzen zuten batik bat. Lejia ere bai arropa zuriarentzat. Arropa astintzeko teknika. Alanbrean zabaltzen zen gobara, ez belarretan.

#### **491. Berak euskaraz gaizki, ilobak oso ondo (URN-026/045)**

Ilobak oso ondo egiten du euskaraz, "benetako euskaraz". Berak ez, hitz erdiak erdaraz egiten baititu

#### **492. Hika seme-alabei, zuka ilobei (URN-026/046)**

Donostiako plazan egoten zenean justu samar ibiltzen erdararekin. Hika beti anai-arrebekin eta seme-alabekin. Ilobei zuka. Lagun artean bietara. Berorika apaizari eta medikuari.

#### **493. Lurrazpitik uraren hodiak ateratzen (URN-027/003)**

Hamabi urtetik aurrera, peoi lanetan aritu zen; urarentzat zangak egiten edo egurra botatzen, esaterako. Azkonietako basotik hodiak lurrazpitik ateratzen aritu zen. Urnietako herrira ura ekartzen zuten hodiak ziren.

#### **494. Peoi laneko soldata (URN-027/004)**

Tomasek ogitartekoa eramaten zion Juan Bautistari, hodiak ateratzen ari zenean. Gero gripeak jo zituen etxeko denak. Metroko hemezortzi pezeta ordaintzen zieten. Soldata etxerako izaten zen.

#### **495. Azkonietako hariztia botatzen (URN-027/005)**

Andoainen beste hodi bat atera beharra izan zen baina ez zuen denbora asko egin han. Azkonietako basoa hariztia zen; zuhaitzak bota eta ateratzen lan egin zuen. Asko jaten zuen orduan. Zerrategian saioa egin eta gaueko eskolara joaten zen, baina ez omen zuen ezer ikasi.

#### **496. Altzibarko Claudiori zigarroak egiten (URN-027/006)**

Eguna lanean pasa eta gero, ez zuen garai hartan lan handirik egin behar izaten. Altzibarko Claudiori zigarroa egiten aritzen zen.

#### **497. Belarrak ebaki eta harrobira (URN-027/007)**

Udaberrian inguruko belarrak ebakitzen aritzen ziren goizean goiz. Non aritzen ziren kontatzen du. Gero, zortzietarako harrobira joaten zen lanera.

#### **498. Orduko segak (URN-027/008)**

Segan egiteko ondo zorroztu behar izaten zen tresna. Apopiloak Australiatik ekarritako sega bat erabiltzen zuten. Apopiloari buruzkoak kontatzen dituzte. Orduko segak nolakoak ziren kontatzen dute.

#### **499. Sega estuak eta neurrira moldatutakoak (URN-027/009)**

Oraingo segak non egiten dituzten aipatzen dute. Sega estuak lehen ere izaten zirela diote, Goierrikoak. Sega-jartzaileengana joaten ziren neurrira jartzeko.

#### **500. Sega-jartzailearen lana (URN-027/010)**

Sega-jartzailearen ingudea batzuetan trenaren topea izaten zen. Mailua berezia izaten zuten, sega moldatzeko. Sega lisoa edo kurbatua izan, alde handia egiten zuten. Etxeetan sega pikatu besterik ez zen egiten. "Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu" esaeraren esanahia azaltzen dute.

#### **501. Sega pikatzea eta sega-motak (URN-027/011)**

Sega pikatzeko, ingudeak eta mailuak gorabehera handia eragiten zuten. Belarretarako eta inistorretarako (garotarako) sega desberdina izaten zen.

#### **502. Sega-apustuetako segak (URN-027/012)**

Segan apustua pisura izaten zen. Nolako segak izaten ziren azaltzen dute.

#### **503. Polipasoren sega-apustu handia (URN-027/014)**

Sega-apustu gogoangarriaren berri ematen dute. Migel Irazusta, Polipaso, oso kirolari ona zela diote. Nafarrak jokoan beroagoak izaten direla diote. "Jokoa ez da errenta" esaera aipatzen dute.

#### **504. Apustuak egitea, gazteen gozagarri (URN-027/016)**

Ehun kilotako zakua jasotzea ohikoa izaten zen orduan. Orduko gazteen jai hori izaten omen zen, apustuak egitea aizkoran, korrika eta halakoetan. Igande goizetan izaten ziren.

#### **505. Astoarekin bentarako ogi bila (URN-027/020)**

Benta denda eta taberna zen, biak batera. Berrogeita hamar litroko olio bidoia izaten zuten. Umetan, Andoaindik astoarekin bentarako ogia ekartzera joaten zen. Geroago, beheragoko baserrira zaldiarekin eta gurdiarekin ekartzen zieten ogia.

#### **506. Gerra osteko ogiak: beltza eta "morteroa" (URN-027/021)**

Gerra ostean, kartillarekin etortzen ziren ingurukoak ogia eroatera. Okinak ogi beltz borobilak eta "mortero" izeneko ogi eskasak saski batean ekartzen zituen bentara. Jolasean aritzen ziren umeak "mortero" ogi harekin, eta gero, jan egiten zuten. Orain lehen baino askoz txarrago jaten dela diote, dena den.

### **507. Etxeko astoak nolakoak ziren (URN-027/022)**

Errazionamendutik sobratutakoa, bentan geratzen zen. Ogi bila ilunpean pasatutako beldurrak kontatzen dituzte. Astoak oso langileak eta egoskorrak izaten zirela diote. Pasarte batzuk kontatzen dituzte.

### **508. Errepidearen inaugurazioa (URN-027/023)**

Bertako jendea ibiltzen zen bentan. Errepidearen inaugurazioa egin zutenean, berriz, jendetza izan zen. Ordukoa kontatzen dute.

### **509. 1962an errepidea eskuz egin zuten (URN-027/024)**

Auzorako errepidea 1962an egin zuten. Hernanin Otxotorena izeneko taxilari bat zegoen eta beharra zegoenean gurdibidean ere igotzen zen. Errepidea goldearekin, aitzurrekin, palekin, idiekin eta gurdiekin egin zuten, eskuz, auzolanean.

### **510. Errepidea egiteko "ahaldia" (URN-027/025)**

Errepidea egiten auzoko gizonezkoak aritu ziren. Ahaldia esaten zioten auzolanari. Jatordu ederra egiten zuten ardoarekin. Ogia, gazta eta txokolatea jaten zituzten sarri.

### **511. Bentako amona Mari Kruz (URN-027/026)**

Mari Kruz izeneko amona hil zenean, hiru urte zituen Tomasek. Bezero batek aitonaarekin apustua egin zuenekoak kontatzen dute. Amonaren gaztainerreak eta almendra zuriak ditu gogoan Juan Bautistak.

### **512. Txerrikiaren onena, apaiz, mediku eta albaitariarentzat (URN-027/028)**

Bentan sei-zazpi txerri hiltzen zituzten. Apaiza, medikua eta albaitaria etortzen zirenean, txerrikiaren onena haiek jaten omen zuten.

### **513. Ura etxera ekartzeko moduak (URN-027/029)**

Urik ez zeukaten etxean baina argia bai, nahiz eta oso eskasa izan. Astoz, eskuz edo makilan ekartzen zuten ura marmitetan, eta baldeetan uztai baten laguntzaz ere bai. Lehenagokoek buru gainean erabiltzen omen zuten zestoa. "Beharrak erakusten du" esaera azaltzeko pasarte bat kontatzen du Juan Bautistak.

### **514. Ingurukoekiko hizkera desberdina (URN-027/031)**

Soldadu joan zenean ikasi zuen Juan Bautistak gazteleraz. Hernanin eta Andoainen eta beste leku batzuetan ez dela berdin hitz egiten diote. Inistorra, garoa eta iratzea jartzen dituzte adibidetzat.

### **515. Hika edo zuka, txikitan ikasten denaren arabera (URN-027/032)**

Hika, zuka eta berorika nori egiten zieten kontatzen dute. Txikitan elkarrekin nola hitz egiten duten, horrek erabakitzen duela diote.

### **516. Lakaria eta lakari-erdia neurri-ontziak (URN-027/034)**

Lakaria eta lakari erdia neurri-ontziak erakusten ditu kamera aurrean. Garia, artoa, babarruna neurtzen ziren. Hiru kilo esaten omen da baina sartzen



denaren arabera pisatzen duela azaltzen du. Anega erdikoa eta gaitzerua ere ezagutu ditu.

### **517. Burnizko neurria, ontza eta libra (URN-027/035)**

Sagarrarentzat burnizko neurria zeukaten. Ontza ere erabiltzen zuten. Libra pisuak badituzte. Bi libra eta kiloa ez dela gauza bera azaltzen du. Pasarte bat kontatzen du.

### **518. Lekuona abizenak Irunen jatorria (URN-028/001)**

Izen-abizenak. Mediku batek esan zion Irungo jatorria duela Lekuona abizenak. Hilarioren gurasoak Oiartzungoak ziren. Semeari ere Hilario jarri zion izena. Orain Arkaitza, Pagoa... jartzen dira, dio umorez.

### **519. "Bigarren ezkontza da konpontza" (URN-028/004)**

"Bigarren ezkontza da konpontza" esan ohi da, eta egi osoa omen.

### **520. Ez du asko sufrituaren penarik (URN-028/006)**

Asko sufritu izan du Hilariok bizitzan, baina osasuntsua izan da eta beti aurrera atera da. Diruz justu ibili da, baina ez du horren damurik. Beti egingo omen du aurrera edozein lekutan. Lekuonatarrei soldadu Afrikara joatea egokitzen omen zitzairen. Oraingo "soldadu ez joan beharrak" harrapatu izan balu, hobe. Hogeita hamabi hilabete pasatu zituen soldadutzan.

### **521. Zortzi urterekin morroi (URN-028/008)**

Morroi joan zen zortzi urterekin Oiartzungo Altzibar auzoa eta Artikutza bitartean dagoen baserri batera. Artzain. Ama bigarren txandan Urnietara ezkondu izan ez balitz Oiartzuar osoa izango zen orain.

### **522. Artzain-lanetan mendian (URN-028/010)**

Hiru urte egin zituen morroi, zortzi urtetik 11 urtera arte. Ardien joerak eta Hilarioren morroi-lanak. Astoarekin joaten zen mendira. Beste etxe baten lo egin, ardiak jetzi eta hurrengo egunean itzultzen zen.

### **523. Eskolara gogoz kontra (URN-028/011)**

Aizateko eskolan ibili zen denbora labur batez. Oso gutxi joan da eskolara. Gogoz kontra joaten zen; zenbat eta gutxiago joan, orduan eta gogo gutxiago. Nahiago artajorran edo itaurrean eskolara baino. Urnietara etorrita, Xoxokako eskolara eta gau-eskolara joan zen noiz edo noiz.

### **524. Gaztetatik jubilatuta arte Magnesitas Navarras lantegian (URN-028/012)**

Magnesitas Navarras lantegian hasi zen hamasei urterekin eta erretiroa hartu arte jardun zuen han. Lantegian sartzeko ez zioten inolako azterketarik egin, ez medikurik eta ez bestelakorik.

### **525. Magnesitarekin zeharo aberastu jabea (URN-028/014)**

Magnesita harriarekin jardun zuten bere denbora guztian baina aurretik "dolomita" izeneko beste harri mota batez ibiltzen omen ziren. Oso harrobi ona aurkitu zuten Nafarroan eta zeharo aberastu zen jabea harekin.

### **526. Pasaiaiko portuan zamalanen begirale (URN-028/016)**

Hilariok Hernaniko lantegian egiten zuen. Harria txikitu, zakutan sartu eta banatu egiten zuten, Legazpiko Patricio Echeverria lantegira, esaterako. Atzerrira ere bidaltzen zuten materiala Pasaiaiko portutik. Zamalanen begirale gisa ere ibilia da portuan. Zamalanak nola egiten ziren.

### **527. Zubiriko lantegian lanean (URN-028/017)**

Zubiriko lantegian ibili zen denboraldi batez. Astea han pasatzen zuen. Lan asko egin behar izaten zuen baina ongi ordaintzen zioten.

### **528. Seme kamioilariari lagun egiten jubilatuta eta gero. (URN-028/019)**

Jubilatu berritan etxetik atera gabe egon zen luzaroan, nahiko abailduta. Gero hasi zen irteten eta bere egoeran zegoen batekin tratuan. Seme kamioilariari bidaletan laguntzen zion.

### **529. Maizorria bildu eta ontzen (URN-028/021)**

Oiartzunen morroi egon zenean, arto-lanak nolakoak ziren kontatzen du: "maizorria" kendu (soildu) eta abar. Galdorra eta tontorra ere kentzen zitzaizkion bere garaian. Maizorria, ongi ondutakoa bazen, oso ona zen ganaduentzat. Urnietan ez dago ohiturarik maizorria egiteko; baba artoarekin nahasi hartzen denez, ez zaio historik kentzen. Artzain-etxetan denetik hartu behar omen da.

### **530. Gerra Oiartzunen (URN-028/023)**

Oso txikia zen, baina fresko du gerra denborako oroitzapena. Hegazkin bat ibili zen paperak botatzen, eta ume guztiak korrika haiek hartzera. Oiartzuar askok egin zuen alde; Artikutza aldera, dio Hilariok. Bi edo hiru eguneko kontua izan omen zen gerra Oiartzunen.

### **531. Fusilatutak Oiartzunen (URN-028/025)**

Berak entzunda duenez, Karrika auzoko paraje batera ekartzen zituzten atxilotutak fusilatuzera. Olaztitik gora (Urbasan) dagoen amildegitik behera botatzen zituztela ere entzuna du.

### **532. Gauza ona kendu eta txarra eman gerra ostean (URN-028/027)**

Gerra ostean "etxean zenuen gauza ona kendu eta txarra ematen zizuten". Esaterako, etxera etorri eta hurrengo egunean txahala hiltegira eramateko agintzen zuten. Gernika aldean gertatu zena oraindik eta okerragoa izango omen zen.

### **533. Zazpi urterekin ardiak jeizten (URN-028/028)**

Zazpi urterekin, asto txikia hartuta, ardiak jeizten jarduten zuen Oiartzungo baserrian. Hango aitonak laguntzen zion. Ilunabarrean goiko baserrira igo, ardiak jetzi, lo egin, goizean berriz jetzi eta behera etortzen zen.

### **534. Morroi ibili zeneko oroitzapenak (URN-028/029)**

Emakume batek egiten zuen gazta. Erdal jatorrikoa omen zen baina euskaraz ondo zekiena. Maindire zuria etxe aurrean ipintzea zen seinalea ardiak

etxeratzeko. Oartzabal Erdikoan egon zen morroi. Etxekoandrea oso ona omen zen

### **535. Ote xehetua, ganadu-jaki ona (URN-028/030)**

Ote jotzen aritzen ziren baserrian. Ote txikitua arbiarekin nahastuta oso ona omen da ganaduaarentzat. Edozein otek ez du balio. Bi klase dira eta gogorrenak, zuriak, balio du, beltzak, berriz, ez.

### **536. Otea mozten eta garraiatzen (URN-028/031)**

Otea nola mozten, biltzen eta garraiatzen zen.

### **537. Otea jotzen (1) (URN-028/032)**

Trabesa izeneko mazoaz jotzen zen otea. Nola jotzen den azaltzen du. Sekulako koipea botatzen omen du. Bi trabesa batera erabiliz jotzen da otea. Oraindik gogoan du baserriko senar-emazteen izena.

### **538. Otea jotzen (2) (URN-028/034)**

Kolpea txandaturaz jotzen da otea. Bi trabesarekin hobeto jotzen da batekin baino.

### **539. Asun-zapindua erreumaren kontra (URN-028/036)**

Nagusia erreumarekin egoten zen beti. Hilariok asunak hartu eta astindu egiten zuen, nagusiaren aginduz.

### **540. Ardiari erditzen laguntzen (URN-028/037)**

Ardiari erditzen laguntzen ikasi zuen. Arkumeari, jaiotakoan, mingaina garbitzen zaio.

### **541. Behi mozkorra (URN-028/038)**

Dolarea zuen baserriak. Sagarra jo eta dolarean ahal zuten dena estututakoan, azken pasada behi baten laguntzaz egiten zuten. Pertikari lotu eta hark ematen zizkion azken estutuak. Behin, ontzitik sagardo edanaldia egin zuen behiak eta mozkor galanta harrapatu zuen.

### **542. Ardi jezten (URN-028/040)**

Ardia jeztea oso lan polita omen da. Orain oso erraza eta garbia da makinarekin. Ardi asko bere kasa etortzen dira jeztera.

### **543. Ukenduak eta garatxoek kontrako erremedioak (URN-028/042)**

Errape-minarentzat ukendu onak erabiltzen ziren lehen. Pertsonentzat ere baziren ukenduak. Emakume ukendugile bati buruzko komentarioak. Garatxoek kontrako erremedioa, zapoa bizirik aurkitu eta poto batean lurpean sartzea. Zapoa desegiten zenean garatxoak joan egiten omen ziren. Berari garatxoak nola kendu zizkioten.

### **544. Soinujole gaztetan (URN-028/045)**

Soinua jotzen zuen Hilariok gaztetan. Hernion izan zen soinua jotzen hiru urtean jarraian. Goizuetan ere ibilia da inauterietan oilasko biltzen. Oso ibilera nekagarria, baserriak sakabanatuta daudelako.

#### **545. Xoxokako erromeria (URN-028/047)**

Ilusio handiko erromeriak izaten ziren ordukoak. Xoxokan 10-12 lagun biltzen ziren bakarrik, baina hala ere sekulako giroa izaten zuten. Festetan soinu-jole onak ekartzen zituzten. Zenbaiten izenak. Xoxokakoak ez zuen asko iraun. I

#### **546. Soinua jotzen (URN-028/049)**

Aldameneko baserrian bizi zen soinu-jole bat, eta harengana joaten zen ilunabarrero ikastera. Belarrik ikasten zuen, noski. Soldadutzara joatean utzi zuen soinua. Ez da oroitzen nola eskuratu zuen, epeka erosita, beharbada. Bigarren eskukoa zen, baina botoiak aldatu zizkion eta oso polita geratu zen. "Andre Madalen eta horrelako pieza errazak jotzen zituen.

#### **547. Herniora soinuarekin (URN-028/050)**

Hernioko egunean kamioian joaten ziren Andazarrateraino eta handik gora oinez. "Gustoko tokin aldapik ez" . Panderojolerik ez zuen erabiltzen. Gabon-eskean ere ibiltzen ziren Urnietan.

#### **548. Jaiegunetan Oialumera edo Hernanira (URN-028/051)**

Oso herri txikia zen orduan Urnieta eta ez zen izaten bilerarik. Jendea kanpora joaten zen festara, Oialumeko erromeriara gehienak, eta Hernanira gutxi batzuk. Baserritarrak Oialumera. Apaizak ez zuen Urnietan dantza loturik uzten.

#### **549. Leitzara mendiz (URN-028/053)**

Mendizalea da Hilario. Leitzara sarri joan izan da mendiz. Azkenengo aldian bi seme eta bi suhirekin joan zen. Ibilaldia nola egin zuten kontatzen du.

#### **550. Euskara, nere hizkuntza (URN-028/057)**

Bere hizkuntza, berak maite duen hizkuntza da euskara. Orain asko indartzen ari da eta horrek izugarritzko poza ematen dio. Oraingo euskara hau oso garbia bilatzen du. Euskarazko egunkari eta aldizkariak irakurtzen ditu.

#### **551. Etorrin erdaldunekin borrokan (URN-028/059)**

Erdaldun asko dago Urnietan orain. Badira euskaraz ikasi duten erdaldunak. Trenbidea konpontzera etorri zirenean sartu ziren erdaldunak Urnietara. Istiluak izaten zituzten garai batean erdaldunekin, harrika-eta egiten zuten neska kontuengatik.

#### **552. Berorika sekula ere ez: "behorrak mendian ibiltzen dira" (URN-028/061)**

Sekula ez du berorika egin. Oiartzungo apaiz batek zera esan zion behin: "behorrak mendian ibiltzen dira". Lagun artean hika, baina familiakoei zuka. Familian zuka zergatik nagusitu zen. Neskei beti zuka egin izan die.

#### **553. Oiartzun eta Goizuetako euskarek antza (URN-028/062)**

Ondo konpontzen da Goizuetako eta Aranoko euskararekin. Iratzearen hiru izenak: iratzea, iñostorra eta garoa.

#### **554. Garotara oso urrun (URN-028/064)**

Inostorra (garoa) ekartzera oso urrun joaten zen orduan. Ferrakgaltzen zituzten askotan abereek. Ferratzaileari ordaintzeko dirurik ez eta hala ere inostorretara joan behar "kasakristora". Buru gutxiko baserritar asko omen zegoen lehen.

#### **555. Familia Albizturretik Urnietara (URN-029/001)**

Gurasoak Albizturkoak ditu. Ezkondu eta maizter jarri ziren Albizturren, eta gero nagusiak behar zuela etxea eta bidali egin zituen. Urnietara etorri, etxea erosi eta familia aurrera atera zuten. Sei anai-arreba izan dira, bi Albizturren jaiok eta besteak, Bixente tartean, Urnietan.

#### **556. "Emakume bat gutxiegi eta bi gehiegi baserrirako" (URN-029/003)**

Amona baztertu samartuta omen zegoen etxean. Esaerak dioen bezala, "emakume bat gutxiegi eta bi gehiegi baserrirako". Ama oso etxeoandrea omen zen.

#### **557. Aita kontuak buruz ateratzen bikaina (URN-029/004)**

Amona bertsotan ere aritzen zen. Hari ikasi zizkion Bixentek hainbat bertso eta kantu. Ez amonak eta ez aitak ez zuten eskolarik. Baina aita oso ona zen kontuak buruz ateratzen.

#### **558. Lakaria eta gaitzerua, neurri-ontziak (URN-029/006)**

Pisu formalik ez zen etxean, eta lakaria erabiltzen zuten neurgailu gisa babarrunentzako eta. Bazen neurtzeko beste ontzi bat, gaitzerua, baina ez du haren berririk. Etxean horrelako gauza gutxi zuten, kanpotik etorri baitziren eta etxea hutsa aurkitu baitzuten. Sagar-neurgailua ere bazen: "hektolitua" (sic). Txapazko ontzi handi bat zen.

#### **559. Sagardoa egiten (URN-029/007)**

Sagardoa egiten zuten, baina kanpoan, Argindegi baserrian normalean, etxean ez zuten dolarerik eta. Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du: makinan txikitu, estutu... Lexiko interesgarria: "patsa", "ubik" (?), patsola, "ukatxua", "balenka" (palanka), "txabeta"... Lau edo bost egunez jarduten zuten sagardogintzan.

#### **560. Jende asko sagardotegietan (URN-029/009)**

Orduan txotxean saltzen zen sagardoa. Baso bakoitza sos bat (5 zentimo). Sagardotegietan jende asko ibiltzen zen. Sagardo edale handi bati buruzkoak.

#### **561. Hernaniko upel famatua, hasi orduko bukatu (URN-029/011)**

Zenbait baserrik upela egin eta saltzen jartzen zuen. Egurrezko kanila izaten zuen upelak eta handik betetzen zen basoa. Hernanin omen dago marka jarria: larunbatean upela hasi eta astelehen gauerako bukatu.

### **562. Laborantza tresnak (URN-029/014)**

Orain lan erraza da baserrikoa, dena makinekin egiten baita. Lehengo tresnak: Kirrimarroa lurra harrotzeko, goldea iraultzeko eta lastra zokorrak txikitzeko. Kirrimarroa nolakoa den. Behiak tiratuta erabiltzen zen etxean.

### **563. Goldea eta harria (URN-029/015)**

Golde mota bakarra zen bere denboran. Lehenago ba omen zen beste bat alde batera bakarrik lan egiten zuena. Harria lurra txikitzeko erabiltzen zen. Gero lastra sortu zen eta hark hobeto txikitzen zuen.

### **564. Hesia, alperra eta zokor-mazoa (URN-029/016)**

Aita-zenak berak egin zuen hesia hurriz-makilekin. Zokorrak apurtzeko erabiltzen zen. Geratzen zirenak mazoaz desegiten ziren. Gustura jarduten zuten zokor-mazoaz. Ura igotzeko sistema bitxi baten berri ematen du tartean. Laiaz artoa nola aletzen zuten kontatzen du Bixentek.

### **565. Lursail gutxiko baserria (URN-029/018)**

Artoa hartzen zuten, eta babarruna ere asko, lur ona baitzen horretarako. Hala ere, lursail gutxi zuen baserriak eta beste baserri batzuetako belazeak erabiltzen zituzten. Bi sagasti, bi soro eta bi belaze zituen baserriak.

### **566. Artoa eta babarruna ereiten (URN-029/019)**

Santa Kurutzetarako (maiatzak 3) ereiten ziren artoa eta babarruna. Babarrunarentzat ilbehera omen da onena. Lurrak giro onean egon behar du. Lurra lehor zenean, artalea beratzen eduki eta erein ohi zuten, emaitza onarekin. Erein eta zortzi bat egunera ermetzen omen dira biak.

### **567. Artoa jorratzen (URN-029/020)**

Markak eginda ereiten zen artoa, gero astoak tiratutako besarea ilara artetik pasatu ahal izateko. Jorraketa aitzurrez amaitzen zen. Bera mutikoa zela, "trabesa" izeneko arotz-erreminta batez bidaltzen zuen aitak artajorrara.

### **568. Gerra ostean garia erein eta etxean eho (URN-029/021)**

Gerra ostean, gosetea zela eta, garia erein izan zuten. Esku-errota txiki batez ehotzen zuten, ogia egin ahal izateko. Errazionamenduko ogiak ormigoiz egindakoa omen zirudien. Txerria hiltzea ere debekatuta zegoen. Olorik ere ez zen. Bera mutikoa zen gerra hasi zenean.

### **569. Gerra hasieran, baserria bonbardatu (URN-029/022)**

Etxetik irteteko abisua jaso zuten gerra heldu zenean, bonbardatu egin behar zutela eta. Basoan ezkutatu ziren eta handik ikusi zuten baserria Oriamenditik eta Santa Barbaratik kanoiz bonbardatzen. Ez daki ondo zein bandotakoak ziren batzuk eta besteak, baina beren etxe ondoko frontean zeudenak erreketek zirela badaki. Etxeko oilo eta oilasko guztiak jan zizkieten.

### **570. Baserria guztiz txikituta kanoikadekin (URN-029/024)**

Bixenteren baserria txikituta geratu zen kanoikadekin. Berriz eraiki zuten gurasoek. Bitartean, Gurutzeaga eta Zugatzeta baserrietan egon ziren. Baserri bateko alaba bat hil eta beste batek begia galdu zuen. Soldadu bat ere hil zen euren etxe ondoan. Astoak ere azken berdina izan zuen.

### **571. Etxetik alde egin bonben beldurrez (URN-029/025)**

Abarketak gerrian lotuta irten zen Bixente mutikoa etxetik. Etxetik irten eta laster hasi zen bonbardaketa. Argindegiko mutilak eman zien abisua. Gero gerran hil omen zen.

### **572. Espioia zelakoan, mutila hil (URN-029/026)**

Eulako mutila soldadu zegoen eta etxera bisitan joatea pentsatu zuen. Beste bandokoekin bidean topo egin, eta fusilatu egin zuten espioia zelakoan.

### **573. Maistrari ilea moztu (URN-029/027)**

Urnietako maistra Aretxabaletakoa zen. Ilea moztuta agertu zen gerra ostean eskolan, kartzelan egon eta gero. Horrelako kasu asko izan zen.

### **574. Urarekin arrautzak frijitzen (URN-029/029)**

Gerra ondorena oso gogorra izan zen. Gosea. Olorik ez arrautzak frijitzeko. Urarekin aproba egin zuen amonak. Goiz-garia ereiten zuten eta haren ondoan artoa: horrela bi uzta hartzen zituzten.

### **575. Alegiara eta Goizuetara artoa ehotzera (URN-029/030)**

Errotak itxita zeuden eta ezin artorik eho. Ama Alegiara joan zen behin ehotzera eta itzultzerakoan trenean karabineroek kendu egin zioten irina. Goizuetara ere joaten ziren batzuk astoarekin. Astoak sen izugarria du: behin pasatako bidea gogoan izaten du.

### **576. Amak beste familia bateko bi ume bizkiri bularra eman (URN-029/031)**

Amari umea hil zitzaion jaiokeran, eta orduan bularra ezinbestean eman behar zenez, esnerik ez zuen ama baten bi mutil bizki ekarri zituzten baserrira bularra emateko. Mutil galantak hazi omen ziren.

### **577. Ergobira astoarekin joan zeneko estutasunak (URN-029/033)**

Bixente, zazpi urte zituela, astoarekin joan zen Ergobira babarruna eramatera. Hartu behar zuenak seinalea egin zion eskuarekin, baina karabineroa zela pentsatuta ihesari eman zion Bixentek.

### **578. Donostian esnea saltzen (URN-029/035)**

Etxeko abereak: txerriak, behiak, astoa... Donostiara joaten ziren esnea saltzera. Ama bezeroak konplitu ezinik ibiltzen zen, eta ez zuen bakerik izaten beste behi bat erosi arte. Bixente ere joaten zen esnea saltzera igandetan. Gogoan ditu esne-bezero batzuen izenak. Trenean ibiltzen ziren.

### **579. Urnietatik Donostiara saltzaile pila (URN-029/036)**

Saltzaile eta salkin asko joaten zen Urnietatik Donostiara trenez. Donostiako geltokitik esku-gurdiz edo ahal zen bezala garraiatzen zen jeneroa. Bera lau marmitarekin joaten zen. Txantxilarekin (litro erdiko ontzia) egiten zen banaketa.

### **580. Esne txarra eramanez gero, isuna (URN-029/037)**

Kimikoak analizatzen zuen esnea, eta ez bazen bere gradutara heltzen, isuna botatzen zien. Kimiko bat omen zen baserritarren areriorik handiena. Urnietako esne saltzaile batekin ezkondu zen.

### **581. Neskek mutillei korrika irabazi (URN-029/039)**

Korrika egitea-eta horrelakoak ziren euren umetako jolasak. Baziren oso neska bizkorrak. Bi neskak bi mutilen aurka egin zuten korrika-saioa Urnietan, eta neskek irabazi.

### **582. Kaniketan neska bati kanika guztiak irabazi (URN-029/040)**

Kaniketan ere egiten zuten. Berak eskua luzea zuen, eta gogoan du nola irabazi zizkion kanika guztiak neska adiskide bati.

### **583. Pilotan jo ta ke gurasoen ezkutuan (URN-029/041)**

Pilotan jokatzeari asko gustatzen zitzaion. Gaixotu egin zen pleurarekin eta medikuak debekatu egin zion jokatzeari. Hala ere ez zion kasurik egin eta saio ederrak egiten zituen. Arrebak laguntzen zion gurasoak ez konturatzen.

### **584. Harizko pilotak egiten (URN-029/042)**

Berak egiten zituen pilotak. Kizkia topatzen bazuen kizkiaz eta bestela kortxoaz. Hariarekin bildu, josi eta listo. Harizko pilotak ziren. Larrua ipintzea konplikatua zen.

### **585. Sugeak habiako txorikumeak jan (URN-029/043)**

Habia bila ere ibiltzen zen. Behin, zozokumeak hartzera joan zen batean, txapela bota zuen habiara eta sugea azaldu zitzaion. Aurrea hartu zion, ordurako janda zituen ia txorikume guztiak. Ikusita dago sugea zapoa irensten.

### **586. Begiko neskak eskutik kosk (URN-029/045)**

Bazuen begiko neska bat eskola-garaian. Behin, eskurtsio batetik bueltan, etxera lagundu zion. Bidean eskutik heltzen hasi eta kosk egin zion atzamarrean. Orduan amaitu omen ziren adiskidetasunak.

### **587. Oialumeko erromeriara neskatarra (URN-029/046)**

Oialumera joaten ziren erromeriara. Han egiten zuten neskatan. Leku askotako jendea biltzen zen. Amarako ltxua izan ohi zen soinujolea.

### **588. "Campeón de España" boletan (URN-029/050)**

Zubietako txapelketa ere bereganatu zuen. Hiru bolatokitan jokatu ziren "Campeonato de España"ko saioak: Ategorrietan, Legazpin eta A&ntilde;rgan. Txapeldun geratu zen.



### **589. Bola-joko arauak (URN-029/051)**

Bola-jokoaren arauak azaltzen ditu. Bederatzi "brilla" (txirlo) izaten dira bota beharrekoak. "Txaparro"k "nulo" esan nahi du. Erdiko brilla txikiari "amona" esaten zaio.

### **590. Trabesa boletan (URN-029/052)**

Apustuak edo trabesak nola ziren azaltzen du. "Bost par sei baietz" eta horrelako esaldiak zer esan nahi duten.

### **591. Matxain, artista tokan (URN-029/053)**

Matxain bikaina zen toka jokoan. Behin apustua egin zuen: tokaren aurrean hesia ipinita, jo beharreko burdina ikusten ez zuela, baietz jo. Bideratzaile baten laguntzaz, danba-danba jotzen zuen.

### **592. Mutikotan egin zuen bolatokia (URN-029/055)**

Oraindik harritu egiten da mutikoa zelarik egin zuen bolatokiarekin oroituta. Brilak pinuzkoak izango zirela dio, torneatu gabekoak, noski. Anai zaharrenaren aurka jokatu ohi zuen.

### **593. Argindegin brilak ipintzen (URN-029/056)**

Argindegia auzoko bolatokian brilak jartzen ibiltzen zen mutikotan; gustura asko gainera, diru apur bat ematen baitzioten. Txapelketa bat egin zuten bolatoki horretan, baina bera artean txikiegia zen brilak jartzeko. Urnieta aldeko bolatoki batzuk izendatzen ditu, zenbait bolarirekin batera.

### **594. Ilobak aitonari laguntzeko sena (URN-029/058)**

Iloba txikiarekin oso ondo konpontzen da. Aitona zaintzeko sena omen du. Neskabila atzeratu batek bere aitonarekin izandako jarrera lagunkoia deskribatzen du.

### **595. Hamasei urte arte gutxitan kalera (URN-029/065)**

Jai arratsaldetan bezperetara jaisten ziren. Hura ona izaten zen, gero jolaserako aukera zegoelako. Baina bera oso gutxi jaitsi omen zen hamasei urte arte herrira. Bere etxean, Latxen, biltzen ziren ingurukoak eta han jostatzen ziren.

### **596. Familia eta jolas-giro zoragarria bere baserrian (URN-029/067)**

Elkartasun giro alaia omen zegoen bere etxe inguruan txikitan. Ume denak beren etxera etortzen ziren jolasera. Umetako jolas-lagun baten hitzak garai hartako giroaz. Aitak igande arratsaldero egiten zuen etxe inguruko itzulua.

### **597. Euskara batuak euskara nahastu (URN-029/070)**

Euskara batuak asko nahastu du euskara. Xabier Euzkitzeri kritika "hamazortzi" esaten duelako. Inoiz ilobak zuzentzen dio, eta isildu egin behar.

### **598. Astigarragako euskara eta Urnietakoa oso ezberdinak (URN-029/071)**

Astigarraga eta Urnietako euskarak oso desberdinak omen dira. Oso makal hitz egiten dute Astigarragan. Oiartzun aldekoa ere desberdina. Hizketari

erreparatuta hartzen dio tankera jendeari nongoa den. Tolosa aldekoa ere ezberdina omen, Goierriko ukitua dauka. Villabonako euskara garbiagoa iruditzen zaio Tolosakoa baino.

#### **599. Hika, zuka eta berorika, bakoitza bere lekuan (URN-029/072)**

Berak hika egiten du ahal duen guztietan. Lagun batekin gertatutako kasua: zuka egiten hasi zaio oraintsu eta Bixenteri ez zaio batere gustatzen. Zukak errespetua adierazten du. Ikusi izan du semea aitari hika egiten, baina lotsagarri samarra iruditzen zaio. Gurasoei berorika egiten zitzairen. Berak ez zuen horrekin jarraitu seme-alabekin, baina arreba batek bai. Apaizari ere berorika.

#### **600. Etxez etxe ardi-mozten (URN-030/003)**

Aita ardiei ilea moztera joaten zen etxerik etxe. Debalde egiten zen lana omen zen.

#### **601. Aitak taloak eskuz (URN-030/004)**

Aitak taloak eskuz egiten zituen, garai batean egiten omen zen bezala.

#### **602. Ama gaixoei eta erditzeetan laguntzen (URN-030/005)**

Amak gaixo askori laguntzen zien. Erditzeetan ere ibiltzen zen. Meliton izeneko medikua zegoen herrian, baina urrutira ez omen zuen joan nahi izaten askotan.

#### **603. Bataiatu gabekoentzat hilerrian leku berezia (URN-030/007)**

Umea berehala bataiatu behar izaten zen. Hilerrian bataiatu gabeentzako leku berezia egoten zen.

#### **604. Atsolorra hitzaren esanahia (URN-030/008)**

Atsolorra egiten zuten, umeak hilabete izan orduko. Merienda egiten zuten emakumeek, ardo eta guzti. Izenaren esanahia azaltzen du: "lorrian" eramatea, arrastaka eramatea denez, noizbait atsoren bat "lorrian" eraman izanagatik sortutako izena dela dio.

#### **605. Aita-amen zortzi eguneko ezteiak (URN-030/009)**

Umea jaiotakoan ez zela oparirik egiten uste du. Aita-amak ezkondu zirenean, zortzi eguneko ezteiak eman omen zituzten etxean. Jan-edana eta musika eskaini zituzten denentzat. Soinujolea Muntto izan zen. Anekdotak bat kontatzen du.

#### **606. Osaba itsua etxean (URN-030/010)**

Osaba itsutzen hasi eta guztiz itsutu zen. Etxean hartu zuten. Egurra moztu eta etxera ekartzen ere aritzen zen. Anekdotak bat kontatzen du.

#### **607. Osaba itsua, lanean gogor (URN-030/011)**

Osabak, itsua izan arren, asunak moztzen zituen igitaiairekin. Gizon gogorra omen zen. Osabari egindako bihurrikeria kontatzen du.

### **608. Osaba itsua makilarekin beti (URN-030/013)**

Osaba itsua zen eta makila erabiltzen zuen. Ahotsetik ezagutzen zuen jendea. Bihurrikeriak egiten zizkion jendeak mendian.

### **609. Abarka-sokak artile beltzarekin (URN-030/014)**

Etxean erabiltzen zuten txabila aitonaren aitarena zen. Haria egiten zuen bere aitak, abarka-sokak egiteko. Artile beltzarekin egiten ziren. Bartolo artzainak egindako abarkak erakusten ditu.

### **610. Larruzko abarkak nola egiten zituzten (URN-030/015)**

Behi-larruarekin egiten dira abarkak. Nola egiten zituzten zehatz azaltzen du. Abarkak eskuan dituela ematen ditu azalpenak. Kotxeen gurpilekin egindako abarkak asko erabiltzen ziren, nahiz eta oso deserosoak izan.

### **611. Amantarrak nola jantzi (URN-030/016)**

Amantarrak nolakoak ziren eta nola jantzen zituzten azaltzen du zehatz. Pasarte bat kontatzen du.

### **612. Erlauntzak basoan (URN-030/018)**

Eutzak (erlauntzak) nola egin zituen kontatzen du zehatz. Barrena hutsa zuen enborra erabili zuen. Ordukoa kontatzen du.

### **613. Eztia ateratzeko prozesua (URN-030/019)**

"Putximenta" izeneko tresnarekin ateratzen zuten eztia erlauntzatik. Abaraxka ateratzen zuten. Nola egiten zuten azaltzen du. Abaraxkari eztia sutondoan ateratzen zioten, estutuz, eta ondoren trapu batean iragazten zuten. Argizaria kandelak egiteko erabiltzen zuten.

### **614. "Bertan-bertan" esaera erleentzat (URN-030/020)**

"Bertan-bertan" esaten zioten erle-semeari erlauntzan sartzeko. Pinudiengatik erleek ez zuten izaten erlauntza non egin.

### **615. Erleekiko zaletasuna familian (URN-030/021)**

Aitonak erleak zituen eta lurrezko ontzietan gordetzen zuen eztia. Aitari eta berari erlearen zitzadarengatik gorputza handitzen zitzaiela dio. Pasarte bat kontatzen du.

### **616. Ferietan jeneroa banatzen ibiltzen zen aita (URN-031/002)**

Tolosan bikote frantses bat zegoen; galerarekin eta hiru zaldirekin joaten ziren jeneroa banatzera ferietan. Haiek erretiroa hartu zutenean, Patxiren aitak hartu zuen lan hori. Handik gutxira, kamioia erosi zuen banaketa hura egiteko.

### **617. Aitak gerran kamioia galdu (URN-031/005)**

Aitak kamioi handiagoa erosi zuen ganadu gehiago eraman ahal izateko, eta pixkanaka indarra hartzen hasi zen. Gerra etorri zenean, Donostiako hipodromoa hegazkinak aireratzeko prestatu zuten. Patxiren aita han ibili zen laguntzen; gerora, gerrara eraman zuten aita kamioi eta guzti, baina kamioia galdu zuen.

### **618. Francoren garaian, lana bilatzeko zailtasunak (URN-031/006)**

Aitak gerran galdu zuen bere kamioia, eta berriro moldatu behar izan zuen bizibidea ateratzeko. Lagun bati esker lortu zuen lana, Francoren aldekoak ez zirenek zailtasun gehiago baitzituzten lana topatzeko. Azido sulfurikoa garraiatzen hasi zen kamioi batean, eta behin kamioiak su hartu zuen. Hala ere, aitak ez zuen lana galdu.

### **619. 9 urterekin lanean, baina eskolako maisuak ikasten laguntzen zion (URN-031/009)**

Gerra garaian, Patxiren familia amaren senideen etxeetan banatuta egon zen. Gerra bukatutakoan, etxera itzuli ziren. Handik berehala, 9 urte zituela, Urnietako jatetxe batean hasi zen lanean; 14 urtera arte han ibili zen. Eskolako maisua taberna hartan egoten zen apopilo, eta arratsaldean Patxi harekin joaten zen eskolara.

### **620. Eliz mutil izan zenekoa (URN-031/010)**

Eliz mutil sartu zen. Goizeko 6etan izaten zen meza egunero; garai hartan 4 apaiz ziren Urnietan, eta txandaka ematen zituzten mezak goizetan.

### **621. Eliz mutila bai, baina ez inozoa (URN-031/012)**

Lehen, udan, arratsaldeetan gari-bedeinkatzea izaten zen. Patxi eliz mutil zebilela, gari-bedeinkatze batean gertatutakoa kontatzen du: gosetea zen orduan, eta baserrietan janaria ematen zuten uzta bedeinkatzeagatik; apaizak disimuluan Patxi bidali egin zuen eta hurrengo egunean Patxik kontuak garbi utzi zizkion.

### **622. Uztak bedeinkatzen ibiltzen zirenekoa (URN-031/014)**

Uztak bedeinkatzeko zer egiten zuten azaltzen du. Hori egitean, baserritarrek pribatuan egiten zioten bisita apaizari baserriko janariren bat emateko.

### **623. Hiru kategoriatako hiletak (URN-031/015)**

Eliz mutila zenean, lau meza izaten ziren egunean. Hiletak hiru kategoriatakoak izaten ziren: zenbat eta gehiago ordaindu, orduan eta kategoria eta apaiz gehiago zituen hiletak.

### **624. Hilkutxarekin okerreko bidea hartu eta atzera egin behar (URN-031/017)**

Behin emakume bat hil zenean, okerreko bidea hartu zuten, eta atzera egin behar izan zuten.

### **625. Hiletako kanpaiak eta ohiturak (URN-031/018)**

Hilkutxa herrira iristen zenean, apaiza eta lau lagun zintekin etortzen ziren. Norbait hil bezain pronto, hil-kanpaiak jotzen ziren, eta oso tristea izaten zen hura entzutea. Haurrak hiltzean, kanpaiak beste era batekoak izaten ziren. Gorputza kalera iristen zenean elizara sartzeko, kanpai bereziak jotzen ziren.

### **626. Hilkutxak eta hilobiak (URN-031/020)**

Elizan aldare nagusiaren barruan jartzen zen hilkutxa. Hilobiak lurrean sartzen ziren, eta gerora hasi ziren panteoiak eta horma-hilobiak egiten. Hildakoaren ingurukoek meza-dirua emateko ohitura zegoen lehen ere.

### **627. Hiletaren ondorengo hamaiketakoa eta lutoa (URN-031/022)**

Hiletaren ondoren, hamaiketakoa izaten zen. Elizkizuna goizean izaten zen, 10ak aldera. Lutoa eramaten zuten familiakoek.

### **628. Lutoaren epeak (URN-031/024)**

Lutoaren epeak nola izaten ziren aipatzen du Patxiren emazteak. Lutoan beltzez jantzi behar izaten zen. Umeak hiltzen zirenean ez zen lutoa eramaten.

### **629. Jatetxetik Andoainera lanera (URN-031/026)**

14 urtera arte ibili zen lanean jatetxean. Handik Andoainera joan zen lanera, nahiz eta nagusiak lan-baldintzak hobetuko zizkiola eskaini zion.

### **630. Andoainen arotzeria ikasten zebileneko lan-baldintzak (URN-031/027)**

Andoainen 3 urte ibili zen lanean: astero jasotzen zuten jorjala eta larunbatetan ere lan egiten zuten. Arotzeria ikasi zuen bertan. Han zegoela hasi ziren "sábado inglés" egiten. Patxik, hala ere, lan egiten zuen larunbat gauetan Andoaingo lantegitik kanpo, baratzean.

### **631. Andoaingo beste lantegi batera, lan-baldintza hobek zituela (URN-031/028)**

17 urte inguru zituela, Andoaingo beste fabrika batera joan zen lanera. Lantegi hartan paperaren pasta egiten zen. Soldata hobea jasotzen zuen han.

### **632. Soinua jotzen han eta hemengo erromerietan (URN-031/029)**

Soinua jotzen ibiltzen zen gaztetan. Maisua Donostiakoa zen, eta gerora bakarrik moldatzen zen. Bileratan zer-nolako giroa izaten zen azaltzen du. Patxi bizikletaz joaten zen bileretara, eskusoinua bizkarrean hartuta; geroago, autobusez joaten zen. Bilera haietan estilo ugaritako dantza egiten zen. Erromeria arratsaldeko 5etatik 9etara izaten zen. Mutilak bileran geratzen baziren, 11k arte ere gelditzen ziren soinua jotzen. 200 pezeta eta otordua ordaintzen zizkioten bileretan jotzeagatik.

### **633. Neska-laguna ezagutu eta pixkanaka soinua jotzeari utzi (URN-031/031)**

Patxik emaztea nola ezagutu zuen azaltzen du. Dantza egiteko eskatu zion, ilunabarrera arte elkarrekin egon ziren; hortik aurrera, poliki-poliki ateratzen hasi ziren. Lehen errespetu handia zegoen neskekiko harremanean. Azkenean, soinua jotzeari utzi zion neskekin egoteko.

**634. Antonio Pavón Rodríguez beti gogoratzeko moduan (URN-031/032)**

Soldadutza Donostian egitea tokatu zitzaion. Asteburuetan libre izaten zenean, etxera itzultzen zen. Soldadutzan behin jarri zioten zigorra aipatzen du.

**635. Soldadutzan zegoela sos batzuk ateratzen, igeltseroei laguntzen (URN-031/033)**

Soldadutzan barrakoietan egoten ziren. Soldadu batzuk kabo izaten ikasteko aukeratu zituzten. Arratsaldeetan, libre zegoenean, etxe inguruan lanean zebiltzan igeltsero batzuei laguntzen zien diru truk.

**636. Soldadutzan zegoela, ezkontza batean soinua jotzera joateko izandako komeriak (URN-031/034)**

Behin Arantzazura joan behar zuen ezkontza batean soinua jotzera; soldadu zegoen garai hartan eta guardia egiteko txanda jarri zioten juxtu egun hartan. Azkenean, ezkontzara joateko nola moldatu zen azaltzen du.

**637. Kabo izatetik kabo lehena izatera (URN-031/035)**

Soldadu zegoela, kabo ugari aukeratu zituzten kabo lehena izaten ikasteko. Hala, igo egin zuten Patxi ere eta soldata jaso zuen.

**638. Obran lanean anaiarekin eta bere kontura (URN-031/037)**

16 urte inguru ibili zen obratan lanean anaiarekin batera. Oso desberdinak ziren anaia eta bera, eta bere kontura hasi zen orduan lanean. Pixkanaka lana ugaritzen joan zitzaion. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

**639. Drogeria ireki eta 27 urte bertan lanean (URN-031/038)**

Obran lanean zebilela, drogeria ireki zuen. Han lan asko egin zuten emazteak eta berak. 27 urte pasa dituzte hor. Inguruan merkataritza-gune handiak ireki zituztenean, ordea, kalte handia egin zion herriko merkatarari txikiei.

**640. Txondorrak egitera etxetik janda (URN-031/041)**

Umetan txondorrak egitera joan aurretik, etxean zerbait jaten zuen, goserik ez pasatzeko gero.

**641. Txondorrak egiteko prozesua (URN-031/042)**

Txondorrak nola egiten zituzten eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

**642. Josten ikasi eta gustura aritu (URN-032/003)**

14 urte zituela, mojen eskolatik atera, eta josten ikasten aritu zen izebarekin. Alfa makina erosi zuten propio beretzat. Bordatzea jostea baino gehiago gustatzen zitzaion. Bere lanekin erakusketa egin izan du. Arreo ugari bordatu izan ditu Agurtzanek. Arreoan zer sartzen zen azaltzen du.

### **643. Izebarekin josten ikasten aritu zeneko giroa eta lanak (URN-032/005)**

Izebarengana baserrietako neska asko joaten ziren josten ikastera. Orduko giroaz hitz egiten du. Lehen, baserrietatik zer enkargu izaten zituzten aipatzen du. Agurtzane askotan joan izan da Donostiara izebari materiala erosten laguntzera; orduko dendak.

### **644. Defuntuentzako prestatutako jantziak (URN-032/006)**

Defuntuak janzten aritu izan da Agurtzane. Telak beraiek erosi eta jantziak beraiek egiten zituzten; goizetik arratsalderako prest egon zitezen, gorpua dotore janzteko. Beraien etxean mugimendu handia egon izan da beti.

### **645. Bere ezkontzako arrea (URN-032/009)**

Agurtzaneren ezkontzako arrea nolakoa izan zen azaltzen du.

### **646. Tela lantzeko moduak (URN-032/013)**

Tela nola almidoitzen zuten azaltzen du. Komunioko jantziek parpailak izan ohi zituzten.

### **647. Ezkontzako soinekoak eta apaingarriak, lehen (URN-032/014)**

Lehen, ezkontzako soinekoak beltzak izan ohi ziren. Orduko soinekoak deskribatzen ditu. Ezkontzako kapelak alokatu egiten zituzten Donostian. Lore-sorten bila Agurtzane joaten zen Donostiara. Lehen, telefonorik gabe moldatzen ziren, sinestezina badirudi ere.

### **648. "Ikusten dezu" abestia (URN-032/020)**

"Ikusten dezu" abesten du.

### **649. "Laka", errotariaren soldata (URN-033/002)**

Trankatx baserrian jaio zen. Baserri txikia zen. Errota ere bazen. Astoarekin etortzen zen jendea ialde guztietatik. "Laka" kentzen zitzaion zorro bakoitzari, % 10, ordain gisa. Ez zuten dirutan kobratzen.

### **650. Harria ondo pikatu behar irin ona egiteko (URN-033/007)**

Trankatx eta Errotaberri ziren Urnietako errotak, baina jendeak Trankatxera nahi izaten zuen. Harria ondo pikatuta eduki behar da irin ona egiteko. Oartzuar bat ibiltzen zen harri pikatzen. Oso artetsua ei zen. Harria pikatzeko tresnez. Bi harriak berdin pikatzen dira. Lan zaila omen da oso.

### **651. Harriak artorik gabe geratzea, arriskutsua (URN-033/008)**

Urak nola mugitzen duen errotarria. Artoa aska batetik erortzen da harrietara. Artorik gabe geratzen zenean tak! hotsak ugaritu egiten dira eta harriak gastatu egiten dira. Kontuz ibili behar.

### **652. Urnietatik Donostiara saltzera (URN-033/011)**

Bere denbora guztian Donostiara joan dira esnearekin eta barazkiekin, trenean. Jende asko joaten zen eta hamar minutu behar izaten zituen

gutxienez trenak abiatzeko. Donostiako geltokian karretero batek gurdian hartu eta gizonak berak tiratuta eramaten zuen jeneroa San Martin plazara. Buruan ere eramaten zuten karga.

### **653. Erdaraz ez jakitea arazo nagusia Donostiara saltzera joandakoan (URN-033/013)**

Arreba edo emaztea joaten ziren Donostiara. Bera ere bai, emazteak umea izaten zuenean. Emakumeen lana zen gehienbat. Ez zen lan txarra, baina erdaraz ez jakitea zen arazoa Donostiara saltzera joandakoan.

### **654. Maisu gaiztoa (URN-033/019)**

Maisu oso gaiztoa zuten. Arrautza jaten ikusten zuten eta inbidiatan egoten ziren ikasleak. Makilaz ematen zieten. Ez zen gaiztakeria handia egin behar zigortua izateko.

### **655. Gerra hasiera Urnietan (URN-033/023)**

Gogoan du Urnietara gerra heldu zen eguna; jaiegun batez herri aldetik soldadu talde bat sartu zen. Etxera etorri, sabaiko belarra ukuilura ekarri eta haren gainean egin zuten lo: ofizialek logeletan; eta baserrikoek, ahal zen bezala, lurrean. Zortzi egun pasatu zituzten. Arrantxoa nola prestatzen zuten. Hildakoak eta bonbak.

### **656. Bi fronteak Urnieta aldean (URN-033/024)**

Gailegoak omen ziren soldaduak. Cara al Sol kantatzen zuten. 14 urte zituen orduan. Bera baino bi urte zaharragoak gerrara joan ziren geroago. "Gorriak" Santa Barbara aldean eta frankistak Urnietako mendietan zeuden.

### **657. Hainbat fusilatu Urnietan (URN-033/025)**

Hainbat fusilatu izan ziren Urnietan, dozena bat inguru, aita-semeak tartean. Ezinikusi handia zegoen nazionalisten eta karlisten artean. Orain horrela da, eta lehen ere bai. Frankistek herri bat hartzen zutenean, festa izaten zen herrian eta sekulako jende pilak biltzen ziren.

### **658. Tolosatik gora euskara aldatzen da pixka bat (URN-033/033)**

Azkeneko urteetan ikasi du erdara apur bat; soldadutzara joan zenean ez zekien batere. Tolosatik gora hasten da euskara apur bat aldatzen. Oiartzun aldean ere ezberdina da.

### **659. Urnietako Trankatx errotako irudiak (URN-033/036)**

Errotaren irudiak. Hainbat azalpen. Pisuak, alearen aska, errotarriak, astoa lotzeko tokia. Trankatx zergatik deitzen den.

### **660. Euskara, debekuak, batua eta euskalkia (URN-034/003)**

Euskaraz bizi izan da, baina Primo de Riveraren garaian debekua ezagutu zuen. Batuaren eta euskalkiaren arteko iritzia ematen du.

### **661. Eskolako bihurrikeriak (URN-034/005)**

Eskola non zegoen eta zer ikasten zuten azaltzen du. Bihurrikeriak egiten zituzten.



### **662. Saskiak autobusez Donostiara eta Zarautzera (URN-034/008)**

Lanagatik beti ondo ordaindu izan diotela dio. Donostiara eta Zarautzera autobusez bidaltzen zituen saskien enkarguak.

### **663. Gerra, garai txarra (URN-034/011)**

Gerran bi urtez aritu behar izan zuen. Oso garai txarra izan zela dio.

### **664. Euskararen egoera Urnietan (URN-035/002)**

Urnietan gerra aurrean dena euskaraz entzuten zen, baina gero erdaraz egin beharra etorri zen. Euskara baserritarrek eta arrantzaleek mantendu zutela dio. Euskaldunokiko jarrera.

### **665. Garai bateko eta oraingo sagardogintza (URN-035/003)**

Beti egin izan dute sagardoa. Garai batean eskuzko makinak erabiltzen zituzten eta nekagarria izaten zen. Lehen edan gehiago egiten zen botiletan saldu baino. Baserriko lanetan baino, sagardogintzan aritzen dira gehiago.

### **666. Ardoaren eta sagardoaren arteko aldea (URN-035/004)**

Sagar asko daukate. Ardoaren eta sagardoaren arteko aldea azaltzen du.

### **667. Sagardogintzaren geldialdia eta berpiztea (URN-035/006)**

40. hamarkadatik 60.era arte, sagardogintzak geldialdia izan zuela kontatzen du. Sagarrondo asko sartu ziren gero eta sagar asko jasotzen da.

### **668. Sagardotarako eta jateko sagarrak (URN-035/007)**

Bere haurtzaroan, sagarra bi urtetik behin izaten zela dio. Sagardotarako sagarrondoek sagar kilo asko izaten dituzte eta horregatik behar izaten dute urtebetez atsedena. Mahairako sagarra urterokoa izaten da. Sagarraren ezaugarriak.

### **669. Lehengo eta oraingo sagardogintza (URN-035/008)**

Sagardoa eskuz egiten zutenean, astean hamar mila litro jasotzeko lan handia egin behar izaten zuten. Orain nola egiten duten azaltzen du: kopuruak, prozesuak, datak, kupel-motak...

### **670. Egurrezko dolarea nola zaindu (URN-035/009)**

Egurrezko dolarea erabiltzen zutenean izaten zituzten zailtasunak azaltzen ditu. Buztina erabiltzen zuten, sagardoak ez alde egiteko.

### **671. 1945eko sagardo ona (URN-035/010)**

Lehen sagardo txar asko egiten zela dio, baina oso ona ere ezagutu duela, bereziki 1945ekoa. Ordukoa kontatzen du. Sagar askoko garaian, batzuetan ontzi faltan egoten ziren.

### **672. Eguraldiaren eta sagarraren eragina sagardoan (URN-035/011)**

Euri askoko urteetan, sagar ona etortzen dela dio. Mahatsaren beharrekiko desberdina dela esaten du. Sagardo ona egiteko nolako sagarra behar den azaltzen du.

### **673. Autoeskolan lanean (URN-036/001)**

Izen-abizenak. Autoeskolan lan egin izan du beti. Nola hasi zen kontaktzen du. Lan berria nola lortu zuen eta zer lan egin izan dituen ere azaltzen du. Ondo bizi dela dio.

### **674. Ahuntzak gustuko (URN-036/005)**

Ezkondutua zen arte baserrian bizi izan zen. Ahuntzak asko gustatu izan zaizkio beti, eta saldu egiten zituen. Ahuntzaren anekdotak.

### **675. Umetan euskaraz egitea galarazita (URN-036/008)**

Umetan mojetan ibili zen eskolan. Euskaraz eginez gero, zigortu egiten zuten. Dena erdaraz egiten bukatu zuen. Ez daki euskaraz ondo idazten.

### **676. Doroteo Mujikak euskarazko doktrinaren alde egindakoak (URN-037/002)**

Sei urterekin eskolan hasi, eta zazpirekin komunio txikia egin zuen. 10 eta 11 urterekin, "komunio jenerala" egiten zuten. Doktrina euskaraz ikasi zuten. Doroteo Mujika zen orduko gotzaina, eta hark agindu zuen euskaraz jartzeko doktrina. 12 urtera arte ibili zen eskolan.

### **677. Teresa Amuategi emagin estimatua (URN-037/004)**

Senide gehienak etxean jaio ziren. Emagina zegoen garai hartan, eta oso estimatua zen. Gerora, fabrika sartu zen lanean, erizain. Orduan, jendeak pena handia hartu zuen. Emakume harrigarria zen. Teresa Amuategi zuen izena.

### **678. Baserriko lanak eta jeneroa (URN-037/007)**

Artoa, babarruna eta garia lantzen zituzten etxean. Orduko neurriak aipatzen ditu. Pixkanaka, garia egiteari utzi zioten, baserriko lanak aldatu egin baitziren. Orduko lanen gorabeherak aipatzen ditu.

### **679. Lurra lantzeko tresnak (URN-037/010)**

Lurra lantzeko zer tresna erabili izan dituzten azaltzen du: area, karramarroa... Nola funtzionatzen zuten.

### **680. Lurra biratzeko, laia (URN-037/011)**

Lehen, laia sagastietan lan egiteko erabiltzen zuten. Urnietako baserri batean, laiarekin biratzen zuten lurra. Lurra nola biratzen zuten azaltzen du.

### **681. "Rastra" sistema (URN-037/012)**

"Rastra" sistemak nola funtzionatzen duen azaltzen du.

### **682. Besabea (URN-037/013)**

Besabeak zertarako balio zuen azaltzen du.

### **683. Lau hortzeko besabea (URN-037/014)**

Lau hortzeko besabeaz hitz egiten du.

### **684. Hondarrezko baratzeak (URN-037/016)**

Astigarragako baratzeetako lurak oso harroak dira. Garai batean, ganaduen azpietarako hondarra Urumeatik ekartzen zuten; nola ekartzen zuten azaltzen du. 11 urte zituela, Olatxo Donostiako lurretan zegoen; eta hango soroak harrigarriak ziren, hondarrezkoak baitziren.

### **685. Simaur motak eta haien onurak (URN-037/017)**

Donostiako kale-simaurrak, garai batean, baserrietara ekartzen zituzten. Olatxoko erriberetan, arto asko egiten zuten; eta kale-simaurraz baliatzen ziren horretarako. Ganadu-simaurra baratzeetarako izan ohi zen.

### **686. Artzainarekin, erdara nahitaez ikasi behar (URN-037/019)**

1935eko negua artzainarekin pasa zuen. Artzain hura Zigordiakoa zen, eta haren morroia Arabakoa. Biak erdaldunak ziren, eta Isidorok hitz bat ez zekien erdaraz; hala ere, berehala ikasi zuen. Ingurukoak harrিতuta geratu ziren erdara nola ikasi zuen ikusita.

### **687. Erdara ikastearen poza (URN-037/021)**

Behin, artzainarekin Lazkaora joan zen Isidoro. Izan ere, erdara ikasten zuen harekin, eta gustura ibiltzen zen.

### **688. Senideak gerran edo gaixo, eta bera etxera (URN-037/023)**

Gerra hasi zenean, hiru anaia eraman zituzten gerrara deialdi bakarrean. Arrebak karbunkoa harrapatu zuen, eta ez zen gai behiak jezteko. Orduan, Isidoro Aierdin zegoen morroi, eta etxera itzuli behar izan zuen laguntzera.

### **689. Etxeak egiteko harria (URN-037/025)**

Kontralistek etxegintzako materiala nondik lortzen zuten azaltzen du. Behin, harria kargatzen ari zirela, istripua gertatu zen.

### **690. Lanean jai eta beste lan bat bilatu (URN-037/026)**

Etxe bat berritzeko lanetan peoi zebilela, lan-istripua egon zen, eta egun batzuk jai izan zituzten orduan. Egun horietako batean, Isidoro eta bere anaia bonba-fabrikara joan ziren lan eske; eta lortu, gainera. Gerra bukatu zenean, ordea, langile erdiak kalera bota zituzten; horietako bat, Isidoro.

### **691. Morroi ez, tornulari izateko nahia (URN-037/027)**

Bonba-fabrikari lanean aritu ostean, Isidorok erabaki zuen ez zela gehiago morroi joango; tornulari izan nahi zuen. Aitak, ordea, nahiago zuen Isidoro okin izatea.

### **692. Okin izateko ikasteko leku bila (URN-037/028)**

Isidoro hara eta hona ibili zen okin izateko ikasteko leku bila. Azkenean, lortu zuen. Okinen patronalean aprendiz izateko hartu zuteneko eguna gogoan du.

### **693. Lasarteko lurren historia (URN-037/029)**

Oria Urnietako lurretan zegoen garai batean. Lasarte, lehen, Urniet, Hernani eta Usurbilgo lurretan zegoen. Gerora, herri bihurtu zen.

### **694. Mundua ikusteko gogoarekin, beste lan batzuen bila (URN-037/031)**

San Isidro egunean hasi zen okinen patronalean aprendiz. Soldadutza bukatu ostean, ordea, okintzako lana uztea erabaki zuen. 67 urteko lankide bat hil egin zen lanean zebilela; eta horrek zer pentsatua eman zion. Mundua ikusteko gogoak zeukan, eta probatzeko nahia. Horrela, koinatuarekin hasi zen lanean, mendietako hondarra ateratzen Buruntzan. Hondar horrekin fundizioetako moldeak egiten zituzten Beasainen. Hango lan-baldintzak okinarenak baino askoz hobekak ziren.

### **695. Esnea saltzea ogibide bihurtu zitzaioneko (URN-037/032)**

Mendietako hondarra ateratzen zebilela lanean, arrebak bigarren haurra izan zuen; orduan, Isidorok hartu zuen arrebaren lana, eta esnea banatzen hasi zen Donostian. 62 litro banatzen zituen bezeroen artean. Diru-kontuak egin zituen, eta eguneko 32 pezetako jornala jaso zezakeela kalkulatu zuen. Esnea autobusean eramaten zuen; eta bizikleta eta gurdiaekin banatzen zuen etxetik etxera.

### **696. Esnea saltzen batetik bestera, ikuskatzailea etorri zitzaion arte (URN-037/033)**

Esnea saltzen zebilen garaian, lanez gainezka ibiltzen zen. Kotxerik ez zuenez, denera ezin iritsi ibiltzen zen. Egun batean, ikuskatzailea etorri zitzaion San Martin plazan, eta salatu egin zuen. Handik aurrera, esnezaleen gremioan sartu behar izan zuen, legea bete zezan.

### **697. Esnea pasteurizatzeko legearen ostean, Gurelesa sortu (URN-037/034)**

Esnezaleen gremioan, hilean behin, bilera izaten zuten. Okendo kaleko etxabe batean elkartzen ziren. Hala, zenbait urteren ostean, 1954an, lege bat atera zen Espainian, esnezaleek saltzen zuten esneak pasteurizatuta egon behar zuela arautuz. Lege horren ondorioz, Gurelesa esne-zentrala sortzea erabaki zuten. Isidorok zentralean parte hartzea erabaki zuen.

### **698. Gurelesaren lehenengo fabrika (URN-037/036)**

Esne-zentrala sortu zutenean, 12 kidek erabaki zuten proiektu horretan parte hartzea. 24.000 litro esneko ekoizpena zuen fabrika esleitu zieten.

### **699. Esne-zentrala eraikitzeko gorabeherak (URN-037/037)**

Esne-zentrala eraikitzeko gorabeherak kontatzen ditu: non eraiki, nork, nola, zenbatean...

### **700. Gurelesaren hasierako giro zaila (URN-037/040)**

Jendea Gurelesaren aurka matxinatu zen hasieran. Orduan, Tolosatik Iruna bitarteko baserritarrei esne freskoa saltzeko baimena eman zieten. Baina, gerora, Madrildik lege zorrotza etorri zen, esne-zentralen alde egiten zuena. Orduan, oso gaizki ikusia egon zen Isidoro Urnietan: "baserritarra baserritarren aurka" esaten zioten.

### **701. Gurelesatik "Autoservicio Mujika"ra (URN-037/041)**

18 urte zeramatzala Gurelesan, Astigarragako eremuan lanean, Urnietan lan egiteko agindua jaso zuen. 12 urte eman zituen hor. Gerora, "Autoservicio Mujika" denda jarri zuten; eta 1991-1992an erretiratu egin zen.

### **702. Bonba-fabrikako lanak (URN-037/043)**

Bonba-fabrikan lanean aritu zenean, zer lan-prozesu izaten zuten azaltzen du.

### **703. Tornulari izateko nahia piztu zitzaionekoa (URN-037/044)**

Bonba-fabrikan lanean hasi zenean, bere zeregina izaten zen piezak tornulariari eramatea. Tornularietako bat gerrako presoa zen; gizon horrek abilezia zeukan tornuan; eta, hari begira, Isidorori tornulari izateko nahia sortu zitzaion.

### **704. Haurdunaldian informazioa batzen (URN-038/003)**

2014ean haurdun gelditu zen eta haurdunaldiaz eta, bereziki, erditzeaz irakurtzen eta informatzen aritu zen. Jerusalem Rodriguez zen bere emagina.

### **705. Erditze fisiologikoa izateko erabakia (URN-038/004)**

Amaren esperientziak, emaginak eta ingurukoek eragina izan zuten bere erabakietan. Erditze fisiologikoa nahi zuela erabaki zuen. Etxeko erditzeekin identifikatua sentitu zen, esperientziak ezagutu ahala.

### **706. Erditze segurua (URN-038/006)**

Etxean erditzea erabaki zuenean, oinarria prestatzen hasi zen. Inguruan segurtasunaren berri emateko informatu egin zen. Beretzat, ospitaleko segurtasuna esku-hartzearekin eta azkartasunarekin lotuta daude. Beretzat segurua esku-hartzearen premiarik ez izatea litzateke.

### **707. Etxean erditzean zerk ematen duen segurtasuna (URN-038/007)**

Etxean erditzeko zerk ematen zion segurtasuna zehatz azaltzen du.

### **708. Erditzean artatzen zaituenaren jokabide onena (URN-038/009)**

Erditzean artatzen zaituenak beharrezkoa ez den ezer ez egiten jakin behar duela uste du. Badaezpadako gauza asko egiten direla ospitalean uste du.

### **709. Etxean erditzeko emagin bila (URN-038/010)**

Anbulategiko emaginari proposatu zion etxean erditzeko bere emagin izateko, baina momentu hartan ezin zuen. Etxean erditzeko emaginaren bilaketa nolakoa izan zen kontatzen du. Etxean erditzeko informatutako baimenak jasotzen duena azaltzen du.

### **710. Erditzearen hasierako prozesua (URN-038/011)**

Erditze aurreko prestaketak kontatzen ditu. Erditzearen hasierako prozesua nolakoa izan zen eta emozio handiz bizi izan zuela azaltzen du.

### **711. Emaginen jokabidea erditzera (URN-038/012)**

Erditu aurreko orduak nolakoak izan ziren kontatzen du. Emaginek nola lagundu zioten azaltzen du.

### **712. Haurraren jaiotza nolakoa izan zen (URN-038/013)**

Umea uretan jaio zen eta berak hartu zuen besoetan. Algaraz eta pozez bizi izan zuen. Garaipen moduan bizi izan zuen. Negarrez kontatzen du, emozioz. Orduko emozioak azaltzen ditu. Ahaldundutze ikaragarria izan zela dio.

### **713. Erditzeetan ospitaleetako arretak nolako beharko lukeen (URN-038/014)**

Ospitaleetan zer nolako arreta eskaini beharko litzatekeen azaltzen du; osasunaren alde, ez zerbait gaizki aterako den oinarritzat hartuta.

### **714. Ospitaleetako erditzeak eta patriarkatua (URN-038/015)**

Ospitaleak erditzera zergatik ematen dien emakumeei segurtasuna, azaltzen du. Patriarkatuaren eragina nolakoa den eta ospitaleetan erditzeak noiz eta nola hasi ziren azaltzen du.

### **715. Erditzearekiko uste orokorra (URN-038/016)**

Aurreko belaunaldietako emakumeen gaitasunak anulatu bazituzten, ondorengoek hala jokatzeko normala dela dio. Erditzea ezjakintasunarekin, minarekin eta beldurrarekin lotzen dela dio.

### **716. Erditzeko minarekiko harremana (URN-038/018)**

Erditzeetan esku-hartzeak egitea gizartean erabat zabaldua dagoela dio. Erditzeko minarekin izandako harremana azaltzen du. Epiduralari buruzko iritzia ematen du.

### **717. Erditzei eta emakumeen sexualitateari buruzko ikuspegia (URN-038/019)**

Emakumeek erditzean zehar sakon sentitzeko beldurra izaten dutela uste du. Emakumeen sexualitatearekiko dagoen ikuspegiarekin lotzen du.

### **718. "El parto es nuestro" elkartearekin harremana (URN-038/020)**

Anbulategiko emaginaren gomendioei esker ezagutu zuen "El parto es nuestro" elkartearen berri. Etxean erditzeko erabakia indartzen lagundu zion. Elkarteko kide egin zen.

### **719. Ospitaleetan erditzeekiko ikuspegia aldatu beharra (URN-038/021)**

Ospitaleetako erditzeetan aldaketa eman bada ere, filosofia eta ikuspegia aldatu arte, ez dela errespetuzko erditzerik izango uste du. Oxitozinaren ondorioak ikertu beharra dagoela azaltzen du.

### **720. Hurrengo belaunaldien erditzeak (URN-038/022)**

Etorkizuna hobea ikusten du, belaunaldi berriek gorputzarekin duten harremana aldatzen ari delako.

### **721. Etxean erditzeko eskubidea (URN-038/023)**

Etxean erditzeak bi mila eurotik gorako gastua suposatzen du. Inglaterrako ereduaz azaltzen du. Eusko Jaurlaritzan erreklamazioak jartzen eta Arartekoarekin harremanetan daudela kontatzen du.

### **722. Txanogorritxuren ipuina (URN-039/001)**

Txanogorritxuren ipuina kontatzen du.

### **723. Eskolan ez da lagunarteko euskara irakasten (URN-039/006)**

Euskarako klaseetan ez dela lagunarteko hizkerarik erakusten uste du.

### **724. Gazteek euskaraz aritzeko tresnen beharra (URN-039/008)**

Irakasleak euskara erabiltzeko motibazioan lagundu dezakeela uste du. Euskaraz ari diren gazteek baliabideak badituztela uste du. Gainontzekoei tresnak falta zaizkiela dio. Kontzientzia baino gehiago behar dela dio.

### **725. Hitanoaren transmisio etena (URN-039/009)**

Gazteek ez dute Urnietan hitanoz egiten. Transmisio etenaz hitz egiten du.

### **726. Etorkinen hizkuntza-ohiturak (URN-039/010)**

Portugaldarrak etorri arte euskaraz egiten zela dio, baina haiek ez direla erabat integratu azaltzen du. Bertakoen jarreraz hitz egiten du. Portugaldarren seme-alabak ikastolara joaten direla eta euskaraz ikasteko aukera bermatzen zaiela dio.

### **727. Funtzionarioen euskalduntzea (URN-039/013)**

Funtzionarioen euskalduntzea beharrezkoa dela dio.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2024-04-15*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com